

Egunean Eguneko

Ebanjelioa

2018 Urtea



Egunean Eguneko
Ebanjelioa

2018 Urtea

Egutegi liturgikoa
Egunean Eguneko Ebanjelioa
Igande eta Jai-egunetan irakurgai guztiak
Otoitzak eta Debozioak

Egunean eguneko iruzkin laburrak gaztelaniaz:
Benjamín González Buelta, S.J.

Testu liturgikoak:
Liturgiarako liburuetatik;
batzuk EABtik;
itzultzailearen ukitu batzuekin.

Mezulari

Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiari egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldaketak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

Liburua eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB.

Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, s.j.

© Mezulari 2017.
Grupo de Comunicación Loyola
Padre Lojendio kalea, 2 zenb.
48014 Bilbo
info@gcloyola.com
www.mezulari.com

ISBN: 978-84-271-4119-3
Lege gordailua: BI-1376-2017
Maketazioa: Rico Adrados, S.L.
Inprimategia: Grafo, S.A.

Aurkibidea

Egutegia 2018	6
Sarrera	7
Festaburuak eta jai mugikorak 2018an	9
Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak:	
Urtarrila	11
Otsaila / Zezeila	67
Martxoa / Epaila	121
Apirila / Jorrraila	205
Maiatza / Orrila	267
Ekaina / Bagila	329
Uztaila / Garagarrila	385
Abuztua / Dagonila	449
Iraila	515
Urria / Urrila	575
Azaroa / Zemendia	631
Abendua	689
Otoitzak eta debozioak	751

URTE LITURGIKOA 2018 B-C URTEKOAK

Asteak	I	AI	A2	A3	O1	O2	L
URTARRILA							
2 Egub. B		1	2	3	4	5	6
1 Egub. B	7	8	9	10	11	12	13
2 Urt. B	14	15	16	17	18	19	20
4 Urt. B	21	22	23	24	25	26	27
4 Urt. B	28	29	30	31			
OTSAILA							
»					1	2	3
5 Urt. B	4	5	6	7	8	9	10
6 Urt. B	11	12	13	Hau	15	16	17
1 Gar. B	18	19	20	21	22	23	24
2 Gar. B	25	26	27	28			
MARTXOA							
»					1	2	3
3 Gar. B	4	5	6	7	8	9	10
4 Gar. B	11	12	13	14	15	16	17
5 Gar. B	18	19	20	21	22	23	24
Aste San.	25	26	27	28	OS	OS	LS
APIRILA							
1 Pazk. B	Pazk	2	3	4	5	6	7
2 Pazk. B	8	9	10	11	12	13	14
3 Pazk. B	15	16	17	18	19	20	21
4 Pazk. B	22	23	24	25	26	27	28
5 Pazk. B	29	30					
MAIATZA							
»			1	2	3	4	5
6 Pazk. B	6	7	8	9	10	11	12
7 Pazk. B	Igok	14	15	16	17	18	19
7 Urt. B	ME	21	22	23	24	25	26
8 Urt. B	27	28	29	30	31		
EKAINA							
»					1	2	
9 Urt. B	3	4	5	6	7	8	9
10 Urt. B	10	11	12	13	14	15	16
11 Urt. B	17	18	19	20	21	22	23
12 Urt. B	24	25	26	27	28	29	30

Asteak	I	AI	A2	A3	O1	O2	L
UZTAILA							
13 Urt. B	1	2	3	4	5	6	7
14 Urt. B	8	9	10	11	12	13	14
15 Urt. B	15	16	17	18	19	20	21
16 Urt. B	22	23	24	25	26	27	28
17 Urt. B	29	30	31				
ABUZTUA							
»				1	2	3	4
18 Urt. B	5	6	7	8	9	10	11
19 Urt. B	12	13	14	15	16	17	18
20 Urt. B	19	20	21	22	23	24	25
21 Urt. B	26	27	28	29	30	31	
IRAILA							
»							1
22 Urt. B	2	3	4	5	6	7	8
23 Urt. B	9	10	11	12	13	14	15
24 Urt. B	16	17	18	19	20	21	22
25 Urt. B	23	24	25	26	27	28	29
26 Urt. B	30						
URRIA							
»		1	2	3	4	5	6
27 Urt. B	7	8	9	10	11	12	13
28 Urt. B	14	15	16	17	18	19	20
29 Urt. B	21	22	23	24	25	26	27
30 Urt. B	28	29	30	31			
AZAROA							
»					1	2	3
31 Urt. B	4	5	6	7	8	9	10
32 Urt. B	11	12	13	14	15	16	17
33 Urt. B	18	19	20	21	22	23	24
34 Urt. B	KE	26	27	28	29	30	28
ABENDUA							
»							1
1 Aben. C	2	3	4	5	6	7	8
2 Aben. C	9	10	11	12	13	14	15
3 Aben. C	16	17	18	19	20	21	22
1 Egub. C	23	24	25	26	27	28	29
2 Egub. C	30	31					

LABURDURAK: A1 = astelehena • A2 = asteartea • A3 = asteazkena • Aben = abendualdia • Aste San. = aste santua • Cor = Corpus eguna • Egub = eguberrialdia • Gar = garizuma • HE = hausterre eguna • I = igandea • IG = Jesusen Igokundea • JB = Jesusen Bihotza • L = larunbata • Men = Mendekoste igandea • O1 = osteguna • O2 = ostirala • OS1 = ostegun santua • OS2 = ostiral santua • Pazk = pazkoaldia • Urt. = urteko • JB = Jaunaren Bataioa.

EKUMENISMOA ATE JOKA

Irakurle lagunok:

“Egunean Eguneko Ebanjelioa” urteroko liburutxoak aurrera darrai. Harrera gero eta handiagoa da, bai liburuen salmentari dagokionez bai on-line-ren bidez. Ekimen honetan parte hartzen dugun guztiok pozik gaude. Aurtengo edizioan handitu egin dugu sarritan eskatzen diguzuen letra tamaina, nahiz eta beste arlo batzuetan murriztu beharra izan, orrialde gehiegi ez izateko eta liburutxoia sobera lodi ez ateratzeko.

Azalaren argazkia TAIZÉ elkarte ekumenikoarena da eta sarrera honen izenburutzat EKUMENISMOA ATE JOKA aukeratu dugu. Azken urteotan, Martin Lutero lekaideak Alemaniako Wittenberg-eko elizaren atarian jarri zituen 95 tesien inguruan, asko mintzatzen eta hitz egiten ari gara. 1517ko urriaren 31tik eliza katolikoan erreforma gogo biziki zabaltzen hasi zen. Harez gero eta Martin Luteroren erreformari jarraituz, kristau-eliza ugari joan ziren agertzen munduko edozein txokotan.

Gorrito, erlijio guda, elkarren suntsipen etab. asko gertatu ziren. Vatikanoko II.a kontzilioarekin, eliza katolikoa urrats garrantzitsuak egiten hasi zen elkar ulertze eta onartze aldera. Oztopoak ugari dira. Azken aita santuak saiatu dira bide berriak eta zabalagoak urratzen, baina oraindik fruitu gutxi lortu da. Halere, kristau askoren artean gogo bizia dago batasunerantz,

elkar ulertzerantz jotzeko, Jesus Jaunaren agindua bete nahian: “Izan zaitezte bat”. Kristau elizen batasuna izan liteke eredu, erreferentzia, argi bat, munduko erlijio guztien “ekumenismo globala”ren bidean.

“Ekumenismo txikia” (kristau elizen artekoa) ate joka dugu; batez ere, azken urteotan eliza-buru ugari, Frantzisko aita santu argia tartean, seinale distiratzailleak ematen ari da han eta hemen. Elkarri barkamena eskatzen eta bide berriak elkarrekin jorratzen. Munduak, herriek, elizek elkar ulertu beharra dute, bizikidetza gizatiarra eta jainkotiarra hobeto sustatzeko.

Amaitzeko esan beharra dugu, liburutxo honen ebanjelioen iruzkinak Benjamin González Buelta jesuitak egin dituela. Urte asko Latin-amerikan eman ditu nobizio-maisu, probintzia-buru izanik; eta, batez ere, behartsuen munduan eta espiritualtasunean murgilduta. Liburu andana bat idatzia du; horregatik, espero dugu, beraren lantxo hau jakingarria eta motibagarria izango dela. Zuek duzue hitza.

Esker beroak, liburua prestatu eta euskaratu duen Dionisio Amundaraini ere.

Aurten ere saiatuko gara liburu hau eskegitzen Deustuko Unibertsitateko web orrian: www.deusto.es/cs/Satellite/estudiantes/es/egunean-eguneko-ebanjelioa eta baita ere “Loiola eta Xabierren Lurraldeko jesuitak” web orrian.

Izan ondo!

KOLDO KATXO, S.J.

FESTABURU

ETA JAI MUGIKORRAK 2018an

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren 7a
Hausterre	otsailaren 14a
Jaunaren Piztuera Igandea	apirilaren 1a
Mendekoste igandea	maiatzaren 20a
Hirutasun guztiz Santua	maiatzaren 27a
Corpus Christi	ekainaren 3a
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren 8a
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren 25a
Abendualdiko 1. igandea	abenduaren 2a
Familia Santua	abenduaren 30a

OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2018AN

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren 1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren 6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren 19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren 28a
Santiago apostolua	uztailaren 25a
San Ignazio Loiolakoa (Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren 31
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren 15a
Santu Guztiak	arazoaren 1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduaren 8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduaren 25a




URTARRILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Ebanjelizazioa: **Gutxiengo erlijiosoak Asian**

Asiako lurraldeetan, kristauek, baita beste gutxiengo erlijio-
soek ere, beren fedea aske eta libre bizi ahal dezaten.



Eguberrialdia**JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA****Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna****§ Zenbakiak liburutik 6,22-27.**

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semeei: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak: “Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu. Ager diezazula Jaunak aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa, eta eman bakea”.

Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedeinkatu egingo ditut». Jaunak esana.

[Sal 67 [66]: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.]**§ San Paulok Galaziarrei 4,4-7.**

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betleemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek

Eguberrialdia
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA
Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzaien.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

Urte berria hasi dugu, Jainkoak eman digun bedeinkazioarekin. Lehen irakurgaiak dioenez, geuk ere elkar bedeinkatu (ondo esan) beharko genuke, batak bestea, pertsona eraldatzeko hitz onak duen indarrez. Aldien hasieran, bere hitzaz kreatu zuen Jainkoak mundua.

Jainkoak esan digu, bere seme-alaba gaituela, ez urrunetik esandako hitz batez, baizik eta Jesusengan haragitu den Hitzaz. Hitz hori, entzun bakarrik ez, ikusi ere egin dezakegu beraren gainditu ezineko hurbiltasunean, kontenplatu ere kontenplatu dezakegu keinu bakoitzean dakarkigun salbazio agortezina onartuz.

Gaur, bestalde, Andre Maria Jainkoaren Amaren jaia ospatu dugu. Eguberrialdian geure arreta, nagusiki, Semeari eskaintzen diogu. Baina Andre Mariaren sabelean giza bizitza egin zen Hitzaz, eta Mariak guri eman zigun. Gure bizitzan hitz asko jaulkitzen dira, labanak bezala airea gurutzatzen dutenak, bizia mesprextatuz, zurrunduz, gaitzetsiz eta hilez. Mariak munduari biziaren Hitzaz guztientzat eman zion bezala, geuk ere Jainkoari entzun beharra dugu, geure bihotzean bedeinkazio- eta baskada-hitz berriak garatzeko, urte berri hau esperantza- eta bake-urte izan dadin guztientzat, inor ere baztertu gabe.

Eguberrialdia

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio,
gotzainak eta eliz irakasleak.

[1 Joan 2,22-28: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen.
Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,19-28.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzeraz bidali zizkiotenean.

Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?» Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?»

Eta hark: «Ez». Berririo galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?»

Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietan batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara, ez Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?»

Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiatz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Eguberrialdia

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio,
gotzainak eta eliz irakasleak.

Judu-buruzagiek ordezekoak bidali zizkieten basamortura Joani, han ari baitzen hau konbertsiorako deia egiten, guztientzat salbatzaile zetorren Mesiasi harrera egin ahal izateko. Basamortua urruntasun- eta sormen-leku da, dena ohikeriaz eta keinu ezagunez kontrolatzen den eta mugitzen den lekutik aparte. Guk ere hiri-ertz eta «bizi-periferietara» jo beharko genuke, han geure munduaren gabeziak sumatzeko, eta Jainkoa gaur, guztien salbaziorako, prestatzen ari den berritasuna aurkitzeko. Urtea hastarekin, bihotza ireki behar diogu berritasun honi, jendeagan eta ustekabeko egoeratan datorkigun eta harriaraziko gaituen berritasun honi.

Hogeita hamar urtez ibili naiz
Jainkoaren bila,
eta, denboraldi horren ondoren,
begiak ireki ditudanean,
jabetu naiz
bera zela nire bila zebilena

(Mistiko arabiarra, 875. urtea).

Eguberrialdia

Jesusen Izen guztiz santua, *Jesusen Lagundiko**Goiburua*. Santa Genoveva, *aitorlea*.

1 Joan 2,29–3,6: Harengan dagoenak ez du bekaturik egiten.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz».

Eta aitormen hau egin zuen Joanek: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea».

Joan Bataiatzaileak testigantza egin du, Jesus, orain Espirituaz beterik Jordan ibaira bekatarien artean hurbildu dena, Jainkoaren Semea dela, hasieratik bazena. Bere lehen gutunean, Joan Ebanjelariak esan digu, Mesias agertuko denean «Jainkoaren antzeko izango garela, den bezala ikusiko dugulako» (1 Jn 3,3). Erronka handi bat dugu: Jesus kontenplatzea, gure zentzuentzat atzemangarri egin baita, gu eraldatzen eta beraren antzeko bihurtzen ari baita. «Hutsunearen aroan» ari gara hori baiesten, zeinetan jende asko Jesusi aurpegira begiratu gabe baitabil espiritualitatearen bila.

Eguberrialdia

Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak)*.
 Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa*.

[1 Joanen 3,7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekatu egiten. Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabiltzate?»

Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua, Igurtzia»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarritz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurretzean «Kefas» izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Bi ikasleek non bizi zen galdetzean Jesusek emandako erantzuna indarrean da gaur egun ere: «Etorri eta ikusiko duzue». Munduan bizi ditugun aldaketa handien aurrean, Jesusengan

Eguberrialdia

Santa Genoveva Torres, *fundatzailea (Anjelikak)*.

Santa Elisabet Ana Seton, *ama familiakoa*.

erantzun berriak bilatu beharrean gara. Horretarako, «Jesusengana itzuli beharra» dugu, Jesus bera den Jainkoaren berritasun agortezina, zeinengana behin eta berriz itzuli beharra baitugu. Gizon egin den Semea kontenplatu gabe, ez dugu aurkituko sekula benetako eraberritzerik Elizarentzat, ezta hitz arnasa-e-maile eta jatorrizkorik ere «anai-arrebarekiko maitasunaren» egiazko adierazpen ere, hau da, kristauaren froga bizirin ere «zuzentasuna gauzatu» nahian dabiltzanentzat.

HAUR GOSETIEN BEGIRADA

Zerbaitek begiradan
jartzen nau errudun gisa;
zerbait du begiradan
ume gosetiak.

Ahantziko zaizkit bere
jazki, orrazkera eta adina;
baina inoiz ezin ezaba
beraren zorrotz begiak.

Beste haurren inozotasuna
nabil hauengan bila;
gosea dagoenean, ordea,
aurkitu ezina.

Zerbaitek begiradan
jartzen nau errudun gisa;
zerbait du begiradan
ume gosetiak. (Arantza Aldalur, 1986).

Eguberrialdia

San Telesforo, 8. *aita santua*.
San Joan Neumann, *gotzaina*.

[1 Joan 3,11-21: Heriotzatik bizira aldatu gara, senideak maite ditugulako. Sal 99: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,43-51.

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu zuen, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe Betsaidakoa zen, Andresen eta Pedroren herrikoa.

Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretakoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Jesusekin topo egin izanaren esperientzia sakona egin duenak, adiskideei kontatzen die esperientzia. Adiskidetasunaren

Eguberrialdia

San Telesforo, 8. *aita santua*.

San Joan Neumann, *gotzaina*.

bidetik joan ohi da berri on hau zabaltzen. Ez da iragarki-kanpaina sofistikatorik, ezta agintarien agindurik ere, alderdi politiko-koen kontsignarik ere; soil-soilik suaren berezko eran eskualdatzen da: hurbiltasunaren kutsaduraz, adiskidetasunaren beroaz, Jesusek berak eta haren proposamenak eragiten duten irrikaz. Ezin ordezkatu du ezerk ere topo egitearen egia, topo egite horretan eskualdatzen den kreazio berria.

GOGOETA OTOITZA

Jaun ona,
irakats iezadazu,
tolerantzia indarraren mailarik gorena dela;
mehatxu-desioa, berriz, ahuleriaren lehen agerpena.
Dirurik gabe uzten banauzu,
utz iezadazu itzaropena;
arrakastarik gabe uzten banauzu, berriz,
utz iezadazu nahimen-indarra,
porrota gainditzeko.
Osasunaren dohaina kentzen badidazu,
emadazu fedearen grazia.
Norbaiti min egiten badiot,
emadazu, «barka!» esateko kemena,
eta jendeak min egiten badit,
emadazu barkatzeko eta erruki izateko indarra.
Ene Jainko,
ni zutaz ahaztu banendi,
zu ez zaitez nitaz ahaztu. Amen.

(Arantzazu egutegia 2016-11-29)

6

Larunbata / Zapatua

URTARRILA

JAUNAREN AGERKUNDEA

Erregeen Eguna: Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

Santa Rafaela Maria Porras, *fundatzailea*
(*Bihotz Sakratuaren Mirabeak*).

§ Isaiasen liburutik 60,1-6.

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunpeak estalia du lurra, gau beltzak estaliak ditu herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko. Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak. Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak.

Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirrarez eta zabaldurik duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

[Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.]

§ San Paulok Efesoarrei 3,2-6.

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaien iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinordekide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,1-12.

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalem-era, galdezka: «Non da jaioberria den juduen erregea? Haren izarra ikusi dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz». Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak:

“Eta zu, Judako Betleem, ez zara, ez, Judako hirietan txikiena; zugandik aterako baita buruzagia, nire herri Israelen errege izango dena”».

Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurraren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan egin ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kutxak irekita, erregalua eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.


Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera..

Epifania hitzak ezkutuan dagoen zerbait agertzea esan nahi du. Jainkoa ikusgarri bihurtu da herri guztientzat gizon egin den beraren Semeagan, Nazareteko Jesusengan. Seme hori artzainei agertu zitzaien lehenik, jaio zen lekuko jendeari, pobreei, eskola-

rik eta famarik gabekoei, gizarte hartan garrantzirik ez zutenei. Ondoren Magoei agertu zitzaizen, atzerritarrei, bidaia luze bat egiteko eta Herodesen jauregian hartuak izateko ahalbidea ematen zieten formazioa eta maila soziala zutenei.

Artzainak konprometitu egin dira Jesusekin, hitz eginez, guztiei hots eginez haren jaiotzaren berri ona. Magoak konprometitu egin dira, isilik geratu eta beren lurraldera itzuliz, baina beste bide batetik, jabetu baitira Herodesen asmo gaiztoez.

Gure erronka gaur egun, errealitate guztian Jesus aurkitzea da, eta harekin, mundu berri bat kreatu nahi duen Jainkoaren erreinuaren dinamismoarekin nola konprometitu bilatzea. Batzuetan, «hitzaren profezia» eta kantuarenaz izango gara haren zerbitzari, artzainak bezala; beste batzuetan, «isiltasunaren profezia», Magoak bezala. Biak lankide izango dira Jainkoaren erreinuaren etorkizunaren garapen pausatu eta oharkabeen.



JAUNAREN BATAIOA

San Raimundo Peñafortekoa, apaiza.

§ Isaias Profetaren liburutik 42,1-4.6-7.

«Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratu, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua; zuzenbidea ekarriko die herriei. Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kana-bera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko.

Zuzenbidea ekarriko du leialki; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte; uharteak haren irakaspenaren zain daude.

Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut, eta eskutik heldu.

Nik eratu zaitut eta izendatu
herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko,
itsuen begiak zabal ditzazun,
giltzapetuak espetxetik askatu
eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

[Sal 28: Bere herria bedeinkatuko du bake emanez Jaunak.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34-38.

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere.

Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue

JAUNAREN BATAIOA

San Raimundo Peñafortekoa, apaiza.

zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joaneke hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,7-11.

Aldi hartan, honela hots egiten zuen Joan Bataiatzaileak: «Nire ondoren dator ni baino ahaltzuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Egun haietan, Galileako Nazaretetik etorri zen Jesus, eta Joaneke Jordanen bataiatu zuen. Eta berehala, uretik ateratze-koan, zerua urratzen ikusi zuen Jesusek, eta Espiritu Santua uso-irudian bere gainera jaisten. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zara nire Semea, nire maitea; Zu zaitut atsegin».

Mesiasen, Jainkoaren zerbitzariaren, ezaugarri handiak deskribatu dizkigu Isaiasek. Espirituaz beterik, zuzentasuna ekarriko du nazio guztietara, ardura izango du zaurituez, «kanabera pitzatuaz eta itzaliko ez itzaliko dagoen metxaz». Berak ez du lur joko. Askatuko ditu presoak eta sendatuko itsuak. Herriaren elkargo izango da, hau da, beragan adiskidetuko da kanpoan aurka zegoena. Ez da izango bitartekari huts, aseptiko eta gatazkan diren alderdietatik kanpo bizi den bat. Apostoluen Eginak liburuak dio, Jesusek, iragarria zen zerbitzari hark, on eginez bizi izan zuela bere mundualdia.

JAUNAREN BATAIOA

San Raimundo Peñafortekoa, apaiza.

Jesusen bataioa aurkeztu digu Markosen Ebanjelioak. Nazaretoko Jesusen tailerrerraino iritsi da Joanen predikuaren zurrumurrua. Hunkiturik sentitu zen Jesus eta Jordan ibai aldera jo zuen. Entzun zion Bataiatzaileari, baita bere zapalkuntza komentatzen ari zen herriari ere, eta bataiatu egin zen bera ere. Jainkoaren Seme gizon egina da Jesus, Espirituaz betea, eta, ondorioz, guztien zerbitzaria. Jainkoaren Seme izatearen eta azkenekoak direnen zerbitzari izatearen artean ez dago inolako kontraesanik; izan ere, gure zerbitzari da Jainkoa. Jainkoaren izaera adierazten du Jesusek. Horixe da gure, Jesusen jarraitzaileon, bokazioa ere. Sakrilegoa izango litzateke Jainkoa luxuzko, urruneko eta handiputz irudika lezakeen keinu oro.

Fede aitormena

Zu baitan sinesten dut,
Jauna, Jainko bakarra.
Bataioari esker zure biziaz bizi naiz.
Azkar ezazu ene fedea,
eta Espiritu Santua igor iezadazu
beti Jesu Kristo zure Semeari jarraik nakion.

(Baionako web orritik hartua)

Urteko 1. astea.

San Apolinar, *gotzaina*. San Teofilo, *diakonoa*.
San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.

[1 Samuel 1,1-8: Penina arerioak gogor iraintzen zuen Ana eta samintzen, Jaunak haurrik ematen ez ziolako. Sal 116 [115]: Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galilearra joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Hone-lazioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona».

Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Galileako aintzira ondoan hasi zuen Jesusek bere misioa, bere eginkizuna. Konbertsioa predikatzen zuen, Jainkoaren erreinua etorria delako berri ona onartu ahal izateko. Esanguratsua da: Jesus ez da ageri lehen unetik beretik ere bakarti bat bezala, guztiok gaintzen gaituzten problemak berek bakarrik aska ditza-keten bideo-jokoetako heroi handietakoren bat bezala. Jainkoaren erreinua iritsi dela hots egitea, elkarte batetik bakarrik egiten ahal da; izan ere, elkartean agertzen da erreinua, bereizten gaituzten aldeak eta mugapenak gorabehera, guztiok adiskidetuz eta elkartuz.

Urteko 1. astea.

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*.

[1 Sm 1,9-20: Jauna oroitu zen Anaz, eta honek Samuel izan zuen. Sal: 1 Sm 2: Jaunagan da nire bihotza poztan, nire salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenez, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gu-rekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horren-gandik!» Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik.

Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!»

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Jesusek nagusitasunez irakasten du, eta ez lege-maisuek bezala. Beste hitz batzuetatik bereizten duen indar bat du Jesuse-nak. Gaurko ebanjelioko topaketa sinagogan gertatu da; mendean daukaten barneko indarren kontra ari da han gizon bat. Jesusek bere hitzaz askatu du gizon hori. Seinalea da, Jesusek

Urteko 1. astea.

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria.*

dakarren bizi berria sinagogako irakaspenen gaintek dagoela, sinagogakoek ez baitakite zer egin gizon horrekin. Gu ere bizi gintezke dinamismo askok mendean harturik, loturik, dela arnasten dugun kultura hau dela medio, dela norberaren historia zauritua dela medio. Jesusek aska gaitzake.

HAR NAZAZU ESKUTIK

Ene Jainko, har nazazu eskutik!
 Deliberatuki jarraituko dizut, kontra-indar handirik gabe.
 Ez diot ihes eginen bizitza honetan
 etor dakidakeen ekaitz bakar bati ere.
 Ene indarren handienarekin eutsiko diot talkari.
 Halere, emadazu inoiz edo behin bake-unetxo bat.
 Ez dut uste izango, xalotasunez,
 datorkidakeen bakea betikoa izango denik.
 Onartuko dut segidan datorkidakeen kezka eta borroka.
 Gustukoa dut bero eta seguru bizitzea,
 baina ez naiz asaldatuko
 hotzari aurre egin beharko diodanean,
 zuk eskutik hartzen banauzu.
 Alde guztietara jarraituko dizut
 eta saiatuko naiz ez beldur izaten.
 Nonahi naizela, maitasun-apur bat distiratzen saiatuko naiz,
 nigan den hurkoarekiko zinezko maitasunetik.

(Etty Hillesum, Egunerokoa...)

[1 Sm 3,1-10.19-20: Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago.
Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagotatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkieten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruak ez ziren uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, artean ilun zela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil».

Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

Oinarrizko bi jardueratan biltzen da Jesusen misioa: erri-
nuaren etorrera iragarri eta,aldi berean, gaixoak sendatu eta

10

Asteazkena / Eguaztena

URTARRILA

Urteko 1. astea.

San Nicanor, *diakonoa eta martiria*.

Dolores Sopeña, *dohatsua (Katekesia Institutuaren fundatzailea)*.

bihotzei esperantza itzuli. Den-denak sentitu dira hunkiturik, eta atsedetik gabe ibiltzen dira haren bila, biziera aldatzen ari baitzaie. Egunsentian etxetik irten eta bakardadera joan ohi da, otoitz egiteko. Aitarekiko bere harremanak ditu bere buruaren erdigune eta bere jardueraren orientabide. Jende guztia dabil haren bila. Jesusek alde egiten badu, arrakasta seguru baten bila ez dabilelako da, baizik eta Galileako azken herrixketara, pobre eta beren abandonuan galdurik direnetera, iritsi nahi duelako.

«Geroa zutaz egina da, topo egiteez ehoa;
izan ere, bizitza harremanen jariora da.
Urte askotako bizitzak gero eta handiagoa
egin dit konbentzimendua:
norberaren bizitza besteenarekin kateatua dagoela:
bizitza ez dela igaro doan aldia,
baizik eta topo egitearen aldia».

(Frantzisko aita santua)

Urteko 1. astea.

San Higinio, 9. *aita santua*.
Santa Honorata, *birjina*.

[1 Sm 4,1-11: Israel menderatu eta Jainkoaren kutxa harrapatu.
Sal 44 [43]: Aska gaitzazu, Jauna, zeure maitasunagatik!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45.

Aldi hartan, legendardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion lehenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten».

Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herri-tan agerian sartu, eta kanpoan gelditu ohi zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Lepradunak hiriez kanpo, bazterrean eta bakardadean bizitzera behartuak ziren. Ezin hurbildu ziren inorengana, eta urrunetik dei egin behar izaten zuten jendea urrunduz zedin, kutsadura saihesteko. Jesus bazter-bideetan ibili ohi zen, eta halako gupida nabari zitzaion non lepradun lege-hausle bat ausartu baitzen harengana hurbiltzera eta senda zezan eskatzera. Jesusek ere gairitu zituen mugak eta aspaldian inoren gozotasunik sentitu ez zuen gorputz gaixo hari gainean jarri zion eskua. Sendatua izan zenak guztiei kontatu zien Jesusekin topo egin eta sendatua izanaren zoriona.

Urteko 1. astea.

San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*.

[1 Sm 8,4-7.10-22a: Oihu egingo duzue, zeuek aukeratu duzuen erregea dela eta; baina Jaunak ez dizue erantzungo. Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,1-12

Zenbait egunen ondoren, Jesus Kafarnaumen sartu zen berriro, eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien.

Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagunen artean. Baina jendetzagatik ezin zuten eraman Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe-gaina zulatu eta zulutik behera eraitsi zuten elbarria, etzanik zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak!»

Baziren han eserita lege-maisu batzuk, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari duk hau horrela? Biraoka ari duk. Nork barka zitzake bekatuak, Jainkoak berak izan ezik?»

Baina Jesusek bere barruan haien gogoetei igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoeta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki, hartu ohatila eta zabilitza” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera”».

Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean atera zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».

Urteko 1. astea.San Arkadio Mauritaniakoa, *martiria*.

Adiskideek maite dute elbarria eta konbentziturik daude, Jesusek eta elbarriak unetxo batez elkarri begirutzen badiote, sendatuko dela. Guztiak harritzeko moduan, Jesusek ikusi du barkazio-premia duen gizona dela. Zer da errazagoa: sendatzea ala barkatzea? Barkatzea ez da batere gauza erraza. Askotan ezinezkoa ere izan daiteke. Jesusek azaldu du bekatuak zurrundu egiten duela bizitza, gaixotu egiten gaituela, desegin. Pertsona osoa saneatzera etorri da bera. Guk ere Jesusek bezala barkatu behar dugu. Badira bizitzak beren osasuna gure barkazioaren baitan dutenak. Zernahi gauza emango lukete barkazio hori lortzeko. Barkazioa ezin eros daiteke, ezin atera daiteke indarrez. Doakoa da, jainkozkoa.

ESPIRITU SANTUARI

Espiritu Santua, nire arimaren arima,
Espiritu Santua,
nire arimaren arima, adoratu nahi zaitut,
argitu nazazu, gida nazazu,
adoretu nazazu, kontsola nazazu,
esadazu zer behar dudan agin,
agertu niri zeure aginduak.
Hitzematen dizut, egingo dudala
nigandik espero duzun guztia;
onartuko dudala gerta dakidan utziko duzun guztia,
egizu, soilik, ezagut dezadala zure nahia.

(Mercier kardinalak)

Urteko 1. astea.

San Hilario Poitiersekoa, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[1 Sm 9,1-4.17-19; 10,1a: Horra Jaunak esandako gizona; Saul izango da Jaunaren herriaren agintaria. Sal 21 [20]: Jauna, zure indarraz pozten da erregea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,13-17

Aldi hartan, Jesus itsasaldera ateratzen zen berriro. Jende guztia berarengana zihoan, eta irakasten hasi zitzairen. Bidez zihoala, Lebi Alfeorena ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eserita, eta esan zion: «Jarrai niri». Lebi zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Lebiaren etxean; bazen beste zergalari eta bekatari asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian; izan ere, asko zihoazkion ondoren.

Fariseuen arteko lege-maisu batzuek, bekatari eta zergalariekin jaten ari zela ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zergalari eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesus esan zien: «Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixok baizik; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatarietara baizik».

Fariseuen buru estuak ezin zuen ulertu, beraien lege-logika eta erritu-urruntasuna zela eta, Jesus zerga-biltzaileak eta izen txarreko jendea bere mahaikidetzat hartzea. Jesus, ordea, hurbildu egin zaie hauei guztiei eta, are gehiago, Mateo zerga-biltzaileari bere elkarte ibiltarira dei egin dio. Jainkoari mugak jartzeko gure saio guztiak, Jainkoa gure bihotz pobre honek aurreikusteko moduko egiteko ahaleginak, lausotu egiten dira Jesusen aurrean. Jainkoa geure bila dabilkigu bekatari garelarik, maite gaituelako, maitasunak bakarrik alda gaitzakeelako barrutik. Horixe da gure zoria eta gure misioa, bizi eta hots egin nahi duguna.

Urteko 2. astea.San Fulgentzio, *gotzaina*.San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*.

§ 1 Samuel 3,3b-10.19.

Egun haietan, Samuel lotara joana zen, Jainkoaren kutxa zegoen Jaunaren santutegian. Jaunak dei egin zion Samueli, eta honek erantzun: «Hemen nauzu». Lasterka Elirengana joan eta esan zion Samuelek: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin; itzuli eta egizu lo». Joan eta lotarako etzan zen.

Jaunak berriro dei egin zion Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Elik erantzun zion: «Ez dizut nik dei egin, seme; itzuli eta egizu lo». Samuelek ez zuen artean Jauna ezagutzen, Jaunak ez baitzion bere hitza inoiz ere adierazi.

Hirugarren aldiz dei egin zion Jaunak Samueli. Hau jaiki eta Elirengana joan zen, esanez: «Hemen nauzu, dei egin baitidazu». Antzeman zion Elik Jauna ari zitziola mutikoari deika, eta esan zion Samueli: «Zoaz lotara eta, norbaitek berriro dei egiten badizu, esan: “Mintza, Jauna; zure morroi hau adi dago”». Itzuli zen Samuel bere tokira eta lotarako etzan zen.

Jaunak, hurbildurik, dei egin zion, besteetan bezala: «Samuel, Samuel!» Eta Samuelek erantzun: «Mintza, zure morroi hau adi dago».

Samuel haziz zihoan, eta Jauna berekin zuen. Ez zen Jaunaren hitz bakar bat ere bete gabe gelditu.

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 6,13c-15a.17-20.

Urteko 2. astea.

San Fulgentzio, *gotzaina*.San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*.

Senideok: Gorputza ez da haragikeriarako, Jaunarentzat baizik, eta Jauna gorputzarentzat. Jainkoak, Jauna piztu zuenak, piztuko gaitu gu ere bere ahalmenaz.

Ez al dakizue zuen gorputzak Kristoren atal direla? Jaunarekin elkartzen dena, espiritu bat bera egiten da harekin.

Egizue ihes haragikeriatik. Gizon-emakumeek egiten dituzten beste bekatu guztiak gorputzetik kanpora gelditzen dira; baina haragikeriazko bekatua egiten duenak bere gorputzaren aurka egiten du bekatu.

Ez al dakizue zuen gorputza Jainkoak eman dizuen eta zuengan bizi den Espiritu Santuaren tenplu dela? Beraz, ez zarete jadanik zeuenak; garesti ordainduz eskuratu zaituzte Jainkoak. Goretsazue, bada, Jainkoa zeuen gorputzaz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabilzate?»

Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen.

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu

Urteko 2. astea.San Fulgentzio, *gotzaina*.San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezikua*.

dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua, Igurtzia»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarriz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurretantzean «Kefas» izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Jendea zerbait berriren bila dabil, hizkuntza erlijiosoak babesten dituzten legeek eta ohikeriek zurrundurik daukaten bizitzaren hesiak hautsiko lituzkeen zerbaiten bila: jende hori bizidun parajetan ibiltzen da Jesus. Andres, Pedro eta Joanek Bataiatzailearen proposamenak aztertzen dihardute

«Maisu, non bizi zara». Joan Bataiatzaileak seinالاتu zuen Jesusen nortasunaz egindako galderaren hasiera da. Alegia, galdetu diote: zein da zure pentsaera?, zer deritzozu gaurko egocorari?, nola sumatzen duzu geroa? Ikusi zuten non bizi zen, arratsaldea berarekin eman zuten eta Jesusi itsatsirik gelditu ziren, haren bidez Jainkoak inspiratzen zuen ordezkari biziera bat bilatzeko. Lehen une horretatik aurrera, elkartearen sare osoa gauzatzen joango da, kezka eta aurkikuntzak partekatzen dituzten adiskideen topaketekin. Ez da hor ikasitako erretorikarik, baizik eta pertsona bat kontenplaztea da arazoa eta kutsatzen duen bizitzari begiratzea. Egitasmoa eratzen eta moldatzen duten kontakterak partekatzen dituzte. Bakoitzak bere izaeraren arabera erreakzionatzen du, eta horrela aurkitzen du bere bokazioa, nola den deitua bere berezitasun propioaren ekarpena egitera, norberaren bizitzaren hasieratik Jainkoak zaintzen eta arnasten duen bokazio hurra. Bokazioa ez da erlijiosoena, mojena eta apaizena bakarrik. Nork bere bokazioa du, bere bizitzaren ñabardura ordezkazinarekin ekarpena egiteko.

San Paulo, *ermitaua*. San Mauro, *abadea*.
San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea (Verbo
Divino konkregaziokoak)*.

[1 Sm 15,16-23: Hobe da Jaunaren esana egitea, opariak eskaintzea baino. Baztertu egin zaitu Jaunak erregetzatik. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,18-22.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten. Jesusengana joan eta esan zioten: «Nolatan egiten dute barau Joanen ikasleek eta fariseuek, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituek egin ote dezakete barau, senar berria berekin dutelarik? Senar berria berekin duten bitartean, ez dezakete barau egin. Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten; bestela, adabaki berriak jantzi zaharra behartu, eta zarratada handiagoa egiten da. Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardoak zahagiak lehertu egingo lituzke eta, orduan, ez ardo eta ez zahagi. Ardo berria zahagi berritan».

Jesusen elkarteak eta adiskideak estreinaldi baten poza bitziten ari ziren. Atentzioa ematen zuen poz hark. Senargaiaren adiskideek ezteietan izan ohi dutenarekin alderatu du Jesusek poz hori. Sortzen ari den zerbaiten berritasuna azpimarratu du Jesusek, ez du oihal zahar bat berri batekin konpontzeko asmorik, ezta ardo berria zahagi zaharretan sartzeko ere. Ezteietan jantzi berri bat estreinatu ohi da, eta ardo berriarekin topa egiten. Berritasuna eta poza funtsezko terminoak dira une horretan. Ez da errituzko barau egiteko garaia. Etorriko dira egun soil eta zailak. Ebanjelioa pozik sortzen, hartzen eta hots egiten da.

Urteko 2. astea.

San Martzelo 1.a, 30. *aita santua, eta martiria.*

[1 Sm 16,1-13: Samuelek gantzutu egin zuen David beronen anaiei aurrean. Eta Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen. Sal 89 [88]: David neure zerbitzaria aurkitu dut.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2,23-28.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi: «Nolatan ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena?»

Hark erantzun: «Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharaldi batean, bera eta bere lagunak goseak gertatu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zelarik, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitaketanak, eta nola bere lagunei ere eman zien?»

Eta esan zien: «Larunbata gizakiarentzat egin zuen Jainkoak, ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren beraren nagusi da».

Agindu erlijiosoek askeago eta hobe izaten lagundu behar ligukete, eta ez geure baitan kuzkurtu; agindu horiek seinale-edo dira bidaiaria iturrirantz gidatzeko, edota amildegi bat seinalatzeko. Baina legeak zama jasanezin bihurtzen badira, seinalea haien espiritua gogortu egin dela edo desbideratu. Larunbateko atsedena Jainkoaz gogoratzeko zen berez, egun horretan Jainkoaren hitza hausnartzeko, eta etxekoekin, neskame-morroiekin, esklaboekin, animaliekin eta lurrarekin berarekin diru-gosez egindako plan pertsonalei stop emateko eguna. Badira jendea irensten duten lan-erritmoak eta ameskeriez funtsezko zoriona aldarazten diotenak!

[1 Sm 17,32-33.37.40-51: David habailaz eta harriz nagusitu filistearri. Sal 144 [143]: Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,1-6.

Aldi hartan, Jesus sinagogan sartu zen berriro. Bazen han gizon beso-iharrari bat. Zelatan zegozkion larunbatean sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan.

Jesusek beso-iharrari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona erdira». Eta besteei esan zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?» Haiek, ordea, isilik. Jesusek, ingurukoei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen, eta sendatu egin zitzaion.

Handik atera orduko, fariseuek eta Herodesen alderdikoek elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Sinagogara sartzean, Jesus jabetu zen bi gaixo-mota zeudela han: batetik, besoa elbarri zuen gizona eta, bestetik, buruzagi temati eta itsuak. Jesusek gizon gaixoa bazterretik aterarazi, erdian ipini eta erdibiderik gabeko galdera egin du: Zer da zilegi: sendatzea hala hiltzen uztea? Ez dago tarteko aukerarik, isilik gelditzeko. Senda badezakezu eta sendatzen ez baduzu, kaltea egin diozu. Gizon gaixoa Jesusez fidatu da, aurre egin die tradizioari eta bere ohiturari berari, arriskatu egin da, besoa luzatu eta sendatu egin da. Buruzagiak, beren tradizioen preso, gaixo jarraitu dute beren teman. Ez dute ikusi ezkutaezin dena.

Urteko 2. astea.

Santa Priska eta Santa Margarita, *birjinak*.

Kristauen Batasunaren aldeko zortziurrenaren hasiera.

[1 Sm 18,6-9; 19,1-7: Gure aita Saul zu hiltzeko asmotan dabil. Sal 56 [55]: Jainkoagan dut konfiantza, ez naiz ezeren beldur.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasbazterrera joan zen bere ikasleekin. Galileatik etorritako jendetza handiak jarraitu zion. Eta, berak egiten zituenak entzunik, Judea, Jerusalem eta Idumeatik, Jordanez bestaldetik eta Tiro eta Sidon aldetik ere jendetza handia bildu zitzaion. Jesusek txalupa prest edukitzeko agindu zien ikasleei, hainbeste jenderen artean zapaldu ez zezaten.

Izan ere, asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion, ukitu nahian. Espiritu gaiztoek, ikusten zuteneko, haren oinetara erori eta oihuka esaten zioten: «Jainkoaren Semea zara Zu». Hark, ordea, zorrotz agintzen zien, ez emateko bera ezagutzera.

Gaurko ebanjelioan Jesus ez da ageri sinagogako itxitasun fisiko eta mentalean, baizik eta hondartzako ertz eguzkitsua eta koloretsuetan: distiratsua da eguna, jendea arrantzuan, hizketan, negozioan ari da eta bizi da. Herriz herri zabaldu da Jesusen berri, eta alde guztietatik datorkio jendea, gorputzeko eta arimako gaixotasunetik senda dezan. Guztiei zabaldu zaie bihotza galilear gazte honekin topo egitean, bizia nabari baitzaio bere hitz eta keinuetan. Guztiei zabaldu zaie zeruertz erakargarri eta orientagarria. Hori al dugu, gaur egun, Jesusekin topo egitearen esperientzia?

[1 Sm 24,3-21: Ezin dut neure jaunaren aurka eskurik altxatu, Jaunaren gantzutua baita. Sal 57 [56]: Erruki nitaz, ene Jainko, erruki nitaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen, berak nahi izan zuenei dei egin zien, eta haiek hurbildu egin zitzaizkion. Hamabien taldea eratu zuen, berarekin bizitzeko eta Berri Ona hots egitera bidaltzeko; eta deabruak botatzeko ahalmena eman zien.

Hamabi hauek aukeratu zituen: Simon –honi Pedro izena ipini zion–, Santiago Zebedeorena eta Joan, Santiagoren anaia –hauei Boanerges izena ipini zien, hau da, «Trumoi-kume»–, Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Jesusek egina zien ikasleei lehen gonbit bat aintzira ondoan, berarekin ibili eta beraren jardueraren lekuko izan zitezten. Gero, beste gonbit bat egin die mendian, berarekin bizi eta erreinua hots egitera bidaltzeko, Jesusen eginak kontatu eta bizitza kaskartzen dien gaitzetatik jendea sendatzeko. Ikasleek nork bere izena dute; nortasunaren eta familia- eta gizarte loturaren laburpen den izena. Hamabi dira, jende xumea, beren ahuldadeekin Jainkoaren herri berri bat ordezkatzeko, Jesusen pazko ondoan adoretu agertuko den herri berriaren ordeko.

* Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki, *apaizak*, eta Markos Krizevci, Esztergom-eko *kalonjea, santuak*; Ignazio de Azevedo, *apaiza*, eta lagunak, *dohatsuak*; Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *erlijiosoa, martiriak*.

Urteko 2. astea,

San Sebastian, *martiria*.San Fruktuoso, *gotzaina* eta San Eulogioeta San Augurio, *haren diakonoak, martiriak*.

[2 Sm 1,1-4.11-12.19.23-27: Nola erori diren gizon handiak gudan! Sal 80 [79]: Erakutsi guri, Jauna, aurpegi argia, salba gaitezen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,20-21.

Aldi hartan, Jesus etxera itzuli zen bere ikasleekin. Berriro ere jendetza handia bildu zen, eta ezin zuten otordurik ere egin Jesusek eta ikasleek. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramateko asmotan etorri ziren, burutik egina zegoela esaten baitzuten.

Jesusen familiarteko batzuek ezin izan zuten barneratu hartaz esaten zena. Haren askatasuna eta haren proposamena, zurrumurru herrikoiak handituak eta desitxuratuak; bidean zebilela, burutik egindakotzat hartzen zuten Jesus. Alabaina, haurtzaroan eta gaztaroan ez zuen agertu, ezertan ere, horrelako zentzugabekeriaren zantzurik. Zerbait gertatu zitzaion, nonbait. Jesusen bitzta Nazareten guztiz normala izan zen. Gauzak horrela, berritasun bat ari zen garatzen Jesus bere baitan, hau esatera ahalbidetu zuena: «Esana zaizue, baina nik diotsuet». Jainkoak dakarren berritasunak aurki lezake kontrako joera eta jarrerarik. Gai al gara haize kontra bizitzeko geure «mundo likido edo arin» honetan?

§ Jonas Profetaren liburutik 3,1-5-10.

Jaunak Jonasi hitz egin eta esan zion: «Ea, zoaz Ninibe hiri handira, eta aldarrika ezazu han Nik ematen dizudan mezua».

Ninibera joan zen Jonas, Jaunak agindu bezala. Ninibe hiri izugarri handia zen; hiru eguneko bidea zuen alderik alde. Sartu zen Jonas hirian eta egun bateko bidea egin zuen, mezu hau hots eginez: «Berrogei egunen buruan, Ninibe xehatua izango da».

Sinetsi zioten ninibetarrek Jainkoari eta barau-deia zabaldu zuten eta denak, handi eta txiki, dolu-jantziz estali ziren.

Ikusi zuen Jainkoak ninibetarrek egin zutena eta beren bide okerretik itzuli zirela, eta damutu egin zen haiei egindako mehatxuaz, eta ez zuen bete.

[Sal 24: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.]

§ San Paulok 1. Korintoarrei 7,29-31.

Senideok: Epea laburtu egin dela diotsuet. Beraz, gelditzen zaigun denboran, ezkonduak bizi bitez ezkondurik ez baleude bezala; negar dagitenak, negar egingo ez balute bezala; pozik daudenak, pozik ez baleude bezala; erosten dutenak, ezer ez balute bezala, eta mundu honetako gauzez baliatzen direnak, baliatuko ez balira bezala; izan ere, mundu hau, oraingo bere itxuran, desagertzeaz dago.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Hone-

Urteko 3. astea.*Santa Ines, birjina eta martiria.*

la zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitzte eta sinetsi Berri Ona».

Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Herodesek, ardorik hobenek gozatu duten otordu batean bere emaztearen alabaren dantza-urratsek liluraturik, emazteari atsegin emateko, Joan profeta handia lepo egiteko agindu du. Gure «lilurapen-kultura» honetan, gure zentzumenak estimulu aztiez jotzen dituelarik, gure erabakiak besteren ametsek harturik eta itorik geldi litezke, eta, jakina, geure bihotzaren barnean Jainkoak apal-apal agertzen dizkigun proposamenak estali eta deseginik.

Joan Bataiatzailearena bezalako hilketek isilarazi egiten dituzte ahots desberdinak. Baina Jesus aske hasi da mugitzen, eta ez du uzten beldurrak kikildu dezan. Galileara lekualdatu da, ikasleei dei egin die, berrartu du Joanen mezua, eguneratu du, eta erreinua hots egin du Herodesek zergez ustiatzen, soldaduez kontrolatzen eta ikararen ikaraz zurrundu nahi duen lurralde osoan.

Jonas profetak ihesaldi pertsonal luzea bizi izan zuen Jainkoak proposatua ez betetzeko. Azkenean, bere bihotz koldarra

Urteko 3. astea.

Santa Ines, birjina eta martiria.

eraldaturik, erabakia hartu eta konbertsioa predikatu zuen hiri osoan. Harrigarria izan zen erantzuna. Erregea bera ere konbertitu da, eta hiri osoak ekin dio bizieraz aldatzeari, biziera zuzen baterantz. Gaur, bizi-ebanjelioa hartu dugu guztiontzat. Eskualdatzen al dugu berri on hori ala zurrundurik gauzka beldurrak, arreta galdurik gauzkate lilurapenek?

Errukitsuek «maitasun ezin utzia sentitzen dute txiki direnentzat, gaixo, zoritxarreko, umiliatu, indarkeriaren biktima direnentzat, sufritzen ari eta zuzengabeki baztertuak direnentzat: larri eta penaturik diren guztientzat; eta bekatuan eta erruan eroriak direnen bila ibili ohi dira. Atsekaberik ez da sakonegi, bekatuak ez da izugarriegi, han errukia presente egiteko. Jende errukitsuak bere ohorea erregalatzen dio ohoregabe denari, eta bere buruari leporatzen dio halakoaren desohorea. Han ikusiko duzu errukitsua zerga-biltzaileen eta bekatarien ondoan, eta gogotik hartzen du bere gain halakoen lagunartea bizitzearen laidoa. Soilik, duintasun bat ezagutzen du eta ohore bat: bere Jaunaren errukia, hura baitu bizi bakar-bakarrik» (Bonhoeffer)

Urteko 3. astea.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.
San Valero Zaragozako, *gotzaina*.

[2 Sm 5, 1-7. 10: Zeuk gidatuko duzu nire herri Israel. Sal 89
[88]: Berekin izango ditu nire leialtasuna eta maitasuna.]

Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 3,22-30.

Aldi hartan, Jerusalemdik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beeltzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola bota dezake Satanasek Satanas? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik baldin badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor sartu indartsu baten etxean lapurretara, aldeztetik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango; errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau.

Lurralde osoan hasi dira hitz egiten Jesusen jardueraz. Agintariek ez dakite zer egin herriaren eguneroko bizitza aspergarri eta etsian distira egiten duen herritasun horretaz. Jendeak begi xumez bere seme-alabak askatzera datorren Jainkoaren erruki bezala ikusten duena, Jerusalemdik bidaliak izan diren le-

Urteko 3. astea.

San Bizente, *diakonoa eta martiria*.
San Valero Zaragozako, *gotzaina*.

ge-maisu adituek deabruaren ekintzat hartu dute. Jainkoaren proposamen ugari ageri da mundu politiko, kultural, erlijiosoan; patera edo txanel handitan datoz urruneko galileetatik, azal iluneko dira. Batzuek erregalutzat hartzen dituzte halakoak; beste batzuek, berriz, beren segurtasun babestutik, uko egiten diete pozoi bailiran.

Diate, antzinako historia batean, Alemanian 1945eko maiatzean, Munduko Bigarren Gerratean, herri bat bonbardatu zutela eta eliza ere suntsitu zutela, barruan Kristo gurutziltzatu bat zuena, jendeak debozio handia ziona.

Bonbardaketa ondoren, herritarrek, elizan zer gertatu zen ikus-tera joan zirenean, hondakinen artean Kristoa ikusi zuten: hondatu gabe, soilik besoak hautsi zizkioten.

Gerla bukatu eta etxeak eta eliza berregiten hasi zirenean, Kristo bere hartan utzi nahi izan zuten, besorik gabe... Eta orain, Kristoren ondoan, idazkun bat dago, dioena: «Zuek izango zarete nire beso».

Urteko 3. astea.San Ildefonso, *gotzaina*.Santa Emerentziana, *birjina*.

[2 Sm 6,12b-15.17-19: Oihu artean zeramaten Jaunaren kutxa Davidek eta israeldar guztiek. Sal 24 [23]: Nor da Errege ospetsu hori? Jauna bera da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,31-35.

Aldi hartan, Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila».

Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?» Eta, inguruan eserita zituenei begiratu, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

Jesus iristearekin familia-mota berri bat azaldu da. Ez da deitura edo abizena Jesusen jarraitzailekoak elkartzen dituen, baizik eta Jesusen Espirituaren arnasa: honek du dinamizatzen haien bizitza, honek ditu biziartzten haien ametsak, honek ditu batzen askapen-egitasmok berean eta honek ditu alegeratzen abesti beretan. Mariak, Jainkoaren borondatea hobekienik ulertu eta bete zuen hark, bere baitan espermentatua zuen bere Se-mearekiko odolaren lotura, eta orain sentitu du, haragi egitean (gizakundean) bere bihotza bete zion Espirituak berak lotzen duela Jesusen egitasmok osoarekin.

Urteko 3. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[2 Sm 7,4-17: Ondorengoa emango dizut eta sendotu egingo dut haren erregetza. Sal 89 [88]: Beti gordeko diot neure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,1-20.

Aldi hartan, Jesus berriz ere irakasten hasi zen itsasertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, urean zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, lehorrean zegoen, itsasbazerrean. Gauza asko irakatsi zien parabola bidez hitz eginez. Honela ari zitzaien bere irakastaldian:

«Entzun! Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiek, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar, hirurogei nahiz ehun». Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!»

Bakarrik gelditu zirenean, Hamabiekin batera berarekin zebiltzanek parabolaren esanahiaz galdetu zioten Jesusi. Eta honek esan zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioa ezagutzea; kanpokoei, ordea, dena parabola bidez ematen zaie, Liburu Santuak dioena bete dadin: «Begiratzen dute, bai, bai-

Urteko 3. astea.

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

na ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez; horrela, ez dira Jaunagana bihurtzen eta ez zaie barkatzen»»».

Eta esan zien gainera: «Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, orduan, gainerako parabola guztiak?

Ereileak hitza ereiten du. Hitza ereitean, batzuk «bide-bazterra» bezalakoak dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan erein den hitza kendu egiten die. Beste batzuk «harri artea» bezalakoak dira: hitza entzutean, berehala pozik hartzen dute; baina sustrairik gabeak eta iraupen txikikoak izanik, hitza dela-eta estutasun nahiz erasoaldiren bat sortu orduko, huts egiten dute. Beste batzuk, berriz, «sasi artea» bezalakoak dira: entzuten dute hitza, baina mundu honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta hitza ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren «lur ona» bezalakoak: hitza entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar nahiz hirurogei nahiz ehun».

Lehen ikasleak uste galdurik itzuli ohi ziren batzuetan beren ministeriotik, Jesusen mezua onartzen ez zuen jende batekin topo egin zutelako, edota uzta hain nagia izateaz nekaturik zeudelako. Jesusek argitu die, jendearen erantzun antzu horrek bere arrazoiak dituela: bihotz-gogorkeria, aberastasun-antsia, erroen arintasuna. Beste hau da kontuan hartu beharrekoa: hitza onartu eta fruitu ematen duen jendea, nork bere gaitasunen arabera. Erdizkako porrota saihestezina. Hala eta guztiz, erreinua uzta-
ren betera iritsiko da, onartzen dutenak direla medio.

San Paulo apostolua Kristogana itzultzea.

Santa Elbira, *abadesa*.

Kristauen Batasunaren aldeko Zortziurrenaren bukaera.

[Apostoluen Eginak 22,3-16: Bataia zaitetz eta garbitu zeure bekatuetatik, Jaunaren izenari dei eginez. Sal 116: Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

Santua izango zen Paulo besteri emanik bizi izan zen gazteandik. Jerusalemeko eskolarik hobenean ikasi zuen, beroa zen bere eskaintzan, konprometitua bere herriaren tradizioa defenditzen, agintari erlijiosoen esanetara jarri zen, eta bizitza arriskatu zuen kristauei pertsegituz Palestinatik kanpo, haien bila ibiliz beren fedea ospatzeko biltzen ziren harripean, katakonbatan. Gauza funtsezko bat falta zitzaion Paulori: herri guztia-
rentzat zen Jainkoaren proposamena bereiztea pertsegitzen zuen berritasun txiki hartan. Bere berotasunean itsu gelditu zen. Jau-
nak bereizmena egiten lagundu zion eta berritasun hartan Jauna bera ikusten.

Urteko 3. astea.San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

[2 Tm 1, 1-8: Gogoan dut zuk duzun zinezko fedea. Sal 96 [95]:
Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua, gizonak lurtean hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura lo nahiz iratzarrik egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uzta-roa da eta».

Beste hau ere esan zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurtean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean».

Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zien Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zien.

Zeruko Aitak gure lur honetan erreinua erein zuen, eta erauzi ezin den leku batean dago, ezkutuan. Garai egokian garatzen da bizia, ernetzen da hazia, botatzen ditu erroak, irteten

Urteko 3. astea.

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak*.

dira lehen hostoak eta heltzen da uzta. Bai egunez, eguzkia eta argia direnean, bai historiaren gau ilunean, erreinua fidela da eta haziz doa. Ez dakigu nola, errespetua zor diogu haren misterioari. Utopiak galduak diren aro batean bizi gara, ganorarik gabeko kontsumorako irrika gaixotia harrotu den aroan. Jada ikusi beharra dugu hazian ezkutuan diren galburua eta ogi partekatua. Hazian dago utopia.

«Inork ez du hautatu jaio den herria,
baina maite du jaio den herria.
Inork ez du hautatu mundura etortzeko aldia,
baina utzi beharra du bere aldiaren arrastorik.
Inork ezin egin dio ihes bere erantzukizunari.
Inork ezin tapatu ditu begiak, belarriak,
ez mututu, ez bere eskuak moztu.
Guztiok dugu, betetzeko, maitasun-behar bat,
jaiotzeko historia bat, eskuratzeko helmuga bat.
Ez genuen hautatu mundura etortzeko uea:
orain egiten ahal dugu mundua
non jaioko eta haziko baita hazia
geurekin ekarri genuena».

(Gioconda Belli-ren Poema,
in Los RIOS n° 254 / Junio 2016 Ekaina 21. or.)

Urteko 3. astea.Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*.San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*.

[2 Sm 12,1-7a.10-17: Bekatu egin dut Jaunaren aurka. Sal 51
[50]: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu nigan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen itsasoaz bestaldera». Jendea utzi eta ontzian eraman zuten Jesus, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten.

Horretan, haize-bolada zakarra atera zuen, eta olatuek ontzia jotzen zuten, ia urez betetzeraino. Jesus, berriz, txopan lo zegoen, buruko baten ganean. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, ez al dizu axola gu galtzeak?» Hark, esnaturik, haserre egin zion haizeari, eta itsasoari esan: «Hago isilik! Geldi!» Gelditu zen haizea, eta barealdi handia egin zen.

Jesusek esan zien: «Zergatik beldur hori? Ez al duzue oraindik sinesmenik?» Beldur-ikaraz gelditu ziren, elkarri esanez: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?»

Jesusek esan die ikasleei, uztara arte joango dela hazten erreinua. Baita gauez ere. Orain, berriz, aintziraz bestaldera nabigatzeko eskatu die, lurralde paganora. Juduentzat, menderaezineko espiritu gaiztoen egoitza zen itsasoa; hain juxtu, dena irentsi beharrean lehertu den ekaitzean jaiki dira orain. Ikasleek esnarazi egin dute Jesus. Honek ez die aurpegiratu beldur izatea, baizik aski konfiantzarik ez izatea. Bere hitzaz baretu du itsasoa; baita ikasleak ere, eta gizon hau nor den galdezka hasi dira hauek. Erreinuaren zerbitzaria da Jesus, kreazio guztia adiskidetu nahi duena.

Urteko 4. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
San Julian Cuencakoa, *gotzaina*.

§ Deuteronomio liburutik 18,15-20.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak zuen Jainkoak ni bezalako profeta sortuko du zuen artetik, herritarren artetik. Entzun berari! Horixe da, Horeb mendian bildurik zeundetela, Jaunari zeuen Jainkoari eskatu zeniotena: “Ez dugu Jaunaren geure Jainkoaren ahotsa berriro entzun nahi, ezta sute handi hori berriro ikusi nahi ere, hil egingo baikara bestela”.

Orduan, Jaunak esan zidan: “Ongi deritzot herriak esanda-koari. Zu bezalako profeta sorraraziko dut herritarren artetik; neure hitzak ezarriko dizkiot ahoan eta Nik agindutakoa esango die. Profetak nire izenean adieraziko dituen hitzak onartuko ez dituenari Nik eskatuko dizkiot kontuak. Baina Nik agindu gabeko hitza nire izenean adieraztera ausartzen den profeta edota jainko arrotzen izenean hitz egiten duena hil egingo dute”».

[Sal 94: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

§ San Paulok 1. Korintoarrei 7,32-35.

Senideok: Zuek kezkarik gabe bizitzea nahi nuke. Gizaseme ezkongabea Jaunaren gauzez kezkatzen da, Jaunari nola atsegin emango; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, emazteari nola atsegin emango, eta bere baitan zatitua dago. Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta gorputz eta arima berari emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez kezkatzen da, senarrari nola atsegin emango.

Urteko 4. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
San Julian Cuencakoa, *gotzaina*.

Hau zeuen onerako diotsuet, ez zuei tranpa jartzeko. Hauxe nahi dut: modu egokienean bizi zaitezte, eragozpenik gabe Jaunari atxikiak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,21-28.

Kafarnaumen, larunbatean sinagogan sarturik, irakasten hasi zen Jesus. Jende guztia txunditurik zegoen haren irakaspenez, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihuka esan zuen: «Zer duk gu-rekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horren-gandik!» Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, gar-rasi handia eginez, atera egin zen gizonagandik.

Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die, eta obeditu egiten diote!»

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Bi aldiz dio testuak Jesusek aginpidez irakasten duela, sinagogako buruzagien kalaka baliogabeari kontrajarriz. Aldi berean, irakaspen berria dela dio. Hitzak besteengana iritsi, irte-

Urteko 4. astea.

Tomas santua Aquinokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
San Julian Cuencakoa, *gotzaina*.

tean guregan zuten sakontasun berarekin iristen dira. Jesusek sinagogan aurkitu izan dituen espiritu gaiztoek alde egin dute hura iristean. Bizi garen munduan, jendeak ez du sinesten jada testuetan, baizik testiguengan. Gure garai aldakor honetan, harrigarri izango den kontaera behar dugu landu, Jainkoak gure artean duen bizitza berritik sortua.

Otoitza gure lurraren alde

Jainko ahalguztiduna,
unibertso osoan
eta sorkaririk txikienean ere presente zaudena,
Zuk samurtasunez inguratzen duzu den guztia,
isur ezazu gugan zeure maitasunaren indarra,
bizitza eta edertasuna zaindu ditzagun.
Bete gaitzazu bakez gainezka,
inori kalterik egin gabe
senide izanez bizi gaitezen.
Behartsuen Jainko,
lagun iezaguzu
Zuretzat hain baliotsuak diren bazterrera utziak
eta munduko ahaztuak berreskuratzen.

(LAUDATO SI' entziklika)
(urtarrilaren 3In jarraitzen du)

Urteko 4. astea.San Gelasio, 49. *aita santua.*Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina.*

[2 Sm 15,13-14.30;16,5-13a: Goazen ihesi Absalomengandik. Madarika nazala Xemeik, Jaunak agindu dionez gero. **Sal 3: Jaiki zaitetz, Jauna, salba nazazu!**]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,1-20.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta katez ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menderatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumaka eta bere burua harriz zauritzen.

Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oiuhu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goi-goiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek hau agindu baitzion: «Atera hadi gizon honengandik, espiritu gaizto hori!»

Orduan, Jesusek galdetu zion: «Zein duk heure izena?» Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta». Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidali.

Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi mila inguru txerri ito zen.

Urteko 4. astea.

San Gelasio, 49. *aita santua.*Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina.*

Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Ikusi zutenek, deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-muge-tatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi.

Jesus ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko; baina Jesusek ez zion utzi, baizik hau esan zion: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesusek egin ziona hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Harriturik gelditzen ziren denak.

Gizon bat deserriraturik bizi da eta bakarrik, hiriz kanpo. Bere barnean «multzo bat» bizi du, bera larrutu nahiz: biluzik egiten du korri eta oihuka hilobi artean. Auzokoek pertsona mehatxagarritzat dute. Makilaz eta katez hurbiltzen zaizkio. Behin batean, lehen aldiz, defentsa-tresnarik gabe hurbildu zitzaion gizon bat. Baztertu hark, noiz topo egingo bila, harengana jo zuen korrika. Jesusek bere buruaz irudi on bat izateko aukera eman zion. Eta topaketa hartan sendatu zen. Nola ikusten dute besteek beren burua gure begietan? Pertsona hautsiek, bazter-tuek, mespretxua eta jantzi armatuak bakarrik ikusten al dituzte, ala ikusten dute txokoren bat gure begiratu harreragilean non sendatu izateko?

Urteko 4. astea.San Lesmes, *monjea*.Santa Martina, *birjina*.

[2 Sm 18,9-10.14b.24-25a.30-19,4: Ene seme Absalom, zergatik ez naiz ni hil zure ordezt? Sal 86 [85]: Makurtu belarria, Jauna, erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, hau baitzioen bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion.

Urteko 4. astea.

San Lesmes, *monjea*.
Santa Martina, *birjina*.

Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehiagoko Maisuari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!»

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zion: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskak ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskatxa, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zien.

Sinagoga-burua ez da jada, hemen, erakundeko gizona, Jesusi berari eta haren mezuari kontrajarria. Familiako aita da, estu eta larri dago; ikusten ari da beraren alabagandik bizia alde egiten ari dela, ez daki zer egin. Bere harremanen eta boterearen muturreraino iritsi da. Jesusen aurrean ahuspeztean, bere botere-mundu guztiak lur jo dio, ezinik. Emakume batek, hau ere gaixo, zuen guztia eralgi zuen osasun bila. Jesusek denentzat ekarri du bizia; gerla-toki batean ospitale batek bezala, ez ditu bereizten zauriak.

Urteko 4. astea.

San Bosco, *apaiza (salesianoen fundatzailea)*.

[2 Sm 24,2,9-17: Nik egin dut bekatu, herria zenbatzeko aginduz; baina ardiak bezala diren hauek zer egin dute? Sal 32 [31]: Barka, Jauna, nire bekatuaren errua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, zioen: «Nondik du honek hori guttia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitar-tean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Jesus Nazaretera iritsi zen. Iguripenak edo itxaropenak sortu zituen zurrumurrua hedatua zegoen. Arotzari, Mariaren eta Joseren semeari, entzutean, galdetzen zioten elkarri, sinesgabe-ki: «Nondik nora du honek jakintzia hau gutzia inoiz ere ikasia ez delarik, inongo titulurik ez duelarik, bere familia izenik gabea duelarik? Guk bai, txikitatik ezagutzen dugu. Guk ezin sinetsi diogu esaten ari dena». Jainkoak bihur dezake indigena bat lu-

Urteko 4. astea.

San Bosco, apaiza (*salesianoen fundatzailea*).

rrik gabeko landa-jendearen defendatzaile, bihur ditzake elkarte baztertuak Eliza berri eta sinesgarriaren irakasle, behartsu suminduak ekonomia zuzen baten profeta. Entzuten al dugu titulurik gabeko ahotsa Jainkoaz?

Otoitza gure lurraren alde

Sendatu gure bizitzak
munduaren babesle izan gaitezen,
eta ez hondatzaile,
eta edertasuna erein dezagun
kutsaduraren eta suntsipenaren ordeztu.
Uki ezazu,
behartsuen eta lurraren bizkar
etekinak besterik bilatzen ez dutenen bihotza.
Irakats iezaguzu
gauza bakoitzaren balioa aurkitzen,
irakatsi guri harriduraz begiratzen;
zure argi amaigaberako bidean sorkari guztiekin
sakonetik lotuak gaudela aitortzen.
Eskerrak Zuri, egunero gurekin zaudelako.
Adoretu gaitzazu, arren,
zuzentasunaren, maitasunaren
eta bakearen aldeko gure borrokaldian.

(LAUDATO SI' entziklika)
(urtarrilaren 28tik dator)




OTSAILA / ZEZEILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Unibertsala: **Ez ustelkeriari**

Botere material, politiko eta espiritualak dutenak ustelkeriaren mende eror ez daitezten.



Urteko 4. astea.

Santa Brigida, *birjina*.

San Pionio, *apaiza eta martiria*.

[1 Erregeak liburutik 2,1-4.10-12: Ni banoa gizaki guztiak joan ohi diren bidetik. Izan adore, Salomon, eta ager zaitez gizon!
Sal: 1 Kro 29,10bc.11.12: Jauna, zeure menpe duzu dena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena eman zielarik.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitatzela; baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazaituztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio z gantzutuz.

Jesusek hamabi ikasleak bidali zituen erreinua etorria zela hots egitera, berak egiten zuen bezala. Erreinua doan dator, Aitaren iragarrezineko dohain gisa; eta doan bakarrik iragar daitete, inolako negozio-motarik gabe jendearekiko harremanetan. Horregatik ezin joaten ahal da inor bizkar-zakuarekin, erregaluk eramanez, jendea liluratu eta engainatzeko; ezin ekarri da ere zakua sari ekonomiko, afektibo edo boterezkos betea. Inozka porrota benetakoa izango da, baina oinetako hautsa astindu egin behar da ibilera nagitu ez diezagun. Erreinua doan zerbitzatzzen denean, iristen da arimaren bizia eta gorputzarena.

2

Ostirala / Barikua OTSAILA / ZEZEILA Urteko 4. astea. JAUNAREN AURKEZPENA. Kandelen bedeinkapena eta elizbira. Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

§ Malakias Profetaren liburutik 3,1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira zuek bila zabiltzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak.

Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskain diezazkieten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo garaietan bezala».

[Sal 24 [23]: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.]

§ Hebrearrei gutunetik 2,4-18.

Familia bereko seme-alabek odol eta haragi berak dituzten bezala, Jesusek gizakiaren odol-haragiak hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia den deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bizi zirenak askatzeko; Jesus ez baitzen aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorri-koei baizik. Horregatik, gauza guztietan bere senideen antzeko izan behar zuen, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkion gauzetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai.

Bera ere nekeetan probatua izan zelako, orain gauza da probaldian daudenei laguntzeko.

OTSAILA / ZEZEILA Ostirala / Barikua

Urteko 4. astea.

JAUNAREN AURKEZPENA.

Kandelen bedeinkapena eta elizbira.

Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

2

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko uea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemera eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoen. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eraman zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna,
zeure morroi hau bakean hiltzen,
Zeuk hitzeman bezala.
Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena,
herri guztien aurrean Zuk aurkeztua:
nazioak argitzeko argia
eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen eza-

2

Ostirala / Barikua OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

JAUNAREN AURKEZPENA.

Kandelen bedeinkapena eta elizbira.

Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*.

garri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezen. Eta zuri ezpata batek alde z alde zulatuko dizu arima».

Bazen profetes bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzeko. Ordu hartan han gertatu zen bera ere, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzeko hasi zitzaizen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei.

Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Maria eta Jose tenplura joan ziren haurra izan eta berrogei egunera, Amaren garbikuntzarako eta beren lehen semea Jainkoari aurkezteko. Familia behartsuen limosna ordaindu zuten. Jesus pobretasunaren bidea ari da egiten. Uste izan zuten beraien bisita hura oharkabean gertatuko zela beste familia apalen artean, baina ez.

Simeon eta Ana fede sakoneko pertsona ziren, eta bazekiten Jainkoaren aldien zain bizitzen eta Jainkoaren jokatzeko moduan sartzen. Simeonek Israelen askatzailea ikustea espero zuen. Anak otoitz egiten zuen eta erromesi zerbitzatu. Biek ordezkatzen dute esperantza leiala, aldien barna kontrako egoeretan ere eusten dakiena. Ingurumari garratzetan bizi diren kristau-elkarteetan, aurkitzen dugu gaur ere horrelako jenderik. Itxaroteko karisma dute eta beren inguruan taldetxo bat elkartzeko dute,

atzoko sua iradokitzen duen errautsak inguratutako txingarra bezala, zeinetatik su handi distiratsu bat piztuko baita bihar egunean: elkarte berri bat, alegia.

Mariak eta Josek Aitari eskaini zioten beren semea, eskaini zuten beren burua ere hura maitasunez eta pozik zaintzeko, eta guri ere eskaini ziguten semea beronen gizon helduaren betean, beti ere erne eta adi zirelarik Simeonek iragarri zien doloretako ezpatari.

Kristau-otoitza kreazioarekin

Goretsia Zu, Aita, zeure esku indartsuz
egin dituzun sorkari guztiekin.

Zureak dira,
eta zure presentzia eta samurtasunez
beterik daude.

Goretsia zu. Jainkoaren Seme, Jesus,
zure bidez sortuak dira gauza guztiak.
Mariaren ama-erraietan sortu zinen,
lur honetako parte egin zinen,
eta munduari giza begiekin begiratu zenion.
Gaur bizirik zaude sorkari bakoitzarengan
zeure piztuerako aintzaz.

Goretsia Zu, Espiritu Santua, zeure argiz
Aitaren maitasunera gidatzen duzu mundua
eta kreazioaren intziriei lagun egiten diezu,
Zu gure bihotzetan ere bizi zara
gu ongia egitera bultzatzeko. Goretsia Zu.

(LAUDATO SI' entziklika, Karmel 294 zenb.)

(segida otsailaren 7an)

3

Larunbata / Zapatua OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 4. astea.

San Blas, *gotzaina eta martiria*.

San Oskar, *gotzaina*.

Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*.

[1 Erregeak liburutik 3,4-13: Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko. Sal 119 [118]: Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zitoten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedenen pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurea hartuz.

Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Jesus eta ikasleak elkartu dira misioa nola gertatu zaien kontatzeko, eta ontziz paraje lasai batera joatea erabaki dute atsedetera. Bestetik, noraezean eta sufritutuz bizi den jendea arin mugitu da Jesus dagoen lekura iristeko, lehorretik. Jendetza ikustean, hunkitu egin da Jesus eta irakasten hasi zaie, luze. Oraingo honetan huts egin die atsedanak. Baina beharrezkoa da atsedena, eta programatu egin behar izaten da, norberaren bizi-tzan, familian, elkarteetan, egunero, astero, urtero. Ez da luxua. Eginbehar bat da eta eskubide bat. Atsedetik gabe, krak egingo genuke, eta narrastu geure inguruko bizimodua.

OTSAILA / ZEZEILA Igandea / Domeka. B Urteko 5. astea.

Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *apaiza*; Rodolfo Acquaviva, *apaiza*,
eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

4

§ Job liburutik 7,1-4.6-7.

Egun haietan, honela mintzatu zen Job:

«Borroka da gizakiaren bizitza lurrean, langilearenak beza-lakoak haren egunak.

Esklaboak bezala, itzala irrikatzen du, langileak bezala, sol-data itxaroten; baina fruiturik gabeko hilabeteak etorri zaizkit, gauak aspergarri gertatzen dira niretzat.

Oheratu orduko, esaten diot neure buruari:

“Noiz jaikiko ote naiz?”

Amaigabea egiten zait gaua, jirabiraka egunsentia arte.

Ehuleen anezka-tresna baino lasterrago doaz nire egunak, amaitu zaizkit ehuleari haria bukatzean bezala.

Gogoan izan, ene Jainko, nire bizitza arnasaldi bat dela, nire begiek ez dutela berriro zoriona ikusiko».

[Sal 147 [146]: Goretzazue Jauna, bihotz-urratuak sendatzen dituen.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 9,16-19.22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukaria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!

Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe.

Joana Valois-koa, *erregina*.
 San Joan Brito, *apaiza*; Rodolfo Acquaviva, *apaiza*,
 eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

Gutziz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,29-39.**

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen zuzenean, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba oheratua zegoen sukarrarekin; berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi. Joan zitzaion Jesus ondora, eskutik hartu eta jaikiarazi zuen. Sukarrak alde egin zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaien.

Arratsean, eguzkia sartu ondoren, gaixo eta deabrudun guztiak eraman zizkioten Jesusi. Herri guztia bildu zen atarian. Eta hark gaixo asko sendatu zuen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota zuen. Deabruai ez zien uzten hitz egiten, bazekiten-eta nor zen.

Goizean goiz, artean ilun zela, Jesus herritik atera eta bazter bakarti batera joan zen; han otoiitzean ari zen. Simon eta lagunak Jesusen bila hasi ziren eta, aurkitzean, esan zioten: «Jende guztia zure bila dabil».

Hark, ordea, erantzun: «Goazen beste norabait, inguruko auzoetara, horietan ere Berri Ona hots egitera, horretarako atera bainaiz». Hala, Galilea guztian barna ibili zen, hango sinagogetan Berri Ona hots egiten eta deabruak botatzen.

OTSAILA / ZEZEILA Igandea / Domeka. B Urteko 5. astea.

Joana Valois-koa, *erregina*.

San Joan Brito, *apaiza*; Rodolfo Acquaviva, *apaiza*,
eta lagunak, *martiriak, jesuitak*.

4

Paulo eliza misiolari bateko bataiatu guztioi ari zaigu: zorriona dela ebanjelioa doan hots egitea, «makalekin makal bihurtuz», eta «guztientzat naizen guztia» izanez, zenbait jende irabazteko. Honetarako, bulkada bat sentitu beharra duzu, Jainkoaren bihotzetik bakarrik etor daitekeen bulkada, eta bide berezitan barna eramango zaituena, beti prest egotera eramango zaituena; goraka egitearen logikarik ez duen bidea da, ondasunak metatzera jotzen ez duena, giza izen handi baten bila jarriko ez zaituena

Gaurko ebanjelioak kontraste hau bera dakarkigu. «Zeure bila duzu mundu guztia», esan diote ikasleek Jesusi. Honek, berriaz, beste hau erantzun die: «Goazen beste alde batera». Erabaki hau hartzera, gaueko isiltasunak eta egunsentiko otoitzak eragin diote. Otoitza geure bizitza apostolikoan ordezkazina da.

Jainkoarekin topo egitean eta Jesusen kontenplazioan, alderdi batzuk ikusten ditugu, leku zail batean jarraitzera eragingo digutenak edota, maite gaituzten leku arrakastatsu eta gozo batean erroturik gaudenean, bizi-periferietara aldatzera eragingo digutenak. Jokabide hau erabaki zoroa izango da jendaurreko irizpide arinarentzat, eskaileran gora egitea eskatzen baitu honek. Galera hau bera ere, ordea, ebanjelizatzea da.

Urteko 5. astea.

Santa Ageda, birjina eta martiria.

[1 Erregeak liburutik 8,1-7.9-13: Ezarri zuten itun-kutxa toki santu-santuan, eta hodeiak bete zuen Jaunaren etxea. Sal 132 [131]: Jaiki zaitez, Jauna, zatoz zeure atsedenekura.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genezaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu.

Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkioten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarietan ipintzen zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Jesusen presentzia saneagarria da. Garai hartan uste zuten, gaixo bat ukitzeak edota hark ukitzeak lohi bihurtzen zutela bat. Halere, baziren bizitzari lehenasuna eman eta berenez ibili ezin ziren gaixoen ardura hartzen zutenak ere, gaixoak Jesusen aurrrera eramateko. Jesus ere bizitzari atxiki zaiou, leial. Gaixoak ferekatzen zituen, eta batzuek haren soingainekoa ukitzen zuten. Gaur egun zentzumenik estimulatuenak ikusmena eta entzumenena dira. Ukimena da, ordea, hurbiltasun fisikorik altuena. Bersarkatuz eta ferekatuz ematen ditugu afektua, osasuna eta bizia.

Urteko 5. astea.

San Martin Igokundekoa
(Beasain 1567-Japonia 1597), *martiria*.*

[1 Erregeak liburutik 8,22-23.27-30: Zure bizilekua hau izango dela esan duzu. Entzun zeure herri Israelen eskaria. Sal 84 [83]: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,1-15.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalemik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin –hau da, eskuen garbikuntza egin gabe– jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika betebeharrak: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketa.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokutzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean:

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina nigandik urruti du bihotza; alferriki naute gurtzen, hauen irakaspena giza agindu hutsa da”.

Zuek Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue».

* San Paulo Miki, erlijiosoa, eta lagunak, *santuak*; dohatsuak: Karlos Spinola eta Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Eta jarraitu zuen: «Bai, lasai zokoratzen duzue Jainkoaren agindua, zeuen usadioak ezartzeko. Esate baterako, Moisesek esan zuen: “Ohoratu aita-amak”, eta “Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du”. Zuek, berriz, beste hau diozue: “Norbaitek aitari edo amari esaten badio: Zuri eman behar nizukeena ‘Korban’ da (hau da, tenplurako opari), halakoak ez du aitari edo amari ezertan lagundu beharrik”. Horrela, Jainkoaren hitza baliogabe uzten duzue zeuen arteko usadioengatik. Eta horrelako asko egiten duzue».

Badira giza agindu batzuk osasun-arau huts direnak; adibidez, eskuak garbitzea jan aurretik. Judu batzuek Jainkoaren agindutzat zeuzkaten, atsegin izaten zuten halakoak betetzea, baina ez zuten ipintzen bihotza agindu nagusian: Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzean, hori delarik ere gure bizitza etengabeko «irteeran» ipintzen duena premiarik handiena dutenei begira. Are gehiago: batzuek limosna ematen zuten tenplurako eta, horrenbestez, familiartekoei, zahartzaroko ahuldaderik handienean zeudenean ere, laguntza ematetik aske sentitu ohi ziren. Modu asko daude, babesik ez dutenei eman beharreko ondasunak geure patrikara bideratzeko.

Urteko 5. astea.

San Amant, *gotzaina* (*Baionako elizbarrutian*).
San Rikardo, *erregea*.

[1 Erregeak liburutik 10,1-10: Ikusi zuen Sabako erreginak Salomonen jakinduria handia. Sal 37 [36]: Zintzoaren ahoari jakinduria dario.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,14-23.

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen.

Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasakeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Zertan ipintzen dugu geure arretaren erdigunea geure bizitzan? Jende bat asko kezkatzen da janariaz bere itxura, bere iru-

7

**Asteazkena /
Eguaztena**

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 5. astea.

San Amant, *gotzaina (Baionako elizbarrutian).*
San Rikardo, *erregea.*

dia zaintzeko edota antsia baretzeko eta frustrazioak isiltzeko. Janaria osasunerako da eta partekatzearen pozerako, inor ere zokoratu gabe. Biziaren, zorionaren edota zoritxarraren erdigunea bihotza da. Zaindu beharra dugu hori. Zer irten ohi da gure bihotzetik eta zer adierazi ohi da jarrera irenseleaz gainerakoan aurrean? Nola senda genitzake geure emozio-zauriak? Jesusengandik hurbil, bihotz berri bat joango da garatzen gu baitan.

Hirutan bakarra zaren Jauna, maitasun amaigabearen elkarte baliotsu, irakats iezaguzu unibertsoaren edertasunean
Zu kontenplatzen; izan ere, guztia Zutaz mintzo zaigu.
Esnarazi gure goresmena eta esker ona, sortu duzun izaki bakoitzagatik.
Emaguzu diren guztiekin sakon-sakonetik bat egiteko grazia.
Maitasuna zaren Jainkoa, erakuts iezaguzu mundu honetan dugun tokia, lurreko izaki guztientzat duzun maitasunaren testigu izan gaitezen;
Zu ez baitzara izaki horietako bat beraz ere ahazten.
Argi itzazu boterearen eta diruaren jabe direnak axolagabekeriaren bekatutik alden daitezen,
guztien ongiaren alde egin, ahulak sustatu eta bizi garen mundu hau zaindu dezaten.
Behartsuek eta lurrak deiadar egiten dute:
Jauna, har gaitzazu zeure indarrez eta zeure argiz,
bizitza oro babesteko, etorkizun hobe prestatzeko,
zuzentasun, bake, maitasun eta edertasunezko zure Erreinua etor dadin. Goresia Zu. Amen.

(LAUDATO SI' entziklika) (otsailaren 2tik dator)

OTSAILA / ZEZEILA Osteguna / Eguena

Urteko 5. astea.

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea*

(*umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria*).

Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*.

8

[1 Erregeak liburutik 11,4-13: Nire ituna gorde ez duzulako, kendu egingo dizut erreinua; baina Davidengatik leinu bat utziko diot zure semeari. **Sal 106 [105]**: Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,24-30.

Aldi hartan, Jesus Tiro aldera joan zen. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen inork jakiterik nahi; baina ezin izan zuen ezkutan egon.

Alaba espiritu gaiztoak hartua zeukan emakume bat, Jesusen berri jakin zueneko, etorri eta oinetan ahuspeztu zitzaion. Emakumea jentila zen, feniziarra. Eta alabagandik deabrua botatzeko eskatzen zion Jesusi.

Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea».

Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte seme-alaben ogi-apurrak mahaipean».

Orduan, Jesusek: «Erantzun horrengatik, zoaz; atera da deabrua zure alabagandik». Itzuli zen etxera, eta ohean etzana aurkitu zuen neskatxa; alde egina zen deabrua.

Bere lurraldetik kanpo dago Jesus. Beraren onberatasunaren albisteak bidea egina zuen Palestinako mugaz harago; izan ere, zerbitzu-maitasunaren hizkuntza mundu guztiak ulertu ohi du, herrialde, kultura eta erlijio desberdineko jendea izan arren. Ebanjelioko ama honek maite zuen bere alaba, gaixo zena, eta

8

Osteguna / Eguena OTSAILA / ZEZEILA Urteko 5. astea.

San Jeronimo Emiliani, aitorlea
(*umezurtzen eta gazedti utziaren zaindaria*).
Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*.

Jesusen bila hasi zen, hura senda zezan erregutzeko. Juduen esaera zahar herrikoi batez erantzun zion Jesusek: «Ezin eman zaie txakurrei seme-alaben janaria». Eta amaren ateraldi bizkorra: txakurrek ere jaten dituzte mahaitik eroritako apurrak. Ama baten fedea da; horrek sendatu du alaba, Jesusi bere asmoak aldatzera eraginez.

BAIKOR edo OPTIMISTA

«Baikortasuna», bizitzari bai esatea da.
Izan zaitez alai eta baikor!
Ez galdu denbora atzera begira,
pasatua edo iragana dena, iragana, izana da.
Begiratu beti aurrera eta segi zeure bideari,
burua tente duzula eta aurpegia alai,
on eginez eta denei lagunduz.
Luzatu eskua hurbiltzen zaizunari,
esan hitz goxo, txerazko, kontsolagarriak,
izan denentzat irribarre onbera ezpainetan.
Egiazko poza izango da
zure bizitzako giroa
eder eta atsegin egingo duena.

(*C. Torres Pastorino, Brasil 1910-1980*)
(*Arantzazu 2016-12-01*)

Urteko 5. astea.

Santa Apolonia, *martiria*.

San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *erlijiosoa*.

[1 Erregeak liburutik 11,29-32; 12,19: Israel banandu egin zen Daviden errege-etxetik. Sal 81 [80]: Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Galileako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar.

Gizon gor eta hitz-motela eramane zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiraturaz, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «Ire-ki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen.

Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten.

Biziki harrituta, hau zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

Gaurko ebanjelioko sendatze hau esanahi handikoa izan daiteke guretzat. Jende asko kexatzen da gaur egun, ez duela aurkitzen inor ere lasai eta denbora emanez entzuten dionik. Belarriak beterik daude etengabeko hitzez: negozio eta botere-kutsukoez, egundoko presako genekoez eta tonuera digitekoez. Sendatu beharra dugu, inork entzun nahi ez duena aditzeko, oihu-garrai zartatuak eta oinaze-amildegi zorrotzak bakarrik iradokitzen dituzten isilgordeak aditzeko. Jesusek jendeagandik bereiz hartu du gormutua eta topaketa bihozko bihozko goxoan sendatu du. Herriaren hitza biziarri egindako abestia da: «Den-dena ondo egin du».

[1 Erregeak liburutik 12,26-32; 13,33-34: Jeroboamek urrezko bi zekor-irudi egin zituen. Sal 106 [105]: Oroitu gutaz, Jau-na, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,1-10.

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer jan-ik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badaramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen baditut, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta».

Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade hone-tan hauek asetzeko adina ogi?» Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?» Eta haiek erantzun: «Zazpi».

Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zatitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zion.

Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituz-ten hondarrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta al-dera joan zen.

Jesús ez da egon goseak direnek ogia eska diezaioten zain. Aski sentibera da bera talde haren gosea sentitzeko, hiru egun baitzeramatzan Jesusen bizitzari erreparatzen eta haren mezua entzuten. Hunkitu egin da eta ikasleak inplikatu ditu. Nondik

Urteko 5. aste.

Santa Eskolastika, *birjina*.

atera ogia leku bazter hartan? Partekatua den hitzak bihotza prestatzen du eskura duguna ere, ugari edo gutxi, partekatze-ko. Ondasunak ugaltzeak, partekatua ez bada, ez du ezer konpontzen. Milioika aho gose dago, egunero animaliei ematen zaien edota zaborretara botatzen den tonaka janariri begira. Sortu beharrean gara, bihotz berri batez, zuzentasun-egiturak eta solidaritate-bideak.

ARANTZAZURAKO MARTXAN (II)

Misterioa da iturria.
Opari bat da bizia.
Garena ia deus ez da eta
gugan dago den guzia.
Materiaren hautsa baikara
hautsaren Jainko-grazia
miseriatik infinitura
zabaltzen den askazia.
Oharpenaren bide horretan
badago nondik hasia:
ni txiki eta nahasia
ulertzeko lan gazia.
Badugu zer ikasia...
ta orain bagoaz ia.
Eskertu nahi dut harkaitz arteko
asteburu berezia.
Sentiarazi diguna berriz
mugagabeko hazia.

(Jon Sarasua)

(Arantzazuko egutegia 2016-10-14)

§ Lebitarrena liburutik 13,1-2.44-46.

Honela mintzatu zitzaizen Jauna Moisesi eta Aaroni: «Nor-baiti larruazalean handitua, zornadura edota orbaina ateratzen bazaio, legenarena bezalako zauria sortuz, Aaron apaizagana nahiz haren ondorengoetako apaiz batengana eramango dute. Legenarduna da; kutsaturik dago, eta hala aitortuko du apaizak buruan duen gaitzagatik.

Legenak jota dagoenak arropak urratuak eramango ditu, ilea harro eta aurpegia erdi estalirik, eta “kutsatua, kutsatua!” oihu egingo du. Gaitzak alde egin arte, kutsatua izango da eta bakarrik biziko, kanpalekutik aparte».

[Sal 32 [31]: Zu zaitut ihesleku, askatasun-kantuz inguratzen nauzu.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 10,31–11,1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, bestea baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitetze nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,40-45.

Urteko 6. astea.

Andre Maria Lourdeskoa.

San Paskual 1.a, 98. *aita santua.*

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion erreguka Jesusi eta, ahuspezturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua luzatu eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Orduan bertan alde egin zion legenak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali egin zuen, zorrotz aginduz: «Kontuz gero! Ez esan inori ezer. Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini garbikuntzaren ordainez Moisesek agindutakoa, ezaugarri izan dezaten».

Hura, ordea, atera zeneko, gertatua hots egiten eta zabaltzen hasi zen oihuka, eta harrezkero ezin zen Jesus inongo herri-tan agerian sartu, eta kanpoan gelditu ohi zen, leku bakartietan. Hala ere, edonondik zetorkion jendea.

Arau guztien aurka, Jesusengana hurbildu den lepradunak ez du oihu egin lohia dela esanez, baizik eta eten egin du bere gaixotasunagatik gorde behar zuen urruntasuna; Jesusek berak ere ez dio agindu urrun egoteko, baizik eta onartu eta ukitu egin du sendatuz, bera kutsatzen zuen lege-lohitasunari kasurik egin gabe. Aldi berean, esan dio lepradunari, batetik, apaizagana joateko, sendatua dela ziurta dezan, eta, bestetik, Jainkoari eskerrak emateko, bere garbikuntzagatik Moisesek agindua eskainiz. Jesusek hautsi egin ditu biziari oztopoak jar-tzen dizkioten legeak eta bete bizia babesten dutenak: apaizen ziurtagiria, gaixoa sendatua zelakoa, elkarteko bizitzarako eta familiako bizikidetzarako pasaportearen; garbikuntza-erri-tuak, berriz, berreskuratutako osasunagatik Jainkoari eske-rrak emateko egintza ziren.

Urteko 6. astea.

Andre Maria Lourdeskoa.

San Paskual 1.a, 98. aita santua.

Herri xumea konturatu zen non zegoen bizia, eta deliberruki bilatu zuen jende-bizilekutik kanpo, Jesus zegoen lekuan. Honen presentziak Jainkoaganako esperantza esnatu zuen, eta herria mugimenduan ipini. Eta guk geuk, aurkitzen al dugu Jesusekin topo egitean esperantza bizi hau bera, guztien bizitzari indarra ematen diona?

Andre Mariari otoitza
«Gogoan izan, Ama on-ona:
ez da sekula entzun,
zure babesera jo izan duen inor,
zuri laguntza erregutuz eta sorospena eskatuz,
alde batera utzi izan duzunik.
Ez zapuztu, oi Jainkoaren Ama,
nire erregu apal hau;
baizik eta entzun ezazu
eta onartu bihotz onez. Amen.

(San Bernardo)

Urteko 6. astea.

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*.
San Modesto, *martiria*.

[Santiagoren liburutik 1,1-11: Tentaldiak iraupena dakarkio zuen sinesmenari, on-onak eta beteak izan zaitezten.

Sal 119 [118]: Betorkit zure gupida, Jauna, biziberri nadin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,11-13.

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale eske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango».

Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta bestaldera abiatu zen.

Ebanjelioan ageri da, jendeak behin eta berriz eskatzen diola Jesusi zerutik jaitsitako mirarizko seinalaren bat, beragan sinetsi ahal izateko. Eskari horrek eragindako amorrazioa jasan behar izan zuen Jesusek; izan ere, batetik, Jainkoari baldintzak jartzea esan nahi du eskari horrek eta, bestetik, jendearen itsutasuna agertzen du Jesusen egintzak jada berekin dituen seinale guztiak sumatzeko eta, batez ere, ezgaitasuna Jesus bera den seinalea nabaritzeko: Jainko gizon eginaren irudia eta jakinduria den aldetik, alegia, guztientzat atzemangarria da, eta ez da mugatua jakintsu edo sarbidetu batzuentzat bakarrik. Aski da mundua pausatuki eta soseguz kontenplatzea, biziaren Jainkoaren seinalez betea dela ikusteko.

[Santiagoren liburutik 1,12-18: Jainkoak ez du inor tentatzen.
Sal 94 [93]: Zorionekoa, Jauna, Zuk hezten duzuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,14-21.

Aldi hartan, ikasleei ogia hartzea ahaztu zitzaizen, eta bat bakarra zeukaten ontzian. Jesusek ohar hau egin zien: «Begira gero! Kontuz ibili fariseuen eta Herodesen legamiarekin».

Haiek, berriz, eztabaidan ari ziren elkarrekin, ogirik ez zutelako. Konturatu zen Jesus eta esan zien: «Zer ari zarete ogirik ez duzuela eta? Oraindik ez al duzue ulertzeko adimenik? Hain burugogorak al zarete? Begiak izan, eta ez al duzue ikusten? Belarriak izan, eta entzuten ez? Ez al duzue gogoan, bost mila gizonen artean bost ogiak banatu nituenean, zenbat saski bete zenuten hondarrekin?» «Hamabi», erantzun zioten. «Eta lau mila gizonen artean zazpi ogiak banatu nituenean, zenbat otarre bete zenuten hondarrekin?» Erantzun zioten: «Zazpi». Orduan, Jesusek: «Eta oraindik ere ez duzue ulertzen?»

Zein legamiarekin ibili behar dugu kontuz? Fariseuek, beren agindurik txikienekin eta seguruekin, den-dena kontrolatua zuten beren bizitza erlijiosoan, halako moduan, non Jainkoak haien ubide aurreikusgarri eta estuan mugitu behar baitzuen. Alabaina, Jainkoaren egintzak munduan gure kalkuluz guztiak gainditzen ditu, baita bera nola agertuko izaten dugun gure ustea ere. Jainkoak ez digu uzten beraren errukia gure egitasmo neurtuetan eta aurreikuspen estuetan hesitzen,

Urteko 6. astea.San Benigno, *martiria*.San Kastor, *apaiza eta ermitaua*.

ezta ere pertsonak eta taldeak ortodoxietan sailkatzen. Guztiek jan zuten eta ogia sobera gelditu zen. Jainkoagan konfiantza izatera gonbidatzen gaitu Jesusek, hark mundua maite duelako irudimen eta bihotz zabaltasun mugagabez, eta geure bihotza zabaltzera.

«Erronkei aurre egin behar diegu; zorionera iritsi, zoriak planteatzen dizkizun erronkak kontrolatzen dituzunean iristen da. Izaitez, erosotasuna handitzeak galdurik sentitzera eraman zaitzake. Ez dugun gauza bat, eta Estatuak eta politikoez ezin eman dizuten bat, gainerakoekin denbora-pasa bizitzea da, beste jende batekin egotea: talde batean egotea. Honetaz, zeuk behar duzu arduratu. Independentziara emanak diren pertsonak beste batzuekin bizitzeko familiartasuna galtzen ari dira; hain juxtu, sozializatzeko gaitasuna galdurik dutelako. Sozializatzea nekagarria da; izan ere, negoziatzea eskatzen du eta berriro ere negoziatzea, eztabaidatzea, akordiora iristea, berriro kreatzea. Independentziak hau guztia egin ahal izateko gaitasuna kentzen dizu». (Bauman poloniar soziologoa) (Otsailaren 18an jarraitzen du)

§ Joel Profetaren liburutik 2,12-18.

Hau dio Jaunak:

«Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz.

Urta itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserre gaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena.

Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isur oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere.

Atera bedi senarra ezkonduen gelatik, emaztea ezkon-ohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak.

Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela mendera atzerritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”»

Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

[Sal 51 [50]: Erruki, Jauna bekatu egin dugu-eta.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5,20–6,2.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean es-

Hausterre eguna.

San Zirilo, *monjea* eta San Metodo, *gotzaina*.
(*Europako Zaindariak*). San Valentin, *martiria*.

katzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, gugatik bekatuarekin bat egin zuen Jainkoak, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6. 16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari, eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

San Zirilo, *monjea* eta San Metodo, *gotzaina*.
(*Europako Zaindariak*). San Valentín, *martiria*.

Barau egitean, ez agertu kopetílun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Bide espirituala da garizuma, gure errealitate pertsonal eta sozialean hasten da, beraren zartadura, amets eta guzti, eta Jesus-ek eman digun Pazkoaldiko poza du jomuga. Jomuga hau buruan eta bihotzean argi izatea orientagarri izango dugu, bide-ertzen ageri ohi diren bidezidor liluragarri eta engainagarrietan ez erortzeko; jomuga horrek erakarri egingo gaitu, geure barne osoa bat eginenez, urrats bakoitza zentzuz betez. Baina izaten ditugu geure barnean dinamismo edo indar batzuk ere, triste jartzen gaituztenak, zurruntzen eta arrastatzen gaituztenak besteren probetxua gizen-tzera. Gerta daiteke, geure bihotza sentsazioen mende eta beterik edukitzea, geure «barne kolonizatuan» beste nagusi batzuentzat lan egiten duten sentsazioen mende, alegia. Jolasak, kontsumismoak, gozamen kimiko edo elektronikoak beren prezioa izaten dute, eta irisgarri dira kreditu-txartelarentzat, baina benetako poza erostezi-na da, eta Espirituaren erregalu gisa jaiotzen da bihotzean.

Gaurko ebanjelioak hiru jarrera adierazten dizkigu aipatu bide hori egiteko. *Otoitzak* Jainkoa jartzen digu geure harremanen erdigune: on guztien iturburu agortezin den Jainkoa. *Barauak* gure espirituak sentitu ohi duen hutsunearekin uztartzen du gure gorputza, Jainkoak bakarrik ematen ahal digun dohai-nari tokia egiteko. *Limosnak* gure kezka adierazten du pobretasun-era ezin kontakut lur jota dituen pertsona guztiekiko, eta geure banku-kontua, denbora eta bihotza irekitzen dizkiegu.

Hausterre ondokoa.

Santa Jovita, *martira*.

San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*.

[Deuteronomio liburutik 30,15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizuet gaur aurrean. **Sal 1**: Zorionekoa Jau-nagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da».

Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?»

Garizumako ibilbide honen hasieran, oharpen argi bat egin du Jesusek berari jarraitu nahi dioten guztientzat. Egun bakoitzak du bere gurutze-anoa. Batzuetan ez da ikusten kasik, eguneroko bizitzaren larrupean mozorroturik etorri ohi delako; beste batzuetan, berriz, dramatikoa izan daiteke, nornahiri barrua nahasterainokoa. Pozaren kontrakoa ez da oinazea, baizik tristura. Jesusek bere lepoan hartu ditu munduko bekatua, biktimen zama, eta, munduaren bekatuarekin batean, kaltegileena. Geuk ere bat egin nahi genuke Jesusenarekin. Horrela, zentzuz beteko litzateke gure bihotza.

16

Ostirala / Barikua OTSAILA / ZEZEILA

Hausterre ondokoa.

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*.
Santa Juliana, *birjina eta martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 58,1-9a: Hau da nik maite dudan baraua. Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau».

Juduek oso ondo arauturik zeuzkaten barau-egunak. Fariseuek eta Joan Bataiatzailearen ikasleek barau egiten zuten. Jesusek eta honen ikasleek ez zituzten betetzen errituzko barau horiek; soilik, Galileako herrixka baztertu haietan egiten zuten bizitza pobre eta ibiltariak ezartzen ziena zuten beren baraua. Garrantzizkoena Jesusentzat, une horretan, pozaz gozatzea da, jende uste galdu eta pobretuagana erreinua iritsi delako herriak sentitzen duen pozaz gozatzea, alegia. Momentu horretan ezerk ere ez dio ahaztarazi behar jendeari estreinatuta beharria duen poz hori, Jesusek ezteietako janari, edari, musika, dantza eta lurringaiekin alderatu duen hori. Jesus beren artean izango ez dutenean egingo dute barau ikasleek.

Andre Mariaren Zerbitzarien *Zazpi Fundatzaile Santuak*.
Amaseako (gaur egungo Amasia, Turkian)
San Teodoro, *martiria*.

[**Isaias profetaren liburutik 58,9b-14:** Gose denari zeure ogitik ematen badiozu, zure argia ilunpean zabalduko da. **Sal 86 [85]:** Erakutsiezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,27-32.**

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark, dena utzirik, zutitu eta jarraitu egin zion.

Lebig bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarreen ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?»

Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixoek baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatarietara baizik, bihotz-berri daitezen».

Mateo ebanjeliora konbertitu zen eta, aurkitu zuen bizi berriagatik bere eskerrona eta zoriona adierazteko, otordu handi bat prestatu zuen. Han ziren beraren aspaldiko adiskideak, bizitza osokoak, jendaurreko bekatariak, oso ezagunak, herria larrutzen zuten funtzionarioak. Jesus eta honen ikasleak ere han ziren, partaide. Kritikari aurre eginez, bere jarreraren argibidea eman die Jesusek: Jainkoaren Semea galduak zirenen bila etorri da, nahas-nahas zebiltzanen, lege-betetzailen gaitzespen hitzak bakarrik entzuten zituztenen bila, eta mahaian jarri da haiekin, adiskide agertu zaie eta Jainkoaren adiskidetasuna hurbildu die, giza periferietara jaisten baita Jainkoa, galduak diren ardien bila.

§ **Hasiera liburutik 9,8-15.**

Egun haietan, Jainkoak esan zien Noeri eta honen semeei: «Hara, ituna egiten dut zuekin eta zuen ondorengoekin, baita zeuekin dituzuen bizidun guztiakin ere: hegazti, abere eta lur-reko piztiakin, ontzitik atera eta lur-rean bizi diren guztiakin. Hona, zuekin ituna eginez, eman nahi dizuedan hitza: ez duela uholdeak berriro bizidunik hondatuko, ez dela aurrerantzean izango lurra suntsituko duen uholderik».

Jainkoak esan zuen gainera: «Hau da zuekin eta zuen artean bizi diren bizidun guztiakin belaunez belaun eta betiko egin nahi dudan itunaren ezaugarria: neure ortzadarra ipiniko dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egiten dudan itunaren ezaugarria. Nik zerua lainotzean, ortzadarra agertuko da hodeietan, eta oroituko naiz zuekin eta bizidun guztiakin egina dudan itunaz, eta ez da izango gehiago bizidunak suntsituko dituen uholderik».

[Sal 25 [24]: Zure bidexka guztiak grazia eta leialtasuna, Jauna, zure ituna gordetzen dutenentzat.]

§ **San Pedro Apostoluaren 1 gutunetik 3,18-22.**

Senide maiteok: Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko, «errugabeak errudunengatik», zuek Jainkoagana eramateko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik. Espirituaren eraginez joan zen bere mezua hots egitera giltzapetuak zeuden espirituei, garai batean sinesgogor izan zirenei; Noeren egunetan, hark ontzia

OTSAILA / ZEZEILA Igandea / Domeka. B
Garizumako 1. astea.

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina.*
Fiesoleko Joan dohatsua (Frai Angelico),
apaiza, domingotarra.

18

egin bitartean, Jainkoa pazientziaz egon zitzaien zain; baina ontzian banaka batzuk bakarrik, zortzi lagun guztira, izan ziren uraren bidez salbatuak.

Ur hura orain zuek salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da. Eta Bataioa ez da gorputzeko zikina garbitzea, baizik eta Jainkoari kontzientzia garbia eskatzea, Jesu Kristoren piztueraren bitartez. Jesu Kristo, zerura igo ondoren, Jainkoaren eskuinaldean dago eta menpean ditu ainguruak, aginteak eta indarrak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1,12-15.

Aldi hartan, Espirituak basamortura bultzatu zuen Jesus. Berrogei egunez egon zen basamortuan, Satanasek tentatzen zuela. Basapiztien artean bizi zen eta ainguruak zituen zerbitzari.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Bete da epea, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona».

Markos oso laburra da Jesusen garrantzi handiko une batean. Espirituak basamortura eramán du Jesus, prestatu eta erreinua iritsi dela hots egiten has dadin. Basamortuko bakar-dadean, jendearen itxaropena bide distiratsu bezala agertu zaio bere siltasunean: jaten ematea gose kronikoa duen herri bati, seinale miresgarriak egitea, dominazio boteretsu bat ezartzea. Mateok eta Lukasek oso argi deskribatu dituzte seinale faltsu horiek. Tentazio dira, «on egitearen itxura pean». Jesusek, Jordan

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina*.
Fiesoleko Joan dohatsua (Frai Angelico),
apaiza, domingotarra.

ibaian gainera etorri zitzaion Espirituaz beterik, ondo garaitu zituen tentazio horiek basamortuan, eta kalean eta plazan estilo berezi eta espero ez zena azaldu zuen, jende guztia harriarazi zuena.

Gure baitan besteren proposamenak ari dira pil-pil, bizitza arrakastatsu baten eskaintza eginez. Kontra egin gabe geratzen bagara, agian une batean irudi batzuekin egingo dugu topo, gure barruan begi-kliska eginez, gure hondoraino sartu eta gu liluratzeko prestaturik. Une horretako nazka nahasia gainditzen badugu, ordea, entzungo dugu Jainkoaren ahotsa eta ikusiko haren irudia, gure berezitasunaren eta gure zorionaren ezustekoa elikatzen duelarik. Joan Bataiatzailea preso hartu zutenean, Jesusen hitz aske eta berria agertu zen kalean.

«Gure bizitza zatitua dugu orain: “online” eta “offline”, konektaturik eta konektatu gabe. Lehen kasuak ez du arriskurik: gauza erraza da Interneten adiskideak egitea; izatez, horrela inoiz ez duzu sumatu zeure bakardadea. Eta norbait gustuko ez baduzu, berarekin harremanetan jarraitzeari utzi eta kito. “Offline” munduan nekez saihestuko duzu areriotasuna. Zenbat eta independenteago izan, orduan eta ezgaiago bihurtuko gara geure independentziari stop esan eta interdependentzia atsegingarri batez trukatzeko». (Bauman poloniar soziologoa) (otsailaren 13tik dator) (testuingurua ikus otsailaren 20an).

Garizumako 1. astea.San Konrado Confalonieri, *ermitaua*.

[Lebitarrena liburutik 19,1-2.11-18: Epaitu zuzenbidez zeure herritarra. **Sal 19 [18]:** Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Se-mea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezker aldean.

Orduan, erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”.

Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”

Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”.

Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarika-tuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman;

Garizumako 1. astea.

San Konrado Confalonieri, *ermitaua*.

egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nongoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”

Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”.

Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Laua da gaurko ebanjelioa. Galdera batek laburbiltzen ditu pertsona baten bizitza guztiko joan-etorriak: Zer egin zenuen ogi-, arropa-, maitasun-, harrera-, askatasun-premian zenaekin? Galdera onek neurtzen du pertsona baten nolakotasuna, familia baten, elkarte baten, gobernu baten nolakotasuna. Frantzisko aita santuak Lampedusara joan eta, itotako emigrantez negar egiteko, itsasora lore zuriren sorta bat bota zuenean, Europako begiak Hegoalderantz begira jarrarazi zituen. Ikustearena da arazoa. «Noiz ikusi zintugun, Jauna?» Ausartzen al gara begiak azkenak direnengan ezartzen, haiengan Jainkoaren aurpegia ikusteraino?

Garizumako 1. astea.

San Leon, *gotzaina*. Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*.

[Isaias profetaren liburutik 55,10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

“Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, eta ez gu tentaldira eraman, baina atera gaitzazu gaitzetik”.

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteek barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Jainkoari Aita esaten erakutsi zigun Jesusek: Aita onbera, Aita hurbilekoa, nori bere izenaz dei egiten diguna norberarena beste guztienek ohoratzen dutelarik. «Gure Aita» otoitzaren hitzak ahiturik daude agian, eta galdurik dukete beren distira, asko erabilitako monetek bezala. Biziberri ditzagun geure otoi-tzaz eta konpromisoaz. Aitak bere borondatea proposatzen digu,

Garizumako 1. astea.

San Leon, *gotzaina*. Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, anai-arrebak, *santuak*.

ogi berri eta kurruskatsua bezala, beti berria den erreinuaren dohaina ematean; Jainkoaren izenaren santutasuna kaleetan irakurtzen da giza bizitza duinean; eta gaiztakeriatik ebanjeliora igarotzeak berekin du baldintzarik gabeko barkazioa, anai-arreba arteko indarkeriaren tentazioari edota arima husten digun etsipenari aurre eginez.

Zergatik hartu behar ditugu kontuan Bauman-en oharpenak “maitasun likidoaren” arriskuez?

Gizarte “likidoa” eta pertsonarteko harremanen garrantzia argitu zituen filosofo eta soziologo poloniarra hil da.

Erik Gandini, italiar-suediar zinegilea, Suediatik Etiopiarantz abiatu da, bidaia zinematografiko batean. Beraren pelikula (Suediako maitasunaren teoria), 1972an Suediako parlamentuan proposatutako gogoeta (“Etorkizuneko familia”) batetik jaio zen. (Lucandrea Masaro <http://es.aleteia.org/2017/01/09>) (Bauman-ez solasa otsailaren 18tik dator) (otsailaren 23an jarraituko du).

Garizumako 1. astea.San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Jonas profetaren liburutik 3,1-10: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli ziren. Sal 51 [50]: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaien: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninibetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izan-go da Gizonaren Semea gizaldi honentzat.

Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriazko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino handiago dena.

Auzi-egunean ninibetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta hona hemen Jonas baino handiago dena».

Zail izaten da konbertitzea, jada konbertituak garelara uste izaten dugunean. Sarritan hesitzen gara geure nartzisismoan. Zein seinalek aztoratzen ahal gaitu? Zenbat milioi umek hil behar du goseak eta egarri, basamortuko harea huts bailiran? Zer gainbehera pertsonal da beharrezko, gure bizitzari azpia jaten ari zaizkion korronte ezkutuez kontura gaitezen? Zein mailataraino hustu behar dute gure elizek, gu konbertitzeko, bizi dugun eta hots egiten dugun Ebanjelioak ez duela jada entzulerik munduan harat honat dabilen jendearen artean? Ninive hiria bizirat itzuli zen. Etsenplu bat dugu geure esperantzarentzat.

[1 **Pedro liburutik 5,1-4**: Haiek bezala arduradun eta Kristoren sufrimenduen testigu naizen honek. **Sal 23 [22]**: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.**

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Jesusen galderak atek bezalako dira, zeruertz berri bat irekitzen dute, edota geure barnean lausoturik ditugun alderdiak edo dira. Bera nor den galdetu die Jesusek ikasleei. Jendeak esaten duenaren alde ona bakarrik bildu dute ikasleek erantzutean. Pedrok Jesus Mesias dela, Jainkoaren Semea dela esan duenean, Eliza gidatzeko mandatua eman dio Jesusek. Eta berehala esan die, Mesias delako, zerbitzaria dela heriotzaraino, gizon-emakume guztien bizitza duintzeko. Elkartearen aurka jaikiko da «infernua», nola luxuarena eta pribilegioena, hala pertsekuzioarena eta hondatzailearena, baina ez du garaituko. Maitasuna ezin hil da.

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria.*

Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900),
dohatsua, fundatzailea (Aingeru Zaindaria).

[Ezekiel profetaren liburutik 18, 21-28: Gaiztoaren heriotza nahi ote dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? **Sal 130 [129]:** Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Fariseuak legeko arau txikienean betetzaileratsi ziren. Baina hori ez da aski. Jesusek eskaini digun maitasuna ezin hesitu

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria.*

Rafaela Ibarra (Bilbo 1843-1900),
dohatsua, fundatzailea (Aingeru Zaindaria).

da legetan. Gainerakoekiko maitasunean gauzatzen da maitasun hori, lege batekin alderatu gabe. Bihotzean pertsona baten aurkako gorrotoa eta arrangura gordetzen badugu, hartu dugun irain batengatik gure jarreraz edo hitzez norbait lotsarazten edo zauritzen badugu, gaitzaren dinamika suntsitzailean murgilduko gara. Ez gara ariko giza harremanen sarea ehotzen. Jainkoarentzat, garrantzikoagoa da zeure anai-arrebekin adiskidetzea, aldarera eramanez eskaintza baino. Anaia edo arreba duzu aldea.

Hau du oinarrizko kontzeptua: egiazko giza harreman orok independentzian oinarritu behar du: independentzia emazteak senarrarekiko, gaztetxoek gurasoekiko, agureek seme-alabekiko. Baina independentziak mugatu egiten ditu hurbiltasun eta harreman pertsonalak; horregatik, gaur, 50 urte ondoren, jendetzaren erdia bakarrik bizi da, eta gero eta ama gehiago bilakatzen da ama ezkongabe, intseminazio artifiziala dela medio.

Zergatik bihurtzen da hain ez-atsegingarri bizitza seguru eta babestu bat? Balizko erantzun bat, Zygmunt Bauman poloniar soziologo eta filosofoarena izan daiteke; agertzen du, problemarik gabeko bizitza ez dela ezinbestean bizitza zorionsua. (Lucandrea Massaro) (Bauman-ez solasa otsailaren 20tik dator) (otsailaren 24an jarraituko du)

Garizumako 1. astea.San Moises, *Itun Zaharreko profeta.*San Luzio, *martiria.* Santa Primitiba, *martiria.*

[Deuteronomio liburutik 26,16-19: Jaunari zeure Jainkoari saragaraturiko herri izango zara. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaitzontzat eta zintzontzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Gauza arrunta da maite gaituztenak eta gurekiko arretatsu direnak maitatzea eta on egitea. Hori bera ere ez da gutxi, beti egiten badugu. Baina Jesusek ekarri digun berritasuna urrunagora doa: on egin gure etsai direnei, pertsegitzen eta mespretxatzen gaituztenei. Otoitzak bihotza irekitzen digu on egiteko, ahalbidea ematen digu Jainkoagandik datorren grazia onartzeko, berak bezala jokatu ahal izateko, Hark benetan maite baitkaitu, eta bere bihotzean gauzka eta zoroa moduan arduratzen

da gutaz galdurik ikusten gaituenean. Gaitz orde gaitz egiteak gorrotz betetzen du bihotza, eta herriak dinamismo suntsitzaillez eta hilobiz. Barkatzeak eta adiskidetzeak Jainkoaren antzeko bihurtzen gaitu.

Bizitza likido baten estiloak (aipatu soziologoak oso maite duen kategoria) jende asko erakartzen du; mugarik gabeko trukaketa eskaintzen baitu; hobeto esan, konpromisorik gabeko trukaketa.

Maitasunak, ordea, konpromisoa eskatzen du eta ahalegina. Sare sozialek errazago bihurtzen dute lagunak uztea, mendebaldean gero eta nagusiagoa den jarrera handituz.

Bauman-entzat (1925-2-17), britaniar bihurtutako soziologoa-
rentzat alegia, pertsonarteko lotura guztiak desegitetik hamarkada gutxira legoke gure gizartea; joera horrek era hazkorrean ikusi du alderdi politikoen, sindikatuen, familiarterko harremanen eta eskola bezalako erakundeen azkena; kasu askotan, indibiduoak atomo bihurtu dituelarik, inolako loturarik ezin lortu dutelarik, bakardera eta konsumoaren atsegina bakarera galduz.

Gaur, urtarrilaren 9a [2017], agur esan behar izan diogu pentsalari handi bati [Baumen-i], abusu horien aurka hitz egiteko gai direneta bati. Beraren falta sumatuko dugu.

Garizumako 2. astea.San Bitorino, *martiria*.Santa Valverga, *abadesa*.**§ Hasiera liburutik 22,1-2.9a.10-13.15-18.**

Egun haietan, Jainkoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaak zeure semea, hain maitate duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskaini ezadazu erre-opari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean».

Aita-semeak Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu. Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek bere semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik sastraka artean kateatua; hartu eta erre-oparizat eskaini zuen semearen ordez.

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbaterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengo bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana egin duzulako».

[Sal 116 [115]: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizidunen lurrean.]

§ San Paulok Erromatarrei 8,31b-34.

Garizumako 2. astea.

San Bitorino, *martiria*.
Santa Valverga, *abadesa*.

Senideok: Jainkoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semea bera heriotzatik libratu ez, baizik eta gu guztion alde heriotzara eman zuenak, nola ez digu harekin batera dena dohai-nik emango?

Nork salatuko ditu Jainkoak aukeratutakoak, Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu? Nork kondenatuko ditu? Jesu Kristotok?, hil zenak?, piztu ere egin zenak?, Jainkoaren eskuinaldean dagoen eta gure alde otoitzean ari denak?

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,2-10.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eraman zituen haiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurak harturik zeuden.

Orduan, hodei batek estali zituen, eta ahots bat atera zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galde-tzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori.

Garizumako 2. astea.San Bitorino, *martiria.*Santa Valverga, *abadesa.*

Mendi batean ulertu du Abrahamek Jainkoak ez duela nahi seme bakarra aldarean errituz hiltzea, inguruko herriek egin ohi zuten bezala beren jainkoei gustua emateko; Jainkoak nahi duena, seme hori bizi dadin dela, ondare ugari baten jatorri izateko. Beste mendi batean, Tabor mendian, Aitak agertu digu bere Seme kuttuna duela Jesus, kontuan hartu behar dugula honek sei egun lehenago ikasleei esan zien hura: Jerusalemera, boterearen erdigune zen hartara, zihoala erreinua etorri izana hots egitera, eta gurutzean josiko zutela gurutzearen aldare doilortuan, baina piztuko zela (Mk 8,27-30).

Jesus antzaldatu egin zen ikasleen begi-bistan. Oso-osorik ze goen Jesus bere baitan bat egina, eta Aitak hartaraino maite zuela sentitu eta eman zion misioa hain baietsia nabaritu zuen, non aurgiegia distiratsu ikusten baitzizaion. Jesusen jarraitzaile guztiok behar izaten ditugu Jainkoaren baiespina eta kontsolamendua, guztien bizirako den erreinuaren konpromiso zailetan; horrela bakarrik senti gaitzke alai eta gai gurutzeak jasateko, iluntasun trinkoan murgiltzen ahal gaituztenak. Tabor mendian dastatu zuen jada Jesusek piztuera, geroago bete-betean biziko zuena.

Hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi goi batera igo zen haiekin bakarrik, eta hiruren aurrean antzaldatu zen.



Garizumako 2. astea.

San Alexandro, *gotzaina*.San Porfirio, *gotzaina*.

[Daniel 9,4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaiztoak izan gara.
Sal 79 [78]: Ez gu erabili, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, hala-koaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Lau aditz proposatu dizkigu Jesusek; berak dakarkigun bizi berria laburbiltzen dute, zikoizkerian atxikitzen eta amairik gabeko borrokan nahasten gaituen bizitza zaharra gainditzen duen bizi berria, alegia. Jainkoak bakarrik ezagutzen duen bere misterioa proposatu digu Jesusek: ulertzen ez dugun hura jzkatu ez, baizik misterio horretan koka dezagun; inor ez gaitzes-teko, beraren muga estuan kartzelatu eta etorkizunik gabe utziz, baizik eta barkatzeko, bizikidetzan sor litekeen edozein zauri sendatuz; lapurtu eta metatu ez, baizik eta premian denari emateko. Ezin sartu gara aise zoriontasun-bide honetan. Joera dugu, defentsiban bakarrik bizitzeko kalkuluaren, «beldur arin edo likidoaren», pilatzearen eta errezeloaren hutsunearen kulturen.

Garizumako 2. astea.Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*.

[Isaias profetaren liburutik 1,10.16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzenbidea. Sal 50 [49]: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta beste leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurtean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Kristo.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua behe-ratzen duena goratu».

Gainerakoei predikatu ohi diegu zer egin behar duten le-geen, arauen, ohituren, Jainkoaren borondatearen arabera...

baina gure biziera oso urrun egon daiteke besteei eskatzen diegunetik. Esaten duguna bizitzen dugunaren itxura egin dezakegu, jende onaren izena, boterea eta fama ematen digulako. Geure baitan iruzur hori ikusiko dugunean, Jaunak edo edozein pertsonak koherentzia-falta hori argitu digulako, ukatu edo itxura erlijiosoz mozorrotu ordez, on egingo digu azkenak direnen ondoan eseri eta apal eta umil izateak, eta giza errealitatearen amatasun-humusean erroturik bizitzeak.

Fatimako artzain txikiak lekuko handi

«Lekuko izateak besteei adieraztera eragiten du, hain handia den pozaren berri besteei ematera. Horrek eragin zion (Fatimako hiru artzain txikietako) Ihazintari esatera: «Andre(a) (Maria) ikusi dut». Berri eman beharra eustezin bihurtzen da; beste modu batean esanik, (Ihazintak) ezin gorde zuen beretzat bakarrik (bere poza). Aurpegi-ratzen dizkioten gaitzespenei zuribide horixe eskaintzen die: «Neure bihotzean gauza bat neukan, isilik egoten uzten ez zidana» (Luziaren Oroitzapenak, 45). Luziak aipatzen dituen «Berri eman beharra» eta «Komunikatzeko gogo beroa» horiek dira Ihazintari eragiten diotena albiste onaren, albiste gozoaren berri ematera: «Andre(a) (Maria) ikusi dut». (Eloy Bueno de la Fuente, *El Mensaje de Fátima*, 2013, 180. or.).

Garizumako 2. astea.Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*.

[Jeremias profetaren liburutik 18,18-20: Zatozte, jo dezagun Jeremias. Sal 31 [30]: Salba nazazu, Jauna, zeure maitasunaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,17-28.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da».

Orduan, zebedeoarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi

zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzaturia izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Jesus bidean gora doa Jerusalemerantz. Han zer gertatuko den adierazi die ikasleei bidean, eta gertatuko denaren zentzua argitu die. Baina ez dute ulertu. Ulerpen-gabezia eta bakartasunean hondoratuz doa Jesus; Getsemaniko gauean egoera ikeragarri bihurtuko da hori. Santiagoren eta Joanen amak giza botere-eskaria egin dio Jesusi: goranahia, influentzia-jokabidea, zapalkuntza... nabari dira. Ez da hori Jesusen estiloa. Zerbitzari izatera etorri da Jainkoaren Semea; hondorik hondoraino iritsiko da, beraren ondoan bi gaizkile hilko direlarik. Zoko-zokoetan bilatzen gaitu Jainkoak. Hori du gure artean Jainkoa izateko modua, gurekin gizadi berri bat sortzeko.




MARTXOA / EPAILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Ebanjelizazioa: **Formazioa bereizmen espiritualean**

Eliza osoa jabetu dadin bereizmen espiritualean formatzearen premiaz, nola maila pertsonalean hala elkartearenean.



MARTXOA / EPAILA Osteguna / Eguena

Garizumako 2. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, 48. *aita santua*.

San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*.

1

[Jeremias profetaren liburutik 17,5-10: Madarikatua konfiantza gizakiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena.

Sal 1: Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituen. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten.

Hontan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilan Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deiadarka esan zuen: «Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan».

Baina Abrahamek erantzun zion: «Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan; Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere».

Aberatsak berriro: «Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia baditut eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitezten». Abrahamek erantzun zion: «Hor dituzte Moises eta

1

Osteguna / Eguena **MARTXOA / EPAILA**

Garizumako 2. astea.

San Rosendo, *gotzaina*.

San Felix III.a, 48. *aita santua*.

San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*.

profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke”.

Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko hildako bat piztuta ere”».

Gogorra da benetan parabola; aldi guztietako errealitatea islatzen du. Batzuk oso aberats egiten ziren, arrantzaleen eta landa-jendearen bizkar. Luxu-luxuan bizi ziren. Behartsuen kopurua handituz zihoan, abusuzko zergez eta ordaindu ezinako maileguez itorik. Egunero sakontzen ari zen leize soziala bizi zuten. Aberatsak ez du izen berezirik, aberastasunak beraren nortasunaz jabetu balira bezala; sartu eta atera dabil aberatsa etxean, baina begirik ez du Lazaro ikusteko. Gupidatsuagoak dira txakurrak. Eta guk? Konbertitu beharra dugu, Jesusen eta behartsuen ondoan borroka egiteko, erreinuko zuzentasunak ireki ditzan begiak, bihotza, banku-kontuak eta leizeak ixten dizkiguten egitura gaiztoak.

*«Aita Abraham, erruki zakizkit,
eta agindu iezaiozu Lazarori
bere hatz- muturra urean busti
eta freska diezadala mihia,
oinaze gorrian bainago sugar
honetan».*



Garizumako 2. astea.

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*.
Santa Atanasia, *aitorlea*.

[*Hasiera liburutik 37,3-4.12-13a.17b-28*: Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. *Sal 105 [104]*: Ekarri gogora Jau-nak egin dituen mirariak.]

† *Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21,33-43.45-46.*

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”.

Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?»

Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia».

Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri:

2

Ostirala / Barikua MARTXOA / EPAILA

Garizumako 2. astea.

San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*.
Santa Atanasia, *aitorlea*.

“Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”

Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.

Jainkoak mendetan barna prestatu ditu lurraren humus ekoizlea eta paisaien edertasuna; kontaezin ahalako bizi-ahalbideak aurreikusi ditu, egunero bibliotekatan eta laborategietan aurkitzen ari garenak. Asmakizun berri bat (gal)buru izatera iristen denean, hartaz jabetzera oldartzen gara guztiok presaka. Norbaitek, Jesus eta aldi guztietako profetak bezala Jainkoak bidalirik, aldarrikatzen badu uztak gizon-emakume guztientzat direla, eta zokoratuen eskubideen errespetua eskatzen badu, hor agertzen dira boteretsuak, halako hori isilarazteko edo garbitzeko. Nola aurkitu eta eratu gaur egun «zimentarriak», haien gainean lurrean zuzentasuna eraikitzeko?

Garizumako 2. astea.San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

[Mikeas profetaren liburutik 7,14-15.18-20: Itsas hondora botako ditu gure bekatu guztiak. Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dago-kidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen.

Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahiko ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen.

Garizumako 2. astea.

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrena eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati deiturik, zer zen hura guztia galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den guztia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

Aitaren maitasunaren eta seme baten galeraren parabola honetan, bada gauza harrigarri bat. Ardi bat galdu duen artzai-

Garizumako 2. astea.San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*.

na, haren bila irten da hura aurkitu arte, eta moneta bat galdu duen emakumeak etxea errazteari ekin dio, hura aurkitu arte. Zergatik ez da irten aita hau galdua zuen semearen bila, artzaina eta emakumea bezain deliberatuki? Semeak galduak zituen dirua, adiskideak, osasuna, status soziala, ospea..., baina bazuen ezin alferrik galdu izan zuen gauza bat: aitak txikitatik maite izan zuen esperientzia. Galdua zenak, «bere onera etorri zenean», maitasun hori hain biziki sentitu zuen non posible gertatu baitzizaion etxera itzultzea.

Txilek barkazioa eskatu maputxei

«[Txileko] Errepublikako Presidente gisa, ospakiro eta apal eskatu nahi diot barkazioa Maputxe herriari, Estatuak, berarekiko eta beraren elkarrekin harremanetan, egin edo toleratu dituen “errore eta munstrokeriengatik”», deklaratu du Bachelet-ek.

«Estatu-buruak eta lurraldearen izenean jatorrizko herriei, oraingo honetan partikularki maputxe herriari, azken 150 urte hauetan beraiekin izandako harremanengatik, jendaurrean barkazioa eskatu izana, uste dut, keinu bat dela, bere handitasun guztian hartu beharreko seinale bat, eta zerikusia izan behar duena, inolako dudarik gabe, halakoak aintzat hartzearen politikarekin» (Vargas gotzaina, Religión Digital 2017-06-26).

§ Irteera liburutik 20,1-17.

Egun haietan, Jaunak hitz hauek esan zituen: «Ni naiz Jauna zure Jainkoa, Egiptoko lurraldetik, esklabotzatik, atera zintuena. Ez izan Ni beste jainkorik.

Ez egin idolorik, ez irudirik, goiko zeruan, beheko lurrean edota lurpeko urean direnetatik. Ez ahuspeztu horien aurrean, ez eman gurtzarik ere. Ni, Jauna zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut, hirugarren eta laugarren gizaldiraino; baina milagarren gizaldiraino agertzen diet errukia Ni maite nautenei eta nire aginduak gordetzen dituztenei.

Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, Jaunak ez baitu zigorrik gabe utziko haren izena alferrik erabiltzen duenik.

Izan gogoan larunbat eguna, Jaunari sagaratzeko. Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginkizun guztiak burutuko. Baina zazpigarren eguna atsedeen-eguna duzu, Jaunari, zeure Jainkoari, eskainia. Egun horretan ez duzu batere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, ezta zure herrian bizi den etorkinak ere. Zeren Jaunak sei egunean egin baitzituen zeru-lurrak, itsasoa eta horietan dagoen guztia, eta zazpigarrenean atsedeen hartu baitzuen. Horregatik, bedeinkatu egin zuen Jaunak larunbata eta egun sakratutzat ezarri.

Aintzat hartu aita-amak, luzaro bizi zaitezen Jaunak zeure Jainkoak emango dizun lurraldean. Ez hil inor. Ez egin adulteriorik. Ez ostu. Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren kontra.

Garizumako 3. astea.San Kasimiro, *aitorlea*.

Ez irrikatu lagun hurkoaren etxerik, ez haren emazterik, ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ezta beste ezer-txo ere».

[Sal 19 [18]: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 1,22-25.

Senideok: Juduak ezaugarri eske dabilta, eta jentilak jakinduria bila; guk, berriz, Jesu Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, juduentzat onartezina eta jentilentzat zorakeria dena; baina deituentzat, judu izan ala ez, Kristo hori Jainkoaren indarra da eta Jainkoaren jakinduria. Zeren Jainkoaren zorakeria omen dena gizakiak baino jakintsuago baita, eta Jainkoaren ahuleria gizakiak baino indartsuago.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-25.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiak, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarriz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutuko nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue ten-

Garizumako 3. astea.
San Kasimiro, *aitorlea*.

plu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?» Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

Pazko-jaietan Jerusalemen egon zen bitartean, askok sinetsi zuten Jesusengan, egiten zituen ezaugarriak ikusita. Jesus bera, ordea, ez zen haietaz fidatzen, denak ezagutzen baitzituen; ez zuen hark gizakiaren berri inork eman beharrik, ongi ezagutzen baitzuen gizakiaren barruan dagoena.

Irteera liburuko gaurko lehen irakurgaiak Jainkoaren aginduak dakartzkigu; herri osoarentzat biritza duina eta askea bermatzen dute; herriak bere baitan du Egipton bizi izandako esklabo-aldia, eta arriskua du lurralde aske berrian esklabutzako egiturak eta portaerak birsortzeko. Tenplua sinbolorik handiena zuten Israelen eta erbestean bizi ziren juduek. Jesusek, ordea, egiaztatu du, Tenplu hori ez dela guztien askatzaile den Jainkoari eskainitako benetako kultuaren adierazpen; baizik eta ustelkeria-zentro bat dela, boteretsuen eta apaiz nagusien probetxurako, zeinak faltsukeria mozarrotzen duten teologian eta kultuan oinarritzen baitira.

Keinu profetiko batez, Jesusek adierazi du, Tenplua garbitu egin behar dela, merkatari, sasi-kultu eta lege zapaltzaileetatik. Egiazko tenplua Jesus beraren gorputza da eta pertsona ororena: horietan bizi da Jainkoa. Jesusen gorputza lurrera bota dute

Garizumako 3. astea.San Kasimiro, *aitorlea*.

nekaldikoan, historian barna beste hainbat eta hainba lurreratu dituzten bezala, suntsipen-eremuetan, populazio marjinatuetan eta lukurreriapeko soldatetan. Gure zainetan merkatarien probetxua mugitzen eta negoziatzen ari da, baita legearen interpretazio maneatuak eta zuzengabekeriarekiko konplizitatea ezkuratzen duen kultura ere. «Salatu eta garbitu, Jauna, guban eta tenpluetan hain mozorrotua dagoen negozioa, intsentsupean eta jada ezin antzeman diegun ohituren pean».

Lagun hurkoa maitatuz Jesus maitatu

«Galdetu zion Jesusek Sienako Katalinari: Ene maitea, ba al dakizu zergatik maite zaitudan?» Katalinak ezetz erantzutean, Jesusek: «Esango dizut. Maite ez bazaitut, zu ez zara ezer izango, ez zara gai izango ezer onerako. Ikusten duzu, zu maitatu beharra dut». Eta Katalinak: «Egia da». Eta supituki: «Horrela nahi nuke nik zu maitatu» Baina esan orduko, konturatu zen zorakeria bat esan zuela. Jesusek irribarre egin zion. Orduan Katalinak: «Baina hau ez da zuzena. Zuk maita nazakezu maitasun handi batez eta nik maitasun txiki batez bakarrik maita zaitzaket. Jesusek esan zion: «Posible egin dut zuk ni maitasun handi batez maitatu ahal izatea». Katalinak, harriturik, galdetu zion: «Nola?» «Ondoan lagun hurkoa ipini dizut. Horri egingo diozun gutzia neuri egindakotzat hartuko dut». Katalinak, pozez gainezka, ospitalera jo zuen gaixoak sendatzera: «Orain maitasun handi batez maita dezaket Jesus». (Juan José Omella, Bartzelonako artza-pezpikuak, laburtua)

Garizumako 3. astea.

Santa Oliva, *birjina eta martiria*.
San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

[2 Erregeak liburutik 5,1-15a: Bazen legenardunik asko Israelen; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik. **Sal 42 [41]:** Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,24-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen. Eta sinagogan jendeari esan zion: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eramán zuten, handik behera botatzeko asmoz. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Jesu Nazaretoko sinagogan, bizitza osoko bere auzokoen aurrean, lehenengoz agertzearen pasadizo honen aurretik, Isaia-sen irakurgai bat dator: pobreentzat, gatibuentzat, itsuentzat eta zanpatuentzat berri onaren eguna iragartzen du. Profezia hau Jesusengan bete da, eta herri guztietara zabaldu; adibidez, Sareptako alargunagana eta Naaman siriarragana. Nolatan izan

Garizumako 3. astea.Santa Oliva, *birjina eta martiria*.San Joan Jose Gurutzekoa, *aitorlea*.

daiteke, ordea, espero zuten profeta herrixka bateko arotz hau, egunez egun beste edozein mutiko bezala hazten ikusi zuten hau? Ezin! Mendingian behera amiltzen saiatu ziren. Hor dabilta gaur egun ere Jainkoaren erreinuko profeta xumeak, munduko kaleetan. Lausotu gabeko begiz begiratuz gero, edozein jabetuko da erreinuak bizirik jarraitzen duela, munduko alde guztietan ari dela hazten.

«Egon dagoen kristaua ez da benetako kristau»

Aita Santuak gogoratu du, Abraham «Jainkoaz fidatu zela», eta «beti ibili dabilela». «Bidea egunero hasten da goizetik; Jaunaz fida-tzeko bidea da, Jaunaren ezustekoei irekia den bidea, askotan onak ez diren ezustekoak, itsusiak. Pentsa dezagun: gaixotasun bat, heriotza bat. Baina irekia den bidea da; izan ere, badakit leku seguru batera eramango nauzula Zuk, niretzat prestatu duzun leku batera: ibili dabilen pertsona, kanpadenda batean bizi den pertsona, kanpadenda espiritual batean» (Frantzisko aita santua, Religión Digital 2017-06-27)

[Daniel 3,25.34-43: Bihotz-damuz eta gogo apalez gatozkizu: har gaitzazu onez. Sal 24: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuan. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko di-zut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia.

Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Garizumako 3. astea.

Santa Rosa Viterbokoa, *birjina*.
San Marziano, *gotzaina*.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu dida-lako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizian, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, seni-deok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Hau da parabolaren muina: «Ez al zenuen zeure laguna erruki izan behar, nik zu izan zintudan bezala?» Enpleguak ordaintzeko astia eskatu dio erregeari. Honek ez dio eman ordainezinako hipoteka batek jotako asti estu bat, baizik eta asti berri bat eman dio bizitza zor baten zamarik gabe entseatu dezan. Menpekoak ez du ulertu erregalua, eta kartzelan sartu du zor dion gutxia ordaintzeko gai izango den bere laguna. Mundua odol husten ari da zaurietatik, barkatzen ez dutenek eta barkatuak ez direnek egindakoengatik, eta jendearen artean, familietan eta herrietan herio-espinal batean gatazkak lehertzen dituztenek egindakoengatik. Jo dezagun Jainkoaren barkaziora: ezin ahitu da hura sekula.

[Deuteronomio liburutik 4,1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Jesusen hitz hauek zoriontasunen testuinguruan irakurri behar dira, Mateok berak kokatu dituenek. Espiritu horren baitan, errotiko aldaketa eskaintzen digute Jainkoaren eta giza bizitzaren ikuspegiari dagokionez. Jakina, beren lekua dute legeek beti. Esklabutzatik askatzeko bidean jaio ziren, herri aske eta zuzen baten bila zebiltzan bidean. Denborarekin, ordea, ugalduz joan ziren, arau txiki eta beteezinen multzoa osatuz, eta jatorrizko arnasa galdu egin zuten. Maitasunean, xehetasun txikiak oso garrantzizkoak izaten dira, baina maitasunik gabe bi-zi-izerdia galdu egiten dute eta bihotza hesitu erritual obsesibo eta antzuetan.

MARTXOA / EPAILA Osteguna / Eguena Garizumako 3.astea.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (*San Joan Jainkoaren Anaiak*). San Beremundo Iratxekoa, (Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?), *abadea*.

8

[Jeremias profetaren liburutik 7,23-28: Hona, Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. Sal 95 [94]: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,14-23.

Aldi hartan, gizon bat mututurik zeukan deabrua botatzen ari zen Jesus. Deabrua atera bezain laster, mutua hizketan hasi zen. Jendea harriturik gelditu zen; batzuek, ordea, hau zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenek, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen badituzte, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen badituzte, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua.

Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapatutako ondasunak.

8

Osteguna / Eguena **MARTXOA / EPAILA** Garizumako 3.astea.

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (*San Joan Jainkoaren Anaiak*). San Beremundo Iratxekoa, (Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?), *abadea*.

Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du».

Asmo onez hurbiltzen zitzaizkion guztiak aurkitzen zuten bizia Jesusengan. Gizarte hartan, zeinetan beldurrak ahoko hitza eragozten baitzien sentitzen zutena ez adierazteko, mutu batekim topo egin zuen Jesusek eta aske hasi zitzaion adierazten bere bihotz hertsatuan zeramana. Botere askori gertatzen zaio gogaikarri norbaitek egiak esatea, beraien botereari azpia jango dion beldur. Batzuek zerutiko seinaleak egiteko eskatu diote Jesusi. Honek, ordea, giza oinazearen hondo sakonetik gora egiten duten seinaleak egiten ditu, bete-betea bizi ahal gaitetzen eta aske hitz egin ahal dezagun.

«Guztiok behar ditugu bedeinkatu besteak,
“ongi hitz egin besteez”
eta “ongi hitz egin Jainkoari besteez”» (Autore ezezaguna).

«Jaunak bedeinka
eta gorde zaitzala;
Jaunak aurpegi argia erakutsi
eta erruki dakizula.
Jaunak maitasunez begiratu
eta bakea eman diezazula».

(Zenbakiak liburua 6,22-27)

Garizumako 3. astea.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.

San Pazio, *gotzaina*.

[Oseas profetaren liburutik 14,2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. Sal 81 [80]: Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Maitasuna da Jainkoarekiko harremanen muina. Bihotz osoaz maite gaitu berak, arima osoaz, gogo osoaz eta bere indar guztiez. Bera, gainerakoak eta geure burua era berean maite nahi izango genituzke guk. Ez dugu maite maita gaitzaten, baizik eta maitatuak garelako. Beste erlijioek bekozkoa agertzen zuten jainkoak zituzten; horregatik, beldurra agertu behar izaten zien

9

Ostirala / Barikua **MARTXOA / EPAILA**

Garizumako 3. astea.

Santa Frantziska Erromatarra, *erlijiosa*.
San Pazio, *gotzaina*.

jendeak eta norberaren alde goxatzeko errituak eta opariak eskaini beharra izaten zuen. Jainkoaren maitasunak ez du inor ere zokoratzen, ezta inolako aldi edo egoerarik ere, eta ez du porzentajerik haren maitasunak. Bihotzean duen neurri bakarraz maite gaitu bakoitza: infinituki, mugagabeki.

Haragitzetik inkulturazioara

Katoliko katalanak arku politiko osokoak badira eta nazionalista / ez-nazionalista erdi eta erdi badira, hierarkiaren kasuan ñabardura gehiago dago alde batean edo bestean ezartzeko orduan. Oro har, esan daiteke, Katalunian bizi eta lan egiten duten gotzain guztiak katalanista direla, hau da, Katalunia sentitzen eta maite dutela (beste nonbait jaio izan arren), bertako hizkuntzan eta kulturaren hitz egiten dutela, eta bertako jendearen eta herriaren arteko sentitzen direla. (José Manuel Vidal, *Religión Digital* 2017-06-26) (Martxoaren 10ean jarraituko du)

Garizumako 3. astea.

San Alexandro, *martiria*. Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea* (*Jasokundeko Erlijiosak*).

[Oseas profetaren liburutik 6,1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. Sal 51 [50]: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxien zintzotzen batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta beste zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulterioagile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”.

Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”

Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Kaltegarri iruditzen zaigu geure burua izen txarreko jendearekin alderatzea, eta deskalifikatu egiten ditugu geu hobekak garelako sentitzeko. Harrigarria da santu askoren esperientzia: zenbat eta hurbilago egon Jainkoagandik, orduan eta bekatariago sentitu izan dira. Halakoak ez dira alderatzen, ez legeekin, ez beste pertsonekin, zeinen misterioa bere bihotzean baitu Jain-

koak, baizik eta Maitasunarekin. Jainkoagan, haren egian eta haren argian murgilduz joan ahala, argiago ikusten dute santuek egoismoaren anbiguotasun sotila, motibazio erlijiosoetan ezkutatua. Zuk bakarrik, Jauna, senda gaitzakezu!

Haragitzetik inkulturazioara

Lerro hauen izenburua, Vatikanoko II.a kontzilioaz gero, haragitze edo enkarnazioaren printzipio deitzen dena da. Geroago, inkulturazioaren kategorian gauzatuko dena. Zeren eta, Frantziskok “Evangeli Gaudium”en dioenez, fedea pertsonagan herriaren eta beronen kulturaren bidez sartzen baita. Gotzain batentzat, haragitzea (enkarntzea) eta inkulturatzea bere jendearekin bat egitean datza, artzain den herriaren arimarekin bat egin arte. Betebehar bat fedearen eta Ebanjelioaren izenean.

Gotzain “haragituak” (eta ez gorriak) Katalunian edota gotzain katalanista 14ak dira. Batzuk bihotzez eta jaiotzez; besteak konbentzimenduz, eta guztiak haragitze ebanjelikoaren printzipioari leial izan nahirik.

14etarik zenbat dira nazionalista eta independentista? Argi eta agerian, bat bakarrik; Solsonako gotzaina, Novell monsinorea. (José Manuel Vidal, *Religión Digital* 2017-06-26) (martxoaren 9tik dator)

Garizumako 4. astea.Santa Aurea, *abadesa*.San Eutimio, *gotzaina*.**§ 2 Kronikak liburutik 36,14-16.19-23.**

Egun haietan, apaizburu guztiek eta herriak gaiztakeria gaiztakeriaren gain egin zuten, atzerritarren ohitura higuingarriei jarraituz, eta kutsatu egin zuten Jaunak Jerusalemen beretzat sagaratu zuen tenplua. Jaunak, haien arbasoen Jainkoak, oharpenak bidali zizkien etengabe bere mezularien bidez, erruki baitzituen bere herria eta bere egoitza. Baina haiek Jainkoaren mezulariei iseka egin, Jainkoaren hitzak gutxietsi eta haren profetak irriz hartu zituzten. Azkenik, Jaunak bere herriaren aurkako haserreak gainezka egin zuen eta ez zen salbabiderik izan.

Orduan, babiloniarrek Jainkoaren etxea erre, Jerusalemgo harresiak bota eta jauregiei su eman zieten, eta hiriko gauza eder guztiak erabat hondatu zituzten. Ezpatari ihes egin zioten guztiak Babiloniara eraman zituzten gatibu, eta han erregearen eta haren ondorengoen esklabo izan ziren, harik eta pertsiarren erregealdia iritsi zen arte. Horrela bete zuen Jaunak Jeremias profetaren ahoz esandakoa: «Hirurogeita hamar urtez atsedean hartuko du lurralde honek, hondamen-aldiko egun guztietan, Jaunari ukatu zizkieten atsedean-urteak bete arte».

Petsiako errege Ziroren lehen-urtean, Jaunak Jeremiasen ahoz esana bete zen. Jaunak Pertsiaiko errege Ziroren espiritua piztu eta Zirok agindu hau zabaldu zuen, hitzez eta idatziz, erreinu osoan: «Hau dio Pertsiaiko errege Zirok: “Lurreko erreinu guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jainkoak, eta Judako Jerusalem berari tenplua eraikitzeko agindu dit. Beraz, zuen artean haren herriko diren guztiek izan bezate beren Jainkoa lagun eta igo bitez hara”».

Garizumako 4. astea.

Santa Aurea, *abadesa*.

San Eutimio, *gotzaina*.

[Sal 137 [136]: Nire mingaina aho-sabaian itsatsi bedi, zutaz oroit ez banendi.]

§ San Paulok Efesoarrei 2,4-10.

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak halako maitasun neurrigabeaz maite izan baikaitu, geure bekatuengatik hilda geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batean –onginahi hutsez zaudete salbatuak–, eta Kristo Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Honela, Jesu Kristogan guretzat hain ona izanez agertu nahi izan die datozen gizaldiei, zein ugaria eta zein eskuzabala duen bere onginahia.

Izan ere, onginhahi hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harrotu ez dadin.

Izan ere, Jainkoak eginak gara; hark sortu gaitu Kristo Jesusengan, on egiten saia gaitezen, Jainkoak guretzat alde zurretik erabakia zuen bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,14-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Garizumako 4. astea.Santa Aurea, *abadesa*.San Eutimio, *gotzaina*.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondentzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harrengan sinesten duena ez dago kondentatua; sinesten ez duena, berriz, kondentatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondentazioaren arrazoa: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorrotoa dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian gelditu ez daitezela. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Jainkoak ez zuen bidali bere Semea gu galtzera, baizik eta betiko bizia izan dezagun. Herri guztiaren begi-bistan bizi-adierazpen garden eta ageri-agerikoa izan zen Jesusek ekarritako argia; eta hura ikusi orduko, argi eta garbi ikusi zituzten hiltzeko arriskuan mozturirik zituzten beren lege, beren ohitura, beren pribilegio, beren fama-jarrera eta adierazpen erlijiosoak; hargatik, eta besterik gabe, argi hura itzaltzea erabaki zuten betiko, modu eskandalagarri eta iraingarriz, inork ere berreskura eta berregin ez zezan sekula santan haren oroitzapena.

Gurutzean kontenplazten duguna, biziaren aldeko leialtasuna da, Jesusek hiltzeraino gorde duena. Ez da inolaz ere Aitari gure bekatuengatik egindako ordainketa bat; guztia, muturre-raino maitatu izanaren ondorioa izan da. Paulok gogoratu digu, efesoarrei egindako gutunean, Jainkoaren salbazioa doakotasun hutsa dela. Lehen irakurgaiaren entzun dugu, Babiloniako erbesteetan, nora bere nortasunari desleial izateagatik eraman baitzuz-

Garizumako 4. astea.

Santa Aurea, *abadesa*.

San Eutimio, *gotzaina*.

ten herria, Jainkoak garbikuntza egin ziola eta berreskuratu Ziro, pertsiar errege bat, zela medio, promes egindako lurralde-
ra itzul zedin.

Gurutzea kontenplazten dugunean, Jainkoaren oinazea gure zentzumenera iristen da, guri bihotzean erasanez.

Arantza eta iltze bailiran, zeharkatzen gaituzten esperientzia desberdinetatik gurutziltzatuari begiratzean, izaten dugu nora zuzendu geure begiak, sumatzen baitugu, bai zein baliotsua den hori Jainkoarentzat, bai nola iristen zaizkigun haren begitartetik samurtasuna eta bizia. Utz diezaigun gurutziltzatuari kontsola gaitzan!

«Lauaxetaren olerki hunkigarria [«Agur Euzkadi»z ari da] argi-
tara atera duzu. Goresmenak eta eskerrak !

Gaur egun holako sendimenduak ez dira preziatzen. Aroa aldatu da, baina gogoaren eta bihotzaren goratasun hori ez da zahartzen. Hori preziatzen ez duenak lotsaz gorritu behar luke. Kalitatea arlo guzietan non-nahi eta noiz-nahi agertzeko on da eta goresgarri Zuk poeta eta gizona batean ohoratu dituzu.

Aita Donostiak, zerbait on edo eder dastatzen zuelarik esaten omen zuen: Y que se repita!» (M: ezkutuko sinadura) (aipatu olerkia, jatorrizkoa eta Joan Luis Goikoren laguntzaz egokitua, ikus martxoaren 16an)

Garizumako 4. astea.San Nikodemo, *aitorlea*.San Maximiliano, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 65,17-21: Ez da han gehiago entzungo negar-hotsik, ez garrasirik. Sal 30 [29]: Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4,43-54.

Aldi hartan, Jesus Samariatik atera eta Galileara joan zen. Jesusek berak aitortua zuen, profeta ez dutela bere herrian aintzat hartzen. Hala ere, Galileara iritsi zenean, galilearrek harriera ona egin zioten. Izan ere, Jerusalemen izanak ziren berak ere eta ikusiak zituzten Jesusek Pazko-jaietan egin zituen gauza guztiak.

Jesu Galileako Kanara joan zen berriro, ura ardo bihurtu zuen herrira. Bazen han errege-funtzionario bat, semea Kafarnaumen gaixorik zeukana. Funtzionarioak, Jesus Judeatik Galileara etorri zela jakitean, harengana joan eta bere semea sendatzera jaisteko eskatu zion, hiltzorian zegoela eta. Jesusek erantzun zion: «Ezagarriak eta egintza harrigarriak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten». Baina errege-funtzionarioak berriro: «Zatoz, Jauna, nire haurra hil baino lehen». Jesusek esan zion: «Zoaz etxera, onik duzu-eta semea». Gizonak sinetsi zuen Jesusek esana eta joan egin zen.

Etixerakoan, morroiak atera zitzaizkion bidera, semea onik zuela esanez. Orduan galdetu zien zer ordutan hasi zen oneratzun. Eta haiek erantzun: «Atzo eguerdiko ordu batean utzi zion sukarrak». Konturatu zen aita ordu hartan esan ziola Jesusek: «Onik duzu semea». Eta sinetsi egin zuten Jesusengan berak eta etxeko guztiak.

Garizumako 4. astea.San Nikodemo, *aitorlea*.San Maximiliano, *martiria*.

Judeatik Galileara itzuli zenean egin zuen Jesusek bigarren ezaugarri hau.

Kana herrian egina zuen Jesusek mirarizko seinale bat ez-
tei batzuetan, ardoa ahitu zitzaielako, eta festako pozari euste-
ko. Oraingo honetan, errege-funtzionario bat, herriaren sistema
zapaltzailearen pertsonaia bat, hurbildu zaio Jesusi. Onartu du
Jesusek gizona, baina atzerakada txiki bat egin dio, hiltzear da-
goen semea sendatzeko bere etxera joateko esan dionean. Bereari
eutsi dio, ordea, funtzionarioak. Semea sendatua duela Jesusek
esan dionean, sinetsi dio eta bideari ekin dio etxean jada zain zi-
tuen osasunerantz eta bizirantz. Jesusekin topo egiteak, bizirantz
bideratzen gaitu beti.

Garizumako 4. astea.

Sana Eufrasia, *birjina*. Santa Kristina, *birjina*.
San Silvano, *martiria*.

[Ezekiel profetaren liburutik 47,1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 46 [45]:** Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakoben Jainkoa gure gotorleku.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,1-3.5-16.**

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalem-era igo zen. Bada Jerusalemen, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituen. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrean etzanda: itsu, herren eta elbarri.

Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?» Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauenik; ni iristerako, besteren batek aurea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabiltza». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen.

Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauenak berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabiltza”». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?» Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean.

Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta

Garizumako 4. astea.Sana Eufrasia, *birjina*.Santa Kristina, *birjina*.

ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

Jesus, Jerusalemgo jaietako kaleak utzi eta oinazearen hiri-inguraldetara doa. Gaixo bati hurbildu zaio; honek, ordea, ez daki zein den etorri zaiona. Ingurunea ez da erlijiosoa, Jesussek ez dio galdetu fededun ote den, ez dio dei egin Jainkoari ere modu itzaltsuan. Soilik, sendatu nahi duen galdegin dio, eta bere baitan lo dituen bizi-dinamismoetara bideratu du gaixoa. Gaixoa sendatu duena, gaindiezineko kalitateko topaketa hori da, gizon egin den Semeak bakarrik egin zezakeen topaketa hori. Eta nik, bilatzen al dut lo dagoen bizi hori, hainbat jenderengan kalitateko nire topaketaren zain dagoena, ohatila besapean ibiltzeari emateko.

Garizumako 4. astea.Santa Matilde, *erregina*.San Inozentzio, *gotzaina*.

[Isaias profetaren liburutik 49,8-15: Herriaren itun izateko izendatu zaitut, lurraldea berreraiki dezazun.. Sal 145 [144]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz».

Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren par-reko eginez.

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere egin bere kabuz, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituzteten egintzak. Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi duenei.

Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, denek, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza entzun eta bidali nauenagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igaroa baita dagoeneko.

Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua, hobeto esan, iritsia da, hildakoek Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena, eta

entzuten dutenak biziko dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiak haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: ongia egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaizkia egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko.

Nik ez dezaket neurez ezer egin; Aitari entzun bezala epaitzen dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

Jesusek aitopen hunkigarria egin du Aitarekin eta erreallitatearekin dituen harremanen inguruan. Sendatu berria du uraskako gaixoa, eta agintariek eraso egin diote larunbatean sendatzeagatik. Jesusek dio Aita beti ari dela lanean, eta berak ikus dezakeela Aitak pertsonenagan kreatzen duen berritasuna, Aitak bera maite duelako eta erakusten diolako egiten duena. Jesusen begiek Aitak pertsona guztiengan kreatzen duen bizi berria ikusi nahi zuten beti. Ez ziren gelditzen azalean, ohituren, legeen edo bekatuen pean hesiturik bizi zirenei begira. Zer ikusi nahi dute nire begiek besteengan?

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)*. Santa Luisa Marilac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*.

[**Irteera liburutik 32,7-14:** Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. **Sal 106 [105]:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginahiagatik.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5,31-47.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariei: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela.

Zuek mandatariak bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egitari. Ez dut hau esaten inongo gizakiren aitormen-beharrrik dudalako, zuek salba zaitezten baizik. Joan Bataiatzailea argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz.

Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzorik aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala.

Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko.

Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi eza-gutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite. Ni neure

Raimundo santua, Fiterokoa, *abadea (Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan)*. Santa Luisa Marilac-ekoa. *fundatzailea Pauleko San Bizenterekin (Karitateko Ahizpak)*.

Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola?

Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan ere, Moisesi sinetsiko bazenote, niri ere sinetsiko zenidakete, nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana?»

Joan Bataiatzaileak testigantza egin du Jesusez. Joanez uste zuen, bere bizitza guztiz norabidetua zuela «etortzekoa zenari» bidea prestatzera. Jesusek esan die judu-agintarietara, Joanen testigantzari begiratzeaz gain, errepara diezaietela beraren egintzei, beraren jarduerari. Jada esana zuen Jesusek, arbola onari bere fruituetatik antzematen zaiola. Agintariak ospe bila dabilta, besteek aintzat har ditzaten bila. Jesus, berriz, aske mugitzen da, jendeak bizia izan dezan bila, bizi hori bera delako Aitaren aintza: guk erortzeari uztea, gu guztiz sendatu eta bete-betean bizitzea.

Garizumako 4. astea.

San Hilario, *gotzaina*,
Santa Kolunba, *martiria*.

[**Jakinduria liburutik 2,1a.12-22:** Heriotza lotsagarrira kondentuko dugu. **Sal 34 [33]:** Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,1-2.10.25-30.**

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten.

Hurbil zen Etxola-jaia, juduen jaietariko bat. Jesusen seni-deak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan zen; baina ez agerian, erdi ezkutuan baizik.

Jerusalem dar batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dute-na? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariek hau dela Mesias? Baina hau bada-kigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, ez du inork jakingo nongoa den».

Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neurez etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz».

Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

Jesus sentitzen hasia zen ezartzen ari zitzaizkion hesia. Galilean zelatua zen, baina onartua ere bai herriaren aldetik, eta libreagoa zen han. Arazoa okerragoa zen Judean. Halere, igo zen hara ere erdi ezkutuan. Eta hitz egiten hasi zen aske-aske. Ezin kateatu izan zioten bere hitza. Baina nolatan sinesten ahal zioten

Garizumako 4. astea.San Hilario, *gotzaina*,
Santa Kolunba, *martiria*.

galilear landa-kume hari, jatorri ezezaguneko zelarik? Hori-
xe da kontrastea jendearen ikusmoldearekiko. Jesus ez da heroi
mitologiko bat, badaezpadako jatorriko bat. Gizakundea, gizon
egitea, benetakoa izan zen, herri batean, lanbide batean, kultura
batean jaioa zen. Eguneroko errealitatean gaitu Jainkoak maite,
hor da jaiotzen eta hazten Jainkoaren salbazio agortezina.

Lauaxeta fusilatu zutela 80 urte 2017-06-25an
Fusilatu bezperan konposatu poesia
egokitua martxoaren 22an
eskerrak Arratiako Elizako J.M^a Kortazarri

Agur Euzkadi, Jaunak naroa
Aberri eder argira!
Neure negarrak jarion neuzan
zeure mediai begira.

Seme bat zeukan baiña etsayak
kendu eutsoen biotza,
soin ederrera ixuri yakon
maietz bateko goiz otza.

(segida Martxoaren 17an)

Garizumako 4. astea.San Patrizio, *gotzaina*.

[Jeremias profetaren liburutik 11,18-20: Hiltzera daramaten bildots otzana bezala nintzen ni. Sal 7: Zugan babesten naiz, Jauna, ene Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7,40-53.

Aldi hartan, jende arteko batzuek, Jesusen hitzak entzutean, hau zioten: «Hauxe da egiaz etortzekoa den profeta». Beste batzuek esaten zuten: «Hauxe da Mesias». Beste batzuek, berriz: «Galileatik etor ote daiteke Mesias? Ez al dio Liburu Santuak Mesias Daviden jatorrikoa izango dela eta haren herritik, Be-leemdik, etorriko dela?» Iritzi kontrajarriak zeuden, bada, jendearen artean Jesusi buruz. Batzuek atxilotu egin nahi zuten; baina ez zion inork eskurik gainean jarri.

Guardiak apaizburu eta fariseuengana itzuli ziren, eta hauek galdetu zieten: «Zergatik ez duzue ekarri?» Guardiek erantzun zieten: «Ez du sekula inork gizon horrek bezala hitz egin». Fariseuek erantzun zieten: «Zer? Zuek ere liluratu al zaituzte? Sinetsi ote du harengan agintari edo fariseuetako batek ere? Baina legea ezagutzen ez duen jende hori madarikatua dago».

Orduan, Nikodemok, fariseu haietako batek, behinola Jesusengana joan zenak, esan zien: «Zilegi al da gure legearen arabera inor gaitzestea, berari entzun eta zer egin duen jakin gabe?» Besteek erantzun zioten: «Galilearra al zara zu ere? Aztertu Liburu Santuak eta ikusiko duzu Galilean ez dela inoiz profetarik sortu». Ondoren, nor bere etxera joan zen.

Jesusi entzun dioten eta atxilotzera ausartu ez diren gardien testigantza oso garrantzizkoa da: «Inork ez du inoiz gizon honek bezala hitz egin». Jesusen proposamena harrigarria izan zen, askea eta azpijokorik gabea. Hitz arruntez adierazten zuen Jainkoaren eta lurreko haren erregetzaren misteriorik sakonena. Ez zituen errepikatzen errezetak aspertzearaino. Haren adierazpen berriek Jainkoaren maitasunaren bizi jaioberria eskualdatzen zuten, bihotza eta zeruertza irekitzen. Baztertuek berritasuna entseatzeko eta estreinatzen zuten beren begietan, belarrietan, urratsetan, duintasunean. Haren Hitzak gizadi berri bat kreetzen zuen. Atxilotzera doazkion ezjakinak berak nabaritu dute!

*Lauaxetaren “Agur Euzkadi”
(Martxoaren 16tik dator)*

Gurutz deunari musu egiñaz
alde egin eutsun mundutik;
Kristoren gentza abo gañean
loratu jakon gaztetik.

Jaunaren maitez, Aberri maitez
ez eban euki bildurrik;
eta zeuretzat zorion utsa
opaldu eutsun gogotik.

Euzkadi ona zagoz betiko
Kristoren fede betean
olan zoruna bilauko dozu
emen ezpada zeruan.

(segida martxoaren 18an)

Garizumako 5. astea.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
San Raimundo Fiterokoa (Toledon hil 1163), *abadea*.

§ Jeremias Profetaren liburutik 31,31-34.

Hau dio Jaunak: «Hara, badator Israel herriarekin eta Juda herriarekin itun berria egingo dudan garaia. Ez da izango, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean haien arbasoekin egin nuena bezalakoa, haiek hautsi egin baitzuten nire ituna, Ni haien nagusia izan arren, dio Jaunak.

Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna, dio Jaunak: Barruan ezarriko diet neure legea eta bihotzean idatziko. Ni haien Jainko izango naiz, eta haiek nire herri izango dira.

Ez dute elkarri irakatsi beharrik izango, “Ezagutu Jauna” esanez, denek, txiki nahiz handi, ezagutuko bainaute, dio Jaunak; barkatu egingo baitiet gaiztakeria, eta haien bekaturik ez baitut gehiago gogoan izango».

[Sal 51 [50]: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan.]

§ Hebrearrei gutunetik 5,7-9.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiar dar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,20-33.

Aldi hartan, jaietan Jainkoari kultu ematera igo zirenen artean, baziren greziar batzuk ere. Hauek Galileako Betsaidako

Garizumako 5. astea.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
 San Raimundo Fiterokoa (Toledon hil 1163), *abadea*.

Felipegana hurbildu eta eskabide hau egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nahi genuke». Andresi esatera joan zen Felipe, eta biek, Andresek eta Felipek, Jesusi esan zioten.

Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurrean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiensten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak.

Larri dut orain neure barrena, baina zer esan? Ordu hone-tatik ateratzeko eskatuko al diot Aitari? Baina honetarakoxe etorria naiz, hain zuzen, ordu honetarako! Aita, azaldu zeure izenaren aintza!»

Orduan, ahots bat entzun zen zerutik: «Azaldu dut, eta berriz ere azalduko dut». Han zegoen jendeak, ahotsa entzunik, trumoia izan zela zioen; beste batzuek, berriz, aingeru bat min-tzatu zitzaiola.

Jesusek esan zien: «Ahots horrek ez du niretzat hitz egin, zuentzat baizik. Oraintxe da mundu honen epaiketa, oraintxe botako dute kanpora mundu honetako buruzagia; eta Nik, lurretik jasoko nautenean, neuregana erakarriko ditut guztiak».

Hitz hauen bidez, nolako heriotzaz hilko zen eman zuen aditzera.

Garizumako 5. astea.

San Zirilo Jerusalemgoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
San Raimundo Fiterokoa (Toledon hil 1163), *abadea*.

Greziar batzuek Jesus ikusi nahi dute. Felipek eta Andresek hala adierazi diote Jesusi eta beraren bihozkoitasuna azaltzen duen konfiantzazko adierazpen batez erantzun die. Ez du ezkutatu. Une honetan estu eta larri du bihotza, ziurtasun-faltaz, hurbileko nekaldia dela eta. Ildoan ereindako gari-ale bat-edo dela sentitzen du, eta gainera datorkion botere erromatarraren eta juduaren lurrak itolarria eragiten dio eta lurperatzea. Ildoak ez du desegingo. Lurra ama-lur da eta haren sabelean ari da prestatzen Jesusen bizi berpiztua. Maitasun gurutziltzatuak herri eta mende guztien begirada erakarriko du, eta hobiratu guztien esperantza piztuko.

Lauaxetaren “Agur Euzkadi”

(Martxoaren 17tik dator)

Eriotz deuna aurrean daukot

ziñistu bada euzkoa:

Euzkadi azke izan daitean

zaindu Josuren legea.

Eder jatazan euzko basterrak,

eder itxaso zabala;

baiña oraintxe ederrago jat

eriotz onen itzala!

(Segida Martxoaren 20an)

§ 2 Samuel liburutik 7,4-5a.12-14a.16.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengo emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

[Sal 89 [88]: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.]

§ San Paulok Erromatarrei 4,13.16-18.22.

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indrari baizik. Beraz, agintzaria, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legegaren arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarazten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan.

Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itzarobiderik ez zegoenean itzaropenari eutsiz; horrela, herri askoren aita egin

Garizumako 5. astea.**SAN JOSE ANDRE MARIAREN SENARRA,****Jesusen Lagundiaren Zaindaria.**

Santa Quintila, martiria.

zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak».

Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

Josek eta Mariak landua zuten beren bizi-egitasmoa, gazte maiteminduen bihotzak egin ohi duen xarmaz. Bat batean, orde, hor dator Jainkoa eta, ematen du, dena hankaz gora bota nahi duela. Mariaren eta Joserren maitasunak era berezian ar-

gitzen ditu mendean bizi diren gure familien aldiak, azpia jaten dieten, dardarazten eta hausten dituzten presioen mendean bizi direnenak.

Maria haurdun ikusteak estutu egin du Joseren bihotza. Ez daki zer ari den gertatzen. Legea betez hil arte jendaurrean harrikatuko luketen Maria salatu ordez, bera ezkutatzea erabaki du eta bera izatea jendearen ustean erantzukizunik gabeko pertsona zitala. Espirituak argiturik, ordea, onartu egin du aitatasun misteriotsu eta zail hori.

Josek Mariaren aldamenen jarraituko du haurdunaldian, gizartearen «behe aldean» eta bere lagun izango du Mariak haur egitean hiritik «kanpo». Mariaren eta Jesusen bizia salbatzeko, erbesteko nolabaitekotasunera egin beharko dute ihes. Nazaretera itzultzean, Jose jende guztiarentzat Jesusen aita izango da, bizitza irabazteko artisauaren trebetasuna erakutsi diona. Jainkoari «abba» (aita) deitu aurretik, izen hori Joseri esaten ikasi du Jesusek. Familia inspiratzaile horren edertasunak, parekorik gabeko harreman-gardentasuna bizi izan duen horrek, bizi izan du, ordea, oinazea ere, beraren misioaren misteriotik etorria.

Garizumako 5. astea.

San Eugenio, *martiria*. Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena, *fundatzailea* (*Jesusen mirabeak*).

[Zerbakiak liburutik 21,4-9: Sugeek zizta egindako guztiak, brontzezko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira. **Sal 102 [101]:** Entzun, Jauna, nire otoitza, hel bedi zugana nire deiadarra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,21-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du? Horregatik esan ote du “Ni noan tokira zuek ezin zarete joan”?»

Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, “Ni naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara Zu?»

Jesusek erantzun: «Hasieratik ari natzaizue esaten. Badut zuetaz zer esanik eta zer gaitzetsirik asko. Bidali nauena fida-garria da; eta Nik hari entzun diodana, horixe bera esaten diot munduari». Haiek ez ziren jabetu Aitaz mintzo zitzaiea.

Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea jasoko duzue-nean, orduan jakingo duzue Ni naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baizik eta Aitak erakutsi didana bakarrik esaten dudala. Ni bidali nauena nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hark atsegina duena egiten baitut beti».

Jesusek gauza hauek esan zituenean, askok sinetsi zuen harrengan.

San Eugenio, *martiria*. Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena, *fundatzailea* (*Jesusen mirabeak*).

Nekaldira hurbildu ahala, handituz doa judu-agintariekiko gatatzaren tirandura. Jesusek ez du ezkutatuko bere nortasunaz galde egingo diotenean. «Neu naiz» delakoak Irteera liburuari egiten dio erreferentzia, Jainkoak Moisesi esan dionari: «Nai-zena naiz ni»; herriaren askatzailea da. Gizon egindako Semea dela adierazi du Jesusek. Seme izaera horrek suntsipena dakar-ten bekatuen askatzaile izatera darama Jesus. Ez da etorri inor galtzera, baizik salbatzera. Behin betiko biziaren zerbitzari iza-tegatik gurutzean jaso ikustean, Aitaren eta Jesusen gurekiko maitasuna noraino iritsi den dakusagu.

Lauaxetaren “Agur Euzkadi”

(Martxoaren 18tik dator)

Gaztea nozu bizitz onetan
ta ez jatan palta gauzarik.
Jauna gogorra aldi onetan
igez eitea lurretik!

Ez bedi egin neure oldea
Zeure naia bai ostera.
Gogoia boa zeru girira
gorputza lur illunera.

(Segida, egokitua martxoaren 22an)

Garizumako 5. astea.San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrak)*.San Filemon, *martiria*. San Justiniano, *gotzaina*.

[Daniel 3,14-20.91-92.95: Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. **Sal: Daniel 3:** Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa: Aintza eta gorespen Zuri gizaldietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte».

Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nolatan diozu aske izango garela?»

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudana mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzuen egiten duzue».

Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aitak egiten duena egiten duzue».

Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite

21

Asteazkena /
Eguaztena

MARTXOA / EPAILA

Garizumako 5. astea.

San Benito, *abadea. fundatzailea (beneditarrak).*
San Filemon, *martiria.* San Justiniano, *gotzaina.*

izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik».

Jesusek egia eskaini digu, benetan aske izateko. Engainu asko dago gure mundu honetan, zoriona eskaintzen diguten eskaintza liluratzailerren mota askotan mozorrotua. Libre garela esaten digute, nahi duguna egiteko; bitartean, geure barnean manipulaturik bizi gara mekanismo komertzial, politiko eta ideologikoak direla medio; hain zuzen, jende kolonizatu bihurtu gaituzte marka desberdinek, guztiok beren zerbitzura jarriz mendetasuna eta bulkada eraginez. Jesusek ez du inor ere manipulatu, garden eskaini du bizia, bere biziera koherente eta dis-tiratsua dela bide, bere bizitza gurearekin kateatuz, laborategi digitaletako ondoriorik gabe.

Garizumako 5. astea.Santa Basilisa, *martiria*.Santa Erlinda, *aitorlea*.

[**Hasiera liburutik 17,3-9:** Herri askoren aita izango zara.
Sal 105 [104]: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.]

§ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8,51-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko».

Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta Zuk diozu: “Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko”? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, Zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?»

Jesusek erantzun zien: «Nire burua Neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Aitak, zeuen Jainkoa omen duzuenak, ohoratzen nau Ni; zuek, ordea, ez duzue ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurti izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta gordetzen ere haren hitza. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itxaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen».

Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni».

Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkutatu egin zen eta tenplutik atera.

Garizumako 5. astea.Santa Basilisa, *martiria*.Santa Erlinda, *aitorlea*.

Juduekiko borroka sakonduz doa. Jada betikotasun-izaera duen eta heriotzak gelditu ezin duen bizia ari da Jesus proposatzen. Juduak beren ikuspegiaren miopian ari dira mugitzen, egutegiko zenbakien materialtasunean. Ezin ulertu dute Jesusen proposamena eta eskuan harriak hartzera jo dute hari harrika emateko, biraogilea balitz bezala. Eta guk? Jesusen sakontasuna, berak bizi izan duena eta Aitarean aurpegiak adierazi diguna aurkitu eta proposatzeko erronka daukagu, geure bizia behin betiko bizi horretan txertatzeko, erro-errotik hartarako eginak baikara.

Lauaxetaren "Agur Euzkadi"
(Joan Luis Goikoren laguntzaz,
D.Amundarainek egokitua)
(Martxoaren 20 dator)
 Agur, Euzkadi, Jaunak narama
 aberri eder argira!
 Neure negarrak jario nituen
 zure mendiei begira.

Seme bat zeukan baina etsaiek
 kendu zioten bihotza,
 gorputz ederra isuri zitzaion
 maiatz bateko goiz hotza.

(segida Martxoaren 23an)

Garizumako 5. astea.San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.San Jose Oriol, *apaiza*.

[Jeremias profetaren liburutik 20,10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. Sal 18 [17]: Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?»

Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako».

Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete”? Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukalezina da. Nolatan diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez baditut, ez sinetsi niri; baina egiten baldin baditut, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan».

Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskuetatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura.

Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarririk batere egin, baina

Garizumako 5. astea.

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*.
San Jose Oriol, *apaiza*.

hark honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

«**E**gintza on asko egin dut zuen aurrean», esan die Jesusek, «haietako zeinengatik harrikatu nahi nauzue?» Jesusek, profeta handiek bezala, errealitatea ikusten lagundu zien, gauzen azala zeharkatzen, itxura hutsean ez gelditzen, ikuspegi azalekoez edota ohitura zaharrek harrapaturik itsu zituzten begiak sendatzen. Biblia osoan barna entzuten da salaketa bera: «Herri itsua da hau». Jesusek itsu askori eman zion ikusmena. Guztiok nahi dugu ikusi, baina begiak liberatu beharra dugu Jainkoa mundu honetan egiten ari den egintza berriak ikusteko. Ikusten ez dituztenek eta bestek ikustea nahi ez dutenek, harriak hartzera jotzen dute.

Lauaxetaren "Agur Euzkadi"
(*egokitua; martxoaren 20tik dator*)
Gurutze santuari musu eginez
alde egin zizun mundutik;
Kristoren bakea aho gainean
loratu zitzaion gaztetik.

Jaunaren maitez, Aberri maitez
ez zuen eduki beldurrik;
eta zuretzat zorion hutsa
eskaini zizun gogotik.

(*segida martxoaren 26an*)

San Segundo, *martiria*. Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*. Oscar Romero, *dohatsua, martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*.

[Ezekiel profetaren liburutik 37,21-28: Herri bakar bihurtuko ditut. **Sal: Jeremias profeta 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.**]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11,45-57.**

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazarorekin egina ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuk, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten.

Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarrak eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?»

Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten.

Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemera igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemera etorriak Jesu-

24

Larunbata /
Zapatua

MARTXOA / EPAILA
Garizumako 5. astea.

San Segundo, *martiria*. Santa Katalina Suediakoa,
abadesa. Oscar Romero, *dohatsua, martiria*,
San Salvadorreko artzapezpikua.

sen bila zebiltzan eta, tenpluan topo egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?» Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala ziezaiela, atxilotu ahal izateko.

Gaur bada jenderik jada heriotzara galdua denik, inolako auzirik egin gabe. Kazetari zintzo, epaile zuzen, ardiak otsoengandik zaintzen ari den artzain... Zenbatuak dituzte beren egunak nahiz berek ez jakin kopurua. Bere estrategia du Jesusek. Kondenaturik sentitu da, eta lurralde babestu batera erretiratu da, aldi berezi bat bere ikasleei eskaintzeko azken borroka baino lehen. Pazkoa dela-eta Jerusalemera joatea erabaki du eta Jainkoaren erreinua hots egitea, askatasun osoaz. Bere bizia emateraino, Aita une oro mundura bidaltzen ari den biziaren zerbitzari izan da Jesus gizon-emakume guztientzat.

Aste Santua.**JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA**San Dimas (*lapur ona*).**§ Isaias Profetaren liburutik 50,4-7.**

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko.

Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun dezadan.

Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez dut atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei.

Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.
Jauna dut laguntzaile;
horregatik, ez naiz kikildu;
horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala,
bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

[Sal 22 [21]: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?]**§ San Paulok Filipinoarrei 2,6-11.**

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.

Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gaintetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion,

Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihi guztiek aitoren dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Markosen liburutik 14,1–15,47 (*Laburtua*).

Eguna argitu bezain laster, apaizburuak, herriko zaharrak eta lege-maisuak bildu ziren, Batzar Nagusi osoa, eta, erabakia hartu ondoren, Jesus loturik hartu eta Pilatori eskura eman zioten. Pilatok galdetu zion:

S «Juduen erregea al zara Zu?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

K Apaizburuak salatu eta salatu ari ziren haren aurka. Pilatok galdetu zion berriro:

S «Ez al duzu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten duten zure aurka».

K Baina Jesusek ez zion gehiago erantzun, eta harriturik zegoen Pilato. Pazko-jai guztietan preso bat askatu ohi zuen Pilatok, herriak eskatzen zuena. Bazen espetxean Barrabas izeneko bat, matxinadakoan giza hilketa bat egin zuten beste matxinatuekin batean. Igo zen jendea Pilatoren jauregira eta ohitura zuena emateko eskatzen hasi ziren. Pilatok erantzun zien:

S «Nahi al duzue juduen erregea askatzea?»

K Bai baitzekien apaizburuek bekaitzez emana ziotela Jesus. Baina apaizburuek jendea berotu zuten, Barrabas askatze-ko eska zezan. Pilatok berriro galdetu zien:

Aste Santua.**JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA**San Dimas (*lapur ona*).

S «Eta zer egin behar dut juduen errege esaten diozuen horrekin?»

K Haiek, orduan, deiadarka:

S «Josi gurutzean!»

K Eta Pilatok:

S «Zer oker egin du, bada?»

K Haiek, gero eta deiadar handiagoz:

S «Josi gurutzean!»

K Pilatok, orduan, jendeari atsegin emateagatik, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haiei eskura eman zien, gurutziltza zezaten.

*Arantzaz egindako koroa
ipini zioten buruan.*

Gudariak Gobernariaren jauregi barrura eraman zuten Jesus eta gudari-talde osoa bildu zuten. Purpurazko jantzia ipini zioten soinean eta arantzaz egindako koroa buruan. Eta agurka hasi zitzaizkion:

S «Agur, juduen errege!»

K Kanaberaz buruan jotzen zuten eta listua botatzen zioten eta, belaunikaturik, aurrean ahuspez jartzen zitzaizkion. Nahiko iseka egin ondoren, purpurazko jantzia kendu eta bere soinekoak jantzi zizkieten. Gero, atera eta gurutzean josteko eraman zuten.

*Golgota izeneko lekura
eraman zuten Jesus.*

Sorotik etxerakoan handik zihoan bat, Simon Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita, gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko lekura eraman zuten Jesus (Golgota hitzak «Buru-hezur» esan nahi du).

Gaizkileen kidekotzat jo zuten.

Mirraz nahastutako ardoa eskaini zioten, baina ez zuen hartu. Gurutzean josi zuten, eta gudariak haren jantziak banatu zituzten, zer norentzat zotz eginez. Bederatziak ziren gurutziltzatu zutenean. Honela zioen kondenazioaren arrazoia adierazten zuen idazkunak: JUDUEN ERREGEA. Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean. Honela bete zen Liburu Santuak dioena: «Gaizkileen kidekotzat jo zuten».

*Besteak salbatu dizkik,
eta bere burua ezin salbatu.*

Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eraginez eta esanez:

S «Hara, santutegia desegin eta hiru egunean berriro erai-kiko omen zuena! Salba ezak heure burua! Jaits hadi gurutzetik!»

K Era berean, apaizburuek ere, lege-maisuekin batean, bur-la egiten zioten, esanez:

S «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu. Me-sias eta Israelgo erregea omen duk; jaitsi dadila orain gurutzetik, ikusi eta sinets dezagun».

Aste Santua.**JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA**San Dimas (*lapur ona*).

K Harekin gurutzean josiak zeudenek ere irain egiten zioten.

*Jesusek, deiadar handia eginez,
azken arnasa eman zuen.*

Eguerdian, ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Hurretan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

† «Eloi, Eloi, lema sabaktani»,

K hau da:

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»

K Hau entzutean, han zeuden batzuek esan zuten:

S «Eliasi deika ari duk».

K Orduan batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion, esanez:

S «Egon, ea datorkion Elias, gurutzetik jaistera».

K Baina Jesusek, deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

*Hemen, belauniko jarri
eta egonalditxo bat egingo da.*

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino. Aurrean zegoen erromatar ehuntariak, nola hil zen ikustean, esan zuen:

S «Benetan, Jainkoaren Semea zen gizon hau».

K Baziren han emakume batzuk ere, urrutitik begira; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joserren ama Maria, eta Salome; hauek Jesusen ondoren eta haren zerbitzuan

ibiliak ziren, Galilean zegoela. Baziren beste emakume asko ere, Jesusekin Jerusalemera igo zirenak.

*Josek, harri bat irauliz,
hilobiko sarrera itxi zuen.*

Ilunabarrean –larunbat-bezpera zen egun hura, Pazko-jai-rako prestaketa-eguna–, Arimateako Jose Pilatogana joatera ausartu zen, Jesusen gorpua eskatzera. Jose hau kontseilu-kide ospetsua zen, eta Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zain zegoen. Harritu zen Pilato Jesus ordurako hila izateaz eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hila zen galdetu zion. Ehuntariaren argibideak jaso ondoren, gorpua eramateko baimena eman zion Joseri. Honek izara bat erosi eta, Jesus gurutzetik eraitsirik, izaran bildu zuen eta harkaitzean zulatutako hilobian ipini. Gero, harri bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen. Maria Magdalena eta Maria, Joserren ama, non jartzen zuten begira zeuden.

Jaunak esana.

Jesus Jerusalemen, jarraitzaile-talde bat lagun zuela, sartu zen, keinu sinboliko bat eginez, kantu, poz eta umore on. Jende xumeak berez-berez agertzen zuen bere zoriona, Jesusen on eginak aldarrikatzen zituen, bihotza mugarik gabeko esperantzari irekiz. Boteretsuen garaipen-sarreraren alderantzizkoa guztiz; hauek harro azaltzen zituzten beren uniformeak, erritu prestatuak, eta indar militarra, ohiko kontsignekin.

Aste Santua.**JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA**San Dimas (*lapur ona*).

Egun hartan berean, beste keinu bat ere egin zuen Jesusek. Tenpluan sartu, diru-trukatzaileen mahaiak irauli, eta esan zuen, Jainkoaren etxea lapur-zulo bihurtu zutela aberastasun handiak metatu eta beren ustelkeria intsentsuaren ke eta erretako eskaintzen pean estaltzen zutenek.

Benetako tenplua Jesusen beraren gorputza da, galilear landa-gizon zaildu haren gorputza; albiste ona erreinuko guztien askatasuna da; opari egindako biktima bakarra Jesusen beraren bizia da, emana eta zaugarria, boteretsuek garbitu, hil, nahi dutena. Nekaldiaren kontra guztia ariko da azaltzen noraino iritsi den Jainkoaren gurekiko maitasuna, zein garrantzizkoak garen berarentzat, eta zein behera jaitsi den jenderik jotakoena eta babesgabeena besarkatu eta etxera eramateko.

Aste Santua.San Braulio, *gotzaina*.San Kastulo, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 42,1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12,1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetariko bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen.

Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?» (Hori esan zuen, ez behartsuak axola ziztaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zue-nez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.)

Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango».

Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

Aste Santua.San Braulio, *gotzaina*.San Kastulo, *martiria*.

Lazaro berpiztu ondoren, bere adiskideek eskaini dioten jai-afari batean partaide da Jesus. Jai-giroaren hondo-hondoan mehatxu-airea ari dira arnasten. Jesusen aurpegiak bihotzean bizi duen tirandura islatzen du. Mariak gozatu egin nahi izan du aurpegi hori, bere hurbiltasuna eta sostengua agertuz kalitate handiko lurrin batekin. Emakume baten sentiberatasunaz, gantzutu egin du Jesus, espero dion misiorako, ziur uste du heriotza ez dela maitasuna baino ahaltsuagoa. Usaina etxe guztian zabaldu da: inork ezin gelditu eta hesituko duen piztueraren seinalea da.

*Lauaxetaren “Agur Euzkadi”
(egokitua; martxoaren 23tik dator)*

Euzkadi ona, egon betiko
Kristoren fede betean
horrela zoriona bilatuko duzu
hemen ez bada zeruan.

Heriotza santua aurrean daukat
sinetsi bada, euskaldun hori:
Euzkadi aske izan dadin
zaindu Jesusen legea.

(segida martxoaren 28an)

[Isaias profetaren liburutik 49,1-6: Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. Sal 71 [70]: Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,21-33.36-38.

Aldi hartan, ikasleekin mahaian eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik.

Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarritz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?»

Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura.

Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehala». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen.

Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoa-

Aste Santua.Santa Lidia, *martiria*.San Ruperto, *gotzaina*.

ren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera.

Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”».

Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?» Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu».

Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zuek». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatek? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

Pedrok ukatu egin zuen Jesus, hartaz ezer ez zekien itxurak eginez, beraren begi-bistan egiten ari ziren zapalketan nahasirik ez gertatzeko. Judasek, berriz, saldu egin zuen, gaur egun hainbat eta hainbat trafikatzaille egiten ari den bezala migratzaile, emakume, haur eta ondasun publikoekin. Biak, Pedro eta Judas, sentitu ziren errudun, eta damutu egin ziren egindakoak barrua txartu zielako. Judasek erruduntasuna osasun galtzaile izan zuen, trafikatzailleengana eta bere buruaz beste egitera eragin zion. Pedrok osasunerako izan zuen: negar egitera eragin zion, elkartera, Jesusekin topo egitera, barkaziora eta bizi berri batera, berpiztuaren adiskide gisa.

[Isaias profetaren liburutik 50,4-9: Ez nien aurpegia saihestu irainei. Sal 69 [68]: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesede-garaia duzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26,14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?» Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas.

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesus-
sengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-
afarirako prestaketak egitea?» Jesusek erantzun zien: «Zoazte
hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela ha-
ren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikaslee-
kin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-
afaria prestatu zuten.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta,
afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek
saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zi-
tzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?»

Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek
salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz
dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko due-
na! Hobe zukeen jaio izan ez balitz».

Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz,
Maisu?» Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

Aste Santua.San Sixto III.a, 44. *aita santua.*Santa Gundelina, *abadesa.* San Kastor, *martiria.*

Egunero milaka aldiz errepikatzen da galdera hau: «Zenbat emango didazue?, eskura jarriko nizueke nik» Diruagatik, ospeagatik edo botereagatik, edozer gauza saltzen da: adiskidetasuna, bizi errugabea, herri-askatasuna, konpromiso afektiboak... Judasek ilusioa galdu duen batek bezala jokatu zuen. Egun batean uste izan zuen arrakasta segurua batera zihoala Jesus, eta jendetzaren atxikipena lortzeko dohain eutsiezina zuen lider gorakor haren aldeko apustua egina zuen. Baina... Zenbat dago negozio ezkutukorik nire harreman eta konpromisoetan? Erreinuko zenbat bizi desbideratzen dut neure kontu pertsonalerantz: besteren afektuaren premia dudala, besteren leialtasunaren, besteren aitortpenen premia dudala, nonbait kokatu premia dudala...?

Lauaxetaren "Agur Euzkadi"
(*egokitua; martxoaren 26tik dator*)
Eder zitzaizkidan eusko bazterrak,
eder itsaso zabala;
baina orain ederrago zait
heriotza honen itzala!

Gaztea nauzu bizitza honetan
eta ez zitzaidan falta gauzarik.
Jauna gogorra da aldi honetan
ihes egitea lurretik!

(*segida martxoaren 29an*)

§ Irteera liburutik 12,1-8.11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaizen Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarreen, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-urme guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaun”».

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*.
Santa Gladys, *erregina*.

[Sal 116 [115]: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 11,23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13,1-15.

Pazko-jaiak gainean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaioa jakinik, munduan ziren beretarak maite izanik, azkenean bete-bete maitatu zituen.

Afaltzen ari ziren. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskarioteraren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaian, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jau-na, Zuk niri oinak garbitu?» Jesusek erantzun zion: «Ni egi-

ten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu».

Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinik garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zeri-kusirik izango».

Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan, oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zion: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Maisua eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

Esku-oinak sokaz eta iltzez kateatuko dizkioten baino lehenago, keinu bat utzi nahi izan digu Jesusek, estutasun- eta nahasmendu-une horretan sentitzen duena hobekienik adieraziko duen keinua: Pazko-jai handia adiskideekin jatea. Egipton esklabo egona zen herriaren ospakizuna zen, inperio tzar baten hankapetik Jainkoak askatu izanaren seinalea. Aldi hartan, Jainkoak Moises bidali zuen judu-herrian misio bat gomendatuz. Orain, Jainkoak bere burua bidali digu Semeagan, herri guztiak askatzeko.

Aste Santua

San Konstantino, *abadea*.

Santa Gladys, *erregina*.

Jesusen zeruertzean, gurean bezala, Pazkoa ospatzen dugunean, Aitaren mahai bakarra dago; haren inguruan eseriko gara pertsona eta belaunaldi guztiak, geure artean elkartasun bizian eta lurreko fruituekin bat eginik, etsaitasunik gabeko jaian, jende bazterturik eta denbora-amairik gabe.

Jai hori prestatzeko era, elkartea sortzea da eta hartan bizi-itea, besteentzat ogi eta ardo, janari eta alaitasun izanez, eguneroko lanik txikienetan zerbitzari izanez, besteri oinak garbituz eta utziz bestek guri garbitzen, lagunduz eta laguntza jasoz, urrundu gaitzakeen harrokeriarik gabe eta zurrundu gaitzakeen ilusio-ezik gabe.

*Lauaxetaren “Agur Euzkadi”
(egokitua; martxoaren 28tik dator)*

Ez bedi egin nire gogoa

baizik eta zure nahia.

Gogoa bihoa zero argira

gorputza lur ilunera.

Aste Santua.San Joan Klimako, *abadea*.
Santa Irene, *martiria*.

§ Isaias Profetaren liburutik 52,13—53,12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, goren-go mailara jasoa izango da.

Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko.

Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena?

Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargaririk; mesprextatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mesprextatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez.

Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman.

Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat.

Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte. Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zo-

Aste Santua.

San Joan Klimako, *abadea*.

Santa Irene, *martiria*.

ria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da.

Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asean izango da.

Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen. Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako.

Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

[Sal 31 [30]: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua!]

§ Hebrearrei gutunetik 4,14-16;5,7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaioگون aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitetzen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Aste Santua.

San Joan Klimako, *abadea*.
Santa Irene, *martiria*.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik 18,1–19,42 (*Laburtua*).

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zera-mala, «Buru-hezur» -hebreeraz «Golgota»- zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: JESUS NAZARETARRA, JUDUEN ERREGEA.

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

S «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».

K Pilatok erantzun zuen:

S «Idatzia bego idatzirik!»

Nire jantziak beren artean banatu zituzten.

K Gudariak, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika

Aste Santua.San Joan Klimako, *abadea*.Santa Irene, *martiria*.

hartu zuten, baina josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

S «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

K Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariak.

Horra hor zeure semea!

Horra hor zeure ama!

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

† «Emakume, horra hor zeure semea!»

K Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!»

K Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Bete da dena!

Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!»

K Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

Aste Santua.San Joan Klimako, *abadea*.
Santa Irene, *martiria*.

† «Bete da dena!»

K Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

Aitaren bizi osoa ematera etorri zitzaigun Jesus, eta egiteko horri eskaini zion bere bizi osoa, ez ordu bakan batzuk edo urte batzuk, baizik eta osorik eman zion bere burua lan horri, eta ez bere jeinuaren izpi batzuk soilik. Dolarean mahatsa bezala estutu zuten, jada beraren buruaz ezer gelditu ez zitzaion arte. Jainkozko bizia neurririk gabe eman digu Jesusek eta atzeraezinako moduan. Azkenean, bere burua erein zuen, haragi eta hezur Hitza dena, idatzia giza pitzaduren ildo beti irekietan

Ez zuen ezer ezarri, ez doktrina bat, ez uniforme bat, ez atxikipen-tatuaje bat. Soilik, bere burua aurkeztea egin zuen, bere infinitudetik irten eta haur makal egitera arriskatu zen, behartu zaurgarri izatera. Hasieran bere hitza erein zuen hor zehar galdutako herrixka eta kaletan, sinagoga eta hondartzetan. Beti ere, Bizirako bidea oihu egin zuen, zoriona erakutsi zigun eta mendetan barna berarekin batean hura eraikitzen joateko ahalbidea, beraren bidelagun izateko ahala zokoratutako bazterretara joateko, non bizia hain hurbil baitago zartakoak hartzeko eta jaiotza etena izateko.

Gurutziltzatuagan dago guztiaren laburpena. Lepoan hartu ditu, bai kaltetuen oinazea, bai kaltegileen bekatua. Jainkoa hil da gu bizi ahal izateko.

Aste Santua.**PAZKO GAUBEILA**San Amos, *profeta*. Santa Balbina, *birjina*.

Liturgiak Itun Zaharreko zazpi irakurgai desberdin eskaintzen dizkigu, eta Itun Berriko bi. Batzuk irakur daitezke (Itun Zaharreko bi gutxienez gomendatzen dizkigute) edota guztiak, baina segidako kontaera hau entzun beharrekoa dugu. Itun Zaharreko bi eta Itun Berriko biak datoz liburu honetan.

§ Irteera liburutik 14, 15-15, 1a

Aldi hartan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrek erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar».

Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren tartean jarritz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu.

Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoan zabalduko lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas ertiraino sartu ziren.

Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrendik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka».

Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoan sartu ziren gurdiak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa.

Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazterrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona.

[Irteera 15, 1b-2. 3-4. 5-6. 17-18: Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.]

§ Ezekiel profetaren liburutik 36,16-17a.18-28.

Honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Gizaseme! Israel herriak, bere lurraldean bizi zenean, kutsatu egin zuen lurraldea bere jo-

Aste Santua.**PAZKO GAUBEILA**San Amos, *profeta*. Santa Balbina, *birjina*.

kabide eta egintza txarrez. Orduan, haien gainera isuri nuen neure sumina, lurraldean odola isuri eta idolatriaz kutsatu zutelako. Atzerriko nazioetan eta lurraldeetan sakabanatu nituen. Beren jokatze eta egintza txarren arabera epaitu nituen. Eta nazio haientara iritsi zirenean ere, nire izen santua belztu zuten, jendea hau esatera bultzatuz: “Jaunaren herria dira, eta haren lurraldetik irten egin behar izan dute”. Orduan, nire izen santua garbitu nahi izan nuen, belztu egin baitzuen Israel herriak, egon zen nazioetan.

Esaiozu, beraz, Israel herriari: Hau dio Jaunak: “Ez dut hau zuengatik, israeldarrongatik, egiten, baizik eta zuek egon zareten nazioetan belztu duzuen nire izen santuagatik. Santu agertuko dut neure izen handia, nazioetan kutsatua dagoena, haien artean zuek kutsatu duzuen nire izena. Eta zuen bidez haien aurrean santu agertuko naizenean, orduan jakingo dute nazio haiek Ni naizela Jauna –dio Jainko Jaunak–.

Nazioen artetik hartuko zaituztet, lurralde guztietatik bilduko eta zeuen lurraldera ekarriko. Ur garbiz ziprztinduko zaituztet, eta garbi geldituko zarete; zeuen kutsadura eta idolatria guztietatik garbituko zaituztet.

Bihotz berria emango dizuet eta barnean espiritu berria ezarriko. Harrizko bihotza kenduko dizuet eta haragizkoa emango. Neure espiritua ipiniko dut zuengan, eta gai egingo zaituztet nire legeen arabera ibiltzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko. Zuen arbasoei eman nien lurraldean biziko zarete; nire herri izango zarete zuek, eta Ni zuen Jainko”».

Sal 42 [41]: Basahuntza iturrien irrikaz bezala, hala daukat, Jainko, gogoia irrikaz zugana.

§ San Paulok Erromatarrei 6,3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua geldi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintzen. Izan ere, norbait hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitza Jainkoarentzat bizitza da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

[Sal 118 [117]: Aleluia, aleluia, aleluia. Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita. Esan bezate israeldarrek: haren maitasuna betikoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,1-7.

Larunbata igaro zenean, Maria Magdalenak eta Santiagoren ama Mariak eta Salomek usain gozoko ukenduak erosi zituzten

Aste Santua.**PAZKO GAUBEILA**San Amos, *profeta*. Santa Balbina, *birjina*.

Jesusen gorpua gantzutzeko. Eta asteko lehen-egunean, goizean goiz, eguzkia atera orduko, hilobira joan ziren.

Hau ziotsoten elkarri: «Nork irauliko digu hilobi-sarrerako harria?» Begiratu eta harria iraulia ikusi zuten, oso handia zen arren.

Hilobian sarturik, gazte bat ikusi zuten eskuinaldean eseria, soineko zuriz jantzia, eta erabat izutu ziren.

Hark esan zien: «Ez izutu! Nazareteko Jesus gurutziltzatua-ren bila al zabiltzate? Piztu da; ez dago hemen. Hona ezarri zuten lekua. Zoazte orain haren ikasleei, eta bereziki Pedrori, esatera: “Zuen aurretik joango da Galileara. Han ikusiko duzue, berak esan bezala”».

Arrats (gau) honetan, Jesusen piztuera ospatzen dugu. Haren bizia eta gurea ulertzeko giltzarria da piztuera hori, gu guztion piztueraren jatorri agortezina da geure bizitzan jasaten dugun herio-prozesu guztian, geure bizitza guztian maitasun dugun ororen azken zoria da, zaborretik dukegun guztitik garbiturik Jainkoarekin biziko dugun behin betiko topaketa da. Jesus ez da piztu bera bakarrik eta berarentzat bakarrik, Aitarekin topo egitera bera bakarrik iristeko. Jesus, guri erreinuko bizia eskualdatzeko, gugatik bizi eta hiltzeaz gain, guretzat ere piztu zen, gu bere piztueran txertatzeko. Hitzerraino izan genuen Jesus leial eta piztueran ere leial dugu betiko. Hau da Jesusen azken hitza: erabat eta guztiz Maitasun dela, eta maitasuna ezin hesitu da hilobian historiako inperio-botereen zigilu eta morroilo.

Berrogei egunez garbitu gara Jesusen pazkora hurbiltzeko. Beste berrogei egunez saiatuko gara piztueraren misterioa geure baitan onartzen. Gaurko ebanjelioak hutsik agertu digu hilobia, herio-zulo bat zapi eta guzti, miresmena sortarazi du eta galdera sakon bat. Zer esan nahi du Jesus piztu izanak eta gu jada harekin piztu izanak? (Kol 3,1).

Heriotza naturala, bere baitan, lurreko bizitza ororen bukaera arrunta bakarrik da. Hain juxtu, arrazoizkoena dirudi pentsatzea, Jesus bera hil egingo zela, indarkeriazko beraren heriotzak Bibliako hainbat pasartek baieztatzen duten sakrifizio- eta ordain-helbururik izan ez balu. Jesus, haragi egitean, aldaketaren eta denboratasunaren dinamikan murgildu zen, gorputz eta lurtar bizitza orori dagokionez. Hazten joateko dinamika, zahartzen joateko eta hiltzeko dinamika. Eta beraren giza errealitatea ageriko bihurtu zen gurekin gure ahuldadeak eta mugapenak partekatzean (Hebreatrei 4,15), heriotza barne, zeinetatik ez baitzen libratu hartatik igaro arte (Hebreatrei 5,7-9). (J. M. Rivas, in Ecclesalia 2013-05-13).




APIRILA / JORRAILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Unibertsala: Ekonomian erantzukizun bat dutenentzat

Gogoeta eta kudeaketa ekonomikoan erantzukizuna dutenentzat: adorea izan dezaten, uko egiteko jendea bazterten duen ekonomiari, eta gai izan daitezen bide berriak urratzeko.



APIRILA / JORRAILA Igandea/Domeka. B
Jesusen Piztuera
PAZKOA.

San Venantzio, *gotzaina*.
Santa Teodora, *martiria*.

1

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,34a.37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanez hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bitartean, Jainkoa berekin baitzuen.

Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egin dako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artean piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi.

Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeke eta aitortzeke, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiak bekatuen barkamena hartuko dutela, haren izenean».

[Sal 118 [117]: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.]

§ San Paulok Kolosarrei 3,1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eserita. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurtekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea.

1

Igandea/Domeka. B APIRILA/ JORRAILA Jesusen Piztuera PAZKOA.

San Venantzio, *gotzaina*.
Santa Teodora, *martiria*.

Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,1-9.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesussek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesussek hilen artetik piztu behar zuela.

Ikasleak zurrundurik zeuden beldurrak, erruduntasunak eta nahasmenduak jota. Jesusi gurutzeraino eta hilobiraino lagun egin zioten emakumeek bazekiten gorpua non zegoen, eta harako bideari ekin zioten. Hil izanaren ziurtasunak gidatu ditu. Doako maitasunak presa eman die. Zertarako da hilobian hiru egun daramatzan gorpua baten zauriak lurrinez igurztea? Maitasunak aterarazi

APIRILA/ JORRAILA Igandea/Domeka. B Jesusen Piztuera PAZKOA.

San Venantzio, *gotzaina*.
Santa Teodora, *martiria*.

1

ditu itxituratik eta bideari ekin diote; lehendabizi, hilobira joateko; ondoren, elkartera itzultzeko. Magdalenak gorpua ezkutatu izana adierazi die ikasleei. Elkartea larritu egin da. Tristuraren zurruntasuna mugitzen hasi da. Ikasleak elkartu eta hizketan hasi dira, ez dute sinetsi, baina Pedrok eta Joanez korrika jo dute hilobirantz. Errealitatea egiaztatu dute. Joanez sinetsi du Jesus piztu dela. Pedro nagiago eta geroago iritsiko da konbentzimendu horretara. Ikasleetako bakoitzak bere erritmoan gauzatu du prozesua.

Gurutziltzatzea ikuskari krudela izan zen, jendaurrean gauzatua, suntsipen-erritualez egin, Jesus desegin eta haren jarraitzaileak hautsita uzteko. Piztuera, berriz, esperientzia barnekoa izango da, bakoitzaren eta elkartearen ikusteko moduari agertua. Berpiztuak eraldaturik, ikasleak kalera irtengo dira historiari zentzua ematen dion berritasunaren lekuko gisa. (Eginak 10,34,37-43).

Piztuera matxinada bilakatu da.

*Maria Magdalena
hilobira joan zen goizean
goiz.
Atera ziren Pedro eta
beste ikaslea,
eta hilobira abiatu ziren.*



Pazkoaldia. Zortziurrena.

Bideko Andre Maria.
San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14.22-33: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitrik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera.

Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naute».

Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, hau aginduz: «Esazue, haren ikasleek gaeuz etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu».

Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdai-no zabaldu da kontu hori juduen artean.

Pazko-jaiaren ondoko zortzi egunak, jai-egun bakar bat bezala dira: piztuera ospatzen dugu horietan eta ate desberdinetatik sartzen gara piztueraren misterioan. Etxera pozik itzultzean agertu zitzaien emakumeei Jesus berpiztua. Itzulerako bidean gertatu zen agerpena; bidean agertu zitzaien Emausko bi ikas-

Pazkoaldia. Zortziurrena.

Bideko Andre Maria.

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*.

leei ere. Jesus, gaur, jende arruntaren aurpegian atera ohi zaigu bidera, inolako nabarmenkeriarik gabe, mugitu ohi garen lekue-tan. Giza bideetan etorri ohi zaigu bila berpiztua. Zorionekoak uzten badiogu aurkitu gaitzan!

Markosen ebanjelioan Jesusi emandako hainbat izen:

- * Jainkoaren Semea, hasieran (1,1) eta azkenean (15,39)
- * Mesias, Kristo (hau da, Gantzutua) (1.1...)
- * Jauna (1,3; 5,19; 11,3)
- * Seme maitea (1,11; 9,7)
- * Jainkoaren Santua (1,24)
- * Nazaretarra (1,24; 10,47; 14,67; 16,6)
- * Gizonaren Semea (2,10.28; 8,31.38;...)
- * Senarra (2,19)
- * Goi-goiko Jainkoaren Semea (5,7)
- * Arotza (6,3)
- * Mariaren Semea (6,3)
- * Profeta (6,4.15; 8,28)
- * Maisu (sarritan)
- * Maisu on (10,17)
- * Daviden Seme (0,47.48; 12,35-37)
- * Rabboni (10,51)
- * Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena (11,9)
- * Rabbi (11,21)
- * Seme (14,27)
- * Artzain (14,27)
- * Jainko bedeinkatuaren Seme (14,61)
- * Juduen Errege (15,2.9.18.26)
- * Israelgo Errege (15,32)

[Apostoluen Eginak liburutik 2,14a.36-41: Bihotz-berri zaitezte eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. Sal 33 [32]: Jaunaren graziaz beterik dago lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?» Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten».

Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?» Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut».

Jesusek esan zion: «Maria!» Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire seni-deengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”».

Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Maria negarrez ari da, ezin kontsolaturik; ezin aurkitu izan du gurutziltzatuaren gorpua bera ere. Beste edozein per-

Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Sixto 1.a., 7. aita santua.

tsonaia bailitzan agertu zaio Jesus, baratzezain bat bezala. Berpiztuak, berak ondo ezagutzen zuen tonueraz, bere izenaz dei egin dionean bakarrik ezagutu du: «Maria!» Aski izan da hitz bat misterioa irekitzeko. Lehenagoko ahots hura bera da, baina harreman-modu berri batean gauzatua. Lehenago besarkatzen ahal zuen, haren hitza entzuten ahal zuen, haren bidelagun izaten ahal zen. Orain, harekin egoteko, beste era bat hasi da, bihoz-koiagoa, asti- eta denbora-mugapenik gabea: Maria eraldatu eta lekuko bihurtu du.

«Neure Hitzean, neure Semeagan, alegia, den-dena esana badizut, eta besterik ez dut, zer erantzuten ahal dizut orain edota zer agertzen ahal dizut hori baino gehiago? Ezar itzazu begiak harengan, zeren eta den-dena baitut esana eta agertua harengan, eta hartuko duzu harengan eskatzen eta nahi duzuna baino gehiago ere. Zeren eta zuk esapideak eta errebelazioak eskatzen baitituzu haren zatitxo batez, baina begiak harengan ezartzen badituzu oso-osorik aurkituko duzu bera. Zeinaz hitz egina nauzu jada, erantzuna, azaldua eta agertua, bera zuei emanez anaiatzat, laguntzat eta maisutzat, prezio eta saritzat» (Gurutzeko Donibane, Karmelo Mendirako Igoera, 2. lib. 22. kap. 5. zenb.)

[Apostoluen Eginak liburutik 3,1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. Sal 105 [104]: Poztu zaitezte bihotzez Jaunaren bila zabilzatenok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herririka batera zihoazen, Jerusalemdik hamai-ka kilometrora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaien eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?» Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!» Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?»

Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariak heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutako batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi».

Pazkoaldia. Zortziurrena.San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?» Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien.

Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko.

Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia harturik, bedein- kapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?» Eta berehala altxatu eta Jerusalemera itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Bi ikasle hauek Jesus maila handian ezagutzera iritsiak ziren, baina, etsirik, elkartetik alde egin zuten; hain juxtu, dena birjaiotzen hasia zen puntuan. Jesus haiengana hurbildu eta haien bidelagun ekin zion bideari. «Haien begiak, ordea, itu zeuden eta ez zuten ezagutu». Jesusekin hizketan jardun ondo-

4

**Asteazkena /
Eguaztena**

APIRILA / JORRILA

Pazkoaldia. Zortziurrena.

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*.

ren, berekin afaltzera gonbidatu zuten. Ogia zatitzean antzeman zioten. Jesus desagertu egin zen. Agerpen guztiak izaten dira desagerpen. Haren desagerpen horretan geure egiten dugu haren hitza, gure fedea hazten da eta haren auzi edo arazoarekiko konpromisoa handitzen.

Jesu Kristo Jauna!

- Sinesten dut, Zu hildakoen artetik piztearekin, zentzu beteaz lortzen dutela nire bizitzak, nire bideak eta nire hiltzeak.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, sostengurik sendoena lortu duela nire fedea, zure presentziak eskaintzen digun argian, indarrean eta bakean.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gaintutia izan dela behin betiko nire koldarkeria eta erronka bizia jaso dutela aspaldiko nire beldur zaharrek.

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Bizente Ferrer, apaiza.

[Apostoluen Eginak liburutik 3,11-26: Biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. Sal 8: Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten Jauna.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzueenez». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien.

Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten.

Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela».

Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren ize-nean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Ikasleek, lehenik, berpiztuaren esperientzia pertsonala egin dute, norbera dagoen lekuan bilatzen baitu hark, bizi duenari erantzuten dagoen lekuan, alegia. Denak berehala elkartera itzuli dira. Eta nork bere esperientziaren berri emango du han. Inork ez du absolututzat eman berak bizi izan duena. Elkarri entzuten diote esateko dutena. Pixkana, besteen bizipenak pilatuz, gertatua hobeto ulertzeko moduan izango dira. Bestetik, denak batean daudela, beste esperientzia bat bizi izan dute, elkartekoa; hartan baietsi dute, berpiztuak berekin dituela lantzaren eta iltzeen seinaleak. Ez da, beraz, edozein espiritu. Eta testigantza egingo dute, beren odola isuriz, Jesusek eskaintzen digun biziak berpiztu egiten duela.

Jesu Kristo Jauna!

- Sinesten dut, Zu piztearekin, esnatu egin naizela hesirik eta mugarik gabeko bizieta batera.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, indarra galdu dutela anai-arreba arteko gorrotoek eta sostengua galdu dutela jende arteko trikimailu zikinek.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, heriotza baino harago luzatzen den bizi baten bermea segurtatu diozula nire haragi hilkor honi.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, ukigarritasun- eta harreman- kategoria, ziurtasun- eta promes-kategoria lortu duela gure fedea.

Pazkoaldia: Zortziurrena.

San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,1-12: Ez dugu beste inor salba gaitzakeenik. Sal 118 [117]: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzairen Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kana-koa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz geu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?» Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza.

Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora.

Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru

Pazkoaldia: Zortziurrena.San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*.

arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere.

Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

Agerpen honetan, ikasleak ez daude jada Jerusalemgo gela itxian, baizik eta eguneroko bizitzako aintziran, jatekoaren bila ari duten lanean. Sinbolismo handiko eszena da. Kristau-elkar-tea, Jesus gabe, agorra da, ezin harrapatu du arrainik. Jesusekin, sareak mukuru betetzen dira. Sarea non bota behar den dakien arrantzale trebe horrengan Jesus berpiztua ikusi du Joanek; ondoren, denek ikusiko dute berpiztua Jesus zerbitzariagan, gau osoa lanean eman dutenek gosaldu dezaten su-txingarrean ogia eta arraina prestatu dituen horrengan. Gau agorrean Jesus kontenplatu beharko genuke.



*Ogia hartu
eta eman zien; baita arraina
ere.*

Pazkoaldia. Zortziurrena.

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea (Salletarrak)*

[Apostoluen Eginak liburutik 4,13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde. Sal 118 [117]: Esker-rak zuri, Jauna, entzun nauzulako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, Jesus, pizturik, Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrena. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi.

Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzairen, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela. Hauek ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi.

Azkenik, Hamaiki agertu zitzairen, mahaian zeudela, eta aurpegira bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zitelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

Gaurko ebanjelioan, bildurik ageri dira ikasleek bizi izan dituzten jarkiera eta gogorkeria piztuera sinesteko, asteko irakurgaietan aurkitu izan ditugunak. Ulertzekoa da. Piztuera onartzea gaur bezain denbor gabeko gauza zen orduan ere. Ikasleek Jesusez egin duten esperientziak, beraien «ikuste sinestunak», ez du sostengu besteez esperimintatu izana. Ikusi egin zuten ikasle guztiek. Jende asko dator gaur egun gure elkarteetara berpiztuaz esperientzia egitera. Harengana bideratzen baditugu eta topatzen badute, gelditu egingo dira; baldin eta gure erantzuna egia eta arau batzuen kodea eskaintzea bada, alde egingo dute.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,32-35.

Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ere ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta guztia guztiena zuten. Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jau-naren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak.

Ez zen behartsurik haien artean. Izan ere, lurrik edo etxerik zutenek saldu egiten zuten, eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.

[Sal 118 [117]: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.]

§ San Joanen 1. gutunetik 5,1-6.

Seme-alaba maiteok: Jesus Mesias dela sinesten duen oro Jainkoagandik jaio da, eta bizia ematen duen Jainkoa maite duenak harengandik jaioa ere maite du. Beraz, Jainkoa maite badugu eta haren aginduak betetzen baditugu, badakigu Jainkoaren seme-alabak maite ditugula. Izan ere, Jainkoa maitatzea haren aginduak betetzea da. Eta haren aginduak ez dira astunak, Jainkoagandik jaio den orok garaitu egiten baitu mundua. Eta hau da munduaren gain garaipena ematen diguna: gure sinesmena.

Zein da mundua garaitzen duena, Jesus Jainkoaren Semea dela sinesten duena baizik? Hau da bataioko uraz eta heriotzako odolaz etorri zena, Jesu Kristo; ez uraz bakarrik, uraz eta odolaz baizik. Eta Espiritua da honetaz aitormen egiten duena, Espiritua egia baita.

Pazkoaldiko 2. astea B
Jainkoaren errukiaren eguna.
San Dionisio, *gotzaina*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituzte, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituzte, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzue? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira

sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Jesusen piztuerak eraldatu egin ditu ikasleak, eta hark hasitako ibilbidea jarraituko duen elkarte sortu da. Fededunek pentsaera eta sentiera bera dituzte, eta beren ondasunak partekatzeraino iritsi dira, premiarik handiena dutenen eskura ipiniz. Bakeak eta pozak elkarturik bizi dira. Deskripzio ideala da hori, benetako elkarteak zein norabide bizi beharko lukeen adierazten du. Kristau-elkarte kontaezinek errepikatzen dute gaur egun esperientzia hori bera, munduko leku askotan, batez ere gizarteak zokoratuak dituenetan, baztertuetan, alboratuetan, zeinez teknikoek esana baitute horietatik ezin espero daitekeela ezer onik. Berpiztua gure artean dagoenaren ebidentziarik argitsuenetakoa dira.

§ Isaias Profetaren liburutik 7,10-14; 8,10.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean».

Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen:

«Entzun, Daviden etxe:

Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari?

Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue?

Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria.

Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, «Jainkoa gurekin»».

[Sal 40 [39]: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.]

§ Hebrearrei gutunetik 10, 4-10.

Senideok: Zezenen eta akerren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan;

baina gorputza eratu zenidan.

Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik

ez zenuen atsegin izan.

Orduan, esan nuen:

Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko;

hau dago Liburuan nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; ho-

rregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Jainkoak solasera jo du Mariarekin, Seme gizon eginaren Ama izateko proposamena eginez. Mariak kokkor dakusa bere burua, eta ezkontza hitza emana dio Joseri. Ezohikoa irudituzo proposamena. Nola gerta daiteke hori? Etorkizun horrek erabat aterarazi du bere egitasmoetatik, eta salbamen-egitasmoan sarrarazi du; beraren ustez, Galileako landa-neska gazte baten zeruertz estua gainditzen duen egitasmoa da.

Jainkoak Mariaren beharra du, gure mundu honetan sartzeko, benetan gizatarra izango den haur bezala. Ez dio ezer ezarri, proposatu bakarrik, eta, une horretatik, aldiaren eta espazioaren estutasunean hesitua egongo da Semea.

Mariak baietz esan dio, eta misterio batean murgildu da, mende guztietako teologoek eta santuek sakontzen jarraitzen duten misterioan, haren ertzetara inoiz iritsiko ez badira ere. Den guztia eskaini dio Mariak Jainkoari, proposamena onartuz: «Gerta bekit zuk diozun bezala». Aldi berean, prest agertu da bere aldetik egiten ahal duena egiteko: «Hona hemen Jaunaren mirabea». Izan daitekeenaren zerbitzari apal izaten garenean, ezinaren misterioa lantzen dugu. Maria Judeako mendialdera irten da, bien bizitzak batzen dituen sekretua Elisabet lehengusarekin partekatzeko, zerbitzu apalean eta beren zoriona hitz berriez abesteko.

Pazkoaldiko 2. astea.

San Ezekiel, *profeta*.
San Makario, *gutzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 4,32-37: Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospeztz jantzia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,5a.7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Berriro jaio behar duzue. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Nikodemok galdetu zion: «Nola gerta daiteke hori?»

Jesusek erantzun: «Zu maisu zara Israelen eta ez dakizu hori? Egi-egiaz diotsut: Guk dakiguna esaten dugu eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure aitormena onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez baduzue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten».

Jesusek «betiko bizia» eskaini digu, orain jadanik sentitzen hasia duguna geuregan, eta heriotzarekin xahutuko ez dena. BERPITUAREN Espirituaren dohaina da, pertsona eta herri guztietan dihardu, den-denari su emanez, gertaerak behin betiko bizira norabidetuz, inongo zoritxarrek inor zurruntzea eta heriotzan lokaztea galaraziz. Jesus gurutziltzatu eta berpiztuagan den-dena dakusagu. Haizea bezalakoa da Espiritua, norberak ikusi gabe oxigenoa dakarkigu, eta nondik datorren eta nora doan jakin gabe. Bizitza hau benetako jaiotza berria da, Jainkoaren berritasun ezin agortuan jaiotzea.

Pazkoaldiko 2. astea.San Estanislao, *gotzaina eta martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 5,17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harenagan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harenagan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoa: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorrotoa dio argiari, eta ez dator argira, beraren egiteak agerian geldi ez daitezten. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, beraren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Jainkoak bere Semea bidali du mundura, inor gal ez dadin, baizik eta guztiok izan dezagun berak eskaini digun betiko bizia. Dohain hau onartzen dutenek garden eta tranparik gabe bizi ohi dute izatez diren hura. Jesusen eskaintzari uko egin eta gainerakoen bizkar bizi direnek, nahiago izaten dute iluna: ho-

nek ezkutatu egiten baititu halakoen egintzak, senideen hiltzaile direnak, dela jendaurreko ustelkeriaz, dela hitzarmen maneatuz, dela kontularitza ezkutukoaz, dela makalen aurkako indarkeriaz apain pintaturiko etxe barruan. Zenbait ezkutuko hiltze ageri ohi den titulu ohoragarri eta amarrukeria zitalen pean! Jesus gure argia da, zeinengan guztiok baitugu elkar ikusten engainurik gabe!

Jesu Kristo Jauna!

- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure esperantzak gainditu egin di-tuela haizekeriazko optimismoa eta azal hutseko utopia.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure giza maitasuna biziberritu egin dela, noizbait ere, ezer ez direnei eta ezertako ez direnei zinez hurbiltzeko.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure gizarte honetako gizon-ema-kumeen historiak aurki dezakeela, azkenean, bere muina eta hon-do-hondoko bere zentzua.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, bizi garen mundu honek utzi diola eskenatoki huts izateari, benetan gizakiaren bidelagun bihurtzeko.

Pazkoaldiko 2. astea.San Zenon, *gotzaina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. Sal 34 [33]: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia dioela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua.

Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

Goitik datorrenak, Jesusek, Jainkoaren hitzak esaten ditu, eta, haren hitzen aurrean, dakarkiguten bizia hautatzen dugu edota sorgorren heriotza. Jainkoak ez digu ezer ezartzen, baizik eta proposatu egiten digu, geure bihotzera eta askatasunera hitz egiten digu Jesusengandik hurbil. Jesusengan sinesten badugu, gure baitan ere garatu daitezke betiko bizirako hitzak; izan ere, mugarik gabe eman digu Espiritua. Hau da Jainkoaren proposamena: Jesus biziaren Hitz den bezala, izan gaitzela gu geu ere Hitz era berean. Belarri guztietara oldartzen diren hainbat eta hainbat hitzen artean, beraren Hitz berria izatea proposatu digu Jainkoak.

[Apostoluen Eginak liburutik 5,34-42: Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako. **Sal 27 [26]**: Gauza bat eskatzen diot Jaunari: bizi nadila Jaunaren etxean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan.

Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zertorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko».

Ikasleetakoko batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesusek jendea eserazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren.

Jesusek ogiak hartu eta, esker onezko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez.

APIRILA / JORRAILA Ostirala / Barikua
Pazkoaldiko 2. astea.

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen artean*
azken martiria.

San Hermenegildo, *martiria.*

13

Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Kontaera hau piztueraren esperientziatik irakurririk, hobeto ulertuko dugu esan nahi duena. Bere hitzaren ogia banatuz hasi zen Jesus, eta ildoak bezala irekirik zeuden bihotzetan ereinez. Geroago ulertu zuen Jesusek, hilobiaren ildoan erein behar zuen alea beraren burua zela, botere erromatar eta juduaren pean lur emanik. Piztu eta munduan bizi berri bat iratzarri duenean, geure baitan ulertu eta esperimentatu dugu elikatzen gaituen geldiezineko bizi hau. Jendeak errege egin nahi du Jesus; berak, ordea, ez du beste asmorik: gure zerbitzari izatea, itzalezineko biziak elikatzen gaituen janari izatea.

Pazkoaldiko 2. astea.

San Tiburtzio, *martiria*.Santa Liduvina, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 6,1-7: Zazpi gizon aukeratu zituzten, Espiritu Santuaz beteak. Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zuga baitugu geure uste ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,16-21.

Arratsean, Jesusen ikasleak itsasora jaitsi eta, txalupara igo-rik, itsasoaz bestaldera abiatu ziren, Kafarnaum aldera.

Iluna zen ordurako, eta artean Jesus ez zen haiengana iritsi. Haize zakarra zebilen, eta itsasoa harrotzen hasi zen.

Bospasei kilometro arraunean egitean, Jesus ikusi zuten ur gainean oinez eta txalupara hurbiltzen, eta beldurak hartu zituen. Baina hark esan zien: «Ni naiz; ez beldur izan!» Haiek txalupan hartu nahi izan zuten, baina txalupa berehala iritsi zen zihoazen tokira.

Jesus berpiztu da, heriotza garaitu du, baita heriotzaren zerbitzari diren esku odoldu guztiak ere. Badakigu hori, baina batzuetan gaua hain iluna izaten da non ez baitugu ikusten erreferentzia-punturik norabidetzeko; olatuak hain bortitzak izaten dira, haizea hain zakarra eta gure erakunde familiar eta erlijiosoak hain ahulak non amildegiak irentsiko gaituen beldur izaten baikara. Aukera izaten dugu horrelakoetan, Jesus hurbiltzen zaigula ikusi eta esaten digula sumatzeko: «Ez beldur izan». Begiak ireki beharra izaten da, olatuen artean eta gauean haren presentzia sumatzeko, sentitu ahal izateko bidelagun dugula hondartzaraino.

Pazkoaldiko 3. astea B.San Kreszente, *martiria*.Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*.**§ Apostoluen Eginak liburutik 3,13-15.17-19.**

Egun haietan, Pedrok honela hitz egin zion herriari: «Abrahamen, Isaaken eta Jakoberen Jainkoak, gure arbasoen Jainkoak, aintzaz bete du Jesus bere zerbitzaria, zuek agintariei eskura eman eta Pilatoren aurrean ukatu zenuten hura, honek askatzea erabaki zuen arren. Santua eta Zuzena ukatu zenuten, eta hiltzailea askatzeko eskatu; biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik; geu gara horren testigu.

Badakit, senideok, ezjakinean jokatu zenutela zuek, baita zuen agintariek ere. Baina horrela bete zuen Jainkoak, profeta guztien ahoz aurrez iragarria, hots, haren Mesiasak sufritu egin behar zuela. Bihotz-berri zaitezte, beraz, eta itzuli Jainkoagana, bekatuak ken dakizkizuen».

[Sal 4: Argi ezazu, Jauna, zeure aurpegia gugana.]**§ San Joanen 1. gutunetik 2,1-5a.**

Ene seme-alabok, bekatuak egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitarenean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztiko barkamenerako ere.

Jainkoa ezagutzen dugula honetatik dakigu: haren aginduak betetzetik. «Nik ezagutzen dut Jainkoa» esan eta haren aginduak betetzen ez dituen geurtia da, eta horrelakoan ez dago egia. Haren hitza betetzen duenagan, berriz, Jainkoaren maitasuna bere betera iritsi da egiaz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24,35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten Jauna.

Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldur-ikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien.

Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?» Arrain erre puska bat eskaini zioten.

Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela».

Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Bi ikasleek Emausen ogia partekatzean antzeman zioten Jesusi. Bizi izan zutenaren ezagutza oso hasi-masikoa zuten artean. Beraz, Jesusekin egindako elkarte-topaketa batean sakondu beharra zuten, guztiak esperientzia berean elkartzeko. Lehenik,

Pazkoaldiko 3. astea B.

San Kreszente, *martiria*.

Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*.

beldurra sortu zen ezustekoaren aurrean. Ondoren, Jesus zelako egiaztapena egin zuten, iltzek, arantzek eta lantzak markatu zioten bere gorputz eta guzti, baina oraingoan piztuerak eraldaturik. Segidan, poz mutu bat sentitu zen, hitzik aurkitzen ez zuena eta engainatuak izateko ikarak galgatua. Azkenik, Jesusek adimena ireki zien, Liburu Santuak berari buruz nola ari ziren ulertzeko.

Israelen historia guztiak betetzearen betetze hau zuen jo puntu. Mendetan barna historiaren amatasun-erraietan gordea egon zen dinamismoa argira irten zen, eta ikasle harrituaren zentzumeni azaldu zitzairen. Hasiara berri bat hasi zen dinamizatzen historia osoa, eta behin betiko esperantza honen lekuko izatera gonbidatu zituen Jesusek ikasleak: etsaien indar suntsitzailea baino indartsuago hasia zen jaiotzen esperantza hori eta adiskideen fede loka baino fidelago. Horixe da gure misioa ere gaur egun: geldiezinako biziaren lekuko izatea.

*Erretako arrain-puska
bat eskaini zioten.
Jesusek hartu eta beraien
aurrean jan zuen.*



[Apostoluen Eginak liburutik 6,8-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. **Sal 119 [118]:** Zorionekoak, Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,22-29.

Jesusek bost mila gizona zkoiei, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ikasleek ur gainean oinez ikusi zuten Jesus. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadestik, Jaunak esker onezko otoitza eginik, ogia jan zuten ingurura.

Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabiltzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzearaino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Talde bat Jesusen bila dabil deliberatuki. Hainbat ontzik urera jo eta aintzira zeharkatu du, Jesus jendetzari jaten ema-

tekoa zen lekura iristeko; hain juxtu, Jesusek bere eskuetan bedeinkatu eta guztien artean banatua izango da ogia. Baina ez dute han aurkitu eta Kafarnaum aldera jo dute berriro ontziz. Artean ez dakite zerk erakartzen dituen. Bada Jesusengan zer-bait berririk, bai gose lurtarrari, bai gose mugagabeari erantzuten dienik. Esan die, eta esaten digu, lan egin dezatela beragatik, zer eta zein den kontuan izanik, eta eskaintzen duenagatik; alegia, betikotasun-izaera duen biziagatik, giza bihotzaren ametsik hondokoenak eta behin betikoenak asetzen dituenagatik.

Jesu Kristo Jauna!

- Sinesten dut, Zu piztearekin, ama lur honetako gauza guztiek berreskuratu dutela kreazio jaio berri hartako beren argi gardena.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, bedeinkatuak izan direla lana eta aurrerapena, oinazea eta sufrimendua, familia, maitasuna eta adiskidetasuna.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, mundu honetako pobre, marjinatu eta baztertu guztiei hots egin zaiela behin betiko askapen zoriontsua.
- Sinesten dut, Zu piztearekin, gure aurretik fedearen lekuko izan diren anai-arreba hildakoek lortu dutela, azkenean, bakea eta zure presentziaren argia. Amen. Aleluia.

[Apostoluen Eginak liburutik 7,51–8,1a: Jesus Jauna, har eza-zu nire bizia. Sal 31 [30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure arnasa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,30-35.

Aldi hartan, jendeak esan zion Jesusi: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk ikusi eta zukan sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”».

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Beti era berri eta maltzurrian, eskaintza galkorrek harra-patzen gaituzte egunero ustekabeen, gure zentzumenetara oldartu eta gure barruan itsatsiz, eta zoriona aginduz. Intsektuen hodei batek bezala inguratzen gaituzten eskaintza horiek gugandik saihestuz, guk, Jesusek irakatsi bezala, egunean eguneko ogia eskatzen dugu, lortzea kostatzen zaigun jatekoa; baita behin betiko ogia ere. Jesus dugu benetako ogia. Hartaz elikatzen gara egunero, haren aurpegia kontenplaten dugu eta haren hitza entzuten, haren biziak gure gorputzeko zelula bakoitza eta espirituaren desira bakoitza bete dezan.

Pazkoaldiko 3. astea.Santa Atanasia, *aitorlea*.San Eusebio, *gotzaina*.

[**Apostoluen Eginak liburutik 8,1b-8:** Alde guztietara joan ziren, Berri Ona hots eginez. **Sal 66 [65]:** Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,35-40.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigana datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango. Zuek, ordea, lehen ere esan dizuedanez, ez duzue sinesten, ikusi nauzuen arren. Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana etorriko dira, eta nigana etortzen denik ez dut kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia baizik.

Eta hauxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala bat ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Hauxe da nire Aitaren nahia: Semea ikusi eta harengan sinesten duenak izan dezala betiko bizia; eta Nik piztuko dut azken egunean».

Nolatan da Jesus behin betiko biziaren ogi guretzat? Jainkoaren Semea gizon egin da, gure bideetan eta hitzetan gorputzez gure bila ibiltzeko; gure ur-putzuen ondoan eta ontzietan eseri izan da, ildoak ireki eta zura zizelkatu izan du, periferiatan ibili izan da, gurutze eta hilobien hondoraino jaitsi izan da. Bidea galdurik zebilen azken pertsonaraino bilatu izan du, Aitaren seme-alaba bakar bat ere gal ez dadin. Esaten digu, joan gaitzela beragana, orain jada betiko bizia, galkor ez dena, guri emateko, bere baitan piztueraren hazia duen bizia.

[Apostoluen Eginak liburutik 8,26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? Sal 66 [65]: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Jesusen bila dabilen jende guztia, Aitak barnean eragiten diolako dabil. Jesusen aurpegia ikusten duen jende guztiak Aitaren aurpegia ikusten du aldi berean, baita gizakiaren benetako aurpegia ere. Gure miresmena erakarri nahiz lehiatzen den hainbat eta hainbat irudiren artean, txalotutako arrakastaren alfonbran desfilatzen den hainbat eta hainbat jendearen artean, gu geu Jesusez nola elikatuko gabiltza. Irudi agortezina da Jesus, eta, egoera berrietatik bera kontenplatzean, inoiz ikusi gabeko, estreinatu gabeko, berritasunaren janaria eta zoriona erregalatuko dizkigu, guztioi nori bere eran, nori bere eremu berrian eskainia.

Pazkoaldiko 3. astea.

San Zakeo, *zerga-biltzailea*.

Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 9,1-20: Neure zerbitzurako aukeratua dut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaien.

Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira, eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,53-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?»

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Hau guztia Kafarnaumgo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

Mundu honetako bere pasaldian, gu guztion bizirako bideratu zuen Jesusek bere gorputzaren gramo bakoitza, bere fantasiaren irudi bakoitza, bere bihotzaren taupada bakoitza. Haren odola suak hartu zuen maitasun handienaren suaz, bizitza ustelzen duen guztitik gu salbatzeko. Gaur gu, Jesusi harrera egiten

diogunean, hartaz janaritzen ari gara, haren antzeko bihurtzen, geure burua Jesus bera bilakatzen da, Jesus egiten da. Haren hitzak ez dira ari inolako kanibalismoz, baizik eta heriotzaren eta ilunaren edonolako erritual makur biziaren dohain egiatiaz ordezkaten ari da, amets bakoitzean eta keinu bakoitzean haragitu dezagun.

HÄNDEL ALELUIA

Aleluia, aleluia! (bis)

- 1 Errege izaten hasia da Jauna (Ap 19,6)
aleluia (4)!
2. Errege izaten hasia da Jauna (Ap 19,6)
aleluia (4)! / aleluia (3)
- 3 Mundu honetako erregetza
- 4 gure Jaunarena da orain
- 5 haren Kristorena, haren Kristorena,
- 6 eta menderen mendetan izango da errege
- 7 menderen mendetan (Ap 11,15)
- 8 erregeen Errege eta jaunen Jaun
- 9 erregeen Errege eta jaunen Jaun (Ap 19,16)
- 10 eta jaunen Jaun / 11 eta errege izango da
- 12 eta menderen mendetan izango da errege
- 13 erregeen Errege, menderen mendetan,
- 14 eta jaunen Jaun
aleluia (2)!
- 15 eta menderen mendetan izango da errege
- 16 eta erregeen Errege eta jaunen Jaun
- 17 eta errege izango da menderen mendetan
- 18 erregeen Errege eta jaunen Jaun
aleluia (4)! / aleluia!

Pazkoaldiko 3. astea.

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

[Apostoluen Eginak liburutik 9,31-42: Eraikiz eta ugalduz zihonan Eliza, Espiritu Santuagandiko adoreari esker. **Sal 116 [115]:** Nola ordainduko diot Jaunari egin didan on guttia?]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetak askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Geroztik, haren ikasleatariko askok atzera egin zuen, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Ezin ulertua eta porrota agertu ziren Jesusen jarraitzaileen elkartean. Mesias batek, ogi bilakatu denak eta ez botere, beste-

ren gosean desegin denak eta jendaurrean arrakastaz distiratsu ez denak, zer sinesgarritasun izan lezake eta nork jarraitzen ahal dio? Jesusen Espiritutik irakurtzen dutenek bakarrik uler dezakete buru-eskaintzaren mistika hau. Oso ondo adierazi du Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute». Zenbat estimatzen dugun Pedroren aitoren hau!; bitartean ugalduz doaz hitz errazak, dotoreak, paradisua hitzematzen dutenak, baina merkatari huts direnak, egun bateko eta engainagarri, irudipen huts direnak.

Frai Timothy Radcliffe-ren, Predikatzailen Ordenako Maisu Orokor ohiaren, erantzuna kazetari bati. Galdetu zion kazetariak, kristauek gaur egun munduari zer ekarpen egiten ahal dioten eta nola definituko lukeen berak kristauek aipatzen duten “berri ona”.

«Ezin ausartu naiz “definitzera” eta, askoz gutxiago, hitz apur batzuez. Baina hau esan nezake: naziek hil bezperan, 1944ko apirilaren 9an, Flossenburg-eko kontzentrazio-eremuan, gizon handi hark, Dietrich Bonhoeffer artzain luterotarrak, bere adiskide ingelesetako bati, Chichester gotzain anglikanoari, George Bell-i, mezu hau bidali zion: “garaipena ziurra dugu”».

APIRILA/ JORRAILA Igandea/Domeka. B Pazkoaldiko 4. astea. Artzain onarena

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen
Lagundiaren Ama, 1541-04-22an Lagundia Erroman
onartua izana gogoratu.*

22

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,8-12.

Aldi hartan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan zuen: «Herriko agintari eta zaharrok, gaur, gaixo bati eginiko mese-dea dela eta, noren eskuz sendatu den galdetzen diguzue; bego, beraz, argi zuentzat guztiontzat eta Israel herri osoarentzat, zuek gurutziltzatu eta Jainkoak hilen artetik piztu zuen Jesu Kristo Nazaretarraren izenean duzuela gizon hau zeuen aurrean sendaturik. Jesus hauxe da zuek, “etxegileok, baztertutako harria, giltzarri gertatua”. Honengan bakarrik dugu salbamena, ez baitigu Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor eman eguzkipean, gu salba gaitzakeenik».

[Sal 118 [117]: Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.]

§ San Joanen 1. gutunetik 3,1-2.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Bada-kigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,11-18.

* San Sotero, *13. aita santua*.
San Apeles, *aitorlea*.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardien alde. Ez, ordea, morroiak, artzain ez denak eta ardiak bereak ez dituenak; honek, otsoa datorrela ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria zaio axola, eta ez ardiak.

Ni naiz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen naute Ni, Aitak Ni ezagutzen nauen eta Nik Aita ezagutzen dudana bezalaxe. Nik neure bizia ematen dut ardien alde. Baditut artegi honetakoak ez diren beste ardi batzuk; hauek ere erakarri egin behar ditut; adituko dute nire ahotsa eta artalde bakarra izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean.

Horregatik maite nau Aitak: neure bizia ematen dudalako, berriro eskuratzeko. Ez dit bizia inork kentzen, Neuk ematen dut neure kabuz. Neure esku dut ematea eta neure esku berriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dudana agindua».

Jesus da artzain ona. Jesusen irudi hau kontenplazten dugunean, beren ardiekin ibili ohi diren artzainenak etortzen zaizkigu burura: eguzkitan edo euripean, egun ederretan edo ez hain ederretan, bide lauetan edo mendi malkarretan ibiltzen direnak. Pazkoaldian irakurtzean, ukitu berri bat hartzen du irudi honek.

Nekaldikoan, Jesusek zertaraino maite izan gaituen ulertu dugu, galduak ginenean. Gurutze eta hilobietaraino jaitsi da Jesus, geuk sortuak diren leize-zuloetan eta infernuetan gure bila. Han, kaltetuekin eta kaltegiekin egin du topo. Lepoan hartu ditu, ez ardiak bakarrik, baita lehoiak ere, bildotsik babesgabeen eta errugabeen odolez ziprztinduekin.

APIRILA/ JORRAILA Igandea/Domeka. B Pazkoaldiko 4. astea. Artzain onarena

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama, 1541-04-22an Lagundia Erroman onartua izana gogoratzuz.

22

Jesus berpiztuak gure bila jarraitzen du gaur, beldurrez hesituak gauden lekuan nahiz noraezean alderrai gabiltzan lekuan, guztiok berpiztuaren Espiritua bera partekatzen dutenen poz pertsonal eta elkartekora gidatzeko. Bera bezala bideetara irtetera gonbidatzen gaituen irudi izaten jarraitzen du Jesusek. Joanek dioskun bezala, egun batean «haren antzeko izango gara, den bezalakoa ikusiko baitugu» (1 Joan 3,2). Eta orain Jesus bilakatzen ari gara, Jesus bihurtzen, bera kontenplatzen dugunean.

«Lehen kristauak ez dute nahasten sekula piztuera zerbaitek bizitzen jarraitzearekin, ez dute nahasten piztuera Jesusen arima hilezko-rrarekin. Badakizue, kultura askotan bizi dutela ideia hau: pertsona hiltzen da, baina haren arima hilezko da, bizitzen jarraitzen du; lehen kristaumentzat, Jesus ez da arima hilezko bat, ez da mamu bat, ez da espiritu des-haragitu bat; lehen kristauak bizi den norbaitez mintzo dira, biziaz blai den batez, heriotzatik askea den batez, pertsonalitateak berekin duen guztiarekin. Lehen kristaumentzat, Jesus ez da hor gelditu den puska bat, artean iraunkor den puska bat; ez, ez. Jesusek lortu du jada biziaren betea; horretaz mintzo dira, nahiz ez dakiten nola den hori guztia» (J.A. Pagolak emandako hitzaldi batetik)

Pazkoaldiko 4. astea.

San Jorje, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 11,1-18: Jentilei ere eman die Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. Sal 42 [41]: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10,1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baino beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen».

Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten».

Jesusek dio, egiazko ardiek ezagutzen dutela beraren ahotsa, zeini bere izenaz dei egiten diolako, eta ardiek funtsezko ja-

Pazkoaldiko 4. astea.San Jorje, *martiria*.

narira jarraitzen diotela. Aldi berean, badira sasi-artzainak ere, atetik era argian sartzen ez direnak, baizik eta ilunpean artegira oldartzen direnak, ardiez jabetzeko. Jende eta erakunde askok ematen du gure izena banketzeko kontuan, bezero «fidelen» txarteletan, sareko kontaktuetan, kanpaina politikoetan... Ondo dakite, norberaren izena dela bakoitzaren belarrirako izenik gozoena. Baina bizia eskaintzen al digute ala ostu egiten digute maltzurkeriaz?

«Duela urte batzuk, Ipar Ameriketako soziologo batek bereizketa bat egin zuen: batetik, bizi duten erlijioa bigarren eskukoa dutenak; bestetik, lehen eskukoa dutenak. Argitu dezadan. Fededunetan askok eta askok uste du, fedea gauzak sinestea dela, Jesus Jainkoa dela sinestea dela, Jesus piztu zela sinestea dela, gauzak, ideiak sinestea dela; hori izango litzateke fedea halakoentzat. Zerbait bai esatea; galdetzen dizutenean, Jesus Jainkoa al da?, eta bat-batean horri bai, bai esatea dela. Baina zuk zeuk ez dakizu, ez duzu espermentatu ezer. Orduan, eskuarki, jende horrek ez du sinesten Jainkoagan, baizik eta Jainkoaz esan diotena sinesten du, Bibliak esaten duena, Aita Santuak, Gotzainak, erretoreak esaten duena. Ez dute Jainkoagan sinesten, Jainkoaz mintzo direnei sinesten diete; hala uste dute: jende horrek jakin behar du; beraz, nik halakori sinesten diot. Bigarren eskuko erlijioa da; ez da fedea» (J.A. Pagolak Hitzaldi batean galdera bati emandako erantzuna)

[Apostoluen Eginak liburutik 11,19-26: Jentilei ere Jesus Jau-naren Berri Ona iragartzen hasi ziren. Sal 86: Goretsatzue Jauna, nazio guztiek.]

† Jesu Kristoren Ebanjelio San Joanen liburutik 10,22-30.

Aldi hartan, tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren Je-rusalemen. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen ater-pean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalantzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi».

Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardie-takoak ez zaretelako.

Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko.

Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handia-go da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Jesusek, bere misioa hasi zuenetik, ez dio utzi nor den esatea-ri. Lurraren hondo-hondora jaitsi da galduak berreskuratzeko, familiara erakarri ditu bakarrik eta lepradun bide-bazterretan adoregabe zirenak, sendatu egin du beti eta den-dena sinagogako begi estuaz ikusten zutenen itsutasuna, Nazareteko osperik gabe-ko geografian hazi da eta azaldu du, horrela, ez dagoela Jainkoak

Pazkoaldiko 4. astea.

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*.

eskutik utzia duen lurralderik, eta onartu egin du bekatariengan eta zerga-biltzaileengan azaltzen den erreinuaren bizia. Zeinek adierazten ahal zuen Seme gizon eginak baizik Aitaren aurpegia hartarainoko maitasunez eta hartarainoko biziaz?

«Baldin eta egun batean, hileta batean, gauza hauek jira eta jira, Gure Aita otoizten baduzue, eta bete-betean otoizten, eta entzuten baduzue zarata hori guztia, pentsatu apur bat, zer da hau, ameskeria bat? Berrehun edo lauhun lagun otoitz egiten, inork entzuten ez digula, ez ote da hemen zer edo zer? Baldin eta Gure Aita otoiztean, zerbait bizi baduzue, hor duzue esperientzia txiki bat. Eta horrelakoak dira esperientziak.

Beste bat aipa nezake nik. Neure amaren heriotza. Behin batean, elkarrizketa batean galdetu zidan batek: zuk sinesten al duzu piztue-ran? Esan nion: Begira, nik ez dakit zail gertatuko ote litzaidakeen ni neu piztuko naizela; baina nire ama ez dela piztu, ezin sinetsi dut» (Pagola, Hitzaldi batean, galdera bati erantzuna)

§ San Pedroren 1. gutunetik 5,5b-14.

Senide maiteok: Izan zaitezte denok apalak zeuen harremanetan, Jainkoak harroei aurre egiten baitie; apalei, berriz, onginahia azaltzen. Beheratu zaitezte, beraz, eta jarri Jainko ahaltsuaren eskumenean, bere garaian gora zaitzaten. Utzi Jainkoaren esku zeuen kezka guztiak, bera baita zuetaz arduratzen.

Izan zaitezte neurritsu eta egon erne; zuen etsaia, deabrua, zuen inguruan dabil, goseak dagoen lehoia bezala, nor irentsi-ko. Egiozue aurre, sinesmenean sendo, jakinik mundu zabalean diren beste senideak ere zuenak bezalako sufrimenduak jasaten ari direla. Eta pixka batean sufritu ondoren, dohain guztien emaile den Jainkoak, Kristoren bidez betiko bere aintzara deitu zaituztenak, bizkortuko zaituzte, sendo egingo eta finko ezarri-ko. Berari dagokio indarra menderen mendetan. Amen.

[Sal 89 [88]: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16,15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

**Pazkoaldiko 4. astea.
SAN MARKOS, EBANJELARIA.**

Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Pazkoaldi honetan, Markosen ebanjelioak misioa gogorazten digu berriro, Jesusen piztuera esperimentatu dugunon misioa. Krezio osoari berri ona hots egitera bidali gaitu Jesusek, den guzti-guztiari baitagokio piztuera, eta Jesus berpiztuarekin topaketa adiskidatura bideratua baitago den-dena. Guztiek espero dute berri on hori, dagoeneko horretan bizi baitira, formulatzen ez badakite ere. Ziurtasun honek adoretzu bihurtzen gaitu, mota guztietako diferentzia kulturalak, sugeak eta pozoiak gainditzeko. Dena eraldatuz, barnean mugitzen den erreinuaren seinale izango dira bizitza osasungarriagoak.

San Paulok 1 Korintoarrei.

§ Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuenean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriatzko hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik.

Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriatzko argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarri zedin, eta ez giza jakindurian.

Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriozkoa irakasten dugu, hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna.

Baina, Liburu Santuak dioten bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera maitate dutenentzat prestaturik zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

[Sal 119 [118]: Argi da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,13-16:

Pazkoaldiko 4. astea.

San Isidoro, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurra-
ren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du
jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko
baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi
gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean
ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guz-
tiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi,
zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Zoriontasunen ondoren, txiki eta albora utzia den jendea-
ri misio edo eginkizun berezi bat duela agertu dio Jesusek. Ez
dira historiaren ertzean eserita gelditzeko eginak, eskua luzatuz
ondotik pasatzen direnei limosna eske egoteko, baizik eta beren
duintasuna lortzeko eginak dira, geroaren sortzaile eta erreinu-
aren gatz eta argi izateko eginak. Beraien bizitza, erreinuaren di-
namismoak eraldaturik, ongia argitzeko argi bihurtuko da, on-
gia erreferentziatzat emanez, eta gaizkia ere argitzeko, gordea
dagoen ilunetik atereaz. Aldi berean, gatz dira, bizitza gozakai-
tzean gozagarri izateko. Jada, oraintxetik, zoriontasun dira guz-
tientzat.

San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita.*

Maria Antonia Bandres, dohatsua (Tolosan 1896-1919), *birjina.* San Pedro Chanel, *apaiza eta martiria.*

[Apostoluen Eginak liburutik 13,26-33: Agintzaria geuri bete digu Jainkoak, Jesus berpiztuz. **Sal 2:** Nire seme zara zu; Nik zaitut gaur zu sortu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bizitoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea».

Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?» Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

Jesusek dio, argi eta harrigarriro, bera ikusi duenak Aita ikusi duela. Ez da mintzo ezaugarri fisikoez, aurpegiaren antzekotasunaz. Ez du esaten ere, bera txorimalo huts bat denik Aitaren eskuetan. Semeak bere bihotzaren, bere afektibitatearen, bere gorputzaren eta bere erabaki askeen erdian ipini ditu Aita eta haren erreinua; halako moduan non hitz, fereka, isilune, pausaldi, lan, urrats... bakoitzean adierazten baitu hori. Une oro ari da solasean Aitarekin erreinuaren bizitza beti berriaz, zeinak haren (Aitaren) aurpegia islatzen baitu eta gu eraldatzen baikaitu bera kontenplazten dugunean.

Pazkoaldiko 4. astea.

San Prudentzio, *gotzaina* (*Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria*).

[Apostoluen Eginak 13,44-52: Jentilengana joko dugu. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Aitari atxikirik ikusten zuten ikasleek Jesus. Aita zuen Jesusek bere erreferentzia, errealitatea inoiz ez bezala ikusteko zuen eraren jatorria, jendearengana hurbiltzearena, ziurtatutako heriotzaren eszena-lekuetatik bizia ateratzearena. Ikasleek

ere misterio horretara hurbildu nahi dute, aurpegi horretara. Gauza laua da. Aski da Jesus kontenplatzea Aita ikusteko, haren hitzez, haren isilunez eta haren egintzez mintzo baita hau. Gaur ere, geroa kreatzen ari den jendeagan agertzen da Aita nire zentzumenetara: zauriak txeraz ukitzeari beldurrik ez dion jendeagan, behartsuen eta errugabeen merkatariari adorez aurpegia ematen dion jendeagan.

Pazko misterioa

«Nazaretoko profeta Jesus
Berrionaren Maisua,
habean gurutzatua,
hil eta hobiratua:
piztu zara-ta desegin duzu
heriotzaren forua.
Zure gorputza ez da jadanik
natur legeen gatibua.
gizon sorraren modua,
trinkoa eta pisua:
lehendanik hona zeharo duzu
aldatu bizi taiua.
Besterik zara piztuz geroztik,
ez zaude deusi lotua,
ze argia ta zalua,
berpiztua, bersortua,
Jesus eta Kristo beti guztiko
Jaungoikoaren Santua».

(Gandiaga, Arantzazuko egutegia 2014-12-09)

Pazkoaldiko 5. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(*Europako Zaindaria*).

§ **Apostoluen Eginak liburutik 9,26-31.**

Egun haietan, Saulo, Jerusalemira iritsi zenean, ikasleekin elkartu nahian zebilen; baina beldurra zioten denek, ez baitzuten sinesten benetan ikasle zela.

Orduan, Bernabek Saulo berekin hartu eta apostoluei aurkeztu zien. Kontatu zien nola ikusi zuen Saulok Damaskora bidetan Jauna, nola mintzatu zitzaion Jauna eta nolako ausardiaz hitz egin zuen Damaskon Jesusen izenaz. Orduetik, apostoluekin batera ibili ohi zen Saulo Jerusalemen, Jaunaren izenaz ausardiaz hitz eginez. Greko-hizkuntzako juduekin ere hizketan eta eztabaidan jarduten zuen; baina hauek Saulo hiltzeko asmotan zebiltzan. Senideek, hori jakitean, Zesareara eraman zuten eta handik Tarsora bidali.

Eliz elkarteak bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Samarian; Jaunaganako leialtasunean bizi zen, eta eraikiz eta agalduz zihoan, Espiritu Santuagandiko adoreari esker

[Sal 22 [21]: **Zugana nire goreskizuna, Jauna, batzar nagusian.**]

§ **San Joanen 1. gutunetik 3,18-24.**

Ene seme-alabok, ez dezagula hitzez eta ahoz maita, egitez eta egiaz baizik. Horrela jakingo dugu egiarenak garela, eta lasaituko dugu geure barrua Jainkoaren aurrean; gure barruak errudun garela esaten badigu ere, gure barrua baino handiagoa da Jainkoa, eta dena ezagutzen du. Ene maiteok, barruak errudun garela esaten ez badigu, uste osoa dugu Jainkoagan. Eskatu ahala guztia hartzen dugu Jainkoagandik, haren aginduak bete-

Pazkoaldiko 5. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(Europako Zaindaria).

tzen baititugu eta hari atsegin zaiona egiten. Eta hau da haren agindua: haren Seme Jesu Kristoren izenean sinetsi eta elkar maita dezagula, hark agindu zigun bezala. Haren aginduak betetzen dituen Jainkoagan dago eta Jainkoa harengan. Honela dakigu gurekin dagoela: eman digun Espirituaren bidez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan bada-go, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Gaurko irakurgaietan bi hitz giltzarri daude: iraun (eutsi) eta fruitu. Fruitu onak mahatsondoaren nolakotasuna adieraz-

Pazkoaldiko 5. astea.

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(*Europako Zaindaria*).

ten du. Gure egintza onek aintza ematen diote Aitari; izan ere, «gizakia bizi dadin da Jainkoaren aintza» (San Ireneo). Gizaki orok edozein gorabeheratan Jainkoa du biziaren sostengu, eta duintasun osoz tratatu beharrekoa da, Jainkoak dagien bezala.

Jesusengan irautea, hari itsatsirik bizitzea da, adarra enborrari bezala, izerdiak norbera zeharka dezan eta norbera gose direnentzat fruitu umotu bihur dadin utziz. Fruiturik ez dakarren adarra, itxura bizia duen arren, moztu egiten da, ihartu eta sura botatzen, errauts bihurtzeko. Fruitua dakarren adarra, berriz, inausi egiten da. Zentimetro gutxiko bihurtuz, bizirik eusten dio hila dirudien enbor grisari itsatsirik, negu hotzean, gau luze eta egun ilunetan. Aro heldua iritsiko denean, aihena berriak aterako dira mahats hobea dakartela. Guk ere geure burua inausi beharra dugu. Inausi ezean, mahastiak hondatu egiten du bere burua. Nola inausen ditugu, gaur egun, Eliza, bizitza erlijiosoa, familia, hizkuntza, zeinuak, ardo berrirako?

Pazkoaldiko 5. astea.

San Pio V.a, 225. *aita santua*.
Santa Sofia, *birjina eta martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 14,5-17: Berri on hau adierazten dizuegu: utz ditzazuela idolo hutsalak eta bihur zaitezteela Jainko biziagana. Sal 114 [113]: Ez guregatik, Jauna, baizik zeure izenaren ohoregatik erakutsi zeure ospea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,21-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio».

Esan zion Judasek, ez Iskariotek, besteak baizik: «Jauna, zer dela-eta agertuko zatzaizkigu guri eta ez munduari?»

Jesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali nauen Aitarena baizik.

Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraraziko Nik esan dizuedan guztia».

Funtsezko agerpena egin digu Jesusek. Beraren hitza entzun eta bihotzean gordetzean, Semea eta Aita, biak, onartzen ditugu, eta, hala, gure barnea dute haiek bizileku. Jesusek, piztu denean, Espiritua bidali digu, gure argi, gure poz, gure adore izango dena. Geure kulturak paraje zorabiagarrietan ibiltzera eragiten digu, etorkizunera ihes eginez; baina Jesusek azaldu

Pazkoaldiko 5. astea.San Pio V.a, 225. *aita santua.*Santa Sofia, *birjina eta martiria.*

digu beraren ikasleoi mundu hau, eremu bakoitza eta une bakoitza, etsai agertuko bazaigu ere, Jainkoaren bizileku dela, eta lanean ari dela hor mugagabeko berotasunez guk guztiok bizia izan dezagun. Jainkoak orain eta hemen bizi duen maitasun bir-kreatzaileari itsatsi beharko gintzaizkioke.

Esan zuen behin batean maisuak: «Ez zarete prest izango gaitzaren aurka borroka egiteko, gaitzak zer on egiten duen ikusteko gai izan arte». Nahasmen handia eragin zuen horrek ikasleengan, eta Maisua ez zen arduratu ezer argitzen. Biharamunean otoitz bat erakutsi zien; zatar-paper batean zegoen idatzia, Ravensburg-eko kontzentrazio-eremuan aurkituan:

«Oroit zaitetz, Jauna, ez gogo oneko gizon-emakumez bakarrik; baita gogo txarrekoetz ere. Ez ezazu izan gogoan eragin diguten sufrimendua bakarrik; izan gogoan sufrimendu horri esker eman ditugun fruituak ere: horrek guztiak inspiratu duen lagun artekotasuna, ondradutasuna, apaltasuna, adorea, eskuzabaltasuna, gogo-handitasuna. Eta halakoei auzira dei egingo diezunean, egizu: eman ditugun fruitu horiek guztiak izan daitezela sari eta barkaziorako» (Anthony de Mello, “Un minuto para el absurdo” liburutik)






MAIATZA / ORRILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Ebanjelizazioa: **Laikoen misioa**

Laiko fededunek beren misio edo egiteko berezia bete dezaten, beren sormena gaur egungo munduaren erronken zerbitzura ipiniz.



SAN JOSEREN JAIKO MEZA**§ Hasiera liburutik 1,26–2,3.**

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeko abereak eta lurreko narrastiak».

Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak, eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurra-
ren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua
dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei,
zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz,
belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako
guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz:
seigarren eguna burutu zen.

Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurrak eta hauetan da-
goen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak
egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztia-
ren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen
zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen
atseden bere kreazio-lan guztitik.

[Sal 90 [89]: Sendo ezazu, Jauna, gure eskuen lana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honnek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotzaren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon honen anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

Langileen duintasunaren alde.

Durungaldeko HOACEko (Ekintza Katolikoko Langile Haurridego) kide garenez, Maiatzaren 1aren ospakizun honetan, geure egin nahi ditugu modu berezian, langile guztien eta beraien familien gozamena eta esperantza, tristura eta larria, eta geure konpromisoa berretsi nahi dugu mundu bat eraikitzeko, zeinetan errespetatuak izango baita pertsonaren eta beronen lanaren duintasuna. [...].

Badakigu, hau guztia ezin gauzatu dugula geuk bakarrik; badakigu, beharrezkoa dugula guztion artean bideak bilatzea, beste pertsona bat eta beste gizarte bat moldatzeko. Aurtengo maiatzaren lehen egun honetan bat egin nahi dugu langile-munduarekin leial jarraitzen duten gizon-emakume guztiekin [...].

Pazkoaldiko 5. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

San Felix, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 15,1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan bada, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitarekin aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Parabola honekin, berehala jasango duen heriotzari begira ipini ditu Jesusek ikasleak: Jesus inausi, kimatu egingo dute mahatsondoa bezala. Inausitako mahatsondoari begira jartzen denak enbor gris eta latz bat besterik ez du ikusiko, lurrari josia. Ez du ezer berderik, ez hostorik, ez fruiturik. Halaz guztiz, hon-

2

Asteazkena /
Eguaztena

MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 5. astea.

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea.*

San Felix, *martiria.*

damen horren baitan bizi berri bat ari da garatzen. Inausterik ez bada, mahatsoak galdu egingo du bizitasuna eta usteldu egingo da. Jesusen Aitak, laborariak, ez darabil Jesusek gurutzean jasan zuen iltzerik eta lantzarik; baina gai da, kolpe hilgarri horiek kalitate handiko bizi berri bihurtzeko. Inausterik gabe ez dago piztuera-berritasunik. Inausia izan ez denak ez daki ezer.

Utziara-otoitza

Ene Aita,
zure esku nahi dut utzi neure burua,
egizu nitaz zeure nahia.
Zernahi egingo duzula,
aurrez nahi dizut eskertu.
Prest nauzu edozertarako,
den-dena dizut onartzen.
Zure nahia egitekotan nigan,
sorkari guztietan,
ez dut nahi beste ezer, ene Jainkoa.
Zure esku nahi dut utzi neure arima.
Zuri nahi dizut eman, ene Jainkoa,
ene bihotzeko maitasun guztiaz,
maite baitzaitut,
eta maitasun-beharra baitut
zuri ematea,
zure esku jartzea neurririk gabe,
konfiantzarik handienaz
ene Aita zaitut-eta.

(René Voillaume, Au coeur des Masses, 1950)

Pazkoaldiko 5. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 15,1-8: Jauna Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei. **Sal 19 [18]:** Zeruek Jainkoaren aintza dute kontaktzen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14,6-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu».

Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nolatan diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik.

Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zer-bait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Bizi dugun aroa, testuena ez, baizik lekukoena da. Ez da sinesten hitzetan, diskurtsoetan, atxikitasun-ikurretan, baizik eta

3

Osteguna / Eguena MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 5. astea.

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*.

biziera konkretuetan, gainerakoen zerbitzura bizitakoetan. Antzeko zerbait diosku Jesusek: «nigan sinesten ez badute, sinets dezatela nik egiten ditudan egintzetan. Haiek egiten dute testigantza Aita dela nigan ari dena eta ni ikusten nauenak Aita dela ikusten». Hau da gauza harrigarria: horixe bera proposatzen zaigu guri. «Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak». Gudan ebanjelioaren arabera bizirik bada, agertuko da munduan.

Jesus, gure Jauna, Kristo,
agertu zaigu Aitaren magaletik.
Gu ilunetik ateratzera da etorri,
eta bere argi miresgarriz argi egitera.

Iratzarri da egun handia gizadiarentzat,
gainditua da ilunaren indarra.
Jesusen argitik argi bat zaigu sortu,
gure begi lausotuak distiraz jantzirik.

Dirdiraz jarri du munduan aintza,
argiz bete ditu barrunbe ilunak.
Heriotza desegin du, ez da jada ilunik.
Infernuko atea bota ditu.

(segida Maiatzaren 4an)

Pazkoaldiko 5. astea.

San Jose Maria Rubio, *aitorlea, jesuita.*

[Apostoluen Eginak liburutik 15,22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko direnak izan ezik. Sal 57 [56]: Goretsiko zaitut, Jauna, herrien artean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindu-
dua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala.
Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde
ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen
baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak
ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide dei-
tzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi bai-
tizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan
zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: fruitu ugaria eta iraunko-
rra eman dezazuela edonon; horrela, Aitari nire izenean eskatu-
ko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita
dezazuela elkar».

Agur esateko une honetan, hitz bakoitza da funtsezkoa, beti
gogoan izatekoa. Adiskide deitu die Jesusek bere ikasleei. Ez dira
morroi. Bere bihotza partekatu du bere adiskideekin, eta Aitak
berari irakatsia eman die jakitera. Orogen muina, elkar maita
dezatela da, Jainkoa maitasun baita. Maitasun horren adieraz-
pen berezia da adiskidetasuna. Maitasuna bakarrik da bizi berri

4

Ostirala / Barikua MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 5. astea.

San Jose Maria Rubio, *aitorlea, jesuita.*

baten kreatzailea bizitzako egoera korapilatsuetan, maitasunak ernaltzen du bakoitzaren giza bizitza, eta hark sortzen du betikotasunean iraungo duen kalitatezko bizitza. Legeek, berriz, debekatua dena bakarrik adierazten digute, edota aspergarri bihurtzeraino errepikatu ohi diren bidexkak bakarrik.

Sorkari oro du argitu,
ilun zena antzinako aldian.
Salbazioa du ekarri eta bizia digu eman;
aintzaz da itzuliko eta argituko ditu zain dituenen begiak.

Gure Erregea bere edertasunez dator.
Irten gakizkion bidera argiontziak pizturik.
Poztu gaitezen beragan, bera pozten den bezala gudan,
eta alaitzen gaituen bezala bere argi aintzatsuz.

Ene anai-arrebok, zutitu, presta zaitetze,
eskerrak emateko geure Errege eta Salbatzaileari,
bere aintzaz baitator gu poztera
bere argi gozagarriaz Erreinuan.

(Maiatzaren 3tik dator)

*(San Efre. 306-373 inguruan, diakono Sirian,
eliz irakaslea; Gorazarrea I, Piztueraz).*

Pazkoaldiko 5. astea.

Santa Felizisima, *martiria*.Santa Irene, *martiria*.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,1-10: Zatoz Mazedoniara, eta lagun iezaguzu. Sal 100 [99]: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako.

Gogoratu esan nizuena: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

«**M**undu» hitzak, hemen, Jainkoaren erreinuari kontrajarren zaion guztia adierazten du, Jesusek ekarri duen berritasunari kontrajarri zaion guztia. Beren aberastasunei, beren ospe-eta botere-postuei, atxikiak direnak aurka jarriko zaizkie, goiz edo berandu, Jainkoaren erreinuko zerbitzari. Lehenik, lilurez baliatuz, beren probetxura bideratzen saiatuko dira ebanjelioaren aukera aurkezten dutenen herrikoitasuna; eta hori lortzen ez badute, halakoak neutralizatzen saiatuko dira mehatxuka edota bizia kenduz. Saihestezina da gatazka. Inporta duena, gatazka nola bizi da era kreatzailean, zerbitzaria desegina izan gabe, eta Jesusen proposamen askatzailea urardotu gabe.

§ Apostoluen Eginak liburutik 10,25-26.34-35.44-48.

Egun hartan, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera aterra zitzaion eta oinetan ahuspeztu. Baina Pedrok zutiarazi zuen, esanez: «Altxa zaitetz, gizaki hutsa naiz ni ere».

Orduan, honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere».

Artean Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen hitza entzuten ari ziren guztien gainera. Pedrorekin etorritako fededun juduak txunditurik zeuden Espiritu Santuaren dohaina jentilen gainera ere jaisten zela ikustean. Izan ere, hizketa arrotzez hitz egiten eta Jainkoa handiesten entzuten zieten.

Orduan, esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataio-ko ura guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?» Eta Jesu Kristoren izenean bataia zitzatela agindu zuen. Ondoren, egun batzuetan bertan gelditzeko eskatu zioten Pedrori.

[Sal 98 [97]: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garraipena.]

§ San Joanen 1. gutunetik 4,7-10.

Seme-alaba maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baita.

Pazkoaldiko 6. astea.

Domingo Savio santua, *aitorlea*.

San Luzio, *profeta eta doktoea*.

Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Honetan datza maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik eta hark gu maite izatean, eta bere Semea gure bekatuen barkamen-oparitzat bidali izatean.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitarean aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Pazkoaldiko 6. astea.

Domingo Savio santua, *aitorlea*.
San Luzio, *profeta eta doktorea*.

Aitak Jesus maite duen maitasun beraz maite gaitu gu Jainkoak. Hain ausarta da baieztapen hau, non ezinezkoa dela ematen baitu. Baina Jainkoak ez du neurririk maitatzean. Ez gaitu maite batzuk gehiago, besteak gutxiago. Beraren bihotza ez da oinarrizten merezimendu pertsonalez gizakiok izaten ditugun kategorietan; baizik eta berak gu maitasunez kreatu izana du arrazoi osoa eta azken arnasaraino maitasunez eusten digulakoa. Gure egintza onek ez dute handitzen gurekiko duen maitasuna, jadanik mugagabea baitu; gure bekatuek ere ez dute itzaltzen maitasun hori, baldintzarik gabea baitu.

Jesus ez da ari Jainkoaren erreinuaren zerbitzuan Aitak bera maita dezan, baizik eta jada maitea delako ari da. Jesusen bizitza osoa da Aitak gurekiko duen eta ezabaezina den maitasun horren adierazpen; nekaldiaren aurreko une horretan bertan ere, Aitak gero eta ezkutuago dagoela ematen duen eta Jesusen bizitza amildegirantz doala ematen duen horretan ere, ezabaezina da maitasun hori. Horregatik, sinesgarriak dira Jesusen hitzak, bere burua besteei eskaintzera eragingo dion beraren maitasun horretan irautera gonbidatzen gaituenean esanak; gu geu ere eramango gaituen arren partekatzea gizarteko bazter utzien nekaldia, eta bat egitera beren tragedia propioen labirintuan galdurik direnekin.

Pazkoaldiko 6. astea.

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*.San Juvenal, *martiria*.San Benedikto II.a, *aita santua*.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,11-15: Jaunak bihotza irekizion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,26–16,4.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagan duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aita-gandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete.

Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean, esana nizuela gogora dezazuen».

Jesus etorkizunera begira jarri da, eta ikasleei eskatu die, beragan ikusi duten guztiaren eta Jainkoaren erreinuaren lekuko izan daitezela: erreinuaren lekuko, zeinentzat bizi izan baita bera eta zeinengatik eskaini baitu bere odola. Espirituak emango die behar duten adorea. Hala, pertsekuzio ikaragarrien artean izan ziren lekuko. Gaur egun, fededuna deskalifikatzen duten eta ebanjelioaren aurkako diren proposapen distiratsu eta liluragarrietan haragitutako aurkaritza ari gara bizitzen. Ikusten dugu ere, izu-ikaraz, kristauak eta beste erlijioetako fededunak hiltzen dituztela Jainkoaren izenean. Baina Jainkoa orduan bakarrik aipatzen ahal da: bakea, askatasuna eta giza betetasuna, inor baztertu gabe, sortzeko bakarrik.

[Apostoluen Eginak liburutik 16,22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeokak. Sal 138 [137]: Zeure eskuinez salbatzen nauzu, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galde-tzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza.

Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet.

Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzuelako gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

Jesus badoa eta agur esan die ikasleei. Inperioak eta juduek antolatu duten ikuskari osoak ezin ukituko du Jesus betetzen duen eta hil ondoren bidaliko digun Espirituaren izpi bat. Gure baitako erdigunean, zapaltzaileentzat ezin ikusia eta atzemana den horretan, sortzen da Espiritua, gure desirak bere eginez, gure zentzumenak argituz, gure jarduera adoretuz, eta gu geu osoa Jesusen egitasmoaren inguruan bateratuz. Elkartean ere, guztiok bateratzen gaitu geure bizitzaren erdigunearen jira-bi-ran, Jesusen gorputz berria munduan haragituz.

San Gregorio Berruezakoa, *gotzaina*
(*Iruñe eta Tuterako elizbarrutietan*).
Santa Luminosa, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 17,15-22—18,1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. **Sal 148:** Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,12-15.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere, egiaren Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatu, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu.

Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

Egia agortezina da Jesus. Ezin agertu izan zien ikasleei den-dena; izan ere, ezin ulertu zuten haiek den-dena. Historiak aurrera egin ahala eta Jesus egoera pertsonal eta elkarte-ko berrietatik kontenplatu goazen heinean, Jesus beste kultura eta erlijioetatik ikusiz goazen heinean, alderdi berriak ikusten dizkiogu beti gizon egin den Semeari. Horregatik, Jesus hobeto ezagutzen dugu egunero, gure galderak sortzen eta Jesusen erantzunak ernetzen diren ertzetatik, geroari eta desberdin direnei begira jartzen garenean. Egia betea da Jesus, eta hori ez da gordetzen paper batean, baizik eta aurreikusi ezina den beraren dohainari irekiak diren bizietan irakurtzen ahal da.

Pazkoaldiko 6. astea.

San Joan Avilakoa, *apaiza*.San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. Sal 98 [97]: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro».

Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du harako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den».

Konturatu zen Jesus galdegin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatu da».

Jesusen hitz hauek beraren hurbil-hurbileko heriotzari dagozkio eta ikasleak harrapatuko dituen tristurari. Jesusen arerioek, berriz, barre egingo dute. Hauxe da gure etengabeko erronka. Jainkoaren erreinuaren zerbitzari garenean, bizia ematen dihardugu egunez egun. Batzuetan indartsu senti genezake

Pazkoaldiko 6. astea.

San Joan Avilakoa, *apaiza*.

San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*.

galera, hau da, jendearen artean banatu dugun dirua edo dena delakoa. Baina emate horretatik ebanjelioak aipatzen duen poz sakona jaioko da. Jolasa kreditu-txartelez erosten eta saltzen da, baina zerbitzariaren pozak ez du preziorik, ez propagandarik; bihotz irekiaren muintetik sortzen da doan.

Estambul-eko eliza batean fresko (pintura) oso polit bat ikusi nuen behin batean, 15. mendekoa; Kristo berpiztua irudikatzen du, heriotzaren kateak hausten, eta Adam eta Eva askatzen. Edozein delarik ere lotzen gaituzten kateak, edozein delarik ere hesiturik gauzkan presondegia, poztu gintezke eta esan: «segurua da garaipena» (Hermann Rodriguez Osorio, s.j.; Kolonbia).

11

Ostirala / Barikua MAIATZA / ORRILA Pazkoaldiko 6. astea.

San Jeremias, *profeta*. Santa Susana, *martiria*.

Domingo Iturrate dohatsua

(Dima 1901 – Cuencan 1927), *apaiza, trinitarioa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 18,9-18: Nire herri izango den jende asko dut Nik hiri honetan. Sal 47 [46]: Jainkoa da mundu osoaren errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,20-23a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da.

Emakumea, erditzerakoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako; haurra izan ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, munduari gizaki bat jaio zaiolako pozik.

Zuek ere triste zaudete orain; baina agertuko natzaizue berriro, eta poztuko zarete, eta zuen poza ez dizue inork kenduko. Egun hartan ez didazue ezer galdetuko».

Jesusek hiru parabola eratu ditu, bere Pazkoa eta gure pazko guztiak argitzeko: lurrean ereindako haziarena, inausia den mahatsondoarena eta amatasun-irudiarena. Haurrari jaio nahi duen galdetuko balitzaio, ezetz esango luke; izan ere, amaren sa-belean txera bizi du, segurtasuna eta jatekoa. Hurgintza-uneko estutasunaren eta larriaren mehatxua bizi du, eta ezezagunari aurre egin beharra. Gure beldurra bera da eguneroko heriotzen aurrean. Jesusek diosku, amaren sabel antzeko direla hilobiak, nondik piztuerara eta behin betiko pozera jaiotzen baikara. Hauxe izan du bere esperientzia, eta hauxe izango da gurea.

MAIATZA / ORRILA Larunbata / Zapatua

Pazkoaldiko 6. astea.

Santo Domingo Ozkabartekoa (de la Calzada, Errioxan), *erlijioso*. San Nereo eta San Akileo, *martiriak*. San Pankrazio, *martiria*.

12

[Apostoluen Eginak liburutik 18,23-28: Liburu Santuen bidez Jesus zela Mesias frogatu Apolok. Sal 47 [46]: Jauna da mundu osoaren errege.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16,23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin.

Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodala; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzuelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako.

Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro».

Jesusek honela laburbildu du bere misioa: Aitagandik etorri da mundura eta Aitagana doa berriro. Etortzean, ikusgarri egin digu bere aurpegian eta jardueran gaindiezineko onbertasunaren eta hurbiltasunaren Aita. Orobat kontenplatu ahal izan dugu Jesusengan egiazko giza biziera, bere betera iritsia, egunero gainerakoen zerbitzari izanez, heriotzaraino eta piztue-raraino. Jesusen izenean, haren bizi-ibilbidean bat eginez, Aitari otoitz egiten diogu, zeinak beti entzuten baitigu, beti geure ondoan dugulako geurekin lanean. Harreman honen jatortasunean dautza gure sormena eta gure zoriona.

Pazkoaldiko 7. astea.

Jaunaren Igokundea

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua.*

Apostoluen Eginak liburutik 1,1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen gutzia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzaizen bere nekaldiaren ostean, eta bizirik zegoeneko froga asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanek eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete

* San Mikel Garikoitz (Naf. Beherea 1797–Betharram 1863, *apaiza eta fundatzailea: (Jesusen Bihotzaren Apaizak).*
San Andres Huberto Fournet, *apaiza.*

Pazkoaldiko 7. astea.

Jaunaren Igokundea

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua.

hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

[Sal 47 [46]: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.]

San Paulok Efesoarrei 1,17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena.

Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gainetik.

Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gainetik Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza, uni-bertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioaren bukaera San Markosen liburutik 16,15-20**

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun:

Pazkoaldiko 7. astea.

Jaunaren Igokundea

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua.

nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jaso izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Ikasleak gero eta gehiago ari ziren sakontzen Jesusen piztueraren misterioa. Berpiztuaren esperientzien baitan, uler-tu zuten, ez zela piztu Jesusen espiritua bakarrik, baita haren gorputza ere, piztueran eraldatua. Jesusen gorputza eraiki zuen guztia –janaria, ferekak, lanak, ura, eguzkia, paisajea...– igo da eta iritsi da behin betiko zorira. Horrela, iragarri digu, krea-zio osoa doala kosmosaren eta Historiaren Jauna den berpiztuarekin topo egitera.

Jesusen ikasleek mundu osoari iragarri nahi diote esperantzaren zori hau, salbazioaren eta behin betiko biziaren zori hau, ezer eta inor bazter uzten ez duena. Sinesten eta bataiatzen dena, Jesus bezala biziaren zerbitzari den elkarteko kide da. Fededunek hizkuntza eta kultura guztiei eman nahi diete mezua, gaixoak sendatu nahi dituzte, eta hainbat eta hainbat giza harremanetan barreiatu-rik den pozoiak ez die garrastuko ahosabaia, ezta zurrunduko ere bizitza. Ezin geldi gintezke zerura begira iragan-minez, baizik eta sormenez kutsatu beharko genuke bizia, begiak Jainkoaren erreinuaren zeruertzean finko ditugula; erreinu horrek gidatu, erakarri eta ahalbidetu behar gintuzke geure barreiaduratik guztiok puntu baterantz jotzera.

Pazkoaldiko 7. astea.

SAN MATIAS, APOSTOLUA.

[Apostoluen Eginak liburutik 1,15-17.20-26: Zotz eginik, Matiasi egokitu zitzaion, eta hamaika apostoluekin elkartu zuten. **Sal 113 [112]:** Bere herriko handikiekin esererazi du Jaunak.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,9-17.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet Nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala.

Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan gutzia adierazi baitizuet.

Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen gutzia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Jesusen agerpenak hondo-hondoko maitasuna azaldu digu. Aitak bera maite duen maitasun beraz maite gaitu berak gu.

Maitasun horretan irauteak bera onartzea eta gordetzea esan nahi du, eta norberaren bizi-dohainez besteengana jarria dadin uztea, ez ezinbestean indarkeriaz odola isuriz, baizik eta egunean eguneko joan-etorrietan, zoramenaz eta zentzuz ontzen duten espezia antzeko diren gauza txikietan. Adiskidetasuna ez da derri-gorrezkoa, eta Jesusek gu erabat aske hartu gaitu adiskidetzat, gure bizitza emankor izan dadin guztiei eskainitako fruituz.

Ba al zenekien...

- Espainian langile batek, (SEATen, adb.,) Suedian (VOLVOn adb.,) kotizatzen duenaren %75 kotizatzen duela?
- Espainian, zergatan, aberats handi batek Suediako batek ordaintzen duenaren %20 ordaintzen duela?
- Aspaldiko kalkuluen arabera, Munduko aberastasunen %80 munduko jendetzaren %20aren esku dagoela?
- Kalkulu berriagoen arabera, Munduko aberastasunen %75 munduko jendetzaren %1en esku dagoela?
- Espainiako BPGaren %80,5 bertako jendetzaren 0,0035aren esku dagoela?
- Espainian 3,1 milioi etxe dagoela hutsik; hau da, etxerik gabeko pertsona bakoitzeko hamarren bat etxe hutsik dagoela?
- Krisialdia hasi zenetik, Espainian 9,7 puntu igo dela langabetuen kopurua? Irlandan 7,2? Austrian eta Belgikan 0,4? Amerikako Estatu Batuetan 4,7?
- Espainian gutxieneko soldata ofiziala 641 eurokoa dela, Irlandan eta Belgikan 1.500; Ingalaterran 1.190; Frantzian 1.365; Holandan 1.424; Grezian 739; Portugalen 425...? (2012ko datua)

[Apostoluen Eginak liburutik 20,17-27: Neure ibilaldia burutu eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa bete behar dut. **Sal 68 [67]:** Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,1-11a.**

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea.

Nik zure aintza agertu dut munduan, Zuk eman zenidan egitekoa betez. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza.

Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumeei. Zeureak zenituen, Zuk niri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain Zuk eman didazun guztia zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta hauek onartu dituzte. Eta betetan jakin dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi Zuk bidali ninduzula.

Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta Zuk duzuna nirea, eta hauen gan agertu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zuzana noa».

Jaingoari aintza ematen diona, gizakia bete-betean bizitzea da. Gizaki guztiak bete-betean bizi daitezzen, bere adiskidetasuna eman zigun Jesusek, gaueko bere otoitza, parabolarik bikainena, eta beraren bihotzean jaiotako hitzak, ordu arte inoiz ere entzun ez zirenak, eta iraganean inoiz ere lurperatuak izango ez direnak, museoko bitxi bailiran. Beraren topaketek hartarainoko sakontasuna lortu eta hartarainoko osasuna eta zoriona jariatu zuten, non eraldatzen jarraitzen baitugu guk geuk ere haren arrimuan. Mundura bidaliak bizi gara, Jesusen beraren jarraitpen gisa, Aitaren ikusgarritasun gisa, beronen maitasun krea-tzaile, ezkutuko eta fidelaren ikusgarritasun gisa.

Ebanjelioko parabolak zertako?

Erantzuna espero duen galdera da parabola bat, erabaki bat har-tzeko gonbita. Izatez, parabola «ez da ezer» harik eta nor bere bu-ruari aplikatzen dion arte. askatasun osoaz. Honek esan nahi du, parabola hitz-molde bat dela; ez bakarrik metaforaren bidez giza iru-dimena liluratzeko edota ezusteko baten bidez pertzepzio gozagarri bat izateko; baizik eta giza askatasunari erronka bat aurkezteko. Ho-rixe dute helburu ebanjelioko parablek.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Andres Bobola, *apaiza eta martiria, jesuita*.

San Ubaldo, *martiria*. Santa Gema Galgani, *birjina*.

[Apostoluen Eginak liburutik 20,28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeke eta oinordekotza emateko. Sal 68 [67]: Munduko nazioak, kanta Jainkoari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena baizik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da.

Orain, ordea, zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala.

Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaritzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditazun egiaren bidez».

Jesusek bere ikasleak mundura bidali ditu, Aitak bera bidali zuen bezala, eta erreinuaren esperantza iragartzeko misio

San Andres Bobola, *apaiza eta martiria, jesuita*.
San Ubaldo, *martiria*. Santa Gema Galgani, *birjina*.

edo egiteko berarekin, anai-arreba arteko elkartean bizitzen hasiz. Kultura eta sineste desberdineko herrietan barna zabalduko dira. Beti izango da nork bere esperientzia erabatekotzat hartzeko tentazioa, eta agintea mundutar ereduez liluraturik ezartzeko eta batzuen eta besteen arteko aldeak, kontuan hartu gabe, zokoratzeko tentazioa. Anai-arreba arteko bizitzan, Jesusek berak sentitu zuen gozamina topatuko dugu, eta Jaunaren oinarrizko dohain bezala zaindu beharko genuke.

Zer da aberastasuna?, galdetu zaie bi pertsona talderi.

Lehen taldea:

Arkitektoa: Proiektua eskura izatea, diru asko ateratzeko.

Ingeniaria: Sistemak garatzea, baliagarri eta ondo ordainduak..

Abokatua: Kasu asko eskura izatea, irabazi handikoak eta BMW edukitzeko.

Sendagilea: Gaixo asko izatea, etxe handi polit bat erosteko.

Kudeatzailea: Enpresa irabazi handi eta hazkorreko mailan izatea.

Atleta: Munduan ospea eta aitortpena irabaztea, ondo ordaindua izateko.

Bigarren taldea:

Bizi guztiko presoak: Kalean libre ibiltzea.

Itsua: Ikustea eguzki-argia eta jende maitea.

Gormutua: Haizearen hotsa entzun eta jendeari esatea zenbat maite dudan.

Ezindua: Goiz batean eguzkipean korri egitea.

Gaixo terminala: Egun bat gehiago bizitzea.

Umezurtza: Ama, aita, anai-arrebak, familia ukan ahal izatea.

Pazkoaldiko 7. astea.

San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

[Apostoluen Eginak liburutik 22,30; 23,6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17,20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula.

Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maite nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere.

Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egoitea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

Jesusek ez du otoitz egiten bere ikasleez bakarrik, une horretan bere inguruan mutu eta pazkoaren misterio trinkoan murgildurik dituenek bakarrik, alegia. Bere begiak herri guztie-

Pazkoaldiko 7. astea.

San Paskoal Bailon, *erlijiosoa*.

tara eta beste ikasle batzuk munduari ebanjelio bera hots egitera aterako garen mendeetara hedatu ditu. Lausotzen ahal gaituzten indar sozio-politiko eta egoismo artean gauzatzen da misioa. Banatzearekin hautsi egiten dira hartua eta iragarria den mezuaren gardentasuna eta argitasuna. Jesusen etengabeko otoitza sentituko dugu geure baitan, eta maitasun beraz berregingo ditugu harreman hautsien hizki bakoitza eta keinu bakoitza.

Utzi nazazu sartzen

(Jatorrizkoa: Alvaro Fraile: Donde el corazón)

(Euskaraz D. Amundarain; moldaketa Pello Esnal)

Doinua: "Izotz ondoko eguzki" (Xabier Lete)

(*Doinua, Joxe Alkizak erantsi zion letrarekin harturik:*

"Jauna, gure Jainkoa,

bedeinkatua zu.

Zeru-lurren egile,

bedeinkatua zu...")

Utzi nazazu sartzen

hor, zeure etxean,

negarrez ari zaren

gela laiotzean.

Hortxe izar bat galtzen

zaizun bakoitzean,

beste bat erne ohi da

gauaren beltzean.

Hortxe bihotz-taupada

hasi zen gunean,

bihotza zain dagoen

sehaska xumean.

(*segida maiatzaren 18an*).

[Apostoluen Eginak liburutik 25,13b-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesusez zuten eztabaida. **Sal 103 [102]:** Jau-nak zeruan ezarri du bere aulkia.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,15-19.**

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak».

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak».

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?» Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu».

Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

Pedrok nekez ulertu zuen Jesusen mesianismoa, ez baitzen boterekoa hark uste zuenaren kontra. Jerusalemera igotzea oso estrategia politiko okerra iruditu zitzaion Pedrori, eta indartsu agertu zuen. Tentatzaile deituz erantzun zion Jesusek. Oraingoan, aintzira ondoan, ogia eta arraina partekatu ondoren, Pedro aztertu nahi

18

Ostirala / Barikua MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 7. astea.

San Joan I.a, 53. *aita santua eta martiria.*

Santa M^a Josefa Sancho Guerra (Gasteiz 1842-Bilbo 1912), *birjina eta fundatzailea.*

izan du Jesusek, maitasunari dagokionez. Hiru bider galdetu dio bera maite duen. Nekaldiko hiru ukoak gogorarazi dizkio horrela. Jesus maite badu, ez ditu bazkatuko ardiak jauntxokeriaz, baizik eta, Jesusek bezala, zerbitzari eta adiskide. Agintari-zerbitzua «ardi-usainez» gauzatzen da, eta anai-arrebengatik bizia emanez.

Bila zeure erroak
taupaden harira,
bila sentimenduak
dakarren argira.
Hortxe du ezkutuan
biziak pilpira.
Hortxe sortzen da gauza
guztien distira.
Hortxe bihotz-taupada
hasi zen gunean,
bihotza zain dagoen
sehaska xumean.

Utzi nazazu sartzen
hor, zeure barnean,
ametsa sortzen zaizun
txoko hurrenean.
Hortxe, bihotza bila
duzun sakonean,
bihotzak pizten duen
argitasunean.
Hortxe bihotz-taupada
hasi zen gunean,
bihotza zain dagoen
sehaska xumean.
(maiatzaren 17tik dator)

[Apostoluen Eginak liburutik 28,16-20.30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. Sal 11 [10]: Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21,20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular gainean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?» galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?» Jesusek erantzun zion: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri».

Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumuru sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?»

Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituen, eta badakigu egiatzkoa dela haren testigantza.

Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez liratekeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

Jesusekin doala, ikusi du Pedrok Joan ere segika dutela. Joanez ondo sintonizatu zuen Jesusen egitasmoarekin, eta gurutzeraino lagundu zion; bitartean, Pedrok ukatu egin zuen Jesus eta ezkutatu egin zen. Orain Joanekin erkatu nahi du bere burua. Jesusek ohartarazi dio, ikasle bakoitzak bere misioa duela,

19

Larunbata /
Zapatua

MAIATZA / ORRILA

Pazkoaldiko 7. astea.

San Zelestino V.a, 192. aita santua.

San Frantzisko Coll, *apaiza eta fundatzailea*
(*La Anunciata-ko moja domingotarrak*).

berarekiko harreman partikularrean. Gutako inor ez da pertso-
nen jarraitzaile, elkarrean lidergo sanoak badiren arren; Jesu-
sekin bakoitzak dituen harremanak ordezkaezinak dira. Egune-
tik egunera ari gara haren baitan eta bera gure baitan gero eta
gehiago txertatzen; baina, aldi berean, bakoitzak bere misterioan
duen nortasuna zaintzen jarraitzen du Elizaren gorputzean.

Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena,
ez baitio huts egingo Jaunak halako konfiantzari.
Ur ondoan landaturiko zuhaitzaren antzeko da:
ur bizigarrietara zabalduko ditu sustraiak.
Sargoriari ez dio beldurrik izango
eta haren hostoak beti berde dira egongo;
lehorte-urtean ere hura lasai,
ez dio uzten fruitua emateari (Jeremias 17,7-8)

Mendekoste eguna.San Bernardino Sienakoa, *apaiza*.**§ Apostoluen Eginak liburutik 2,1-11.**

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalemen judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarrek, mediarrak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu nahiz juduberri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

[Sal 104 [103]: Zeure arnasa bidal gugana ta lur-azala berritu, Jauna.]

§ Paulok 1 Korintoarrei 12,3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!» Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina

Mendekoste eguna.San Bernardino Sienakoa, *apaiza*.

bat bakarria Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarria Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarria Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak.

Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarria osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarria egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

Neurtitza

Zatoz, bai, Gogo Guren, / eta bidal zerutik / zure argi izpia.
/ Zatoz, gaixoen aita, / zatoz, dohain-emaile, / zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina, / etxelagun atsegin, / sargorian haize fin.
/ Lan artean atsedean, / nekean aringarri, / malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu, / zintzoen bihotzeko / zirrikiturik barnena.
/ Zure laguntza gabe / ez du gizonak ezer, / ez du ezer on denik.

Garbitu, zikin dagoena, / busti lehor dagoena, / zauriak oro senda.
/ Zurrun dena bigundu, / makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.

Zugan uste on duten / zintzoei isuri / zazpi dohain zerutik.
/ Zintzo saria eman / osasun hil artean, / poza betierean. / Amen.
Aleluia.

Mendekoste eguna.San Bernardino Sienakoa, *apaiza*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, Nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek barkatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Pazko-misterioaren hiru alderdi baturik ageri dira: Piztue-ra, Igokundea eta Mendekoste. Gurutziltzatua, bere betera iritsi den berpiztua da, eta bere espiritua bidali du ikasleengana, elkarte koskorrak oroitzapenari eutsi eta Jesusek guztientzat ekarri duen bizi ugariaren lekuko izan dadin. Aldi berean, Jesus munduan ikusgarri egiten jarraituko du elkarte horrek, krea-zio osoa adiskidetu duen Jainkoaren maitasuna ikusgarri egiten. Espiritua bakoitzarengana jaitsi ohi da, norberaren nortasuna errespetatuz; baina bat bera da Espiritua guztiengan, su berean elkartzen dituelarik. Ikasleak, eraldaturik eta adoretzu, munduan zabalduko dira elkarte txikiak eratuz, batzuetan klandestinoak, inperio desberdinek su eta gar erauzi nahi izan dituztenak, baina lortu gabe

Aurreratu egin da hizkuntzen askotarikoa, zeinetan hots egingo baita ebanjelioa. Izatez, mundu guztiak ulertzen du Espirituaren mezua, maitasun delako eta itzulpen beharrik ez due-

Mendekoste eguna.San Bernardino Sienakoa, *apaiza*.

lako. Espirituak den-dena arnasten du: pertsona, kultura, herri eta erlijio guztiek duten alderik hobena, eta Jainkoaren aurpegia agerian ipintzen duen giza askotarikotasun miresgarria eratzen du. Gure begiak interkomunikatua den gure mundu osora irekitzen dira, Jainkoaren egintza kontenplatzeko, ospatzeko eta hartan lankide izateko.

Aita Congar-ek berari behin batean gertatua dakarkigu: «Kontzilioan, nik Espiritu Santuaz hitz egin ondoren, izen handiko teologo batek, kontzilio aurreko mentalitatekoak, esan zidan, neure latin-hizkeraz zorionak eman ondoren: “Espiritu Santuaz mintzo zara. Baina protestanteak dira Espiritu Santuaz hitz egiten dutenak. Guk, Magisterioa daukagu”».

Zatoz, Espiritu Santua, eta bete mundua zeure arnasaz. Ez mugatu zeure su-hatsa protestanteetara.

Urteko 7. astea.

San Konstantino, *emperadorea*.San Eutikio, *martiria*.San Timoteo, *martiria*.

[**Santiagoren gutunetik 3,13-18**: Bekaizkeriaz eta norgehiagokeriaz beterik bazaudete, ez ibili harroturik. **Sal 19 [18]**: Jau-naren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,14-29**

Aldi hartan, Jesus eta berekin zituen lagunak menditik jaitsi eta ikasleengana iritsi zirenean, jendetza handia ikusi zuten haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesusek galdetu zien ikasleei: «Zer zenuten horiekin eztabaidan?»

Jendarteko batek erantzun zion: «Maisu, hemen ekarri dizut neure semea: hitz egiten uzten ez dion espiritua du. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor egina gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute».

Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutikoa». Ekarri zioten, eta espirituak, Jesus ikustearekin batera, gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrean iraulka eta lerdea zeriola utzi zuen.

Jesusek galdetu zion aitari: «Noiztik dago horrela?» Hark erantzun: «Ume-umetatik. Askotan bota izan du sura baita urera ere, hilarazteko. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitez gutaz eta laguniezaguzu». Jesusek esan zion: «Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak». Orduan, mutikoaren aitak deia-darka: «Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!»

Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, gogor eraso zion espiritu gaiztoari: «Espiritu gorra eta mutua, Nik agintzen diat: atera hadi honengandik eta ez sartu berriro». Espiritua, garra-sika eta mutikoari berebiziko astindua emanez, atera egin zen. Mutikoa hilik bezala gelditu zen; hila zegoela zioen askok; baina Jesusek eskutik hartu eta altzarazi zuen, eta mutikoa zutik jarri zen.

Jesus etxeratu zenean, ikasleek galdetu zioten bakarrean: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu espiritua bota?» Jesusek erantzun zien: «Gisa honetako espirituak botatzeko bide bakarra otoitza da».

Ebanjelio honetako eszena Jesus Tabor menditik jaistean gertatu da; han antzaldatu da, Jerusalemera igotzen jarraitzeko. Bera mendian otoitzean ari den bitartean, ikasleak bidean mutiko batengandik espiritu gaizto bat botatzen saiatu dira, arrakastarik gabe. Jesusek, ordea, bota du eta mutikoa aske gelditu da. Espiritu gaizto hori oztopo bailitzan agertu da bidean. «Gisa honetako espirituak botatzeko bide bakarra otoitza da». Otoitz egitetik dator Jesus. Jesusen jarraitzaile guztioi aurkezten zaizkigu «espiritu gaiztoak», bideak gatazka mingarri batera garamatzanean. Otoitzik gabe ezin aterako ditugu, ez geugandik, ez besteengandik.

[**Santiagoren gutunetik 4,1-10:** Eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzuelako da. **Sal 55 [54]:** Jar zaitetz Jaunaren eskuetan, zeure Ongileak dizu eutsiko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.**

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?» Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria».

Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

Jerusalem-era igoz doan bidean, Jesus argitzen ari zaie ikasleei bukaeratzat ezbaia eta heriotza izango dituen bere bidaiaren

Santa Joakina Vedruna,
fundatzailea (Karitateko Karmeldarrak).
Santa Rita Casia-koa, *erlijiosa.*

zentzua. Aurretik doa bera, ibilera markatuz, burua bere bizitzako aro berrian bildurik. Ikasleak ondoren doaz, logika oso desberdina bizirik. Ezbaian ari direla entzun die Jesusek. Ulertu gabe jarraitzen dute. Elkarri galdezka ari dira nor izango den handiena Jainkoaren erreinuan. Ez dute ulertu, Jainkoa azkenean egin dela, zaurgarrienak, ahulenak, eskutik hartzeko. Haur bat ipini zuen guztien erdian. Ahultasunaren irudi bat da hori. Haur hori bezalakoak besarkatzen dituenak, Jainkoa besarkatzen du.

«Poza: maitasun-misterioa da; maitasunez betea bazaude, orduan betea zaudeke pozaz ere. Maite gaituen Jainkoaren Berri Ona onartzen badugu, berarentzat zerbait berezi garelara onartzen badugu, samurtasunez eta maitasunez kreatu gaituela, maite gaituela, zaintzen gaituela, eta hori guztia, samurtasunez eta maitasunez...

Horixe da poz orenen sustraia eta arrazoia, eta hori da Jesus gure artera etorri izanaren arrazoia: nire gozamina zuena izan dadin»
(Kalkutako Teresa santua)

Urteko 7. astea.

San Desiderio, *gotzaina*.

Santa Almerinda, *martiria*.

[**Santiagoren gutunetik 4,13-17:** Ez dakizue zuen bizitza zer izango den. Beste hau esan behar zenukete: «Jaunak nahi badu». **Sal 49 [48]:** Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.]

† **Jesus Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,38-40.**

Aldi hartan, Joaneke esan zion Jesusi: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki esaka jardungo due-nik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago».

Jesusen baieztapen hau funtsezkoa da gurea bezalako garaian, zeinetan etengabe egiten baitugu topo gure erlijio, kulturako, herriko, sineskizuneko ez den jendearekin. Jada ez gara bizi eremu homogeneotan, irizpide berekoetan. Ikasleek monopolioa, eskubide eksklusiboa, izan nahi dute jendea bere espiritu gaiztoetatik askatzeko. Jesusek, ordea, zabaldu egin du ikuspegia. Jainkoaren erreinua, mundu honetara, pertsona oso desberdinen bidez iristen da. Jainkoa presente dago pertsona bakoitzarengan, modu etengabea, bakoitzarekin komunikatuz, eta munduan bakoitzaren bidez jokatuz. Mundua horrela ikusten saiatzen bagara, «beste jende» asko gutar sentituko dugu.

§ Isaias Profetaren liburutik 52,13–53,12.

Hara, nire aurrera aterako da; handia egingo da eta goratua izango. Jende asko hartaz ikaraturik gelditu bazen ere –hartaraino baitzuen giza itxura galdua, eta gizona zenik ere ez baitzuen irudi–, gero harriturik geldituko dira herri asko, eta erregeak haren aurrean hitzik gabe geldituko dira, egundaino esan ez zena ikustean, eta entzun ez zenari begiratzean. Nork sinetsi du guk esandakoa? Nori agertu zaio Jaunaren besoa? Kimua bezala hazi zen haren aurrean, zuztarra lur lehorrean bezala, ederrik eta giza antzik gabe ikusi genuen eta itxura atsegini gabe, barregarri eta gizakietan azkeneko, oinaze-gizon egina, nekeen berri dakiena, ezikusia egiten zaienetakoa, gaitzetsia eta baztertua. Gure nekeak hartu zituen hark eta gure minak eraman. Lepradun bezala geneukan, Jaungoikoak joa eta lotsarazia. Gure bekatuengatik alderik alde zulatua; gure gaiztakerien-gatik txikitua. Haren gainera erori zen guri bakea ematen digun zigorra, haren zauriek sendatu gaituzte. Gu denok ardi galduak ginen, bakoitza bere bidetik, baina Jaunak haren gainean ezarri zituen gu guztion txarkeriak. Gaizki zerabilten, baina bera makurtu egin zen, eta ez zuen ahoa ireki. Harategira daramaten arkumea bezala, ile-moztaileen aurrean ardia bezala, isilik egon zen, ahoa ireki gabe. Zuzengabeko auzitan galdu zuten. Nork hartu zuen aintzakotzat haren etorkizuna? Bizidunen lurretik kendu egin zuten; nire herriaren bekatuengatik hil zuten. Gaizkileen artean lur eman zioten, eta bekatariekin haren hilibia; nahiz eta berak bidegabekeriarik ez egin, eta haren ahotik gezurrik ez jalki. Jaunak nekeetan lehertu nahi izan zuen. Bere

Stradako Andre Maria, jesuiten ama elizan:
Jesù elizan Erroman.

JESU KRISTO BETIEREKO APAIZ NAGUSIA.

bizia ordain ematen badu, izango du ondorengo ugari, luzatuko zaizkio egunak, beteko da Jaunaren nahia haren bitartez. Bere oinazeen sari, ikusiko du argia eta aseko da. Jasan duenaren bidez, nire zerbitzariak zuzentasuna emango dio askori, haien hutsegiteak bere gain hartuz. Horregatik, jendetzak emango dizkiot nik bere parte, giza taldeak izango ditu harrapakin; heriotzara eman baitzuen bere burua, eta bekatarizat hartu baitzuten. Bere gain hartu zituen askoren hutsegiteak, eta bitarteko izan zen bekatarientzat.

[Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 22,14-20.

Ordua etorri zenean, jarri zen Jesus mahian bere apostoluekin, eta esan zien: «Baneukan gogoa, Pazko-afari hau zuekin jateko, neure nekaldiaren aurretik. Hara nik esan: Ez dut berriro jango, Jaungoikoaren erreinuan beteko den arte. Eta edalontzi bat hartu, eskerrak eman eta esan zuen: «Hartu eta banatu zeuen artean. Hara nik egia esan: Ez dut gehiago ardorik edango, Jaungoikoaren erreinua etorri arte». Gero ogia hartu eta esker-otoitza eginez, zatitu zuen eta eman zien, esanez: «Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri». Afalondoan gauza bera egin zuen edalontzia hartu eta esanez: «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isurtzen den nire odolaz Jainkoak ezarria».

Dolu-une bat esperantza-iturri bihurtu zuen Jesusek aldi guztietarako. Jesus eta ikasleak elkarrekin ari ziren ospatzen az-

ken afaria. Egoera erabakia zegoen. Ez zen ageri aterabiderik inondik. Jesusentzat otordu horrek erreinuko garaipena egiazkoa dela iragartzen du, Aitaren mahaian sinbolizatua den erreinuarena, non guztiok leku bat baitugu prestatua. Esperantza hori orientabidea dugu, jakiteko, egunero ari garela eraikitzen behin betiko elkartasunaren zati bat, inor baztertu gabe. Partekatutako ogi-ardoak, Jesusen gorputz-odolak, behin betiko janari dira, dagoeneko elkartzen eta pozten gaituen janari.

«Heziketaz mintzo naizenez, ondo hezitako gazte bat izateko, beharrezkoa al da Elizaren legeak ezagutu eta betetzea? Hauxe bakarrik esango dizut: ez da ezer aurpegiatzerik leial betetzen dituztenei, eta askotan deitoratu egin behar dira aintzat hartzen ez dituztenak. “Savoir vivre” soilaren begiruneari bakarrik erreparatzen diodalarik, aitortu behar da, beharrezkoa dela jende erlijiosoaren konbentzimenduak eta sentimenduak ezagutzea. Halakoak imitatzera behartuak ez bagaude ere, gutxienez ezagutzeakoak ditugu, zor zaizkien begirunea, begiramendua eta tolerantzia izateko. Inor ez da sekula izango adeitsu, fina izango, ezta aurkezgarri ere, nozio erlijiosorik gabe» (*Jean Jaurès, Frantzia, 1859-1914, político socialista, atea; bere semeari egingako gutunaren zatia*).

[Santiago Apostoluaren gutunetik 5,9-12: Ate-atean da epailea.
Sal 103 [102]: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,1-12.

Aldi hartan, Jesus Judeako mugetan sartu eta Jordan ibaiatz bestaldera igaro zen. Berrito jendetza handia bildu zitzaion eta bera, ohi zuen bezala, irakasten hasi zitzaion.

Hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk eta, Jesus zertan harra-patuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?» Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?» Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun».

Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean».

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea.*
San Gregorio VII.a, *aita santua.*
Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina.*

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña (Kaskante 1847-Burgos 1890), *birjina, fundatzailea (Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak).*

Jesusek ezkontza-bizitzaren ideala iradoki du, Hasiera liburuan ageri denez. Bikotea beti irauten duen maitasunean garatzen da. Hausturak oinazea sortzen du familia osoan, eta luze irauten duten zauriak eragiten ditu. Testuan ageri denez, izaten dira egoerak, zeinetan, arrazoi desberdinengatik, komenigarri izaten baita apartatzea, erremediorik gabeko kaltea egiten jarraitu ordez. Gaur egun bikoteen iraupena ahuldu egin da, eta asko ezkontzen dira «denborak apartatuko gaituen arte». Halaz guztiz, betiko maitasuna amesten jarraitu beharko genuke, zurrunduko ez dena, ustelduko ez dena, baizik egunetik egunera haziz joango dena.

Gizakiaren askatasuna eta erantzukizuna

- 11 Ez esan: «Jaunaren erruz galbideratu naiz»,
Jaunak ez baitu gorroto duena egiten.
- 12 Ez esan: «Hark desbideratu nau»,
hark ez baitu bekatariaren beharrik.
- 13 Jaunak gorroto dio gaiztakeria orori
eta berdin hari begirune diotenek.
- 14 Jaunak hasieran egin zuenean,
aukeramena eman zion gizakiari.
- 15 Nahi baduzu, gorde ditzakezu aginduak,
Jaunaren borondatea zintzo betetzeko .
- 16 Hark sua eta ura jarri dizkizu aurrean,
nora nahi, hara eraman dezakezu eskua.
- 17 Bizitza eta heriotza daude gizakien aurrean jarriak:
aukeratzen duena emango bakoitzari.
(*Ben Sirak liburutik 15,11-17*)

«Gizakia arrazoiduna da; hargatik, Jainkoaren antzeko; aske egin zuen Jainkoak eta bere egintzen jabe» (San Ireneo).

Urteko 7. astea.

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*.

[Santiagoren gutunetik 5,13-20: Indar handia du zintzoaren otoitz sutsuak. Sal 141 [140]: Nire otoitza izan bedi, Jauna, zure aurrean intsentsua bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,13-16

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi hurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena da-eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Haurrek gogoia irekirik izaten dute beren zentzumenetara eta bihotzera iristen zaizkien gauza berri guztiak ikasteko. Ez dute izaten norberak landutako programaziorik, ezta altxor metaturik ere, apustuez arriskatu nahi ez dutenik, ez dute babesten ere beren indibidualismoa pasahitz elektronikoez. Ez dute Jainkoaren irudirik ere sinagogako irakaspenek desitxuratutakorik. Jesusen besarkadak eta bedeinkazioak Jainko hurbil eta samur baten irudia adierazten dute, txeraz begiratzen digun eta salbatzen gaituen batena. Hau da Jainkoarekin dugun harreman bihozkoia hondo edo sustraia, bizitza osorako eta gizon-emakume guztientzat.

Deuteronomio liburutik 4,32-34. 39-40

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Galdetu antzi-nako garaiei, zu baino lehenago izandakoei, Jaunak gizakia munduan sortu zuenetik hasita; galdetu ea inoiz horrelakorik gertatu edota entzun izan den munduaren ertz batetik besteraino. Ba ote da herririk, zuk bezala Jainkoa suaren erditik mintzatzan entzun eta bizirik gelditu denik? Izan al da inoiz jainkorik, herri bat beste herri baten menpetik atera eta beretzat hartzen saiatu denik? Ba, horixe egin zuen Jaunak, zuen Jainkoak, zuen begi-bistan Egipton; ezaugarri, mirari eta egintza harrigarritz, borrokaren bidez, ahalmen handiz, esku indartsuz eta izua zabalduz askatu zintuzten.

Aitortu, beraz, gaur, eta izan beti gogoan Jauna dela Jainkoa, goian zeruan eta behean lurrean; ez da besterik. Bete gaur ematen dizkizudan legeak eta aginduak, zoriontsu izan zaitezten zeu eta zure ondorengo seme-alabak, eta luzaro bizi, Jaunak, zeure Jainkoak, betiko emango dizun lurraldean».

[Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

San Paulok Erromatarrei 8,14-17.

Senideok: Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak, horiek dira Jainkoaren seme-alaba. Zuek ez duzue hartu esklabo egiten zaituzten espirtua, berriz ere beldurrez bizitzera eramango zaituztena; zuek seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!», hots egiten diogu Jainkoari.

Urteko 8. astea.

HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*.

Espiritu honek berak, gure espiriturarekin bat eginez, Jainkoaren seme-alaba garela aitortzen du; eta, seme-alaba bagara, baita oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide; zeren, nekeetan Kristoren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izango baikara.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,16-20.

Aldi hartan, Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk, ordea, zalantzan zeuden.

Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaizen: «Aginpide osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz, eta Nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta Ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte».

Batzuetan Jainkoaren aurka jarkitzen gara, guztiz ezin ezagutu dugulako, ezta ulertu ere historiako ilunak. Jainkoa misterio bat da eta ez genuke harritu behar geure ezintasun horretaz. Pertsona guztiak ere misterio dira eta ezin ezagutu ditugu guztiz inoiz ere. Horrek, ordea, ez digu eragozten maitemintzea, ezta besteez kezkatzea ere bizia emateraino.

Jainkoa historian barna agertu zaigu, eta era ezin handiagoan Jesusengan. Aita bezala agertu zaigu, gure gaintetik dagoen Jainko bezala, den guztiaren kreatoraile eta betiereko babesle bezala, txeraz, zeini «abba», aita, esaten irakatsi baitzigun Je-

susek. Seme gizon eginik agertu zaigu, Jainkoa gurekin bezala, giza bizitzaren hondo-hondoraino jaitsirik, azkenak direnekin topo egiteko. Espiritu bezala agertu zaigu, Jainkoa gugan bezala, beti gure inspirazio kreatzaile ederrenen eta gure buru-eskaintza miresgarrien jatorri bezala.

Hirutasunarekin topo egiteko eta haren misterioan bizitzeko, ez dugu zertan murgildu hutsunean eta zertan galdu ezerezean, ezta zertan bilatu ere sarbidetuen eskura bakarrik izaten diren kontzeptuen labirintuan, ezta zertan egon ere bete-betekoak izan zain. Aski dugu maitatzea geure mundu honetan Jesusek baitaioan bezala.

«Aita bat, gizaki bakoitza mugagabeki maite duena aitortzeak, esan nahi du, jabetu zarela duintasun mugagabe bat eman dizula.

Jainkoaren Semeak gure giza haragia hartu zuela aitortzeak, esan nahi du, gizaki bakoitza Jainkoaren bihotzera berera jaso izan dela.

Espiritu Santua gizon-emakume guztiongan ari dela aitortzeak, esan nahi du, giza egoera guztietan eta lotura sozial guztietan sartu nahi duela berak burruntzalia.

Hirutasunaren misterioak gogorarazten digu, Jainkoaren elkartasun horren irudira kreatu gintuela; horregatik, ezin garatu eta salbatu gaitzkeela bakarrik eta bakarka.

Lehen iragarpena onartzeak, Jainkoak maita gaitzan uztera eta guk bera berak agertzen digun maitasun beraz maitatzera gonbidatzen gaituenak, pertsonaren bizitzan eta beraren egintzetan oinarrizko eta funtsezko erreakzio bat eragiten du: gainerakoen ongia desiratzea, bilatzea eta zaintzea». (Frantzisko aita santua, Ebanjelioaren poza)

Urteko 8. astea.

San Justo, *gotzaina*.

San Viktor, *martiria*.

[**San Pedroren 1. gutunetik 1,3-9:** Maite duzue Jesu Kristo, ikusi ez baduzue ere; eta, harengan sinesten duzuela, esan ezin ahaleko pozez alaitzen zarete. **Sal 111 [110]:** Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,17-27.**

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?»

Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia».

Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahi-gabez joan, ondasun handiren jabe baitzen.

Orduan, Jesusek, ingurura begiratu, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!» Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere:

«Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien:

Urteko 8. astea.

San Justo, *gotzaina*.San Viktor, *martiria*.

«Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

Gazte aberats batek zerbait liluragarri sumatu du, ikasle-talde txiki bat lagun duela, Jerusalemera doan maisu horrengan. Aginduak betetzen ditu. Haurtzarotik uste izan du aberastasunak Jainkoaren bedeinkazio direla. Hutsune bat sentitzen du, ordea, eta zerbait gehiago nahi luke. Jesusek Jainkoa eta mundua ikusteko beste mundu batean sartzea proposatu dio, bere aberastasunak pobreei ematea eta berari jarraitzea, erreinuaren mundua erakitzeko, non ondasunak guztientzat izango baitira, inori erasorik egin gabe eta inor zokoratu gabe. Ezinezkoa ote desatxikitze hori? Jende asko ari da hori egiten egunero, hori egiteari bihotzean sentitzen dion jainkozko dohainaren zaporeagatik.

BAKEA

Bakea zer den, zer ez den, / hortantxe dago gakoa:

Bakea zer, zer ez den.

Bakea on bat da, beti / arduratsu zaintzekoa.

Bakea beti da on bat / erreparoz lantzekoa,

bakea beti da on bat / lortu orduko prestatzen

jarraitu beharrekoa.

Bakea ez da geldia, / bakea ez da geldoa,

bakea ez da nagia.

Bakea malkarrak leunduz, / sakanak zelaituz doa.

Aldian aldiro lana / eskatzen digun bakeak,

aldian aldira lana.

Bakeak problemak ditu: / eztabaida ta txokeak.

(Bitoriano Gandiaga)

Urteko 8. astea.

Santa Restituta, *martiria*.

San Eleuterio, *aitorlea*.

[San Pedroren 1. gutunetik 1,10-16: Jainkoak zuentzat prestaturiko dohainaz hitz egin zuten profetek; izan neurritsu eta itxaropentsu. Sal 98 [97]: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko». Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurra uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Ikasleek beren saria zein izango duten jakin nahi dute beren etxea eta lan-tresnak uzteagatik. Sari bereziren bat espero dute. Jesus, ordea, ez da mugitzen, ez diruaren logikan, ez boterearenean; ez da mugitzen hurbilekoenekin elkartean sortzen dituzten horien logikan. Beste sari batez mintzo da, oso desberdin batez: hain juxtu, mundu zuzenago baten sortzaile izatearen pozaz, non anai-arreba artekotasan unibertse bizi ahal izango baitugu, «neurera» eta «geurera» mugatzen ez dena. Gauza bat da norberaren jabetzakoak kontatzea pertsona egin-egindako sentitzeko, eta beste bat guztien etorkizunerako lan egitearen eta guztien geroan eta Jainkoaren bihotzean nork bere burua galtzearen poza.

[San Pedroren 1. gutunetik 1,18-25: Bildots garbi eta akats gabe den Kristoren odol baliotsuaz izan zarete askatuak. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,32-45.

Aldi hartan, Jerusalemera bidean gora zihoazen ikasleak, eta Jesus aurretik. Ikasleak txunditurik zeuden, eta jarraitzen ziotenak beldurrez zihoazen. Jesusek Hamabiak berriro beregana bildu, eta zer gertatuko zitzaion adierazten hasi zitzaien: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara, eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute; heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko; hauek iseka egingo diote eta listua botako, zigorkatu eta hil egingo dute; baina handik hiru egunera piztuko da».

Santiagok eta Joanek, Zebedeoren semeek, Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Jesusek galdetu zien: «Zer nahi duzue, bada, Nik zuei egitea?» Eta haiek: «Eser gaitezela bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean, Zu zeure aintzara iristean».

Jesusek esan zien: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kaliza mingotsa edateko, edo Nik murgildu behar dudan urean murgiltzeko?» «Bai, gauza gara!», erantzun zioten.

Jesusek, orduan: «Nik edan behar dudan kaliza mingotsa, bai, edango duzue, baita Nik murgildu behar dudan urean murgilduko ere; baina nire eskuin-ezkerretan esertze hori ez dago nire esku ino-ri ematea; Jainkoak norentzat duen prestatua, hari emango zaio».

Urteko 8. astea.

San Fernando III.a, *erregea*.

Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*.

Beste hamarrak, hori entzutean, haserre jarri ziren Santiagoren eta Joanen aurka. Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizueenez, herrien buruzagiek mendeen hartzen dituzte herriak eta handikiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar zuen artean. Zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi denen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita zerbitzatu izatera etorri, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia denen alde ordainsari ematera».

Galileatik Jerusalemera egiten ari diren bide luzean, Jesus ikasleei irakasten ari zaie, hasia dela bizitzeko beste modu bat, biziaren mundua sortzeko, guztientzat ugaria izango dena. Ikasleek, ordea, ez diote ulertu, eta botere-ikusmolde zaharrari atxikirik jarraitzen dute. Aski dugu begiak irekitzea, ikusteko, zein erraz bihurtzen diren buruzagiak nagusi eta jauntxo, ondasunak, egintzak, hitzak eta menpekoen ametsak berak ere kontrolatu nahiz. Posible den bide bakarra zerbitzua da. Jainkoari esker, ikusten ari gara ere lehenengo diren asko azkenak direnen zerbitzari bihurtzen ari direla, Jesus bezala.

31

Osteguna / Eguena MAIATZA / ORRILA

Urteko 8. astea. Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.

Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*. San Eduardo Cestak dohatsua (1801-1868), *Baiona, apaiza eta fundatzailea*,

[Sofonias 3,14-18: Jauna izango da Israel herriko errege zuen artean. Salmo: Isaias 12: Handi da Israelgo Santua zuen artean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabeti, Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!»

Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, / pozaren pozez daukat neure barrua; / Jainkoa baita nire salbamena, / ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. / Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, / handiak egin baitizkit Ahalguztidunak: / Santua da haren izena, / eta haren errukia gizaldiz gizaldi, / beldur diotenengana. / Bere besoaren indarra erabili du, / buruharroak suntsitu ditu; / bota ditu beren aulkitik handikiak, / eta gora jaso ditu ezerezak; / ondasunez bete ditu gose zeudenak, / eta esku-hutsik bidali asko zutenak. / Bere gain hartu du Israel, bere morroia, / errukia gogora zaiola; / gure gurasoei hala zien hitzemana, / Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Hiru hilabete inguru egon zen Maria Elisabetekin, eta gero etxera joan zen.

MAIATZA / ORRILA Osteguna / Eguena
Urteko 8. astea. Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti.
Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali,
martiria. San Eduardo Cestak dohatsua (1801-1868),
Baiona, apaiza eta fundatzailea,

31

Jainkoa berari begira sentitu du Mariak, bera eraldatzen duten begiez begira. Une horiz gero, badira bi hitz bereizezinak, zentzu berriz jantziak: poza eta zerbitzua. Mariak eta Elisabetek beren poz-aldarria aldarrikatu dute. Biak sartu dira zerbitzari berritasuna eta etorkizuna dakartzan Jainkoaren egitasmoan. Jainkoa aldiaren, espazioaren, giza historiaren eta erakundeen estutasunean sartu izanaren zerbitzari dira. Etorkizuna ireki da. Maria Elisabet bere lehengusinagana doa, biak elkarrekin berri ona partekatzeko. Horrelako topaketek estreinatu gabeko esperientziak eta hitzak birsortzen ahal dituzte guregan.

Gerta bedi nigan

Gertatu bedi / nigan / zuk / esana.

Poztu zaitetz / graziaz bete hori!

Jauna zu baitan da...

Bedeinkatua zu / emakumeen artean!

Ez beldur izan, Maria...

Atsegina zara Jainkoaren
begietarako...

Sortuko duzu sabelean
eta semea izango duzu...

JESUS ezarriko diozu izena...






EKAINA / BAGILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Unibertsala: **Sare sozialak**

Sare sozialek solidaritatearen alde joka dezaten eta bestea bere desberdintasunak eta guzti errespetatzearen alde.



Urteko 8. astea.

San Justino, *martiria*

[San Pedroren 1. gutunetik 4,7-13: Nork bere dohaina hartu du Jainkoagandik. Jar itzazue guztiok zeuen dohainak besteen zerbitzura. Sal 96 [95]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11,11-26.

Aldi hartan, jendeak goraka hartu ondoren, tenpluan sartu zen Jesus, Jerusalemen. Eta inguru guztira begiratu ondoren, ordurako berandu baitzen, Betaniantz atera zen Hamabiekien.

Biharamunean, Betaniatik atera zirenean, Jesus gosetu egin zen. Eta, hostotan zegoen pikondo bat urrutitik ikusirik, bertara joan zen, pikuak aurkitzen ote zuen; baina ondora iristean, ez zuen hostoa besterik aurkitu, ez baitzen piku-sasoia. Orduan, pikondoari esan zion: «Ez dezala gehiago inork hiregandik fruiturik jan!» Ikasleek ere entzun zioten.

Iritsi ziren Jerusalemera, eta, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen Jesus, eta diru-trukatzaileen mahaiak eta uso-saltzaileen postuak irauli egin zituen. Eta ez zion inori tenplu barruan ezer eramaten uzten. Gero, irakasten hasi zitzaian, esanez: «Ez al dio Liburu Santuak: “Nire etxea otoitz-etxe izango da herri guztientzat?” Zuek, ordea, lapur-zulo egina duzue».

Apaizburuak eta lege-maisuak, hori jakin zutenean, Jesus nola hilko hasi ziren; baina beldur ziren, jende guztia harriturik baitzegoen haren irakaspenaz.

Ilunabarrean hiritik kanpora atera ziren Jesus eta ikasleak. Biharamun goizean, bezperako lekutik igarotzean, pikondoak sustraietaraino ihartua ikusi zuten. Oroitu zen Pedro eta esan

zion Jesusi: «Begira, Maisu, Zuk madarikatutako pikondoa dena ihartu da».

Jesusek erantzun: «Izan sinesmen Jainkoagan. Egiaz diotsuet: Norbaitek esaten badio mendi honi: “Ken hadi hortik eta amildu itsasora”, eta mendiari agindu diona gertatuko dela zailantzarik gabe sinesten badu, halaxe gertatuko zaio. Horregatik diotsuet: Otoitzean eskatzen duzuen edozein gauza, sinetsi lortuko duzuela, eta emango dizue Jainkoak.

Eta otoitzean ari zaretela, barkatu inoren aurka ezer baduzue, zeruko zuen Aitak ere zeuen hutsegiteak barka diezazkizuen. Zuek barkatzen ez baduzue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeruko Aitak zeuen hutsegiteak».

Bi errealitate dauzkagu begi-bistan: itxura bikaina, baina fruiturik ez. Pikondoa: hostaila aberatsa, baina pikurik ez, eta Jerusalemgo tenplua: arkitektura ederra eta erritu ikusgarriak, baina egiazko bizirik ez. Jesusek kanporatu egin ditu merkatariak, eta dio, Jainkoaren tenpluak otoitz-etxe izan behar duela, herri guztiei irekia. Tenplua profanatu egiten da, lapur mozorro-tuen babesleku bihurtzen denean. Gure kulturaren, izatea baino gehiago lantzen da itxura, fatxada, hostaila, ikuskizun handiak dira inporta dutenak. Funtsezko gauza, ordea, tenpluek eta bes-telako erakundeek egiazko bizia sortzen ote duten da, zaintzen ote duten, bizia eskualdatzen eta ospatzen ote duten.

Urteko 8. astea.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*.

[**San Judasen gutunetik 17.20b-25**: Jainkoak gorde zaitzakete bekatuan erortzetik, eta bere presentzia aintzatsuan akatsik gabe agerrarazi. **Sal 63 [62]**: Zure egarriz daukat gogoia, Jauna, ene Jainkoa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11,27-33.**

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Jerusalemera etorri ziren berriro. Jesus tenpluan zebilela, apaizburuak, lege-maisuak eta zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez jokatzen duzu horrela? Zeinek eman dizu horretarako aginpidea?»

Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuidazue, eta nik ere esango dizuet zein aginpidez jokatzen dudan horrela. Joan Bataiatzaileak Jainkoaren aginduz ala giza aginduz bataiatzen zuen? Erantzun!»

Haiek hau zioten beren artean: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badiogu, zergatik ez genion sinetsi esango digu. Baina nola esan giza aginduz ari zela?» Honetarako, jendearen beldur ziren, guztiek egiazko profetatzat baitzuten Joan. Beraz, erantzun zioten: «Ez dakigu».

Jesusek, orduan: «Ba, Nik ere ez dizuet esango zein aginpi-dez jokatzen dudan horrela».

Jerusalemgo tenplua zen juduen bizitzaren erdigunea. Jainkoaren goitatzat ematen zuten: Jainkoa herrian bertan. Baina, aldi berean, negozio pertsonalen eremu egina zuten, eskaintza-opari-**en salmentaz eta zergak biltzeaz. Zati hori apaiz-familia bo-teretsuek kontrolatzen zuten. Tenpluko jardueraren aurka egitea**

2

Larunbata / Zapatua **EKAINA / BAGILA**

Urteko 8. astea.

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*.

interes askoren aurka joatea zen. Baina aldatu beharrekoak ziren tenpluko teologia eta jarduera. Ebanjelioaren hasieratik herriak ikusia du, Jesusek aginpidez irakasten eta jokatzeko duela. Tituluek boterea eman ohi dute, baina ez aginpiderik; hau bihotz zuzenetik bakarrik jaiotzen da, eta ebanjelioaren araberrako bizi-erian agertzen.

Fabian aita santua hil zutenean, Erromako Elizak Kartagoko Elizara bidali zuen gutunaren zatitxo bat da: «Elizak sendo eusten dio fedeari, nahiz eta batzuek, ikarak jota —dela pertsona gailen edo bereziak zirelako, dela, atxilotu zituztenean, ikarak estututu zituelako— arnegatu duten edo erlijioari uko egin dioten; alabaina, azken hauek ez ditugu bazterrean utzi, ez ditugu bakarrik utzi; aitzitik, animatu egin ditugu eta damutzerara eragin diegu, eman dezakeen haren barkazioa lor dezaten; gerta ez zedin, bazter utziak sentitzean, halakoen hondamendia are handiagoa izatea». (in Liturgia de las Horas III, San Fabian, urtarrilaren 20a, 1136 or.)

Kristauak ezin esan inortaz «hor konpon».

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK,San Joan XXIII.a, *aita santua*.Lwagako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.**§ Irteera liburutik 24,3-8.**

Egun haietan, Moisesek Jaunaren hitz eta erabaki guztiak jakinarazi zizkion herriari, eta herri osoak, aho batez, erantzun zion: «Jaunak esandako guztia egingo dugu».

Jaunak esandako guztia idatzi zien Moisesek. Biharamu-nean, goizean goiz jaikirik, aldarea eraiki zuen mendi-oinean, eta hamabi zutarri ipini zituen Israelgo hamabi leinuen izenean. Ondoren, zekorrak hil eta Jaunari erre-oparizat eta elkartasun-oparizat eskaintzeko agindu zien israeldar gazte batzuei. Odolaren erdia hartu eta ontzietan ipini zuen Moisesek, eta beste erdia aldare gainean isuri.

Gero, itun-liburua hartu eta herriari irakurri zion. Herriak erantzun zuen: «Obedituko dugu eta beteko Jaunak esandako guztia». Odola hartu eta herriaren gain zirtatu zuen Moisesek, esanez: «Xedapen hauen guztien arabera Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau».

[Sal 116 [115]: **Salbamen-edontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.]**

§ Hebrearrei gutunetik 9,11-15.

Senideok: Kristo datozen ondasunen apaiz nagusi bezala agertu da. Bera sartu den santutegia lehengoa baino handiagoa eta bikainagoa da, ez giza eskuz egina, hau da, ez mundu hone-takoa. Kristo behin betiko sartu da santutegian, ez akerren eta zezenen odola eskainiz, berea baizik, horrela betiko askatasuna lortu digularik.

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK,
 San Joan XXIII.a, *aita santua*.
 Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.

Beraz, akerrerren eta zezenen odolak eta erretako behi baten errautsek, kutsaturik daudenen gain zirtatuz, pertsona horiek sagaratzeko indarra baldin badute, kanpotik garbi eginez, zenbatez gehiago Kristoren odolak -betiko Espirituaren bidez bere burua Jainkoari opari garbi eskaini zion harenak- ez du garbituko gure barrua heriotzara daramaten egintzetatik, guk Jainko bizia gurtzeko!

Horregatik, Kristo itun berri baten bitarteko da, heriotza dela medio, lehengo itunaren garaian egindako hutsegiteak bar-katzeko; horrela, agindutako betiko ondarea jaso dezakete Jainkoak deitutakoek.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 14,12-16. 22-26.

Legamiagabeko Ogien Jaietako lehen-eguna zen, pazko-bildotsa hiltzen zuten eguna. Ikasleek galdetu zioten Jesusi: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?»

Hark ikasleetako bi bidali zituen, esanez: «Zoazte hirira, eta ur-suila daraman gizon bat aurkituko duzue; jarrai iezaiozue, eta sartuko den etxeko nagusiari esan: “Maisuak galdetzen du non duen ikasleekin pazko-bildotsa jateko tokia”. Hark gela handi bat erakutsiko dizue goian, jantzirik eta atondua. Prestatu hantxe behar ditugunak». Joan ziren ikasleak eta, hirira iristean, Jesusek esan bezala aurkitu zuten dena, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hartzazue:

KRISTOREN GORPUTZ ODOL SANTUAK,San Joan XXIII.a, *aita santua*.Lwangako San Karlos eta lagunak, *martiriak*.

hau nire Gorputza da». Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza esanez, eman zien, eta denek edan zuten bertatik. Eta esan zien: «Hau nire Odola da, itunaren Odola, askoren alde isuriko dena. Benetan diotsuet: Ez dut gehiago ardo hone-tatik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudan eguna arte».

Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren.

Hiri askotan eramaten ditugu gaur egun prozesioan ka-leetan barna Jesusen gorputz-odolak. Horrek gogoratzen digu, Jainkoa ez zela hurbildu giza bizitzara distantzia bat ezarriz, ez gehiegi nahasteko, ez asepsiaz kutsadura saihesteko. Baizik eta gure arteko egin zen, ondorio guztiekin, atzerazineko giza-kundean, gizon egitean. Guri agertzera etorri zen, Jainkoak oso maitea duela gu bizitzea. Bere heriotzaz eta piztueraz segurtatu digu ezen kreaio osoarekin betiko biziaren zori berera goazela guztiok, herioak ezin suntsituko duen zorira.

Egunero berritzen dugu mirari hau ogi-ardo sagaratueta. Jaunak bere burua partekatuz jarraitzen du, guztien irismenean maila berean jarriz. Ogi-ardoetan fisikoki presente daude landa-jendearen uztaren aldeko apustua, ildoetako lana, errotetakoa eta upategietakoa, garraiatzearen joan-etorriak, prezioen eta merkatuetako tratuak. Kreaio guztia doa, beraren barreatzea eta hausturak gaindituz, betearen bete horretarantz; izan ere, Jesus berpiztuarekin topo egitean adiskidetu egin da guztia, eta elkarte partekatzen ditugun eta kaleetan, Jainkoaren erreinua eraikitzen den horietan, pasieran erabiltzen ditugun ogi-ardoe-kin benetan gauzatua izan da.

Urteko 9. astea.

San Frantzisko Caracciolo, *fundatzailea*
(*Arauzko Klerigo Txikianak*).

[**San Pedoren 2 gutunaren hasiera 1,1-7:** Agindutako ondasun baliotsu eta bikainak eman dizkigu, horien bidez Jainkoaren izaeran parte izan dezagun. **Sal 91 [90]:** Ene Jainko, zugan dut konfiantza.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,1-12.**

Aldi hartan, Jesus parabola bidez hitz egiten hasi zitzairen apaizburuei, lege-maisuei eta herriko zaharrei: «Gizon batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu, bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen.

Bere garaian, morroi bat bidali zien nekazariei, mahastiko fruitutik zegokion partea jasotzera; baina haiek morroiari heldu, jo eta esku hutsik bidali zuten. Berriro beste morroi bat bidali zien; hau ere buruan jo eta irainez bete zuten. Beste bat ere bidali zien geroago, eta hil egin zuten. Ondoren, beste asko bidali zizkien, eta batzuk jo eta besteak hil egin zituzten.

Bazuen oraindik beste norbait, bere seme maitea, eta hura bidali zien azkenik, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk! Hil dezagun eta mahastiaren jabe izango gaituk”. Hartu, hil eta mahastitik kanpora bota zuten.

Zer egingo ote du mahasti-jabeak? Joan eta garbitu egingo ditu nekazari horiek, eta mahastia beste batzuen esku utziko. Ez al duzue Liburu Santuetako hura irakurri:

“Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da.
Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri”?»

Urteko 9. astea.

San Frantzisko Caracciolo, *fundatzailea*
(*Arauzko Klerigo Txikiak*).

Apaizburu eta herriko zaharrak Jesus atxilotu nahian zebiltzan, ongi jabetu baitziren beraiengatik esan zuela parabola hura. Baina jendearen beldurrez, utzi eta alde egin zuten.

Lana eta abusuzko zergak zirela medio, zukutua zegoen judu-herrian, buruzagiek mahastiaren eta langileen jabe bailiran jokatzan zuten. Administratzaile baizik ez direla gogoratzeagatik garbitu dute Jesus gurutzean. Geure aldi honetan ozenki aldarrikatu beharra dugu, bai migratzaileak iristen diren mugetan, bai lan-hitzarmenak egiten diren bulegoetan, bai erabakiak botoz hartzen dituzten parlamentuetan, bai eliz kurietan, mundu hau guztiena dela eta, norbaitek bizitzeko baliabiderik ez badu, bilatu egin behar dela, bai zein banku-kontutan dauden ezkutaturik, bai zein aitzakiapean dauden zurituak.

«Ez diruari, zerbitzari ordez, jabe denari! Diruak zerbitzatu egin behar du, eta ez menderatu! Aberatsek lagundu egin behar die behartsuei, errespetatu, sustatu. Probetxurik gabeko solidaritatera egin nahi dizuet dei; ekonomia eta finantzak jiratzera gizon-emakumeen mesedera» (Frantzisko, Ebanjelioaren poza)

Urteko 9. astea.

San Bonifazio, *gotzaina eta martiria*.

[San Pedroren 2. gutunetik 3,12-15a.17-18: Zeru berriak eta lur berria itxaro ditugu. Sal 90 [89]: Jauna, gure ihesleku Zu zara gizalditik gizaldira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,13-17.

Aldi hartan, fariseuen eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkioten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez dizula axolarik inoren zeresanak; Zuk ez diozu gizakiaren itxurari begiratzeko, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez? Ordaindu behar diogu ala ez?»

Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika? Ekarri txanpon bat, ikusteko». Ekarri zioten, eta Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?» Haiek erantzun: «Zesarrenak».

Jesusek, orduan: «Emaiozue Zesarri Zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena». Eta txunditurik gelditu ziren.

Jesus ez da nahasi fariseuen eta herodestarren planteamendu sinplista eta iruzurtian, Zesarri emateko zergaz. Lehenik eta behin, Zesar eta Jainkoa bi errealitate oso desberdin dira, bata eta bestea parean jarriz, bataren edo bestearen aukera egiten has-teko. Zesar ez da jainko bat, esaten zutenaren kontra. Bigarren, inperioaren jokabidea boterea da eta dominazioa, bereari sendo eusteko. Erreinuaren bidea, berriz, zerbitzua da, mundu berri eta anai-arreba arteko bat sortzeko. Elizaren onurarako botereekin elkartasuna bilatu nahi izatearen tentazioaren aurrean, zerbitzuaren bidea aukeratu nahi dugu; horrek libre egiten gaitu, eta krea-tzaile, ezeri lotu gabeko bizitzatik, Jesus bezala.

Urteko 9. astea.

San Norberto, *gotzaina*.San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*.

[San Paulok 2. Timoteori 1,1-3.6-12: Indarberri ezazu nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina. Sal 123 [122]: Zugana jasotzen ditut, Jauna, begiak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,18-27.

Aldi hartan, saduzear batzuk etorri zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio, emaztea seme-alabarik gabe utziz, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”.

Behin batean, baziren zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena alargunarekin ezkondu zen, eta seme-alabarik gabe hil zen; berdin hirugarrena ere. Horrela, zazpiak ondorengorik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, hildakoak piztuko omen direnean, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Ez ote zabilzate oker, Liburu Santuek dioten hori eta Jainkoaren ahalmena ezagutzen ez dituzue-lako? Izan ere, hildakoak piztean, ez da inor ezkonduko; zeruko aingeruak bezala izango dira denak. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sasia sutan zegoeneko pasarteetan, Jainkoak berak nola esaten dion: “Ni Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa naiz”? Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik. Oker zaudete oso».

Saduzearrek galdera zoro bat, zentzurik gabea, egin diote Jesusi, piztuera gauza barregarria dela agertzeko, berek ez bai-

tute sinesten horretan. Zein izango da geroko bizitzan emakumearen «jabe», berarekin hurrenez hurren ezkondu ziren anaie-tatik? Baina, piztueran ez da jaberik, ez da izango oraingo bizitza hau bera «hobetua» ere, baizik eta bizitza erabat berri bat izango da. Ezin aplikatzen ahal zaizkio lur honetako eskemak heriotza-ren ondoren Jainkoaren maitasunean biziko dugun bizitzari. Bi-zidunen, geroko, Jainko batengan sinesten dugu. Hau da funtsez-ko galdera: Non ari da jaiotzen gaur egun Jainkoaren bizi berri eta betikoa, eta nola sustatzen ahal dugu?

Ezkontza-prefazioa (zatia)

Aita guztiz ona,
gorespen zuri eta eskerrak zuri,
zuk maitasunez egindako emaitza guztiengatik.
Bai, eskerrak zuri, Jainko bizi horri,
munduaren hasieratik
maitasuna eta bizitza bat egin dituzulako.
Zeure Espirituaren arnasaz ernaritu eta bete dituzulako.
Bedeinkatua zu,
Jesus zuk bidalitakoa,
munduan gure alde erabat jarritz
zure maitasuna agertu diguna,
gurekiko maitasun osoz eman diguzulako.

Urteko 9. astea.Santa Eugenia, *martiria*.San Roberto, *abadea*.

[San Paulok 2. Timoteori 2,8-15: Jaunaren hitza ez dago katez lotua. Harekin hiltzen bagara, harekin biziko gara. Sal 25 [24]: Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jainkoa, Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa, zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Lege-maisuak agindu nagusienaz egin duen galdera ez zitzaion batere arrotza arau-pilo handian katramilaturik zegoen erlijio hari. Hamar aginduena sintesi-ahalegin bat izan zen, aspaldidanik judu-herriak landua zuena. Jesusen erantzuna ulertzeko, espermentatua izan beharko genuke Jainkoak guztiok eta

Urteko 9. astea.

Santa Eugenia, *martiria*.
San Roberto, *abadea*.

bakoitza maite gaituela, bihotz guztiz, arima guztiz, gogo guztiz eta bere indar guztiez. Jainkoa, gainerakoak eta geure burua bera maitatzeko era, esperientzia horretatik dario. Ez dugu maite maite gaitzaten, baizik eta maitatuak garela sentitzen dugulako maite ohi dugu. Funtsezko aldea, diferentzia, da hori.

Bada indar bat, biziki ahaltua, zeinentzat zientziak orain arte ez baitu aurkitu argibide formalik. Beste guztiak barne hartzen eta gobernatzen dituen indarra da; are gehiago, unibertsoan diharduen edozein fenomenoren hondoan dagoena da, guk, oraino, identifikatu ez duguna. Maitasuna da indar unibertsal hau.

Zientzialariak, unibertsoaren teoria bateratzaile bat bilatzen zutenean, ahaztu egin ziren indarretan ezkutuena eta ahaltuena den honetaz.

Maitasuna argi da, nola ematen duena hala hartzen duena, biak argitzen ditu. Maitasuna grabitate da, pertsona batzuk beste batzuek erakarririk senti daitezen egiten baitu. Maitasuna potentzia da, dugunik hoberena biderkatzen baitu, eta gizadia bere egoismo itsuan gal ez dadin ahalbidetzen baitu. Maitasunak agertu eta azaldu egiten du. Maitasunagatik bizi eta hil ohi da jendea. Maitasuna Jainko da, eta Jainkoa maitasun da. (Einstein-ek alabari egindako azken gutunaren zatia)

§ Oseas profetaren liburutik 11,1.3-4. 8c-9.

Honela mintzo da Jauna:

«Israel haurra zela, maite izan nuen; eta Egiptotik dei egin nion neure semeari.

Nik erakutsi nion oinez ibiltzen Efraimi, besoetan eraman nuen;

hala ere, ez ziren ohartu Nik nituela zaintzen.

Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz: haurtxoa aurpegiraino jasotzen duena bezala nintzen haienztat; makurtu eta jaten ematen nien.

Ikaraz jartzen zait bihotza, dardaraz erraiak.

Ez diot haserreari pizten utziko; ez dut Efraim berriro hondatuko,

Jainkoa bainaiz Ni, ez gizakia, santua Ni zuen artean, eta ez nator haserre-suminez».

[Is 12,2.3 eta 4bcd.5-6: Aterako duzue ura pozik salbamenaren iturrietatik.]

§ San Paulok Efesoarrei 3,8-12.14-19.

Senideok: Niri, fededun guztien artean txikiena naizen honi, dohain hau eman dit Jainkoak: Kristoren neurrigabeko aberastasuna jentilei hots egitea, eta guztiei argi adieraztea nola ari den betetzen, Jainkoagan, gauza guztien egileagan, betidanik gordea zegoen asmo ezkutua. Horrela, agerian jartzen zaie orain, Elizaren bitartez, zeruetako aginte eta botereei Jainkoaren era askotako jakinduria, berak betidanik zuen, eta Kristo

8

Ostirala / Barikua

EKAINA / BAGILA

Urteko 9. astea.

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA.

San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria eta jesuita.*

San Maximo, *gotzaina.* San Heraklio, *gotzaina.*

Jesus gure Jaunagan burutu duen asmoaren jakinduria. Kristori esker eta beronengan dugun sinesmenaren bitartez ausartzen gara konfiantza osoz Jainkoagana hurbiltzera.

Horregatik, belauniko jartzen naiz Aitaren aurrean, bai zeruan eta bai lurrian familia ororen sorburu denaren aurrean, eta hau eskatzen diot: bere aintzaren aberastasunari dagokionez, sendo zaitzate bere Espirituaren indarrez, barrutik bizi zaitzeten; bizi dadila Kristo zuen bihotzean sinesmenagatik eta izan dadila maitasuna zuen bizitzaren erro eta oinarri. Horrela ulertu ahal izango duzue, fededun guztiakin batera, zein zabal eta luze, zein garai eta sakon den Kristoren maitasuna; ezagutuko duzue jakintza ororen gainetik dagoen maitasun hori, eta, horrela, Jainkoaren betetasunaz beteko zarete.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 19,31-37.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuk gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako biei; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioena, zuek ere sinets dezazuen.

Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratuko diote».

Jainkoa maitasun da, diosku San Joanek. Maitasunak maite du eta maita dezaten uzten du. Maite dugunean eta maite gaituztenean: orduan gertatzen gara salbatuak geure bizitzako ezkortasun guztitik eta geurerik hoberena garatu ohi dugu: barnean ditugun ahalbideak, zain daudenak, maitasunak hazten utz diezaien. Horrela gaitu Jainkoak salbatzen. Batzuetan hartarainoko zirrara senti genezake Jainkoaren Semeak gurekiko konpromisoan jasan duen oinazeagatik, non pentsatzera jo baikenezake salbatzen dutenak muturrerainoko oinazea, iltzeak, arantzak bakarrik direla eta Jesusen odola, azken tantaraino isuria, lantzak zeharkatutako saihetsetik atera zitzaiona.

Baina ez, maitasuna da inporta duena, maitasunak gaitu gaitzetik ateratzen, hain konprometitua den maitasunak non Jesusengan esklabo baten heriotza jasateraino iritsi baitzen; hain hurbilekoa bere garaiko bizirik hautsienei eta suntsituenei. Saihetseko bere zauri irekia, bere bizia eman izanaren sinbolorik biziena du. Horregatik sartzen gara beraren bihotzaren hondoeneraino. Izatez, han gorde izan gaitu eta gordetzen gaitu Jesusek beti, beraren suharra eta poza garelako. Gaur eska diezaiozun, egin dezala gure bihotza berea bezalako, maitatzeko gai eta maitatzen uzteko gai, maitasun partekatua bakarrik salbatzen baitu.

9

Larunbata / Zapatua EKAINA / BAGILA

Urteko 9. astea.

Andre Maria Birjinaren Bihotz Guztiz Santua.
San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea*. San Jose
Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu)*, *jesuita*.

§ San Paulok 2 Timoteori 4,1-8.

Anaia maitea: Jainkoaren aurrean eta, errege bezala agertuz, biziak eta hilak epaitzera etorriko den Kristo Jesusen aurrean, erregutzen dizut: hots egin Jainkoaren hitza; ekin garaia denean eta ez denean, eman arrazoiak, zentzarazi eta aholkatu, zeure pazientzia guztia eta irakasteko gaitasuna erabiliz. Etorriko baita gizon-emakumeek irakaspen osasungarria jasango ez duten garaia; beren grinen eraginpean, maisuz inguratuko dira, beren belarrien atsegingarri; egiatik saihestuko dituzte belarriak eta ipuinetara bihurtuko. Zuk, ordea, jokatu zuhur gauza guztietan, eroan sufrimenduak, ekin Berri Ona zabaltzeari, bete ondo zeure zerbitzua.

Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garai-penaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

[Sal 70 [69]: Zu zara nire laguntzaile eta askatzaile, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik, gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalem gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrela-

EKAINA / BAGILA Larunbata / Zapatua

Urteko 9. astea.

Andre Maria Birjinaren Bihotz Guztiz Santua.

San Efren, *diakonoa eta eliz irakaslea*. San Jose Antxietakoa, *apaiza (Brasilen apostolu), jesuita*.

9

koan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zion: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Mariak, hiru egun bila larri egin ondoren, bere semea Tenpluan aurkitu zuenean, «zergatik egin diguzu hori?» galdetu zion. Eta ez zuen ulertu semearen erantzuna. Bihotzean gorde zuen misterio hau. Hor, bihotzean, eraman ohi zituen Jesusena bezalako bizi bereziko pozak, eta onartzen zuen, orobat, bat batean ulertzen ez zuena ere. Maite dugun jendearen bizia gure ikusmoldean sartzen ez denean eta gure besarkadatik urrun dagoenean, bihotza da jende horri bizirik eusteko leku bakarra, gauzak argitu eta zentzuz beteko diren arte. Horrela izango gara maite dugun eta haziz doan jendearen bidelagun.

§ Hasiera liburutik 3,9-15.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari:

«Hori egin dualako,

madarikatua izango haiz

abere guztien eta basapiztia guztien artean;

sabel gainean ibiliko haiz arrastaka

eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan.

Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa;

honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

[Sal 130 [129]: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 4,13–5,1.

Senideok: Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugarik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik,

Urteko 10. astea.

San Alexandro, *gotzaina*.

Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta honen ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere askorengan ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Horregatik, ez dugu adorea galtzen. Gure gorputza hondatzen ari bada ere, barrutik indarberritzen ari gara egunetik egunera. Izan ere, oraingo gure nekeek, une batekoak eta arinak izanik, betikoa den aintza paregabea prestatzen digute. Geure begiak ez ditugu ipintzen ikusten diren gauzetan, ikusten ez direnetan baizik; ikusten direnak behin-behinekoak baitira; ikusten ez direnak, berriz, behin betikoak.

Jakin badakigu, mundu honetan bizileku dugun oihal-etxola hau hondatzen bazaigu ere, badugula zeruan betiko bizilekua, Jainkoak prestatua, ez giza eskuz egina.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3,20-35.**

Aldi hartan, Jesus etxera itzuli zen bere ikasleekin. Berriro ere jendetza handia bildu zen, eta ezin zuten otordurik ere egin Jesusek eta ikasleek. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramateko asmotan etorri ziren, burutik egina zegoela esaten baitzuten.

Jerusalemdik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beeltzebul dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Jesusek beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola bota dezake Satanasek Satanas? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen

familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik baldin badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor sartu indartsu baten etxean lapurretara, aldez aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak.

Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango; errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei erantzun zien hau.

Jesusen ama eta anai-arrebak etorri ziren eta, kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen Jesusen inguruan eserita, eta esan zioten: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zeure bila».

Jesusek erantzun zuen: «Zein dira nire ama eta anai-arrebak?» Eta, inguruan eserita zituenei begiratu, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia, arreba eta ama».

Geure askatasunaren gauza da gaizkia egiteko ahalbidea. Barnetik dominatzen gaituzte gaizkiaren indar ilunek, psikologiko eta espiritualek; batzuetan ezin izaten dugu hala-koak identifikatzeko modurik; juduek deabru esan ohi zieten. Kanpotik ere loturik gaude askotan: hor izaten ditugu era askotako beldurra, lilura eta eragina. Esan genezake aske garela nahi duguna egiteko, baina ez gara guztiz aske. Hein batean, geure bihotzari atxikiak diren kate ikusezinek kateatzen gaituzte.

Urteko 10. astea.

San Alexandro, *gotzaina*.

Jesus gurekin egotera etorri zen, edozein indar etsaik kateaturik egotetik libratzen gaituen maitasuna senti dezagun, eta, horrela, on egin ahal dezagun askatasunez, gatazkak gaindituz eta bizi berria kreatuz. Jende asko libratu ohi zen gaitzetik Jesusekin topo egitean. Hori nola gerta zitekeen ulertzen ez zuten eta herriaren aurrean ospea galdu nahi ez zuten judu-buruza-giek esaten zuten, deabruaren buruzagiaren laguntzaz sendatzen zituela Jesusek gaixoak. Jesusengan hurbiltzen zaigun Jainkoaren onberatasunak, eta beti bidelagun dugun Espiritua dela bide geure barnean sentitzen dugunak, bere maitasunaz saneatzen gaitu, gainerakoak maite ahal izateko. Askatasun honetan beti joan gaitzke hazten; horixe dugu bizitzako zeregin nagusia eta ederrena.

«Tiber ibaiak gainezka egiten badu, Nilo ibaia soroetara iristen ez bada, zerua mugitu gabe badago, lurrak dar-dar egiten badu, gose-tea eta izurritea etortzen badira; orduan oihu egiten duzue: kristauak piztietara» (Tertuliano [K.o. 160-220 inguruan]).

Urteko 10. astea.

SAN BERNABE APOSTOLUA.

[Ap. Eginak 11,21b–26; 13,1–3. Bernabe gizoan ona baitzen, eta Espiritu Santuaz betea. Sal 98 [97]: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-13.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.

Edozein herritan nahiz auzotan sartzan zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bake-rik gabe geldituko dira».

Ezin egin da Apostoluen Eginak liburuan ageri dena baino iruzkin hoberik Bernabez: «Bernabe gizon ona zen, eta Espiritu Santuaz eta sinesmenez betea». «Gogotsu» eta «pozik» erregetzen zien elkaturik jarraitzeko. Hau eman izan da Antiokian eratzen hasia zen elkartean gertatzen ari ziren konbertsio ugarriren arrazoitzat. Asko hitz egin digu Frantzisko aita santuak kristau-bizitzan izan eta agertu behar den pozaz eta, zehazki, ebanjelioa hots egitean. Ezin eskualdatu da berri on bakar bat ere bihotz goibelez eta errepikatzearen errepikatzeaz higatuak eta aspergarri diren hitzez.

EKAINA / BAGILA Asteartea / Martitzena
Urteko 10. astea.

San Joan Sahagungoa, *apaiza*. Santa Paula
Frassineti, *fundatzailea* (*Santa Dorotearen ahizpak*).
San Onofre, *ermitaua*.

12

[1 Erg 17,7-16: Irin-katilua ez zen ahitu, Jaunak Eliasen ahoz esana zuen bezala. Sal 4: Erakutsi guri, Jauna, zeure aurpegi argitsua!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurra-
ren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez
du jadanik ezertako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko
baizik.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi
gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean
ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guz-
tiei argi egin diezaien.

Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi,
zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Jesusek ez die esan behartsuei eta baztertuei, bide-ertzean
eseririk eskua luzatuz bizitzeko, igarotzen den jendeari beren
lantuaz bihotza hunkitze aldera. Hori bukatua da. Zoriontasu-
nak biziz, gatz bihurtuko dira gozorik gabeko ahosabaientzat,
eta argi mundu honetako etxe osoa argitzeko. Beraiekin topo egi-
ten dutenek sumatuko dute beraiengan, guztiok, geure bihotza-
ren eta geure herriaren azken egiaztat, bilatzen ditugun zaporea,
gustua eta argia. Erabat gatz eta argi izatea: horra gure boka-
zioa, eta ez etiketa ezartzen zaien, pisatzen eta saltzen diren une
bateko errainu eta zapore huts.

[1 Erregeak liburutik 18,20-39: Ikus dezala herri honek, Jauna, Zu zarela Jainkoa, eta zuk itzularaziko diozula bihotza zeuregana. Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.

Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Aginduek eta arauak norabidetu zuten judu-herria mendentan. Orain, ordea, aro berri batean gaude, eta jada eskas dira haiek. Erreinua erabateko berritasun batekin dator, geroari irekirik. Jainkoa eta gainerakoak maitatzea, benetako profetek jada iragarri zituzten ahalbide handien kreatzaile da. Legeak lagungarri ditugu eguneroko bizitzako gorabeheretan ez galtzeko, baina maitasunak inoiz imajinatu ez dena asmatzen du eta giza harremanak eta kreadio osoa bazterketarik gabe antolatzen mugiarazten gaitu. Soilik maitasun handi batek, gogo-berotasun handi batek, jaioarazten du erreinuaren geroa mundu honetan.

Urteko 10. astea.San Eliseo, *profeta*.

[1 Erregeak liburutik 18,41-46: Eliasek otoitz egin, eta zeruak euria egin zuen. Sal 65 [64]: Oi Jainko, gorespena zor zaizu Sionen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,20-26.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan.

Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da.

Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia.

Konpon zaitex lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Jainkoaren erreinua edozein pertsonarekin hautsitako harremanak saneatzera eta berregitera dator. Saneatze honek

Urteko 10. astea.
San Eliseo, *profeta*.

lehtasuna du kultuarekiko. Fariseuen logikak, aldiz, kultuaren lehtasuna aldarrikatzen zuen. Jainkoari eskaintza bat egiten dioten eskuek ezin izan dute barnean etsaitasunaren surik, norberaren bihotzean itsatsirik. Elkartearen gorputzean blokeaturik eta hautsirik diren zainak berregiteko dira barkazioa eta elkarrizketa, zati bat ere hilik utzi gabe, guztien bizitzan txertatzen direlarik. Jesusek ez du proposatu gutxieneko batzuen erlijiorik «salbatzeko», baizik eta Espiritutik jariatua den biziari bidea ireki nahi dio, pertsona eta gauza guztiak berreginez.

Jakinduria

- Ez esan sekula hurkoa aurrean ez dela haren aurrean esango ez zenukeen zerbait. (María Magdalena de Pazzi)
- Metatu lasaitasun eta baretasun gordailu bat, hartara jo ahal izateko krisi edo zailtasunen bat ate joka etorriko zaizunean. (Anonimoa)
- Gailurruan izango zarenean, zure adiskideek jakingo dute zein zaren. Behean egongo zarenean... jakingo duzu zein diren haiek. (Anonimoa)
- Problema bakoitzak bere baitan izan ohi du bere irtenbiderako hazia. (Wayne Dyer)

Urteko 10. astea.

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea (Aldareko Sakramentuaren Adoratzaileak)*.

San Amos, *profeta*.

[1 Erregeak liburutik 19,9a.11-16: Zaude zutik mendian, Jau-naren aurrean. Sal 27 [26]: Zure aurpegi hila nabil, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,27-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begirutzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregan-dik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregan-dik urruti; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino.

Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman die-zaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak -legez kontra elkartuak ez badira behintzat- adul-teriora bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ez-kontzen denak adulterioa egiten du».

Klandestinitatean landuz doan desira da bekatuzko gure jokabidearen erroan dagoena. Batzuetan lur azpiko ur-korronteak eratzen dira gugan; beren ur-emanaren irudipenez, pentsamenduz eta oldarrez gizentzen dute, aterik gabeko etxeak bezala irekiak diren gure zentzumenera iristen diren horiez; eta gure afektibitate sako-neraino sartzen dira, harik eta momentu bat iristen den, zeinetan gure gorputzak ezin geldiarazten baititu jada, geuri eta besteei kalte egiten diguten egintzei bide emanez. Inporta duena, Jesusen eta ha-ren erreinuaren gogoa eta nahia lantzea da, gogo eta nahi izan dai-tezen barnetik antolatzen gaituen grina edo gogo, eta gogo eta nahi horiek izan daitezen gure egintzetan agertzen direnak.

Urteko 10. astea.

Santa Justina, *martiria*.San Bernabe, *monjea*.

[1 Erregeak liburutik 19,19-21: Eliseok jaiki eta Eliasi jarraitu zion. Sal 16 [15]: Zu zara, Jauna, nire ondarea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu.

Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoagandik dator».

Jesus, Mendiko Hitzaldian, gainerakoekin eta Jainkoarekin izandako harreman sanoez mintzo zaigu. Ez dugu beharrezkoa, Jainkoa tartean jartzea, hura gure egintzen kanpoko lekuko jartzea, geure hitzak sinesgarri egiteko. Jainkoa garenaren eta bizi dugunaren oinarri eta jatorri bihozko ematea da arazoa. Gure bizitza jatorra eta Jesusen bizitzak arnastua denean, aski izango dugu «bai» bat edo «ez» bat. Geure kulturak «bai» esatera bultzatzen gaitu, uzten denari «ez» esan gabe, eta zatiturik gelditzen gara... Zenbat hitz, irudi, musika eta ikuskizun, ganorarik gabeko, edertzen den, gu liluratu eta egiazko biziarekiko gure «bai» hori galduan uzteko!

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.

San Inozentzio, *martiria*.

§ Ezekiel profetaren liburutik 17,22-24.

Honela mintzo da Jainko Jauna:

«Zedro garaiaren adaburutik hartuko dut Nik ere, kimu bat hartuko dut haren adar-puntatik, eta mendi garai eta bikain batean landatuko.

Israelgo mendi garaian landatuko dut; adarrak zabalduko ditu eta fruitua emango, zedro bikain bihurtuko.

Mota guztietako hegaztiak biziko dira bertan eta habia egingo haren itzalpean.

Basoko zuhaitz guztiek jakingo dute Nik, Jaunak, zuhaitz garaia beheratu eta txikia goratu egiten dudala, zuhaitz hezea ihartu eta iharra heze-berritu.

Nik, Jaunak, esandakoa bete egingo dut».

[Sal 92 [91]: Bai ederra, Jauna, Zu gorestea!]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 5,6-10.

Senideok: Uste onez beteak gaude beti, jakinik, gorputz honetan bizi garen bitartean, Jaunagandik erbesteratuak gaudela. Sinesmenaren argiak gidatzen gaitu, eta ez ikusten dugunak. Uste onez gaude, bai, baina nahiago genuke gorputz honetatik erbesteratuak izan, Jaunarekin bizitzera joateko.

Nolanahi ere, gorputzean nahiz gorputzetik kanpo, Jau-nari atsegingarri izaten ahalegintzen gara; guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, nork bere ordaina hartze-ko, gorputzean bizi zelarik egindako ongiaren ala gaizkiaren arabera.

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.San Inozentzio, *martiria*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4,26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua gizonak lurrean hazia ereitean gertatu ohi denaren antzekoa da; hura lo nahiz iratzarririk egon, gau eta egun, hazia erne eta garatu egiten da, hark nola ez dakiela. Lurrak berez ematen du fruitua: lehenengo landarea, gero galburua eta, azkenik, alea galburua betean. Eta garia heltzean, igitaiaz ekiten zaio, uzta-roa da eta».

Beste hau ere esan zien: «Zeren antzeko dela esango genuke Jainkoaren erreinua? Zein parabolaren bidez adieraz genezake? Mostaza-haziaren antzekoa da: lurrean ereitean, hazi guztietan txikiena da; erein eta gero, ordea, gora egiten du eta beste barazki guztiak baino handiagoa egiten da; eta hain handiak dira botatzen dituen adarrak, txoriek habia egiten baitute haren itzalpean».

Horrelako parabola askoren bidez iragartzen zion Jesusek mezua, haiek ulertzeko eran. Ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik; baina bere ikasleei, bakarrean, guztiaren esanahia adierazten zion.

Desengainu-aldian bizi gara, aldaketa sozialak egiteko hainbat eta hainbat promes hutsal gertatu direla ikusirik. Horrek individualismora lerratzen gaitu, nork bere eta hurbilekoen ongizatea bakarrik bilatzera eragiten digu, mundua diru-gose diren beste esku batzuetan utzirik.

Jainkoak Jainkoaren erreinua erein du gugan, zuloan hazi txiki bat ereiten den bezala. Ez digu ezer indarrez ezarri giza

Urteko 11. astea.

Santa Valeriana, *martiria*.

San Inozentzio, *martiria*.

askatasunari jaramonik egin gabe, ez du jarri ere agerian bat-batean pertsonaren eta gizartearen hazkunde-prozesu lasaia kontuan hartu gabe, ez du kreatu ere den-dena berak bakarrik gure sormenaren ekarpena alde batera utziz. Hau da garrantziko: dinamismo bezala erein duela Aitak, den guztia zeharkatzen duen eta zurrundua edo desbideratua den guztia eraberritzen duen dinamismo bezala, den-dena behin betiko eta azken adiskidetzera bideratuz.

Nekazariak ez du jakiten nola doan hazia eraldatzen lurra-
ren misterioan; geuk ere ez ditugu entzuten giza historiaren tau-
padak, ziur ezagutuko ditugun bakerantz eta zuzentasunerantz
eragiten diguten dinamismo guztiak. Uzta segurua da, eta bi-
zi-ahalbiderik txikiena, koskorrena iruditu arren, esperantzaz
lantzeko gonbita egin digu Jesusek.

Buru hutsa ala buru betea?

Esan zuen aitak: «Halaxe da. Hutsik doan gurdi bat da».

Galdetu nion aitari: «Nolatan dakizu hutsik doala?»

Eta aitak: «Gauza erraza da jakitea hutsik doan ala ez antzematea: ateratzen duen zaratarengatik. Zenbat eta hutsago, orduan eta zaratatsuago».

Urteko 11. astea.

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*.
San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*.

[1 Erregeak liburutik 21,1-16: Nabot harrikatu egin zuten, hil arte. Sal 5: Egin jaramon, Jauna, nire intziririari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

Harrigarria da gatazka-egoeratan jarduteko Jesusek egin digun proposamena. Garai hartan, irainaren neurriko erantzuna ematea legezkoa zen eta arrazoizkoa: «begia begi truk», ez bi begiak; erantzunak ez zuen izan behar erabatekoa ere, kalteilea eskarmentatzeko. Hori ez da ezertako on. Erresumina errauspean geldituko litzateke, haziz joango litzateke umiliatua izan den pertsonaren barnean eta kolpe handiagoz lehertuko litzateke gerora. Indarkeria-espinal horri stop esateko eskatu digu Jesusek, kaltegileari on eginez. Ebanjelioaren araberrako jarrera honek barne-adore handia eskatzen du, barkatzeko eta geroagoko bizi berri bateko harremanei bidea irekitzeko.

Urteko 11. astea.

San Romualdo, *abadea*.

Santa Juliana Falconieri, *birjina*

[1 Erregeak liburutik 21,17-29: Israel bekatura eraman duzu.
Sal 51 [50]: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin otoitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, gutziz onak, zeruko zuen Aita gutziz ona den bezala».

Ebanjelioko zuzentasun berria bizi duenak, maiteko ditu etsaiak eta otoitz egingo du erasotzaileentzat. Anai-arreba arteko indarkeriaren infernura eraman dezaten utzi gabe, liberatu egiten du erasotzailea beraren dinamismo edo indar sunsitzaileetatik. Maitasunetik eta otoitzetik, non Jainkoaren izateko eta jarduteko erari lotzen baitzaio, bizirako bideak asmatuko ditu halakorik ez zen lekuan. Horrela jarduten dugunean, Aitaren seme-alaba izaten gara, eta jende onarentzat eta gaiztoarentzat eguzkia aterarazten eta euria banatzen duen haren bihotzetik birjaiotzen gara. Alabaina, etsaia maitatzeak eska lezake haren kontra egitea ere, zigorrik eza bihotzean txerta ez dakion eta kalte egiten jarrai ez dezan.

[2 Erregeak liburutik 2,1.6-14: Suzko gurdi batek bereizi zituen bata besteagandik, eta Elias zerura igo zen. Sal 31 [30]: Izan bihotz, Jaunagan itxaroten duzuen guztiok!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango.

Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Urteko 11. astea.

Santa Florentina, *birjina*.

San Silverio, 58. *aita santua*.

Egintza onak eta errukizkoak edo baraua ageri-agerian egiten dituenak, gizaki zuzenaren ospea irabazteko eta gizarte-ospearen hurrenkeran igotzeko, hartua du jada bere egintzekin bilatzen duen ordainketa haizetsua. Halakoa ez da ari Jainkoari begira, baizik eta jendaurreko iritziari begira. Jaunari begira ari ohi denak, nabarmenkeriarik gabe jarduten du eta gainerakoen ona bilatzen. Ez dihardu inbertsiogile batek bezala, onurak jasotzeko, baizik eta ebanjelioaren araberrako doakotasunez. Doan ematen duelako, sentituko ditu bere bihotzean partekatutako mesedeari darizkion doakotasuna eta poza, eta bere egunak ebanjelioaren araberrako eskerronez eta usainez beteko ditu.

Adin handikoen zaintzailea

Jaioberri den haur bat zaintzeak ere kentzen dizu bizi-zati bat, lanaren, adiskideekin irteteko aukeraren, ohituren zati bat. Baina haurrak maitasuna eragiten du; gainera, zaindu behar horrek muga bat du, gutxituz doa haurra hazi ahala.

Adin handikoen zaintzarekin besterik da.

Hasiera batean premialdiko gauzatzen hartzen dena –aita edo ama zaintzea–, luzatuz doala konturatzen zara, urtea etorri urtea joan; ez zaio ikusten azkenik; gainera, afektibitate-erlazioa galduz doa, adin handikoaren fakultateak eskastuz doazen neurrian. Lehen, gauzak egiten zituen pertsona zen; bere harremanak zituen familiarekin; denborarekin “oztopo” bihurtuz doa. Zaintzailearen askatasun-falta jasazinezko bihurtzen denean, irteera bakarra adin handikoaren heriotzan ikusten da. Orduan ere, ordea, erruduntasun-komplexua sortzen da; penarekin batean, arintasun-sentsazio pixka bat ere sortzen da. Atsekabea sentitzen du zaintzaile ohiak, atsegina sentitzen duelako. (Egoera bizi izan duen baten deklarazioa)

Urteko 11. astea.

San Luis Gonzaga, *jesuita*.San Ramon Rodakoa, *gotzaina*.

[Siraken liburutik 48,1-15 (gr. 1-14): Elias zurrunbiloan desagertu zenean, haren espirituaz bete zen Eliseo. Sal 97 [96]: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz:

“Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, eta ez gu tentaldira eraman, baina atera gaitzazu gaitzetik”.

Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Jesusen irakaspenaren arabera, otoitz egitea, mugagabeko onberatasun dugun Aitaren aurrean konfiantzaz jartzea da, gure premiei erantzuteko noiznahi arretaz dagoen haren aurrean, alegia. Haren begiratuia gudanantz ez da sekula eteten, ez da lausotzen, ez da koloka jartzen. Gure jarrerak komeni zaiguna bilatzea izan beharko luke, Aita dohain bezala onartu ahal izateko, bera argudioz eta hitzez asperrarazi gabe, bera konbentzitzen saiatu gabe geuk dakigula zer eman behar digun. Niretzat ona eskatzeak kontuan izan behar du gainerakoentzat on dena; izan ere, familia bat eratzen dugu eta guztiok pluralean esaten dugu: «Gure Aita».

San Paulino Nolakoa, *gotzaina*.
San Joan Fisher, *gotzaina* eta Tomas Moro santua,
aita familiakoa, martiriak.

[2 Erregeak liburutik 11,1-4.9-18.20: Joax gantzutu zuen, eta denek oihu egin zuten: «Gora erregea!» Sal 132 [131]: Jau-nak Sion aukeratu du bere bizileku.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu mundu honetan zeuen ondasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen. Pilatu zeruan zeuen ondasunak, han ez baititu sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen ere. Zeren, zure aberastasu-na non, zure bihotza han.

Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argitan ibiliko da. Baina begia gairxo baduzu, zure gorputz osoa ere ilunpetan ibiliko da. Beraz, zure barruan argi izan behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!»

Dirua metatzea bizitzaren erdigunean ipintzen badugu, geure funtsa gauza haizetsu batean ariko gara kokatzen: edozein unetan gal daitekeen batean, dela pipiak jo duelako, dela lapurrak edota finantza-krisialdiak eraso diolako; batez ere, giza bihotzaren premiarik sakonenei ezin erantzun diena izango da. Altxor nagusia, giza bihotz argituaren desirak polarizatu behar dituena eta une bakoitzean bihotza zoragarriro bete behar duena, ebanjelioaren araberako zuzentasuna da, inoiz ere galduko ez dena, eta guztientzat bizitza duina eskatzen duena. Altxor hau bere asmoen erdigunean ipintzen duenari, barnea antzutzen dion azakeria ezdeus bihurtuko zaio.

Urteko 11. astea.

Santa Agripina, *martiria*.San Urbano, *martiria*.

[2 Kronikak liburutik 24,17-25: Zakarias tenplutik aldarera bitartean hil zenuten. Sal 89 [88]: Beti gordeko diot neure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6,24-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maiteko, edota bati leial izango zaio eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete Jainkoaren eta diruaren morroi izan.

Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio?

Asko kezkatuta ere, zuetako nork luza lezake apurtxo bat bizitza? Eta jantziaz, zergatik kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean nekatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako bat bezain apain.

Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar suan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, zenbatez gehiago zuek, sinesmen txikikook? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Jentilak arduratu ohi dira horiez guztiez. Zeruko zuen Aitak badaki horien guztien beharra duzuela. Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna, eta gainerako guztia gehigarri emango dizue Jainkoak.

Urteko 11. astea.Santa Agripina, *martiria*.San Urbano, *martiria*.

Ez kezkatu, bada, biharko egunaz, biharko egunak ere ekarriko baitu bere kezka. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhausteak».

Eskura dugun» dirua, jabetu daiteke gutaz, nagusi bihur daiteke, biziera bat ezar diezaguke, harremanak izateko modu bat, kontsumo-modu bat ezar diezaguke. Beharrezkoa da nola-baiteko aurreikuspen bat bihar egunerako, hain nahasia dugun geure mundu honetan; baina aurreikusiz egindako metaketak ez gaitu segurtatuko sekula gorabehera guztien kontra. Jesusek geldialdi bat egitera gonbidatu gaitu eta loreei eta txoriei errepartzera. Beren ahuldadean, badute jatekorik eta txundiarazi egiten gaituzte beren kolore ederrez. Bada norbait sorkari txikien edertasunaz arduratzen dena. Bila ditzagun Jainkoaren erreinua eta haren zuzentasuna; hainbat eta hainbat milioi jenderi gerta ez dakion ziurgabetasun kroniko baten larrian bizi beharra.

§ Isaias Profetaren liburutik 49,1-6.

Entzun, uharteok! Aditu, urrutiko herriok!
 Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak,
 amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz.
 Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa,
 bere eskupean babestu ninduen;
 gezi zorrotz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde.
 Eta esan zidan:
 «Zu zara nire zerbitzaria, Israel,
 zure bidez agertuko dut neure ospea».

Nik, berriz, hau nioen:
 «Alferrik nekatu naiz;
 alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak».

Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea,
 Jainkoaren eskuetan nire lansaria.
 Orain honela mintzo da Jauna,
 amaren sabelean eratu ninduen haren zerbitzari izateko,
 Jakoben leinuak harengana bihurrarazteko
 eta Israel herria biltzeko.

Ohorez jantzi nau Jaunak
 eta neure Jainkoa izan dut indar.
 Jaunak esan dit:
 «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea,
 Jakoben leinuak berreraikitzeke
 eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko.
 Nazioen argitzat ezarriko zaitut,
 nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

Urteko 12. astea.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA.

San Orentzio, *martiria*.

[Sal 139 [138]: Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako.]

§ Apostoluen Eginak liburutik 13,22-26.

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi guztia beteko duena”».

Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: “Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere”».

Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,57-66.80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuen. Jakin zuten auzokoe eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkieten.

Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik».

Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du ize-

na». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakariasi, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goresten.

Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?» Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

Seme gizon eginak beste pertsona batzuen beharra izan zuen bere etorrera prestatzeko. Herri txiki batek Semeari toki bat berak prestatuko zion esperantza edo ustea bizi zuen, beraren zain egon eta berari harrera egiteko. Mariak eta Josek harreara ona egin zioten, ez soilik Jainkoaren Seme bezala, baita gure historiako seme bat izan zedin ere. Jesus, bere misiorako prestatuz, jakindurian eta grazian haziz zihoan bitartean, Jainkoa Joan profeta prestatzen ari zen, Jesusi bidea atontzeko eta esperoan larri zegoen herriari hitz egiteko. Isaiasek profetizatua zuen jada Mesias bat, Israel herriaren salbazio ez ezik, argi ere izango zena nazio guztientzat, inolako herri-mugarik gabe.

Isaiasek sentitu zuen, amaren sabeletik beretik aukeratu zuela bera Jainkoak. Joan, berriz, ezustean sortu du agorra zen batek, bere sabelean garatu eta, segidan, munduratu. Onartua izateko egin da Jesus gizon eta gure historian erabat txertatzeko. Bide desberdin asko, guztion Jainkoak bakarrik ezagutzen dituenak, doaz saretzen ezkutuan, guztiak puntu berean bat egingo duten arte: Jainkoaren Semearen, Mariaren semearen, haragian bat egingo duten arte. Gaur ere hari desberdin eta misterioitsu asko ari dira bat egiten eta hariltzen, Jesusen egitekoari segida emateko.

Urteko 12. astea.

San Felix, *ermitaua*.Santa Orosia, *birjina*.San Adalberto, *diakonoa eta abadea*.

[2 Erregeak liburutik 17,5-8.13-15a.18: Jaunak bere aurretik bota zuen Israel, eta Judaren leinua besterik ez zen gelditu.

Sal 60 [59]: Emaguzu garaipena zeure eskuinaz, Jauna, eta erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,1-5.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez gaitzetsi inor, Jainkoak zuek gaitzetsi ez zaitzaten. Izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak; eta zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak.

Nolaz ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta ez zara zeure begiko habeaz ohartzen? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Uztazu zeure begitik lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean habea duzula? Itxurazale hori! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Mendiko Hitzaldiaren azken zati honetan, tentazio batez ohartarazi gaitu Jesusek: beraren mezua besteei aplikatzeko tentazioaz, alegia, hura norberarentzat hartu gabe. Kristau-bizitzako maisu handiek diote, funtsezkoa dela «nork bere burua ezagutzea», baita beren bizitza espirituala sakontasun handiz bizi dutenentzat ere. Ez da erraza nork bere burua ezagutzea. Norberaren nartzisismoak ez digu uzten zer garen ikusten. Jesusi hurbilago bizitzeak, sentiberatasun apala emango digu gure motibazio eta jardueretan ezkutatu ohi den anbiguitasuna hobeto sumatzeko; baita geure bihotza, begiratua eta konpromisoak saneatzeko ere.

Urteko 12. astea.

San Pelaio, *martiria*.San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*.

[2 Erregeak liburutik 19,9b-11.14-21.31-35a.36: Nik babestuko dut hiri hau eta salbatuko, neuregatik eta Davidengatik. **Sal 48 [47]:** Sendo ezarri du Jainkoak bere hiria betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,6.12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harribitxiak, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzateten.

Besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zeuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena.

Sar zaitezte ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak!»

«**H**ar itzazue besteak, besteek zuek hartzea nahi duzen bezala». Gauza egokia izango litzateke, baieztapen hau burubide etiko unibertsaltzat hartzea, desberdintasun asko eta askoren hurbiltasuna, inoiz ez bezalakoa, bizitzen ari garen honetan kalitate handiagoko harremanak sortzeko; kontuan izanik,aldi berean, gatazka handiak bizi ditugula desberdintasun ekonomiko, arrazazko, erlijioso, kultural eta generozkoek eraginda. Ez erantzutea guk, bestek gu hartzen gaituzten bezala, baizik eta geuk aurrea hartzea harreman gizatiar baikorrekina: Jesusek proposatu digun geroaren kreatzaile izatea da hori. Baina gogoan izan behar dugu, guztiak ez dutela ulertzen Jesusen proposamen hau, eta jo eta txikituak izan gintezkeela.

Urteko 12. astea.

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
San Zoilo, *martiria*.

[2 Erregeak liburutik 22,8-13;23,1-3: Erregeak irakurri zuen tenpluan aurkitutako itun-liburuko testu osoa. Ondoren ituna berritu zuen Jaunaren aurrean. Sal 119 [118]: Irakatsi niri, Jauna, zeure arauen bidea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofetekin! Ardi-larruz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik, edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik.

Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sura botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei».

Mota guztietako proposapenekin erasotzen gaituen kultura batean bizi gara. Hitzak eta irudiak barra-barra mugitzen dira gure zentzumenetara, liluratsu, zoriona promes eginez. Gozamen iheskor batekin konformatzeko eskatzen digute, bihar eskainiko diguten produktu berriaren esperoan. «Sasi profeta» asko ari dira paradisu kontsumitzaile, sozial eta politikoa eskaintzen: beren egintzekin kontrastatu beharrekoak dira. Fruituak agertzen du arbola baten nolakotasuna. Hitz hauek bereizmenarako burubide bat, printzipio bat, dira; aldi berean, gonbit bat dira guretzat, otsoen artean ebanjelioaren araberako emankortasuna bizitzeko.

Urteko 12. astea.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*.

[2 Erregeak liburutik 24,8-17: Joiakin erregea Babiloniara erbestera zuen Babiloniako erregeak, herriko handikiekin batera. Sal 79 [78]: Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoreagatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21-29.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Epai-egunean askok esango dit: “Jauna, Jauna, ez al genuen zure izenean hitz egin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?” Baina Nik erantzungo diet: “Ez zaituztet inoiz ezagutu; alde nigandik, gaizkileok!”

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Jesusek hitzaldi hau bukatu zuenean, txunditurik zegoen jendetza haren irakaspenaz, nagusitasunez irakasten baitzien, eta ez lege-maisuek bezala.

Mendiko Hitzaldiaren bukaeran, egintzak azpimarratzen ditu Jesusek; sustraitik ona den arbolaren fruituekin konpara-

Urteko 12. astea.

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria.*

tzen ditu, eta arroka irmoaren gainean eraikitako etxearekin. Jesusen irakaspena eskatzailea, zorrotza da, baina indartsua eta gizadi berriaren sortzailea. Aukera genezake, edota zer eraiki, edota «mundu arin edo likido» batean existitu, moda aldakorrek eta espiritualitate lausoez alde batera eta bestera garabiltzate-la, edota sendo eta kreatzaile bizi zoriontasunen konpromisoan, kasu askotan uraz goiti igeri eginez. Jesusek hots egin duena, bizi izateko da, ez boluntarismoz, baizik Aitaren dohain bezala.

Jainkoak zure beharra du

Bai, badakit Jainkoak bakarrik ematen ahal dizula bizia, baina zuk laguntzen ahal diozu hura pozik bizitzen.

Jainkoa bakarrik da esperantza-emailea, baina zuk laguntzen ahal diozu zeure adiskideari hura aurkitzen.

Jainkoa bakarrik da bidea, baina zu hatza zara harengana nola joan adierazteko.

Jainkoak bakarrik ematen ahal du maitasuna, baina zuk agertzen ahal diezu besteei nola maitatu.

Jainkoa bakarrik da indarra duena, kreatzen duena, ematen duena; baina guk animatzen ahal dugu bihotz galdurik dagoena.

Jainkoak bakarrik gordetzen eta luzatzen ahal du bizia; baina zuk egiten ahal duzu beterik edo hutsik egotea.

Jainkoak bakarrik egiten ahal du guretzat ezinezkoa dena; baina zuk egiten ahal duzu ahal dena.

Jainkoak bakarrik egiten ahal du eguzkiak gizon-emakume guztiak berotzea; baina zuk egiten ahal duzu adin handiko nekatu bat aukian esertzea.

Jainkoak bakarrik egiten ahal du haur baten haragia; baina zuk irribarre eragiten ahal diozu. (Sor Vicenta, Power Dios te necesita, zati bat)

§ Apostoluen Eginak liburutik 12,1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasotzen hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori juduei atsegin zitzaiela ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrarazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkartea otoitzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe.

Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri».

Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeen ondotik igarota, kalerera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldu zitzaien eta kanpora irten ziren. Kale bat igaro ondoren, aingeruak bakarrik utzi zuen Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

Urteko 12. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama.*

[Sal 34 [33]: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.]

§ San Paulok 2 Timoteori 4,6-8.17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; gainean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerrialdia maitasunez itxaro duten guztiei ere.

Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat».

Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Simon Pedro erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea».

Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko

Urteko 12. astea.

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK.

Santa Maria, *San Markosen ama*.

giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Gaurko irakurgaiek bi pertsonaia dakarzkigute batera: bien gainean eraiki zen hasierako Eliza. Oso desberdinak ziren biak. Pedro ikasle izan zen Jordanen Jesusekin topo egin zuenetik, lider izan zen ikasleen taldean eta elkartearen bozemaile Jerusalemgo kaleetan piztuera ondoren. Paulo, berriz, bertan izan zen Esteban hil zutenean. Formazio ona zuen, tradizioen zaintzaile leiala izan zen, kristau klandestinoen pertsegitzailea. Kristau eginik, ordea, etsaigo eta neke askoren artean zabaldu zuen fedea paganoen artean. Martiri hil ziren biak. Elizan bi karismen premia dugu, elkarteari batasunean eusten diotenena eta, egin-egindako eremu eta hizkuntzak utzirik, herri guztietara irreten direnena, beren bizieraz eta hitzez testuinguru berrietan Jesushots eginez.

Urteko 12. astea.

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak.

[Negar Kantak 2,2.10-14.18-19: Egin oihu Jaunari bihotzez, egin intziri, Siongo harresiok. Sal 74 [73]: Ez ahaztu betiko zeure dohakabeen biziaz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,5-17.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarrri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut».

Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkioinei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpoko ilunpera botako dituzte; han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Ondoren, ehuntariari esan zion: «Zoaz, eta gerta bekizu sinetsi duzun bezala». Eta ordu hartan berean, sendatua gertatu zen morroia.

Gero, Pedroren etxera joan zen Jesus, eta haren amaginarreba oheratua aurkitu zuen sukarrak. Hartu zuen Jesusek eskutik

eta sukarrak alde egin zion; orduan, emakumea jaiki eta zerbitzatzan hasi zitzaien.

Arratsean deabrudun asko eraman zioten Jesusi, eta honek deabruak bere hitzez bota eta gaixo guztiak sendatu zituen. Horrela bete zen Jainkoak Isaias profetaren bidez esana: «Hark bere gain hartu zituen gure ahuleriak, eta gure gaitzak eraman».

Jesusek ez du hartzen jendea, bakoitzaren izaera sozial edo erlijiosoari begira espero zitekeenaren arabera, baizik eta bakoitzarengan sumatzen duen alde bat hartzen du kontuan, eta sumatutako hori nabarmenduz nahasmendu sano baten eragile bihurtzen da bera. Herria zapaltzen duen erromatar ehuntari bat fededunaren eredutzat ematea gauza ausarta da. Gizon honek fedea edota ustea du Jesusen onberatasun saneagarrian. Sinesgabetasun eta nahasmendu erlijiosoko geure aldi honetan, jendearen bihotzari eta egintzei, etiketarik ezarri gabe, begiratzan badiegu, Jainkoaren hurbiltasuna sentituko dugu lehenago urruneko pertsona zirela uste genituenengan.




UZTAILA / GARAGARRILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Ebanjelizazioa: **Apaizak beren misio pastoralean**

Beren artzain-lana nekaturik eta bakardadean bizi duten apaizak adoreturik senti daitezen, Jaunaren eta anai-arreben adiskidetasunaren laguntza sumatuz.



Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*). Santa Regina, *aitorlea*.
Santa Ester, *erregina*.

§ Jakinduria liburutik 1,13-15;2,23-24.

Ez zuen Jainkoak egin heriotza,
ez du atsegin bizidunak galtzea;
izan ere, irauteko egin zituen hark gauza guztiak;
munduko izakiak osasungarri dira,
ez dute beren baitan pozoi hilgarririk,
eta Heriok ez du lurtean aginterik,
hilezkorra baita zuzentasuna.

Hilezkor izateko egin zuen Jainkoak gizakia, bere izatearen
irudi egin zuen;
baina deabruaren inbidiaz sartu zen heriotza munduan eta
harenak direnek jasango dute.

[Sal 30 [29]: Goratuko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 8,7.9.13-15.

Senideok: Gauza guztietan aberats zarete: sinesmenean,
hitz egiteko gaitasunean, jakintzan, denerako arduran eta
guganako maitasunean; izan zaitezte aberats eskuzabaltasu-
nean ere. Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuza-
baltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere
behartsu izateaz zuek aberats egiteko. Arazoa ez da bestiak
lasai egoteko zuek larri gertatzea, guztien parekotasuna bi-
latzea baizik.

Une honetan, zuen ugaritasunak haien eskasia konponduko
du, eta egunen batean haien ugaritasunak zuen eskasia konpon-
duko du; honela, parekotasuna izango da nagusi, Liburu San-

1

Igandea / UZTAILA / GARAGARRILA Domeka. B

Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*). Santa Regina, *aitorlea*.
Santa Ester, *erregina*.

tuak dioen bezala: «Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ezta gu-txi bildu zuenak ere urri».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5,21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Artean itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Hilzorian dut alabatxoa; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen.

Jende asko zihoakion ondoren, estutuz. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioa zuena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, bere artean baitzioen: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean.

Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?» Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen al duzu?» Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar -ongi baitzekien zer gertatu zitzaion-, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza».

Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*). Santa Regina, *aitorlea*.
Santa Ester, *erregina*.

Artean hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertako eman neke gehi-ago Maisuari?» Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez beldur izan; zuk sinetsi!»

Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedrori, Santiagori eta honen anaia Joani izan ezik.

Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zion: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskak ez dago hilda, lo dago». Haiek barre egiten zioten.

Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskatxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen to-kira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskak, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zion inork ere ez zezala jakin. Eta neskatxari jaten emateko esan zion.

Biziaren Ebanjelioa hots egin du Jesusek. Kreazio osoa da ona, Jainkoaren mugagabeko onberatasunaren adierazpen da. Jesusek berregin du bizia, hautsia zen neurrian, eta bidea erakutsi digu. Paulok zehaztu egin du irakaspen hori, Korintoko kristauei esan baitie, izan daitezela eskuzabal beren ondasunekin, Jerusalemgo kristau-elkarteari laguntzeko, miserian bizi baitzen hura, nola pertsekuzioen ondorioz hala bere eskuzabaltasunagatik besteei laguntze aldera.

Juduen legeak heriotzan hesirik zeuzkan jendea eta egoerak, hala nola odol-isuriagatik lohitzat emana zen emakumea eta si-

1

Igandea / UZTAILA / GARAGARRILA Domeka. B

Urteko 13. astea.

San Aaron (*Moisesen anaia*). Santa Regina, *aitorlea*.
Santa Ester, *erregina*.

nagogako buruzagiaren alaba, hildakotzat emana. Heriotzaren logikak bere erritualak izaten ditu eta herio-kantuak antolatzen ditu, baita Jesusen aurkako burlak ere. Jesusengan agertu den biziaren Jainkoaganako fedeak osasunaren eta biziaren bidea aurkitu du. Samur-samur hurbildu zaio Jesus neskatoari, esku-tik hartu eta jaikitzeko gonbita egin dio, eta berari jaten emateko esan die familiartekoei. Eguneroko bizitzako keinu xumeek senda ditzakete zauriak.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Artizar pare hau eman didalako
Garbi bereizteko beltz, zuri, gris, margo
Zeru goi ederra izarrez oparo
Jendetzan maitea, izar ederrago.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Soinu eta letra eman didalako
Hiztegi oso bat barru honen gako
Ama, lagun, laztan, argi biderako
Hel dadin maitea gogo-argiago.

*(Violeta Parra, Gracias a la vida,
Juan Garziak euskarara egokitua, zati bat)
(jarraipena uztailaren 4an)*

UZTAILA / GARAGARRILA Astelehena

Urteko 13. astea.

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis eta Francisco de Gerónimo; dohatsuak: Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak*. *

2

[Amos profetaren liburutik 2,6-10.13-16: Jende xehea lurreko hautsaren kontra zapaltzen dute. Sal 50 [49]: Aditu ongi, Jainkoaz ahaztuok.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,18-22.

Aldi hartan, Jesusek, bere inguruan jendetza handia ikusirik, beste itsasertzera igarotzeko agindu zuen. Orduan, lege-maisu bat hurreratu zitzaion, esanez: «Maisu, noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste batek, ikasleetakoa zenak, esan zion: «Jauna, uztazu lehenik nire aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Zuk jarraitu niri, eta utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen».

Aintzira zeharkatzeko asmoa du Jesusek. Lege-maisu batek esan dio jarraituko diola. Jesusek argitu dio, beraren jarraitzaile izateko, erdigunetzat erreinua hartuz haren zerbitzura jarri behar duela nork bere burua; alde batera utziz, bai segurtasun ekonomikoaz hornitutako tokietako erosotasuna, bai lotura afektiboen beroa. Soilik, irrika handi batek hartua den bihotza sar daiteke, pozik eta kreatzaile, Jesusen segimeneko abentura aurrean ezinekoan. «Bertigo digitalaren» gure etorbide elektronikoen artean ere zirkula dezake maitasun desitsatsi batek, denbora gehiago espero ezin duten egoeren presak eraginik.

* San Juvenal, *martiria*.
San Odon, *gotzaina*.

3

Asteartea / UZTAILA / GARAGARRILA Martitzena

Urteko 13. astea.

SANTO TOMAS, APOSTOLUA.

San Heliodoro, gotzaina.

[San Paulok Efesoarrei 2,19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,24-29.

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez baditut, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez baditut, ez dut sinetsiko».

Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Tomas gaur-gaurko pertsonaia da. Ikusten eta ukitzen duena bakarrik sinesten du. Ez du bere burua taldearen bizipenean nahasi nahi izan, berak berez esperientzia egin gabe. Esperientzia erlijioso zehaztugabe bat izan al zen ala, egiaz, piztua zen mundu honetako botereek gurutziltzatu zuten Jesusena? Guk geuk ere, gaur, zuzengabekeriaren eta arinkeriaren hainbat eta hainbat biktimaren aurrean, entzun ditzakegu Jesusen hitz berak; «Sartu zeure hatzak mundu honetako gurutziltzatuen zaurietan, eta sumatu ahal izango dituzu haietan berpiztuaren tau-padak. Ez izan sinesgogor, sinestedun baizik».

UZTAILA / GARAGARRILA Asteazkena / Eguaztena

4

Urteko 13. astea.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861), *domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak.*

[Amos profetaren liburutik 5,14-15.21-24: Kendu nire aurretik zeuen kantuen zarata-hotsa; datorrela justizia, agortzen ez den erreka bezala. **Sal 50 [49]:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamenaren erakusten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8,28-34.

Aldi hartan, Jesus beste itsasertzera, gerasatarren lurralde-
ra, iritsi zenean, bi deabrudun irten zitzaizkion bidera, hilobi
artetik aterata. Hain baitziren gaiztoak, ez zen inor ausartzen
bide hartatik ibiltzen. Deiadarka esan zioten: «Zer duzu gure-
kin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze
ematera etorri al zara?»

Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen uxa-
rrean, eta deabruak eskatu zioten Jesusi: «Botatzekotan, bidal
gaitzazu txerri-talde horretara».

Jesusek esan zien: «Zoazte!» Haiek atera eta txerrietan sartu
ziren, eta txerri-talde osoa ezpondan behera itsasora amildu zen
eta uretan ito.

Txerrizainek ihes egin zuten eta, hirira joanik, dena kontatu
zuten, baita deabrudunei gertatua ere. Orduan, herri osoa atera
zen Jesusengana eta, ikusi zutenean, beren lur-mugetatik alde
egiteko eskatu zioten.

Jesusen bideek herrixketako periferiak zeharkatzen zituz-
ten, haietan babesten baitziren hiriko antolaketa sozial eta erli-
jiosoan lekurik ez zutenak. Gaurko pasartean bi gaixorekin egin
du topo Jesusek; zonalde guztia izaturik zeukaten indarkeriazko

4

Asteazkena / UZTAILA / GARAGARRILA Eguaztena

Urteko 13. astea.

San Valentin Berrio-Otxoa (Elorrio 1827 – Vietnam 1861), *domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak*

beren jokabideaz. Ohikoena, halakoengandik urruntzea izaten zen, ez kutsatzeko eta erasorik ez jasateko. Jesusek ez du amore eman bi gizon zirpildu haiek zapuztera eragiten dioten legeen eta ohituren aurrean, baizik eta hurbildu zaie, hitz egin die, sendatu ditu eta beren sukaldera etxeratu ditu berriro, harreman eta leku gizakoi beroetara, beren burua berregin eta beren iragana sanea dezaten.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Hark nau erabili oin astunoz txango
Hala ditut hiri, putzuak igaro
Hondartza, eremu, mendi, zelai, arlo
Maite, zure kale, etxe, zokoraino.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Zor diot bihotza, zirraron arrago
Garunaren fruituz neguan uztaro
Ongia gaizkitik geroz urrunago
Zure begi biok argizko abaro.

Biziak bizi nau, hari zordun nago
Zor dizkiot irri bezainbeste malko
Zorion-saminen isla direlako
Biak dira urrats bakar baten zango
Bideak kantu hau badigu emango
Zuek, ni, kantu hau bagara izango.

*(Violeta Parra, Gracias a la vida,
Juan Garziak euskarara egokitua, zati bat)
(uztailaren 1etik dator)*

San Antonio Maria Zaccaria, *apaiza,*
fundatzailea (bernabitak).
Santa Elisabet Portugalekoa, *erregina.*

[Amos profetaren liburutik 7,10-17: Jaunak bidali ninduen bere herriari profetizatzaera. Sal 19 [18]: Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak bidezko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,1-8.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Hortan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Izan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak».

Orduan, lege-maisu batzuek beren baitan zioten: «Biraoka ari duk hau».

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki eta zabilta” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Orduan, esan zion elbarriari: “Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera!”» Hura jaiki eta etxera joan zen.

Hau ikustean, izaturik gelditu zen jendea eta Jainkoa gores-ten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

Zer da errazago, bekatuak barkatzea ala paralisi batetik liberatzea? Sinagogaren ustez, bekatua Tenpluan bakarrik barka zitekeen, animaliak opari eginez, odolaz eta suaz. Jesusekin, berriz, dagoen lekuan iristen zaio barkazioa pertsonari, dena delarik ere. Erruak zurrundu edo paraliza lezake pertsona bat bere barnean. Irainak min eman lezake erraietan sendaezineko zauri batek bezala. Erritu berezirik gabe barkatzen du Jesusek, gizatasun sakoneko topaketez. Jesusek bezala, eguneroko txoko eta topalekura hurbildu

beharko genuke erregalu den eta onartua den barkazioa, zurrundua den pertsona saneatu dadin eta ibiltzeari eman diezaion.

Hainbat arrazoi bibliko, biziari eusteko

1. Baduzu maite zaituenik (Joan 3,16)
Inori ez zatzaizkiola axola uste baduzu, oker zaude; Jainkoak maite zaitu, eta oso aintzat zauzka. Hartaraino maite zaitu, non bere Semea eman baitzuen zugatik, gal ez zaitezzen harengan sinesten baduzu eta betiko bizia izan dezazun.
2. Baduzu helburu bat (Jeremias 29,11)
Jainkoak egitasmo miresgarri bat du zure bizitzarako. Jainkoak ez zintuen kreatu zentzurik gabe! Ausartu zaitez Jainkoaren asmoa bilatzera.
3. Izango duzu behar den indarririk (1 Korintoarrei 10,13).
Oso ondo ezagutzen zaitu Jainkoak. Badu zure adorearen eta zure ahuldadearen berri. Ez dizu leporatuko sekula, eraman ezin duzun harririk. Hor izango duzu bera beti zeurekin, kemena eskaintzeko.
4. Izango duzu gidaririk (Sal 32,8)
Jainkoak zuretzat nahi duen zorionerako bidea bide-seinalez berterik dago, gal ez zaitezzen. Soilik, adi egon behar duzu, Jainkoaren ahotsa entzuteko, otoitzean eta bizitzako eguneroko gauzetan egiten dizuna. Gogoan izan, Jainkoa beti ari zaizula hizketan; zorritzarrez, gu zabartzen gara askotan, berari ez entzuteko moduan.
5. Ez zara bakarrik bizi (Deuteronomio 31,6)
Bide honetan zu baino jende gehiagorekin egingo duzu topo. Zoaz, adibidez, eliza batera! Lagunartea aurkituko duzu han. Gainera, zeure aingeru guardakoa, santuak eta Andre Maria bera zeurekin dituzu bidelagun. Ez zara bakarrik bizi.

(NETFLIX-ek sail bat estreinatu du “13 REASONS WHY” izenekoa, del BULLYINGaren etal SUIZIDIOaren harira; zati bat hemen)

Urteko 13. astea.

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*.

[Amos profetaren liburutik 8,4-6.9-12: Gosea bidaliko dut lurrrera, ez ogi-gosea, Jaunaren hitza entzutekoa baizik. Sal 119 [118]: Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatarari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Jesusek Mateo zerga-biltzaileari begi askez begiratu dio, eta ez pertsona hesitu eta baztertzen duen legeak programatutako begiez. Ez da iritsi gizon-emakume guztientzat Jainkoaren erreinua bakarrik, baita deia ere hurbileko ikasle izateko. Mateok jai-otordu batez ospatu du, adiskideekin, aurkitu duen bizia. Poz-testigantza da, kutsagarria, guztiei eskainia. Fariseuak eskandalizatu egin dira poztu orde, beraien bihotzean ez baita lekurik Jainkoaren errukiarentzat eta pozarentzat. Gure bihotza kiribildu egiten da ikusten ez badugu Jainkoak nola jokutzen duen pertsona bakoitzaren baitan.

7

Larunbata / UZTAILA / GARAGARRILA Zapatua

Urteko 13. astea.

San Fermin (Iruñea 3. mendean? – Amiens?),
gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria.

[Amos profetaren liburutik 9,11-15: Nire herri Israelen zoria aldatuko dut eta beren lurraldean landatuko ditut. Sal 85 [84]: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,14-17.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu barau, eta zure ikasleek ez?»

Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute barau.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, jantzia behartu egingo bailuke adabakiak, eta zerratada handiagoa egingo. Ez da ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak hondatu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

Jesusek beste hats bat, beste arnasa bat ekarri du, ohiko jardueri beste zentzu bat eransteko. Nabarmendu duen lehen gauza, ikasleek sentitu duten poza izan da, eztei-jai batekin erkatua edo jantzi berri bat estreinatzearekin edo uzta berri bateko ardoa adiskideekin dastatzearekin. Baraua jarduera erlijioso den aldetik ez da txarra, baina Jesusek ekarri digun berritasunaren harira hartu behar da. Ez da aldarrikatu behar balentria bat bailitzan, baizik eta janari-uzteak bihotza Jainkoaren pozari irekitzea izan behar du lagun eta geurea duguna premian direnekin partekatzea.

Urteko 14. astea.Santa Priszila, *martiria*.San Prokopio, *martiria*.

§ Ezekiel profetaren liburutik 2,2-5.

Egun haietan, Jaunaren espiritua sartu zen niregan eta zutik jarri ninduen, eta hitz egiten zidanari entzun nion esaten: «Gizaseme, israeldarregana bidaltzen zaitut, jende bihurri horregana; horiek eta horien arbasoak nire aurka altxatu dira gaurdaino. Seme-alaba burugogor eta setatsu horiengana bidaltzen zaitut nire mezua adieraztera. Horrela, entzun ala ez, jakingo du herri bihurri horrek baduela profeta bat bere artean».

[Sal 123 [122]: Gure begiak Jaunagana daude, gutaz erruki dadin arte.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 12,7-10.

Senideok: Neure burua den baino handiagotzat jo ez dezadan, haragian sartua dudan eztena eman zait, jo eta jo ari zaidan Satanasen ordezkaria, harrotu ez nadin. Hiru aldiz eskatu diot Jaunari, ken diezadala, baina hark esan dit: «Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra ahulezian gauzatzen baita bete-betean».

Pozik harrotuko naiz, beraz, neure ahuleziaz, Kristoren indarra bizi dadin nigan. Pozik nabil, beraz, Kristogatik jasaten ditudan ahulezia, laido, beharrian, erasoaldi eta estualdietan. Ahul naizenean, orduan bainaiz indartsu.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen.

Entzule askok, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek hori gutzia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitartean eta etxean izan ezik».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Uko oldarkoia eta jarrera eskaseko konfiantza-falta jasan behar izaten ditu, inoizka, Jainkoak bidalia denak, errotutako jarduera kaltegarria utzi beharra eskatzen duen bizi berriaren mezua hots egitera bidalia denak, alegia. Norberaren ahuldadea ere erasogile izan ohi dugu tarteka, Paulok bezala, geure konpromisoa ez betetzeko.

Jesus Nazaretera itzuli zenean, aurrea hartua zion jada zurrumuruak, ahoz aho han eta hemen zabalduak, gertaerak desitxuraturaz. Iguripen edo uste handi bat eratua zegoen Jesusen auzokideen artean. Jainkoak bere herriari egindako proposamen berria entzun zutenean, ahoa bete galdera zituzten. Ez al da hau gure artean hazten ikusi dugun arotza? Hainbat urtetan ikusi eta bizi izan dutena ezin kanbiatu da hitzaren eta zenbait sendatzeren bidez.

Zerbitzuak berekin izan ohi du porrota ere. Harritu egin zen Jesus haien fede-faltaz, geuk ere bizi izaten dugunaz. Oinetakoak

Urteko 14. astea.Santa Priszila, *martiria*.San Prokopio, *martiria*.

astindu beharra izaten dugu, porrotaren hautsak geure urratsak ez geldiarazteko. Inguruko herrixketan hitz egiten jarraitu zuen Jesusek. Zituen mugak kentzeko eskatu zion Paulok Jainkoari, eta entzun zion honek. Baina ez zion kendu mugarik, baizik eta mugaren kexu zurrungarria baino espiritu adoretuago bat eman zion: heriotzatik piztua zenaren Espiritua.

Jesus. profeta laikoa

Kristauok ez gara lider erlijioso baten jarraitzaile, baizik eta Profeta laiko bati jarraitzen diogu. Laikoa izan zen Jesus. Ez zen izan apaiz, ezta erlijioaren funtzionario ere, ez ezer antzeko. Are gehiago, Jesusek halako moduan bizi eta hitz egin zuen, non laster nahastu baitzen gatazkan bere garaiko erlijioaren buruzagiekin: apaiz eta Tenpluko funtzionarioekin, “erlijiotasunaren” eta “sokratutasunaren” ordezkari ofizialekin. Honetan datza Jesusek harrotutako iraultza erlijioso handia: gizakiari Jainkoagana iristeko, sokratutasunaren ez den beste bide bat ireki izatean. Esan nahi baita, hurkoarekiko erlazioaren bide profanoa, Legea bazter uzten duena. Eta erlazio etikoa, hurkoarekiko zerbitzu bezala bizitakoa, norberaren buru-eskaintzaraino eramana. Jesusek beste bide bat ireki zuen Jainkoagana iristeko, bere burua tarteko zela, bere bizia emanez sinesmen honen kontra borroka eginez: apaizen kultu erlijiosoak zuela salbazioaren monopolioa. Beste nonbaitetik zetorren salbazioa. Jesusek botere erlijiosoaren eta botere politikoaren abusua salatu zuen. (José María García-Mauriño, Ecclesalia).

9

Astelehena UZTAILA / GARAGARRILA

Urteko 14. astea.

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, San Leon Mangin, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.*

[Oseas profetaren liburutik 2,16.17b-18.21-22: Neure emazte egingo zaitut betiko. Sal 145 [144]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,18-26.

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin.

Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, bere baitan baitzioen: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz».

Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu bere-tik sendatua gelditu zen.

Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zien: «Alde hemendik! Neskatxa ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten.

Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskatxari, eta neskatxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

* Leon Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *santuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

Urteko 14. astea.

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong,
San Leon Mangin, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Konfiantza handia eragin ohi zuen Jesusek. Hamabi urteko neskato bat, judu-buruzagi baten alaba, hil berria zen. Emakume batek odol-jarioa jasaten zuen. Judu-buruzagiak neskatoari eskuak buruan jartzeko eskatu zion Jesusi; odol-jarioa zuen emakumeak, berriz, Jesusen soin-gainekoa ukitu nahi zuen. Iku-si eta entzun, urruneko zentzumen dira; ukitu, berriz, hurbiltasunaren eta bertatik bertakoaren zentzumen. Bizia eskualdatzen du, begi-bistako eta atzerazineko den gaitzarekin kontraste eginez. Bizi berri baten bitarteko da Jesusen gorputza. Jesus hain hurbileko egin da, ferekatu egiten baitu eta ikusgarri bihurtu baita giza haragian. Gorputz oro izan daiteke fereka, harrera eta hurbiltasun, bizia birsortzeko.

(Gaur egun asko eta asko idazten da Nazateko Jesusez) «Beste arrazoi bat, agian nabarmenena, hau da: antzinako testuen arestiko aurkikuntzak eragin duen berritasuna: testuak, dela Jesusen aurre-aurreko eta garaikide direnak (Qumran), dela Elizaren lehen mendeetakoak (Itun Berriaren apokrifoak, Nag Hammadi-ko testu gnostikoak, etab.). Testu hauen bidez hobeto ezagutzen dugu lehen mendeko Palestina eta Erromatar Inperioaren ingurumena, zeinetan ezarri baitzen Eliza. Gainera, gaur egun inoiz ez bezala, unibertsitateek eta ikasketazentzuek eskura dituzte baliabide tekniko handiak, hebreerazko, aramerazko, grezierazko testuez edo koptoez baliatzeko». (Santiago Ausín y Juan Chapa, Jesús: Moda. Historia y Fe; zatitxo bat).

[Oseas profetaren liburutik 8,4-7.11-13: Haizea erein dute, eta ekaitza jasoko. Sal 115 [113 B]: Israeldarrok, izan konfiantza Jaunagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,32-38.

Aldi hartan, deabruaren menpe zegoen mutu bat ekarri zioten Jesusi. Honek deabrua bota zuen, eta mutua hizketan hasi zen. Jendeak, harriturik, zioen: «Ez da Israelen egundaino horrelakorik ikusi».

Fariseuek, berriz, hau zioten: «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu honek deabruak».

Herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera».

Gizon batek hitza berreskuratu du. Espiritu gaizto batek mutu zeukana da. Hitz gabe bizi den hainbat eta hainbat herriren eta pertsonaren seinale da, zeini Jesusekin topo egiteak duintasuna eta izena itzultzen baitizkio, nola bizitza familiarrean hala jendaurreko eremuan. Beti izaten dira aztoratzen eta larritzen diren buruzagiak, gaur entzuten diren eta atzo mutu ziren ahotsen aurrean. Jesus errealitateari begira bizi da eta itxiak di-

Urteko 14. astea.

Santa Rufina, *martiria*

San Felix, *martiria*.

ren ahoak ikusi ditu, ehunka urtetako esklabutzak, baina ez da gelditu ikararen ikaraz besoak bildurik. Soro guztietan heltzen ari den uztari erreparatu dio, eta Aitari erregutu, horrenbeste gari mutu geldi ez dadin eta lurrean galdurik.

«Jesus, bere bizitzan, jakitun da, Itun Zaharreko profetia asko bere buruaz ari direla eta beragan bete direla. Isaiasen txatal batzuk Nazaretoko sinagogan irakurri dituenan, esan du: “Gaur bete da zuen aurrean izkribu hau” (Lukas 4,21). Beragan sinetsi nahi ez duten fari-seuei, esan die: “Aztertu Liburu Santuak, haietan espero baituzue betiko bizia lortzea; nire testigantza egiten dute haiek” (Joan 5,39). Mateo ebanjelariak, bere ebanjelioan, asmo hau du: Jesus Mesias dela frogatzea, Itun Zaharreko profezietan oinarrituz. Arrazionalista batzuek frogatu nahi izan dute, bere burua profezietara egokitzen saiatu zela Jesus; baina hau ezinezkoa da; izan ere, haietako asko betetzea ez baitzegoen Jesusen gogoaren baitan, adibidez, birjina batengandik sortzea, Betleemen jaiotzea, hogeita hamar monetaz saldua izatea, piztuera, juduen sinesgabetasuna eta paganoen konbertsioa. Batez ere, nola egiten ahal zituen gizon arrunt batek mirariak bere burua profezietara egokitzeko?» (Idazle ezezaguna, Los profetas describen al Mesías así. Zatitxo bat)

§ Esaera Zaharrak liburutik 2,1-9.

Ene seme, nire esanak onartu
 eta nire aginduak gogoan gordetzen badituzu,
 jakinduriari kasu
 eta zuhurtziari jaramon egiten badiezu;
 adimenari dei
 eta zuhurtziari oihu egiten badiezu,
 horiek dirua eta altxorrek bezala bilatzen badituzu,
 orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea,
 eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara.
 Jauna baita jakinduria ematen duena,
 beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia.
 Berak ematen die arrakasta zintzoei
 eta babeska jokabide zuzenekoei;
 zuzenbidea babesten du
 eta zintzoen jokabidea zaintzen.
 Orduan ulertuko duzu
 zer den justizia eta zuzenbidea,
 jatortasuna eta jokabide on oro.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan

Urteko 14. astea.

San Benito, *abadea (Europako Zaindaria)*.

esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare».

Ikasleek ikusi zuten eszena. Gazte bat hurbildu zen Jesus eta honen irakaspena ezagutzeko, baina ez zuen onartu bere ondasun guztiak pobreei eman eta Jesusi jarraitzea. Ikasleek, berriaz, dena utzi dute. Zer espero dezakete? Ondasunak bizitzen laguntzeko izaten ditugu eta haietaz libre baliatzeko. Ondasun handiak izateak preso hartzen ahal gaitu eta nolako harremanak izan, nolako itxurak egin, nola bizi... agintzen ahal digun jabe ere izan daiteke. Jesusen elkartean sartzeak anai-arrebak, adiskideak... eskaintzen dizkigu, baita biziaren gozoa ere, inoiz ere bukatuko ez dena eta orain jada betikotasun-mamia duena.

[Oseas profetaren liburutik 11,1-4.8c-9: Ikaraz jartzen zait bihotza. Sal 80 [79]: Erakutsi guri, Jauna, aurpegi argia, salba gaitezen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa.

Edozein herritan nahiz auzotan sartzan zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bake-rik gabe geldituko dira.

Onartzen ez bazaitzute eta zuen hitza entzun nahi ez, etxe nahiz herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: auzi-egunean Sodomak eta Gomorrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino».

Jaingoaren erreinua grazia eta dohain huts bezala datorkigu, eta, soilik, grazia eta dohain bezala hots egin dezakegu. Edozein negozio-kutsu traba izango da lan horretarako eta lausotu egingo du mezua. Ezin eraman dugu bizkar-zakurik premian direnak dohainez limurtzeko, ezta ekarri ere lanaren truk lortu-

Urteko 14. astea.

San Joan Gualberto, *abadea*.

San Hilario, *martiria*.

tako harrapakinez beterik. Abegi-harremanen giroan burutzen ahal da misioa, jateko eman nahi digutenari harrera ona eginez, ezer galdatu gabe. Desitsatsirik behar dugu bizi arrakastari berari ere. Uko egiten ahal digute. Kasu horretan, oinetakoen hautsa astinduko dugu, porrotaren zama traba gerta ez dadin gure oinentzat, tristatu ez dezan gure bihotza.

«Jesus izena gozamina da, esperantza elikatzen du; bihotzerako poza, belarrirako melodia eta ahorako ezti» (San Bernardok).

«Zuk Jesus predikatzen baduzu, berak biguntzen ditu bihotzak, leuntzen tentazio zatarrak. Bera gogoan baduzu, zure bihotzaren nagusi da. Irakurtzen baduzu, gogoaren asegarri da» (Paduako San Antonio).

[Oseas profetaren liburutik 14,2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. Sal 51 [50]: Nire ahoak iragarriko du zure gorespena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,16-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitetzte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo.

Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez.

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua.

Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

Ez dute entzungo guztiak erreinuaren mezua albiste ontzat. Batzuek mehatxutzat hartuko dute beren boterearen, aberastasunen, ideien, bizieraren edo Jainkoaz duten irudiaren aurka; azken batean, beren habia bihurtu dituzten kokapenen eta pribi-

Urteko 14. astea.

San Enrique, *enperadorea*.

San Silas, *San Pauloren laguna*.

legioen aurka. Agertuko dira arerioak; beraz, zuhur izan behar da sugea bezala, hipokrita izan gabe, eta xume usoa bezala, inozo izan gabe. Badugu konfiantza iritsiko garen lekuan aurrea hartuko digun Espirituagan, beti bidelagun izango dugula. Sarritan izan dira kristauak pertsegituak, eta, ihes egitean, elkarte berriren hazi gertatu izan dira barreiatu ziren lurraldeetan.

Geldi zaitetz gurekin, Jesus!
Gure fedea itzaliko denean,
zure aurpegia ezin ikusiko dugunean.
Geldi zaitetz gurekin, Jesus!
Desengainu-unean,
min eta nahasmendu-orduan.
Geldi zaitetz gurekin, Jesus!
Porrot egingo dugunean,
beldur izango garenean,
ihes egin eta dena utzi nahian gabilzkeenean.
Geldi zaitetz gurekin, Jesus!
Ahul sentituko garenean
eta bizitza astunegi gertatuko zaigunean.
Geldi zaitetz gurekin, Jesus!
Geure bihotza hoztuko zaigunean,
hutsik sentituko garenean
eta jendeaz aspertuko.
Geldi zaitetz gurekin, Jesus!
Gaua baita
eta zure presentziak bizia baitigu ematen
eta zurekin nahi baitugu beti bizi

(Manuel J. Fernández S.J., egokitua).

14

Larunbata / UZTAILA / GARAGARRILA Zapatua Urteko 14. astea.

Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*,
eta lagunak, *martiriak*. San Kamilo Leliskoa, *apaiza*,
fundatzailea (Kamilotarrak).

[Isaias profetaren liburutik 6,1-8: Ezpain kutsatuak ditut. Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi dut neure begiz! Sal 93 [92]: Errege da Jauna, espez jantzia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,24-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adina izatea, eta morroiak nagusia adina. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez ote diete deituko haren etxekoei?

Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarri-
ra entzuten duzuen hots egin etxe-gainetatik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernua gal dezakeenari.

Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek.

Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

Jesusengan sinesten dutenen kontrako pertsekuzioa, irain eta heriotzaraino irits daiteke. Ez da horretaz zertan harritu, burua galdurik; Jesus bera ere iraindu zuten eta gurutzean iltzatu. Ez da beldur izan behar gorputza hiltzen dutenei; pertsonaren

Zudaireko Esteban eta Maiorgako Joan *dohatsuak*,
eta lagunak, *martiriak*. San Kamilo Leliskoa, *apaiza*,
fundatzailea (Kamilotarrak).

eta Jesusen mezuaren espiritua ezin eraitsi dute ezpataz. Guru-
tzeak eta balak berandu iristen dira beti, profeta hiltzen dute-
nean haren hitza bizirik izaten baita jada eta gordea fededunen
bihotzean, non pertsegitzaileek ezin baitute harrapatu. Pertseku-
ziokoa ez diogu Jesusi uko egingo, konfiantza baitugu Aitagan,
beti zaintzen gaitu berak, orain eta gero.

Agur bat [A-Dios, gaztelaniaz) sumatzen denean...
«Egun batean gertatuko balitzait –eta egun hori gaur izan daiteke–
terrorismoaren biktima izatea,
ematen baitu une honetan
Algerian bizi diren atzerritar guztiak harrapatu nahi dituela,
nahi nuke, nire elkarteak, nire Elizak, nire familiak
gogoan izan dezaten
nire bizia EMANA zela Jainkoari eta lurralde honi.
Nahi nuke, guztiak onar dezaten,
bizitza guztien Maisu Bakarra
ezin izango litzatekeela arrotz nire joate garratz horretan.
Nahi nuke, otoitz egin dezaten nigatik.
Nolatan izan ninteke hartua ni, halako eskaintza baten duin?
Nahi nuke, jakin dezaten
bateraturik ikusten nire heriotza hori
beste hainbat indarkeriazkorekin,
anonimatuaren ez-axolan utziekin.
Nire biziak ez du balio beste bizi batek baino gehiago.
Ezta gutxiago ere».

(Argel,1993-01-01 / Tibhirine, 1994-01-01 Christian.+)
(Mari Paz López Santos, Hombres y Dioses, Ecclesia; zatitxo bat)
(1996ko maiatzean, Tibhirineko [Algeria] monasterioko
7 trapentse erail zituzten).

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*. Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasileria bidean kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*.

§ Amos profetaren liburutik 7,12-15.

Egun haietan, Amatiasek, Betelgo apaizak, esan zion Amosi: «Ikusle, zoaz, alde hemendik Judako lurraldera. Egin han profetarena eta irabazi zeure ogia. Baina ez jardun gehiago profetagintzan Betelen, hau errege-santutegia baita eta erreinuko jauretxea».

Amosek erantzun zion Amatiasei: «Ni ez naiz ogibidez profeta, abeltzaina naiz eta basapiku-biltzailea. Abeltzain nabilela hartu ninduen Jaunak eta bere herri Israeli profetizatzerara bidali».

[Sal 85 [84]: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbamena emaguzu.]

§ San Paulok Efesoarrei 1,3-14.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren
 Aita, zeruan, Kristoren bitartez,
 Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena!
 Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu
 eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez.
 Bere onginiak eraginda aurrez zuen erabakia,
 Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatza hartzea,
 bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zora-
 garria
 gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Seme honen heriotzaz dugu askapena, bekatuen barkamena,
 Jainkoaren onginiak eskuzabalari esker; oparo isuri du

UZTAILA / GARAGARRILA **Igandea /**
Urteko 15. astea. **Domeka. B**

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*. Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasilera bidean kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*.

15

bere onginahiaren dohaina, jakinduria eta ezaguera osoa guri eman ez.

Bere asmo ezkutua ezagutarazi digu,
bere onginahiak erabakia zuen asmoa:
historia bere betera eramateko,
zeruko nahiz lurreko gauza guztiak Kristogan biltzea,
berau buru dela.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehenetik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Eta zuek ere egiaren mezua, salbatzen zaituzten Berri Ona, entzun eta Mesiasengan sinetsi duzuenok, agindutako Espiritu Santuaz zigiluz bezala markatuak izan zarete. Espiritua da hartuko dugun ondarearen bermea, Jainkoak bere egin duen herria askapen osora iritsiko denaren bermea, Jainkoaren aintzaren gorespen-kantu izateko.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,7-13.**

Aldi hartan, Jesus Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen, espiritu gaiztoak botatzeko ahalmena ematen ziela.

Biderako ezer ez hartzeko agindu zien, makila besterik: ez ogirik, ez zakutorik, ezta dirurik ere gerrikoan; oinetan sandaliak eraman zitzatela; baina aldatzeko soinekorik ez.

Gero, nola jokatu esan zien: «Etxe batean sartzean, gelditu bertan herri hartatik atera arte. Eta nonbait onartzen ez bazai-

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea*. Joan Maiorga (Donibane Garazi 1530 – Brasileria bidean kortsarioek hil 1570), *dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak*.

tuztete eta entzun nahi ez badizuete, handik alde egitean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Joan ziren, bada, Hamabiak eta Berri Ona hots egin zuten, jendea bihotz-berri zedin. Deabru asko botatzen zuten eta gaixo asko sendatzen, olio z gantzutuz.

Bere misioaren hasieratik bidali zituen Jesusek ikasleak Jainkoaren erreinua hots egitera. Berri On baten albistea da, Jainkoagandik doan etorria, giza bizitza bere ahalbide guztietara jasotzeko. Ez luke lausotu behar mezu hau inolako negozio-kutsuk. Ez objektuen negoziok, ez harremanen negoziok, ez bizkar-zakuenek gauzak eramanez nahiz ekarriz. Esker onez hartuko da janaritako eman nahi dutena, abegi-giroko harremanetan.

Erreinua hots egiten dutenak herriko jende izaten dira; adibidez, Amos profeta; ez dute izaten, ez merezimendu handirik, ez jabetzarik, ezta Jainkoaren graziarena izango ez litzatekeen nolabaiteko izen handi batek berak onartzera inor behartuko lukeen modukorik. Azken hamarkada hauetan, Eliza aldarrikatzen ari zaigu, guztiok garelako bidaliak, kristau izate hutsagatik, ebanjelioa eskualdatzera, sua bezala kutsatzen baita Jesusen mezu, hurbilekoaren eguneroko testigantzaz eta parekoa den lagunak apal-apal zuzendutako hitzaz.

Urteko 15. astea.

**Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama).
Larreako Andra Maria, Karmengo Ama**

[**Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2,14-17:** Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! **Salmoa: Lukas 1,46-55:** Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. **Mateo 12,46-50:** Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».]

[**Isaias Profetaren liburutik 1,10-17:** Garbi zaitezte, garbitu; kendu nire begien aurretik zeuen egintza gaiztoak. **Sal 50 [49]:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,34–11,1.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxeokak izango ditu etsai.

Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du.

Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du.

Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko

besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

Zuzentasuna eragiten duen maitasun da ebanjelioa, eta gatazarrik ere eragin lezake, familiaren baitan ere, eta harremanak nahas litzake. Bada argi eta garbi gelditzen den gauza bat: ebanjelioa, aukera bat egitea da, ez du onartzen konponketaxorik. Gaurkoan pertsegituak diren profetei harrera ona eskaintzera gonbidatzen gaitu Jesusek, eta ebanjelioaren ikasleen solidario bihurtzera: botere politikorik eta ekonomikorik gabe, txiki izanik, guztientzat mundu hobea baten bila dabiltzalako, boteretsuen erasopean bizi diren ikasleen solidario bihurtzera gonbidatzen gaitu, alegia. Guri begira daude gaur, eta gure solidaritatea espero dute. Gure familiarteko dira, ebanjelioaren odol berak batzen baititu-eta.

Urteko 15. astea.

Santa Segunda, *martiria*.

San Leon IV.a, *103. aita santua*.

[Isaias Profetaren liburutik 7,1-9: Sendo sinesten ez baduzue, ez duzue sendo iraungo. Sal 48 [47]: Sendo ezarri du Jainkoak bere hiria betiko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,20-24.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolu-jantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino.

Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barreneraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodoma, zuk baino».

Porrota bere-bere izan zuen Jesusek bere bizitzan. Galileako aintzira-ertzeko hiriek ez zuten ulertu, eta ez zioten kasurik egin Aitagandik guztientzat zetorren eta Jesus egiten ari zitzairen bizi berriaren proposamenari. Eta proposamen honi uko eginik, aurrera jarraitu zuten, geroari azpia janez, beren jardueretan eta tradizioetan mozorroturik bizi zituzten herio-dinamismoek. Sodoma eta Gomorra hirien sinbolo dira, zuzentzat emana eta ohitura eta moda bezala ezarria zuten beren bekatuak berak suntsitu zituen hirien sinbolo. Jesusen hitz gogorak etorkizuna begi-bistan jartzen dien ispilu dira. Beren bizia karraskatzen ari zaienaz «kontura daitezen» saiatu da Jesus.

[Isaias Profetaren liburutik 10,5-7.13-16: Harrotzen ote da aizkora aizkolariaren aurka? Sal 94 [93]: Jaunak ez du bere herria zapuztuko.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Botere ekonomikoa eta politikoa arrakastaren seinaleztatzen dituzten garai hartan eta aitoren sozialaren iturburutzat. Indarrean zituzten azterketa eta jakinduria arrakasta hori guztia lortzeko laguntzat baliatzen zituzten. Jesusek, ordea, beste balio-ikuspegi bat du. Pobreen artean hazi zen eta bizitza xumea miresten zuen: halako jendeak lehiatsu eraikitzen zuen eguneroko bizitza, egunean eguneko keinu txikiez, gainerakoez abusatuta gabe. Gaur egun, metatzeko eta kontsumitzeko gaitasuna gorensten dute alfonbra gorrietan. Baina jende arrunt askoren bihotzean, biziari eta Jainkoari hurbil bizirik, haren orde berdina den jakinduria bat lantzen da, kosmosari eta pertsonari begirune diona, nolakotasun gorenekoa.

Urteko 15. astea.

Kordobako Santa Aurea, *martiria*.

[Isaias Profetaren liburutik 26,7-9.12.16-19: Lurpean etzanak esnatuko dira eta pozez oihuka ekingo diote. Sal 102 [101]: Zerutik lurrera begiratu du Jaunak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Herria oso hede gogorrez zegoen uztartua. Zergak, polizia-
ren kontrola, kultura-mespretxua, betebeharrak erlijiosoen ñimiño-
keria: horrek guztiak zuen jendea estutu eta hertsatzen, eta ez
zion uzten aldaketa txikiena egiteko aukerarik. Beste proposa-
men bat dakar Jesusek. Nahi duenak, berarekin parteka deza-
ke beraren uztarria; izan ere, ez dabil urruneko izango dituen
zerbitzari etsi eta mutuen bila, baizik eta bidelagunak nahi ditu.
Bere biziera galdatzailea du, baina bere xarma duena; ez du nahi
balio gutxituko gizadirik, askatasuna eta etorkizuna sortu nahi
ditu guztientzat, askatu egin nahi du jendea, txikien duintasun
sortzailea ikusten ez duten sistemen betiko uztargetik.

Urteko 15. astea.

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*.San Elias, *profeta*.

[Isaias Profetaren liburutik 38,1-6.21-22.7-8: Entzun dut zure eskaria, eta ikusi ditut zure malkoak. **Salmoa: Isaias 38,10.11.12abcd.16:** Zuk gorde duzu, Jauna, nire bizia hondamen-leizetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren.

Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak».

Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, legez, ez berak ez beraren lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizketenak?»

Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedenelegea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

«**G**izonaren Semea» esapideak, Jesusi aplikaturik, guztiz gizatar, benetan gizon, dela esan nahi du, eta, aldi berean, gizadi berri baten kreatora: kreaioarekin, jendearekin, erakundeekin eta Jainkoarekin beste harreman batzuk izango dituen

Urteko 15. astea.

San Apolinar, *gotzaina eta martiria*.

San Elias, *profeta*.

gizadi berri baten kreatzailea. Lege batzuk galga edo traba izan zitezkeen sormenerako bokazio honentzat; adibidez larunbata-ri dagokion legea, hau da, berez, erritmo ustiatzaileen aurka, jendeari, animaliei eta lurrari berari atsedena segurtatzeko zen legea. Errukia da bizi berri baten burubide eragilea, gizagabeta-sunak hunkitzen duena baita eta hautabide berriak nola sortuko ari dena. Gure bizia lege ñimiñoen begiratura mugatzea, bizia zurruntzea da.

Gurutzea, gurutze bat baino zerbait gehiago da

Gurutzea horixe izan zen: gurutze bat, Jesus gurutziltatzeko ohol batzuk...

Gurutzea horixe izan zen: gurutze bat, zama bat, karga bat, zigor bat, zuzengabekeria bat Jesusentzat...

Gurutzea horixe izan zen: gurutze bat, hiltegi bat eta han gizon bat...

Gurutzea horixe izan zen: gurutze bat, lurtean jaso, eta gizonak eta emakumeak begira, eta ulertzen ez dutela...

Gurutzea horixe izan zen: gurutze bat, eta bertan gizon bat gurutziltzatua...

Gurutzea guretzat hori baino zerbait gehiago izan zen:

gurutze bat, non Jesus gurutziltzatua izan baita...,

gure salbazioa dena,

zere hartan, gurutziltzatua,

geure Jainkoa aurkitzen baitugu,

gure gurutzearen maitasunagatik...

Gurutze bat, non, gaur ere,

gizonak eta emakumeak gurutziltzaten baititugu...

(Uztailaren 21ean jarraitzen du)

21

Larunbata / UZTAILA / GARAGARRILA Zapatua

Urteko 15. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

[Mikeas profetaren liburutik 2,1-5: Lurrak gutiziatzen dituzte, eta etxeetan lapurreta egiten. Sal 10 [9 B]: Ez ahaztu jende errukarriez, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,14-21.

Aldi hartan, fariseuek, sinagogatik atera zirenean, elkar hartu zuten Jesusen kontra, hura nola galduko.

Jakin zuen hori Jesusek eta alde egin zuen handik. Jende askok jarraitu zion, eta Jesusek denak sendatu zituen, eta agindu zien ez zezatela ezagutzera eman. Horrela, Jainkoak Isaias profetaren bidez esana bete zen:

«Hona hemen nire zerbitzaria, Nik aukeratua, nire maitea, atsegin dudana.

Honengan ipiniko dut neure espiritua; zuzenbidea iragarriko die herriei.

Ez du haserrerik sortuko, ez oihurik egingo, ez da kaleetan haren mintzoa entzungo. Kanabera piztuta ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko, zuzenbidea nagusiarazi arte.

Hura izango dute itxaropen nazioek».

Jesusen misioa bat dator Isaiasek iragarritako Zerbitzariaren ikuskari profetikoarekin. Israelen itxaropen eta uste handiak zituzten herria era aintzatsuan salbatuko zuen Mesias baten inguruan. Biziaren zerbitzari da Jesus. Ez dator hautatu batzuen taldearen bila, bere egintza harekin gauzatzeko. Jesusen elkar-

Urteko 15. astea.

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea.*

tean bada lekurik «kanabera pitzatuarentzat eta doi-doi bizirik den argi-metxarentzat». Zaindu eta bere misiorako hartu ditu zuzentasuna ezarriko den arte. Jesusek sendatzen ditu zaurituak, baina ez da horretara mugatzen. Historiako eskale izatetik, mundu berri eta zuzen baten kreatoraile bihurtu ditu.

Gurutzea, gurutze baino zerbait gehiago da...

adore da, poz da,
indar da, askapen da,
erruki da
eta esperantza.

Guretzat, Jesusen lagunontzat,
Gurutzea gurutze baino zerbait gehiago da...,
guretzat, gurutzea Jesus da...

(Uztailaren 20tik dator)

§ Jeremias profetaren liburutik 23,1-6.

Hau dio Jaunak: «Zoritzarrekoak nire larreko artaldea sakanatzen eta galtzen uzten duten artzainak».

Beraz, honela mintzo zaie Jauna, Israelen Jainkoa, herria gidatzen duten artzainei: «Zuek sakabanatu eta jaurti dituzue nire ardiak eta ez zarete haietaz arduratu. Ba, kontuak eskatuko dizkizuet zeuen jokabide txarragatik -dio Jaunak-.

Nik bilduko ditut bizirik geldituriko neure ardiak, sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugaritu egingo dira. Ongi zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko, eta ez da bat ere galduko -dio Jaunak-».

Hau dio Jaunak:

«Badatoz egunak,

eta egun horietan legezko muskila sortuko diot Davidi.

Errege zentzudun bezala gobernatuko du eta zuzenbidea eta justizia ezarriko du lurrean.

Haren egunetan Juda salbatuko da eta Israel seguru biziko.

Eta izen hau emango diote: “Jauna gure justizia”».

[Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

§ San Paulok Efesoarrei 2,13-18.

Senideok: Orain, Kristo Jesusengan zaudete. Garai batean urruti zinetenok, hurbildu egin zarete Kristoren heriotzari esker.

Izan ere, Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak, bereizten zituen hesia, etsaigoa, deseginez. Bere gorpu-

Urteko 16. astea.

Santa Maria Magdalena.

tzean baliogabetu du legea bere agindu eta arauekin, eta bi herriekin beregan gizadi berri bakarra sortu du, bakeak eginez. Bi herriak Jainkoarekin adiskidetu ditu eta gurutzeko heriotzaren bidez gorputz bakar batean elkartu, haien arteko etsaigoa beregan suntsituz.

Bere etorreraz bakearen Berri Ona ekarri zuen: bakea zuei, urruti zinetenoi, eta bakea hurbil zirenei; izan ere, bai batzuk eta bai besteok beraren bidez hurbil gaitetzeke Aitagana, Espiritu berarengan elkarturik.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,30-34.

Aldi hartan, apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik leku bakarti batera, eta hartu atsedeen pixka bat». Asko baitziren joan-etorrian zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihoazen igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, oinez, haiei aurrea hartuz.

Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen. Errukitu zitzairen, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta luzaro irakasten hasi zitzairen.

Aginpidea gauzatzeko era oso desberdinak daude. Jermiasek beren ardiak hiltzen uzten dituzten artzainak salatu ditu eta beren botereaz barreiatzen dituztenak; beste hau gogarazten

digu horrek: beren artean nola elkartuko dabiltzanen eta migra-tzaile beste lurralde batzuetara ihesi egin beharrean gertatzen direnak, gorputzean eta ariman gosearen eta pertsekuzio poli-tikoaren zauriek urraturik. Salmoak, berriz, gogoratzen digu Jauna dela Artzaina, bere herria sekula abandonatuko ez duena. Artzain horrek beste era bateko artzainak bidali dizkigu, kalezu-lo estu eta ilunetan gidatzen gaituztenak, eta geurekin atsedeten dutenak belardi emankor eta jaitsuetan.

Jesus da artzain ona. Errealitate guztia adiskidetu zuen, eta historia arnasten duen bizi-dinamismo hori ez da sekula etengo; hauts egin du bereizmen-mota guztien –politiko, erlijioso, eko-nomiko, arrazazko, kultural edo generozko– blokeoa. Jesusek bere gizakundeaz ikusgarri egin du adiskidetzea. Lehertzeraino ibili zen, eta hurbiltasun ezin handiagoaz, ardien bila, bizi ziren lekuan, aintziraren ertzean, soroan, plazan eta kaleetan, porrot afektiboan, bereizmen sozialean, jendaurreko bekatuan. Ez zen arraroa, ardiak berak ere beraren bila ibiltzea, hiriaren perife-riara eta lur mortuetara ere korrika jotzea bera aurkitu eta hun-kiarazi arte.

§ San Paulok Galaziarrei 2,19-20.

Senideok: Ni legeak eraman ninduen legearekiko lokarria etetera, Jainkoarentzat bizitzeko. Kristorekin gurutziltzaturik nago, eta honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan. Eta bere bizia nire alde emateraino maitatu ninduen Jainkoaren Semeaganako sinesmenean oinarriturik bizi dut oraingo neure giza bizitza.

[Sal 34 [33]: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan bada, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute.

* Zakarias Fernandez, *dohatsua*.
Joan Pedro Bengoa eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak*.
Maturana, *dohatsua* (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934).

23

Astelehena UZTAILA/ GARAGARRILA

Urteko 16. astea.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea*
(*Salbatzaile Santu-santuaren Ordena*) (Europako
Zaindaria).

Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Pasarte labur honetan, «iraun» terminoa zazpi aldiz errepikatu da. Ezinbesteko aditza da: kimatzearen prozesu guztian ageri da, guraizek aihenak moztekoan, mahatsondoak kanpotik bizirik gabeko enbor huts dela ematen duenean, hostoak hasten direnean, mahats-lukuak biltzen direnean. Jesusekiko elkartasunak bakarrik gaitzen gaitu bizia hartzeko, sustraiek lur azpian landua, enborrean gora igoa eta aihenetaraino iritsia. Otoitzean eta eguneroko bizitzako egintza koskor bakoitzean ari ohi gara muina eta zaporea xurgatzen.

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*) eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak, martiriak 1936*.*

[Mikeas profetaren liburutik 7,14-15.18-20: Itsas hondora botako ditu gure bekatu guztiak. Sal 85 [84]: Erakutsi guri, Jauna, zeure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12,46-50.

Aldi hartan, Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian. Batek esan zion: «Aizu, hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, zurekin hitz egin nahian».

Jesusek, berriz, erantzun zion: «Nor da nire ama eta nor nire anaia edo arreba?»

Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut Nik anaia eta arreba eta ama».

«**E**txe barruan», Jesusen irakaspena entzuten zeuden ikasleak, eta jendea askatzeko haren jarduerari adostasuna eskaintzen; «kanpoan», berriz, beraren familiartekoak zeuden, bera ikusi eta berarekin hitz egin nahiz. Jatorrizko odolaren lotura, beste lotura batekin sakondu da, hondokoago eta iraunkorrago den batekin, erreinua onartu eta, nork bere bizia emateraino, zerbitzari bihurtu direnen loturarekin. Erreinuaren dinamis-

* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*), *dohatsu, pasiotarra*, eta lagunak, *martiriak*.
Santa Kristina, *martiria*.
San Arnulfo, *martiria*.

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*) eta Nizeforo Jesusena eta Mariarena, *dohatsuak, martiriak 1936*.

moak, gure zainetako izerdi bihurtzen denean, anai-arreba arte-kotasun berri bateko haurride bihurtzen gaitu. Jesusen Ama eta beste familiarteko batzuk ere sartuko dira erreinuaren kreatzailleen behin betiko familia berri honetan.

Bost euroko kamiseta bati buruz jakin behar duguna

Europar kontsumitzen den arroparen %70 inguru Asian ekoizten da. Beste zertxobait Afrikako iparraldean eta Europako mendebaldean, ekonomikoki pobreen diren herrialdeetan hain justu. Ez dago argi jostunek zehazki non egiten duten lan, erabat deslokalizatuta baitaude. Industriaren sektoreko soldatarik baxuenak ehungintzakoak dira, 29 euroko praka batzuegatik 0,18 euro jasotzen dute langile batzuek. Aitortza gutxiko lana da eta langileen %80 emakume gazteak dira. (ARGIA aldizkaria 2017-06-29)

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA.

San Kristobal, *martiria*.

§ Apostoluen Eginak liburutik 4,33; 5,12.27-33;12,2.

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz.

Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

[Sal 67 [66]: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.]

§ San Paulok 2 Korintoarrei 4,7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik dato-

rrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu gegan, Jesusen bizia ere gegan ager dadin.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusen-gatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, gudan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sines-ten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesus-ek galdetu zion: «Zer nahi duzu?» Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean».

Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?» Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!» Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio».

Urteko 16. astea.

SANTIAGO, APOSTOLUA.

San Kristobal, *martiria*.

Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariak menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Santiago apostolua ezpataz hilarazi zuen Herodesek. Lehen kristauen esperientzia dakar Paulok: erasopean, lurrean, ez dituzte geldiarazi. Barnean zeramaten berpiztuaren Espirituaren adorea eta indarra, hain juxtu ahuldadean agertu ohi dena. Aldi guztietarako hitz egin du Jesusek: ezinbestekoa duzue prest egotea kultura honetako balio nagusi batzuen etsaigoa jasateko, baita egitura zuzengabeaz beren probetxurako baliatzen direnei aurre egiteko ere. Garrantzizkoa, ebanjelioa era sortzailean bizitzea da, geure burua zirpildu gabe eta ebanjelioa baliogabetu gabe, ahosabai guztien gustuko bihurtzeko aitzakian. Martirien zerrenda Elizan ez da itxi sekula.

[Jeremias Profetaren liburutik 2,1-3.7-8.12-13: Bazterrera utzi naute Ni, ur bizien iturria, eta putzu pitzatuak egin dituzte. Sal 36 [35]: Zugan da, Jauna, biziaren iturria.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,10-17.

Aldi hartan, Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten ikasleek: «Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?»

Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu egingo zaio. Hona zergatik hitz egiten diedan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina aditzen ez dutelako, ezta ulertzen ere. Horrela, Isaias profetak esana betetzen da horiengan:

“Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, baina ohartu ez.

Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak.

Ez bezate begiez ikusi, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere,

horrela nigana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan”.

Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: profeta eta zintzo askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

Urteko 16. astea.

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

Jesusek parabolaz argitu du erreinuaren misterioa; munduko literaturan parekorik ez duten parabolak dira; mende asko geroago, eta kultura desberdinetan, misterio agortezin hori iradokitzen jarraitzen duten parabola dira. Herriko jendeak, bizitzako gauza lau-lauekin harremanetan bizi den horrek (ura, lurra, hazia, ildo, itsasoa, janaria, lurrina, altxorra, lapurrak...), oso ondo ulertzen ditu eta pozik hartzen. Beren ezagutzan, zurrun eta auto-askitasunekoan, hesiturik bizi direnak, berriz, asko ikasiak izan arren, ez dira gai parablek dakarten jakinduria ulertu eta gozatzeko; izan ere, abegi oneko bihotza da Jainkoaren entzungabeko dohaina ikusi, entzun, onartu eta ulertzeko gai dena.

San Joakin eta Santa Ana

Bigarren mendetik datorren tradizio batek ematen die Joakin eta Ana izenak Andre Mariaren gurasoei. Ekialdean, VI. mendean hasi ziren biei kultua eskaintzen; mendebaldeko Elizan X. mendean. Biez “dakigun” guztia idazki apokrifoetatik datorkigu. Apokrifoak Liburu Santuen sailekotzat hartu ez dituenak dira. Santiagoren Proteobanjelioak historia hau dakar: Nazareten bizi ziren Joakin eta Ana, bikote aberatsa eta jainkozalea; ez zuten seme-alabarik. Jai batean, Joakin Tenplura joan zen opari bat eskaintzera; baina Ruben zelako batek ez zuen onartu; seme-alabarik gabeko jendea ez omen zelako duin Tenpluan. Joakin, penaturik, etxera itzuli ordez, mendira joan zen, Jainkoaren aurrera aurkeztera. Anak jakin zuen horren berri, eta otoitz egin zion Jaunari, agortasunaren madarikazioa kentzeko eskatuz. Aingeruak esan zien biei, Jaunak onartu zuela eskaria. Hala, berriro biak baturik, haur bat izan zuten: Miriam (Maria). Izenak eta datuak gorabehera, atsegingarri dugu Andre Mariaren gurasoak alabari begira-begira irudikatzea.

[Jeremias profetaren liburutik 3,14-17: Neure gogoko buruzagiak emango dizkizuet, eta herri guztiak bilduko dira Jerusalem. Salmoa: Jeremias 31,10.11-12b.13: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,18-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: erreinuaren mezua entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean ereindakoa. Hori da bide-bazterrean ereindakoa.

Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen txiki-koa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du.

Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz.

Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek ematen du fruitua: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

Bere landa-esperientziatik mintzo da Jesus. Tranparik gabe proposatu du bere hitza, lurrean hazia erein ohi den bezala. Batzuek onartzen dute eta fruiturik ematen. Beste batzuetan erdibidean galtzen da uzta. Parabolen hizkuntza bikaina da, giza bizitzaren alderdi sakonez hitz egiteko. Jende asko, gaur egun, bizitzako eremu askotarako beharrezkoa den zientziaren eta

Urteko 17. astea.

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian)*.

teknikaren hizkuntzarekin gelditzen da, emankortasunaren eta kontsumoaren hizkuntzarekin. Alderdirik sakonenak ezin atze-man ditu, ordea, hizkuntza horrek; herri-kontaerak, olerkiak, arteak, musikak... ere saiatzen dira sakoneko gai horiek iradokitzen, baina sekula ere agortu gabe.

Jesus, gure bihotzaren alaitasuna,
zure barkamena eta ulermena bizi duenari
ziurtasunetan handiena
sumatu ahal izatea ematen diozu:
errukia non
Jainkoa han.

(Anaia Roger Taize-koa)

[**Jeremias profetaren liburutik 7,1-11**: Lapur-zulotzat al duzue niri sagaratua dagoen tenplu hau? **Sal 84 [83]**: Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna!]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,24-30.**

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin gizon batek soroan hazi ona erein zue-nean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein eta alde egin zuen.

Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?” Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek, orduan: “Joango al gara iraka biltzera?” Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: Bildu lehendabizi iraka, lotu eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora”».

Beharrezkoak izaten dira gauzak bereizteko argitasuna eta denbora; beharrezkoak, alegia, argitasuna eta denbora, proposamenak haziko eta helduko badira eta barnean daramatena azalduko badute, eta ezinbesteko baldintza dira biak ebanje-

* Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak*, eta lagunak, *erlijiosoak eta martiriak* (1936).
Pedro Poveda, *fundatzailea* (*Teresatar Institutzioa*) eta martiria.

Urteko 17. astea.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika
(*Idiazabal 1867*).

lioaren arabera bizi ahal izateko. Izaten dira distiratsu eta posible direla ematen duten proposamenak; baina halakoan eragileen barne ustelkeriak eta neurririk gabeko eta baztertzaila den nahikundeak agerian ipintzen dute barnean eraman ohi duten hazi anti-gizatarrak. Gure proposamen hoberenek ere izaten dute anbigutasun-dosirik. Ez da izaten dena gari, iraka ere tartean izaten da, eta biak elkarrekin hazten dira, gure barnean nahiz kanpoan. Geure burua berrikusteko apaltasuna eta gauzak erkatzeko elkarrizketa lagungarri izan ditzakegu erreinua lantzeko orduan.

Txakurrik gabe etorri zen,
zaratarik eta soldatapekorik gabe,
mertzenariorik eta bitartekorik gabe,
makilarik gabe...
Bakarrik etorri zen errukibera,
maitasuna zuela hornigai. (San Ambrosio)

§ 2 Erregeak liburutik 4,42-44:

Egun haietan, Baal-Xalixako gizon bat etorri zen, Eliseori, Jainkoaren gizonari, lehen-fruituak ekarriz: hogeitgaragar-opil eta gari berria bere zakutoan. Eliseok esan zuen: «Eman jendeari, jan dezan». Morroiak erantzun zion: «Zer da hau, ordea, ehun gizonentzat».

Baina Eliseok berriro: «Eman jendeari, jan dezan, hau baitio Jaunak: “Jango dute, eta soberakinak izango dira”». Banatu zuen, beraz, morroiak ogia jendearen artean, jan zuten eta soberakinak gelditu ziren, Jaunak esan bezala.

[Sal 145 [144]: Zabaltzen duzu eskua, Jauna, eta asea ematen diguzu.]

§ San Paulok Efesoarrei 4,1-6.

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitetzela hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasanakor, elkar maitekiro jasanez. Saia zaitetzte Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lorkarritz.

Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Baitaioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gaineratik da goena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Urteko 17. astea.

Santa Marta, *Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa.*

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,1-15.**

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan.

Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zertorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?» (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko».

Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?» Jesusek jendea eserazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren.

Jesusek ogiak hartu eta, esker onezko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez.

Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutela oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Jendetza handia dabil Jesusen bila gogotsu, eta aurkitu du bere ezkutukian; izan ere, biziaren maisu bat ikusten du Jesus jende horrek, zuzengabekeriari, gaixotasunari, heriotzari aurre egiten dakiena. Goseari ere aurka egiten dio. Hunkiturik galdetu dio Jesussek Feliperi: «Non aurki dezakegu ogirik horrenbeste jenderentzat?» Galdera horren oihartzuna mendetan ari da hots egiten. Gaur ere galdera hori bera egiten ari zaigu Jesus, janaririk gabe harat-honat dabilen hainbat milioi jenderen aurrean. Galdera horrek ematen du badela aski ogi, eta bilatzeari ekin behar zaiola aurkitu arte. Itsasoaren eta lurraren fruitu diren bost ogi eta bi arrain topatzea izan da hasiera. Mutiko batek eskaini eta Jesussek guztientzat onartu, bedeinkatu, eta banaketa hasi da. Azkenean, aski ogi izan da guztientzat, eta sobera ere bai.

Esan zidan landa-gizon batek: «Miraria, ogia aurkitu eta partekatu, denek jan eta sobera gelditzea da. Ugaldu, landa-jendeak ugaltzen dugu: gari-ale batzuk erein eta milaka uztatu». Jesussek seinale bat burutu du: salbazioak bere-bere du behar den janaria, baita gorputzarena ere. Erronka honi atxiki zaio Frantzisko aita santua, «ekologia guztizkoaz» mintzo denean. Kontsumoa berrantolatu beharra dugu, geure planeta hau zaintzeko, gose direnen bizia onik ateratzeko, bizidun guztien duintasuna aintzat hartzeko.

Urteko 17. astea.

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.
Braulio Corres dohatsua eta lagunak, *martiriak*.

[Jeremias 13,1-11: Ezertako balio ez duen gerriko honen pareko izango da herri hori. Salmoa: Deuteronomio 32: Sortu zintuen Jainkoa zenuen baztertu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,31-35.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesussek jendeari: «Zerueta erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza».

Beste parabola hau ere esan zien: «Zerueta erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da».

Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesussek jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Hone la bete zen Jainkoak profetaren bidez esana:

«Parabola bidez mintzatuko naiz,
munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut».

Txikia da mostaza-hazia eta isila. Jesusen garaian bedein-kazio bat zen botikarako, jatekoari gustua emateko eta lurra ongarrizeko. Legamia ere txikia da eta gaueko isiltasunean lan egiteko gai eta, ogia egiteko, ore handi bat eraldatzeko gai. Eguneroko gure bizitzako ekimen txikiak errealitate esanguratsuen hasiera izan daitezke; galdu egiten direla uste izaten dugun isileko zerbitzuek «jangarri» bihur ditzakete errealitate gordinak. Jainkoaren erreinu asko izaten da, ez erritmo zalapartatsuan, ez gure kulturako handigura edo harrokerian ikusten ez dena.

Loiolako San Ignazio

§ Jeremias profetaren liburutik 20,7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; borxatu egin nauzu eta menderatu.

Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarke-ria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».

Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzten nintzen hura itotzen, baina ezin!

[Sal 34 [33]: Dasta eta ikus zein ona den Jauna.]

§ Paulo santuak 1 Korintoarrei 10,31–11,1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez judentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzten naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitzte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde aurretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hogeit milaekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandataria bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie.

Jeremias hain abaildurik sentitu ohi zen aurka jarkitzen ziztaizkion etsaien erasopean, bere misioa uztea pentsatu baitzuen behin baino gehiagotan; alabaina, bere barnean eutsi ezineko sua sumatu ohi zuen, eta berriro jotzen zuen bere profeta-lanera. Paulok ere sumatu zuen Jainkoaren aintzarako lan egiteko sua, guztien zerbitzari izanez. Bide hori bera seinatu du Ignaziok Gogo Jardunetan. Zerbitzariaren suharra ez da edozein gauza on egitekoa, baizik eta hoberena, une bakoitzean Jainkoak proposatua; ezkutukoa nahiz jendaurrekoa izan daiteke, xumea nahiz arrisku-sua, gurutziltzatua nahiz aintzat hartua. «Jainkoaren aintzarik

handiena» gauzatu, Jesusekin eta Jesusek bezala guztien zerbitzari izatean gauzatzen da. Gaur nahiago dugu «gauza orotan nola maitatu eta nola zerbitzatu» bilatzea; hain juxtu, horixe da Gogo Jardunen konklusioa eta ignaziotar espiritualitatearen sintesia, nahiz eta ez duen izaten beti berekin aitopenenaren aintzarik, baikik eta, ostera, aurkakotasuna, bizia kentzeraino.

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/. – Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitetz
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. – Iruñan zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun. R/.

2. – Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendira igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun. R/.




ABUZZTUA / DAGONILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Unibertsala: **Familia, altxor bat**

Aukera ekonomiko eta politiko handiek familia babestu dezaten, gizadiaren altxortzat hartuz.



Urteko 17. astea.

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak)*.

[Jeremias Profetaren liburutik 15,10.16-21: Zergatik azkenik gabeko oinaze hau? Nigana itzultzen bazara, neure zerbitzura hartuko zaitut berriro. Sal 59 [58]: Zu izan zaitut, oi Jainko, ihesleku larrialdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du.

Era berean, zeruetako erreinuarekin, harribitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du».

Gure kultura kontsumista hauetan, eskaintza asko agertzen dira distiratsu gure zentzumenen aurrean, begi-keinu limurtzaileak eginez. Barreiaketak norabide desberdinetarantz lehiatzen gaitu, eta geure baitan urraturik uzten. Grazia-uneren batean, azalaren pean, lurraren hondora bila jotzen badugu, aurkitu ahal izango dugu errealitate osoa ukitzen eta zeharkatzen duen Jainkoaren erreinua. Konturatuko gara orduan, erreinu horrek beste ezerk baino gehiago balio duela, eta, poz-pozik, den-dena salduko dugu hura erosteko. Gauza bera egiten du, sentiberatasun fin batez, merkatuko pagotxa artean balio handiko harribitxia aurkitzen duenak. Erreinuaren bizirako aukera egitean, bateratu egiten gara geure baitan, eta sormenez eta zentzuz betetzen.

[Jeremias profetaren liburutik 18,1-6: Nola buztina eltze-gilearen eskuetan, hala zarete zuek nire eskuetan. **Sal 146 [145]:** Zorionekoa Jakobena Jainkoa lagun duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,47-53.

Aldi hartan, esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinua-ekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?» «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

Itsasoko hizkuntzaz argitu die Jesusek ikasleei erreinua. Arrantzaleak egunero botatzen du sarea. Lehen bereizketa egiten du sareak: ura, arrain txikiak, harri koskorrak... pasatzen uzteko zuloak ditu. Hondartzan, bigarren bereizketa egiten du arrantza-

* San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu Santuaren Apaizak)*.

San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*.

Urteko 17. astea.

Aingeruen Andre Maria.

San Eusebio Vercelli-koa, *gotzaina*.

leak: arrain onak eta txarrak bereizten ditu. Sarera bezala, gaur egun gure belarrietara ezin konta ahala eskaintza iristen da: ideologiak, produktuak eta modak; jakina, ebanjelioaren araberrako jakinduria beharko dugu on dena hartu, baina bazter uzteko pozoitzen gaituena, alienatzen gaituena edota azalean eta azalkeria barreiatzen gaituena. Funtsezkoa da bereizmen hau eta iraunkorra.

NON ZAUDE?

Non ote nagoen, al diozu?

Zure ondoan, zure adiskide, itxarotearen gauean, bizitzaren egunsentian, mendizerrako haizean, jenderik gabeko arratsean, ametsik gabeko loan, gose larrutuan eta mahairako ogian, gozamen partekatuan eta pena garratz bakanduan (...).

Isiltasun zigitatuan eta protestaren irrintzian.

Eguneroko gurutzean eta hurbil den heriotzan.

Beste ertzeko argian eta nire maitasunean erantzun gisa (...).

Non ote nagoen, al diozu?

Zure ondoan, zure adiskide; bizi naiz eta lurrean nabil, erromes Emaus aldera, zurekin mahaian esertzeko; ogia berriro puskatzean aurkituko duzu nire presentzia.

Hemen nago, zuekin, loretan arima esna, maitasun-pazko honetan, lauhazka zuen odolaren zainetan, bizi den eta amets dagien Jainkoaren odoletan blai.

Non ote nagoen, al diozu?

Zure ondoan, zure adiskide; biluztu zaitez ezustekoa ikusteko; ireki begiak eta begira barrurantz eta kanporantz, zeren oinazearen dolarean baititut neure gozamenak eta penak, eta maitasunaren ur-gurpilean, ni, zure Jainkoa, naiz ate joka.

Non ote nagoen, al diozu?

ZURE BIZITZAN, horra erantzuna. (Antonio Bellido)

3

**Ostirala /
Barikua**

ABUZZUA / DAGONILA
Urteko 17. astea.

Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845–Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*.
San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martiria*.

[Jeremias profetaren liburutik 26,1-9: Jende guztia Jeremiasen inguruan pilatu zen Jaunaren tenpluan. Sal 69 [68]: Eran-tzun, Jauna, zeure maitasun handiaz.]

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13,54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari ziztaien sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arre-bak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?» Eta ezin zuten sinetsi harengan.

Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta, haien sinesgogorkeria-gatik, ez zuen han mirari askorik egin.

Nazareteko jendea ez zen gai izan, Jesus bera hogeita hamar urtez eta haren familia betidanik ezagun-ezaguna izana gainditze-ko. Jesusek ez zuen inolako titulurik, eskola ofizial batek ikasletzat ziurtatzen zuenik. Gure herrietan, osperik gabeko lekuetan hazten diren elkarteetan, egunerokotasun apaletan, asko lantzen da gaur egun jakinduria handia, duintasunez bizitzeko eta zuzentasun handiago batengatik borroka egiteko. Baina, horren ordez, nahia-go izaten dugu geure zentzumenak norabidetu, unibertso digitalean mugitzen diren eta geure pantailetan agertzen diren jakitate disti-ratsuetara. Pobreen kasuan, beraien gabeziei bakarrik errepara-tzen badiugu, eta beraien ebanjelio-irakaspenak kontenplatu ez baditugu, azalean bakarrik bizi garen seinalea.

Urteko 17. astea.

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*.

[Jeremias profetaren liburutik 26,11-16.24: Jaunak bidali nau, hitz hauek guztiak hots egitera. Sal 69 [68]: Mesede-garaia duzu, Jauna; erantzun.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14,22-36.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariei: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori».

Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joaneke hau esan ohi zion Herodesi: «Ez duzu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen Joan, baina jendearen beldur zen, profetatzat baitzuten denek.

Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatutako guztia emango ziola agindu zion neskatxari, zin eginez. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatxari eman zioten, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

Profeza handia izan zen Joan. Basamortura joan zen, handik, Jainkoa prestatzen ari zen berritasunerako konbertsioa herrian hots egiteko. Beraren heriotza jauregiko dibertsio baten arinkerian erabaki zuten, anekdota hutsal bat bailitzan, jan-e-danaren arteko dantzaldi baten ondorio gisa. Joanek gauza berri bat hots egiten zuen, Herodesek herria ustiatzearen eta atseka-betzearen gainean eraikia zuen egitarauari astindu bizia ematen ziona. Garrantzikoa da Joanen testigantza gogoan hartzea. Bazekien biziari «bai» esaten, eta bizia suntsitzen duenari «ez» biribila esaten. Batzuetan ur goiti egin behar izaten dugu igeri «mundu likidoan».

Joan Maria Vianney (1786-1859)

«Ene Jainkoa, emadazu nire parrokiaren konbertsioa; onartzen dut nahi duzun guztia sufritzea neure bizitza guztian» esanez iritsi zen Ars-eko parrokiara Joan Maria Vianeny.

Hoztasun handia topatu zuen parrokiako jendeagan. Baina Joan Mariaren bihotz beroa agerian agertu zen, eta izan zuen bere fruiturik.

«Oi, zer gauza handia apaiz izatea! Ez da ezagutuko ondo zeruan baizik... Lurrean ulertuko balitz, hil egingo litzateke bat, ez izuaz, baizik maitasunez». «Zer zoritxarrekoa apaiz bat, barne bizitarik gabe» esan ohi zuen.

Barnetasunak, ordea, kanpora begira jarri zuen. Apaiz-ikasketak egiten zailtasunak izan zituen. Baina ikasketek ematen ez dutena eman zion barne bizitzak. Parrokiako jendea ez ezik, urrunetik ere jende asko joan ohi zitzaion laguntza eske. «Aitorlekua, bizirik hilobiratu nauten hilkutxa dut» esan ohi zuen.

§ Irteera liburutik 16,2-4.12-15.

Egun haietan, basamortuan, israeldarren elkarte osoa marmarean hasi zen Moisesen eta Aaronen aurka, esanez: «Hobe genuen Jaunak Egipton hilarazi izan bagintu, haragi-eltze aurrean eseri eta ogia asetzerraino jaten genuenean! Zuek, ordea, goseak hiltzeko ekarri duzue gure elkarte osoa basamortu honetara!»

Orduan, Jaunak esan zion Moisesi: «Euria bezala jaitzaraziko dizuet zerutik janaria. Herria egunean egunekoa biltzera aterako da. Proba egin nahi dut, ea nire legearen arabera dabilen ala ez.

Entzun ditut israeldarren marmarrak. Esaiezu: “Arratsaldean haragia jango duzue, eta bihar goizean ogiz aseko zarete, eta jakingo duzue Ni naizela Jauna, zuen Jainkoa”».

Arratsaldean, galeperrak etorri ziren eta kanpaleku osoa estali zuten, eta biharamun-goizean ihintz-geruza azaldu zen kanpaleku-inguruan. Ihintza desagertu zenean, antzigarraren itxurako zerbait, xehea eta garautsua, azaldu zen lurrean. Hura ikustean, elkarri galdezka hasi ziren israeldarrak: «Zer da hau?» Ez baitzekiten zer zen.

Moisesek esan zien: «Jaunak janaritzat ematen dizuen ogia da hau».

[Sal 78 [77]: Zeruko ogia eman zien Jaunak.]

§ San Paulok Efesoarrei 4,17. 20-24.

Senideok: Hona zer esaten eta zinez eskatzen dizuedan Jaunaren izenean: ez zaitzela jadanik bizi sinesgabeak bizi diren bezala, burua hutsalkeeriatan baitute.

Ez da hori Kristo ezagutzean zuek ikasi duzuen, baldin eta egia bada hartaz hitz egiten entzun duzuela. Jesusi dago-kion egiazko irakaspenaren arabera, honako hau ikasi duzue: batetik, zuen lehengo bizierari uko egin eta giza izaera zaharra, grina engainagarrien eraginez hondatua, erantzi behar duzuela; bestetik, zeuen gogo-bihotzak berritu eta giza izaera berria, Jainkoaren irudira sortua, jantzi behar duzuela, Jesusen egiaren arabera, biziera zuzena eta santua eramateko.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,24-25.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?» Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzaraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitezte, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari».

Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Galdetu zioten, orduan: «Zein ezaugarri egiten duzu, guk ikusi eta zuegan sinesteko? Zer egiten duzu? Gure arbasoek mana jan zuten basamortuan, Liburu Santuak dioen bezala: “Zeruko ogia eman zien jaten”».

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea Erroman.

Andre Maria Zuria Gasteizen.

Elurretako Andre Maria.

Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Ez zizuen Moisesek eman zeruko ogia; nire Aitak ematen dizue zeruko egiazko ogia; zeren Jainkoaren ogia zerutik jaitsi eta munduari bizia ematen diona baita».

Orduan, haiek Jesusi: «Jauna, emaguzu beti ogi horretatik». Jesusek erantzun zien: «Ni naiz bizia ematen duen ogia; nigan datorrena ez da gose izango, eta nigan sinesten duena ez da behin ere egarri izango».

Zertatik bizi gara? Zein da gure janari nagusia? Juduek fede-
dean suz ezarria zuten ustea: basamortuko ibilaldian Jainkoak ja-
naritu zituela. Harea beroko lehor-uneak eta dunak ez ziren lur
egokia janaria topatzeko, eta bidaiari izateak ez zien uzten epe
luzerako sororik lantzen; egonkortasuna behar izaten da horre-
tarako. Dohain hartutako janaririk gabe, hilak ziratekeen. Geure
basamortuen gogortasunean, Jesus dugu egiazko ogia, betiko bizia
ematen digun janaria, uneak zeharkatu eta dinamizatzen dituena.

«Galkor» diren janari askok jarri ohi gaitu mugimenduan,
eskuratu eta gozatzeko. Zorionaren zurrutada txikiak eskain-
tzen dizkigute haiek: laster urtzen den zorionarena, gure gorpu-
tzean euforia kimikoa urtzen den bezala. Bada, ordea, galtzen ez
den janari bat, «giza izaera berriaren» (Ef 4,24) arabera bizitze-
ko era ematen diguna, Seme gizon eginagan eskaintzen zaiguna.
Dela etengabe Jesusengana itzultzeak, dela Jesus bera konten-
platzeak, dela Eukaristian parte hartzeak, bide ematen digute
bizi horri geure baitan harrera egiteko; hain zuzen ere, ahalbi-
dea ematen digun bizia beti haziz joateko berritasun horretan,
aldiak zeharkatu eta betikotasunean murgiltzen den berritasu-
nean, alegia, Jesus berpiztuarekin berarekin.

[**Elurretako Andre Maria. Zakarias 2,1-13:** Poztu zaitez, Siongo alaba, banatorkizu-eta! **Apokalipsia 21,1-5a:** Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaindutako andregaia bezala. **Salmoa: Judit 13:** Zugar du gure herriak bere edertasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus jendeari hizketan ari zitzaiola, jende arteko emakume batek, deiadar batean, esan zuen: «Zorionekoa, zu ekarri zintuen sabela eta bularra eman zizun emakumea!» Baina Jesusek esan zuen: «Zorionekoak, bai, Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Ikasleek baztertu egin nahi dute bere alabaren osasuna oihuka eskatuz inguruan duten emakume nahastailea. Nekagarri da Maisuarentzat, baina, egia esateko, berek dute hura nekagarriago. Haren alde erregutu diote Jesusi, baina ez gupidaz, baizik eragiten ari den iskanbilagatik.

Azkenean, lortu du Jesusekin hitz egitea. Gai da ama hori bere burua txakurkume batekin konparatzeko, alabaren osasuna lortzekotan. Otoitz jarraiki eta apal horrek, fedez gainezka, sendatuko duen esperantza eta ama baten maitasun den horrek, harridura eragin dio Jesusi: bete dadila horrenbeste opa duzuna!

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak**.

§ Daniel Profetaren liburutik 7,9-10.13-14.

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen.

Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi!

Haren aulkia eta gurpilak,ugar kiskalgarri!

Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik.

Jendetza izugarria zuen zerbitzari,

milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik.

Auzia hasi, eta zabaldu ziren liburuak.

Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen.

Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 97 [96]: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztiaren gainetik.]

§ San Pedoren 2. gutunetik 1,16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuean, ez ginen oinarritu irudipe-

* Eugenio Maria Erauskin Aranburu (Lazkao 1902 / Bartzelona 1936, Montserrateko beneditarra) *martiria, dohatsua*.

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

nezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna.

Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea, honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela.

Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,2-10.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eramane zituen haiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurak harturik zeuden.

Orduan, hodei batek estali zituen, eta ahots bat atera zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez.

Urteko 18. astea.

JAUNAREN ANTZALDATZEA.

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galdeztzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori.

Antzaldatzea baino sei egun lehenago, Jesusek esana zien Zesarean, Jerusalemera igotzera zihoala, erreinuaren bizia hots egin eta juduen erakundeei aurre egiteko. Hilgarria izan zen aurrez aurreko hura. Bidearen erdialdera, Tabor mendira igo zen Jesus, erabaki hura baiesteko. Mendian Aitaren presentziak bersarkatu du, eta haren Seme maitea dela sentiarazi dio. Hain bizia izan zuen esperientzia hura, non antzaldatu egin baitzitzaion aurpegia, barne-barnetik argitu baitzen, eta deliberatuki jarraitu zuen Jerusalemerantz. Ba al dakigu bakardade batera joan eta geldialdi bat egiten, ilunaldietan antzaldatuak izateko? Honelako esperientzia batek nortasuna eta argitasuna emango lizkiguke.

Urteko 18. astea.
San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.
San Kaietano, *apaiza*.

[Jeremias profetaren liburutik 30,1-2.12-15.18-22: Zeure bekatu izugarriengatik egin dizut hori. Jakoben herriaren zoria aldatuko dut. **Sal 102 [101]**: Eraiki du Jaunak berriro Sion eta bera aintzaz betea agertu da.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16,24-28.

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesusek ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen.

Goizaldera, Jesus haiengana joan zen, ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!» Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!»

Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen, ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!» Berehala Jesusek eskua eman eta heldu egin zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?»

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!»

Urteko 18. astea.

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*.

San Kaetano, *apaiza*.

Itsasoa igaro ondoren, Genesareten iritsi ziren lehorrera. Bertakoek, Jesus ezagutu zutenean, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta gaixo guztiak eraman zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Jendetza joana zen, ikasleak ontziratuak; Jesus bakarrik gelditu eta mendira joan zen otoitz egitera. Egun argitsuaren ondoren, zeinetan jendetzak ogia partekatu baitu, ikasleek aintzirara jo dute, ohiko lurraldera ontziz itzultzeko; honetan, gaua etorri da eta itsasoa haserre ageri da. Gure bizitzan ohikoa dugu txandakatze hau: argiaren eta ilunaren, arrakastaren eta duda-mudaren, txaloen eta mehatxuen artekoa. Jesus bezala, otoitzean murgiltzen bagara, harrotu gabe eta bidean galdu gabe biziko ditugu egun argitsuak; egun mehatxuzkoak, berriz, «mundu likidoaren» urean oinez ibiliz, hondoratu gabe.

8

Asteazkena / ABUZTUA / DAGONILA Eguaztena

Urteko 18. astea.

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza, fundatzailea*
(*domingotarrak*).

[**Jeremias profetaren liburutik 31,1-7:** Maite zaitut, betidanik maite. **Salmoa: Jeremias 31:** Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,21-28.**

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera aldendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun.

Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak».

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!» Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak».

Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

Jesusen misioaren arreta, bidea galdurik dabilen Israel herriari lotu zaio. Berri Ona hots egiten zuen eta zekarren osasun betea sendatze batzuk eginez azaltzen zuen. Sarritan agertzen dira, ordea, pertsonak, fededun-itxurarik atzematen ez genienak. Eta horra: atzerritar emakume bat da; batetik, alabaz

Domingo santua, Guzmangoa, *apaiza, fundatzailea*
(*domingotarrak*).

egundoko maitasuna agertu du; bestetik, konfiantza ikusgarria, Jesus bera harriaraztekoa eta ordu arteko lehentasuna eta ibilbidea aldarazi dizkiona. Kristau-elkarteen ardura barruan direnei kasu egitea baldin bada, asmo hau du hondo-hondoan: harrera ona egitea kanpotik datorren edozeini, kredoari eta pasaporteari erreparatu gabe.

BIDE ERTZEAN

Hona hemen ni, Jauna,
itsua bezala bide-ertzean
—nekatua, izerditan, hautsak jana—;
eskale, beharturik eta ogibidez.
Baina sentitzean zure urratsak,
entzutean zure ahots besterik ez bezalakoa,
goitik beheraino naiz dardara,
iturburu bat jalgiko bailitzan
ene barnean.
Ai, zer galdera zurea!
Zer du itsuak gura ikusi baizik?
Ikus dezadala, Jauna!
Ikus ditzadala, Jauna, zure bidezidorrak.
Ikus ditzadala, Jauna, bizitzako
bideak.
Ikus ditzadala, nagusiki, Jauna,
zure aurpegia, zure begiak,
zure bihotza. (Ulibarri, Florentino)

9

Osteguna /
Eguena

ABUZTUA / DAGONILA

Urteko 18. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein),
erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria.

§ Oseas profetaren liburutik 2,16b.17b.21-22.

Honela mintzo da Jauna:

«Basamortura eramango dut Nik neure herria eta bihotzera
hitz egingo diot.

Han bere gaztaroan bezala erantzungo dit,

Egiptotik igo zenean bezala.

Neure emazte egingo zaitut betiko;

neure emazte egingo justiziaz eta zuzenbidez,

maitasunez eta errukiz.

Leialtasunez egingo zaitut neure emazte,

eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

[Sal 45 [44]: Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten

Urteko 18. astea.

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein),
erlijiosa eta martiria, Europako Zaindaria.

zetzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zetzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Gau ilunean hor etorri ohi dira lapurrak, eta guk orduaren berririk ez. Jauna ere gau ilunean iristen da. Ez dakigu historiaren zein une izango den heldua Jainkoaren berritasuna agertzeko, ez pertsonaren, ez Elizaren, ez gizartearen historiaren zein une. Beti behar dugu prest egon, modukoa den Jainkoak gauz lan egiten duela eta ustekabeen etorri ohi dela sinesten duen fedeari jarraituz. Edith Steinek pizturik zuen bere arima, bilaketa, ikasketa, nazismoaren kontrako jarrera eta zaurituekiko zerbitzua zirela medio, Jesusekin topo egin eta harengan sinetsi zuean. Naziek asasinaturik hil zen 1942an.

[San Paulok 2 Korintoarrei 9,6-10: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 112 [111]: Pertsona onak errukitu eta eman egiten du.]

† Jesus Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12,24-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurtean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxien duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak».

San Lorenzo bizirik erre zuten grisela edo parrilla batean, Erroman, Valeriano enperadorearen pertsekuzio-aldian, 258an. Diakono gisa, pobreen ardura zuen. Paulok esan digu, ematea eritean datzala, eta eskuzabal ematera gonbidatu gaitu. Zerbait zorrotzagoa diosku Jesusek. Nork bere burua erein behar du. Hitz eta erreinuaren seinaleak ereinez hasi zen Jesus. Azkenean, bere burua erein zuen. Martirik, Jesusek bezala, bizia eman zuten. Pertsekuzioek markatu dute Elizaren bizitza; besteak beste, erreinuaren zuzentasuna bilatzen duelako, zeinek pobreei bizi duina ematea eskatzen baitu, halakoak zapaltzaileengandik askatuz.

Urteko 18. astea.
Santa Klara, *birjina*

[Habakuk profetaren liburutik 1,12–2,4: Zintzoa bere leialtasunari esker biziko da. Sal 9: Ez duzu, Jauna, eskutik uzten zure bila dabilenik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,14-20.

Aldi hartan, gizon bat hurbildu zitzaion Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Jauna, erruki zakizkio nire semeari; epilepsia ematen dion deabrua du eta gorriak ikusarazten dizkio. Maiz botatzen du sura eta urera. Ekarri diet zure ikasleei, baina ezin izan dute sendatu».

Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra eta makurra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutila hona». Jesusek gogor eraso zion deabruari eta atera zen mutilagandik; ordu hartatik sendatua gelditu zen.

Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, bakarrean galdetu zioten: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota deabrua?» Jesusek erantzun zien: «Zuen sinesmena txikia delako. Egia diotsuet: sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendiari “aldatu hemendik hara” esanez gero, aldatu egingo litzateke; ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango».

Jainkoaganako fede-faltak, hau da, pertsona zarpailtzen duten barneko dinamismotik sendatzen ahal duen eta herriak, mugiezineko mendi bailiran, zapaltzen dituzten pertsonetatik, erakundeetatik eta egituretatik aska ditzakeen Jainkoagan ez sinesneak, defentsiban jartzen gaitu eta etengabeko kexan bizitze-

ra eragiten, eta etorkizuneko hautabide bati ekiteko ausardiarik gabeko bihurtzen gaitu. Askok, Habakuk profetak dioen bezala, amua dute adoratzen eta gainerakoak harrapatzeko eskura ditzuten sareak. Horiek dituzte beren idolo, liluratzaille eta ahaltsu. Bitartean, Jainkoa isilik ari da erantzuna prestatzen, eta beraren proposamen berriaren zain fedez egongo diren bihotzak behar ditu, onartuko dutenak eta harekin konprometituko direnak.

**Dantek San Bernadoren ahoan ipinitako
otoitza zati bat:**

Zure sabelean su bihurtu zen maitasuna,
eta bero horren betiko bake honetan
lore hauek erneztea zenuen eragin.
Hemen zaitugu eguerdiko maitasun aurpegi,
eta behean, hilkor hauentzat,
esperantzaren zara iturri bizi.

Andrea, hain handia zara eta halakoa duzu balioa,
non grazia nahi izan eta erregutzen ez dizunak
hegorik gabe nahi baitu hegan egin.

§ 1 Erregeak liburutik 19,4-8.

Egun haietan, Eliasek egun bateko bidea egin zuen basamortuan barna. Azkenean, ipuru baten azpian eseri zen eta heriotza opa izan zion bere buruari, esanez: «Aski dut, Jauna! Keniezadazu bizia, ez bainaiz neure gurasoak baino hobea». Ondoren, ipuruaren itzalean etzan eta loak hartu zuen.

Horretan, aingeru batek ukitu eta esan zion: «Jaiki eta jan». Begiratu zuen Eliasek eta sutopil bat erre berria eta ontzi bat ur ikusi zituen bere buru ondoan. Jan eta edan ondoren, etzan egin zen berriro.

Etorri zitzaion bigarrenez Jaunaren aingerua, ukitu eta esan zion. «Jaiki eta jan, bide luzea baituzu oraindik». Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta janari haren indarrez berrogei egun eta berrogei gau ibili zen Horeberaino, Jainkoaren mendiraino.

[Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

§ San Paulok Efesoarrei 4,30–5,2.

Senideok: Ez nahigabetu Jainkoaren Espiritu Santua, horrekin markatu baitzaituzte Jainkoak, askapen-egunean zuek bereizteko. Ken zeuen artetik garrazkeria, haserrea, gorrotoa, garrasiak, irainak eta bestelako gaiztakeria oro. Izan zaitetzte elkarrentzat on eta bihozbera, elkarri barkatuz, Jainkoak zuei Kristoren bitartez barkatu zizuen bezala.

Izan zaitetzte, beraz, Jainkoaren antzeko, haren seme-alaba maite zaretenez gero. Bizi zaitetzte maitasunean, Kristoren antzera, berak maite izan baikintuen eta bere burua gure alde eman zuen, Jainkoak atseginez onartzen duen oparizat eskainiz.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,41-51.

Aldi hartan, Jesusen kontra marmarka hasi ziren entzuleak, «Ni naiz zerutik jaitsitako ogia» esan zuelako, eta hau zioten: «Ez al da, ba, hau Jesus, Joserren semea? Ez al ditugu, ba, ezagutzen honen aita-amak? Nolatan dio, orain, zerutik jaitsia dela?»

Jesusek erantzun zien: «Ez ari marmarka zeuen artean. Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita.

Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, hala ere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudana ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

«**I**zan zaitzete Jainkoaren imitatzaile», esan die Paulok Efesoko kristauei (Ef 5,1). Jainkoaren irudiko eta antzeko kreatuak garelarik, geure benetako izaera eta aurpegia harekin erlazionaturik bakarrik aurki genitzake; izan ere, erabateko arduraz zaintzen eta elikatzen du berak gure nortasunaren jatortasuna. Aldi berean, ordea, gainerako berezitasunak eta diferentziak ere zaintzen ditu, haietatik etengabe galdatzen, irakasten eta aberasten gaituelarik. Elias erabat jota ageri da, hiltzea opa izateraino, hiltzear dagoen baten desilusioz Jainkoagana hurbilduz; ikusten

dugu ere, nola hitz egiten dion Jainkoari barne-barneko hurbiltasunetik, harik eta bideari ekin dion arte topaketa horretako ogiaz elikaturik

Jainkoaren dohaina, bete-beteagan agertu zaigu «zerutik jaitsi den» Semeagan. Honengan berezitasunik handiena kontenplazten dugu, betiko eta guztientzat erreferentzia-puntu izango dena berritasun gisa. Honengan ulertzen dugu, Jainkoa gu bizi gaitetzen hil den janari dela, ogi dela. Beronen dinamismoan murgiltzeko gonbita hartu dugu, geu ere gainerakoentzat ogi izateko gonbita, Jesusen jarraitzaile izatekoa berau bateratu zuen maitasun beraz; gonbidatuak gara gainerakoekin, naturakin eta Jainkoarekin egiazko harremanak eraikitsera, Jesus bera hartara eraman zuen maitasun beraz.

ESKERRAK, ANDRE MARIA

1. Eskerrak, Maria, zure barne askatasunagatik.
2. Eskerrak, gure geroaren aitzindari izan zarelako.
3. Eskerrak, emakume fededun baten aurpegia erakutsi diguzulako.
4. Eskerrak, beti Hitzari irekirik egon zarelako.
5. Eskerrak, erabat prest egon zarelako eta Jainkoari jaiotzeko bidea eman diozulako.
6. Horixe da, Itun Berriak proposatzen duen jarrerarik egokiena Erreinua hartu eta bizitzeko.
7. Eskerrak, gure egintzetan askotasunak duen balioa erakutsi diguzulako.
8. Eskerrak, elkarrizketan etsenplu izan zarelako.
9. Eskerrak, Jainkoaren egitasmoa onartu duzulako.
10. (Nor bere bihotzaren isuritik)...
11. Eskerrak, hasieratik beretik izan baita presente EMAKUME bat.
12. Eskerrak. AMA.

San Pontziano, 18. *Aita Santua*, eta San Hipolito, *apaiza, martiriak*. Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875–Barbas-tro 1936), *klaretarra, dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*.

[Ezekiel Profetaren liburutik 1,2-5.24-28c: Jaunaren aintza-
ren agerpena zen hura guztia. Sal 148: Zeru-lurrak beterik
dauzka zure distirak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,22-27.

Aldi hartan, Galilean zehar zebiltzala, esan zien Jesusek ikasleei: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztuko da». Ikasleak oso nahigabeturik gelditu ziren.

Kafarnaumera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenek Pedrorengana joan eta esan zioten: «Zuen maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?» «Bai», erantzun zien.

Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurrean jarri eta esan zion: «Zer deritzozu, Simon? Munduko erregeek zeinengandik hartzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxekoengandik ala arrotzengandik?» Pedrok erantzun zion: «Arrotzengandik». Jesusek, orduan: «Etxekoak libre daude, beraz. Halaz guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz itsasora, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; ireki iezaiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu zuri eta bioi dagokiguna».

Nazioek zergak bildu beharra izaten dute, zerbitzu publikoetarako eta pobreenen eta zaurgarrienen oinarrizko eskubideak bermatu ahal izateko. Arazoa ez da zergak ordaintzea. Hau da problema larria: zergak batzuetan abusuzkoak izatea, pobreak gehiago zapaltzeko erabiltzea, banku-kontu ustelak gi-

San Pontziano, 18. *Aita Santua*, eta San Hipolito, *apaiza, martiriak*. Felipe Jesusena Munarriz (Allo 1875–Barbas-tro 1936), *klaretarra, dohatsua*, eta lagunak, *martiriak*.

zentzeko edota botere despotikoa segurtatzen duen elkartasuna erosteko desbideratzea. Jesusek ordaindu egin zituen behartsuen bi drakmak. Aberats askok aurkitzen du trikimailurik milioiren kantitateri izkina egiteko, eta trebetasun politiko deitzen diote pobreeni bizitzeko behar dutena lapurtzeari. Aberastasunak eta boterea jainkotzea, beti da suntsitzaile eta hiltzaile.

«Andre Maria bide segurua da Kristo aurkitzeko. Jaunaren Amaganako debozioak, jatorra denean, norberaren bidea orientatzera eragiten digu beti, Ebanjelioaren espirituaren eta balioen harira» (Ecclesia in Amerika Oharpen Apostoliko Postsinodala, 11. zenb.)

[Ezekiel profetaren liburutik 2,8-3,4: Liburua janarazi zidan eta ezta bezain gozo gertatu zitzaidan. **Sal 119 [118]:** Bai gozoa niretzat, Jauna, Zuk hitzemana!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.12-14.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien:

«Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan.

Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Zein da garrantzikoena zeruetako erreinuan? Jesusek «behera» begiratzen irakatsi du, haurrak, «txikiak» bizi diren

Urteko 19. astea.

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria,*
kaputxinoa.

alde hartara begiratzen, eta «kanpora» begiratzen, «galduak» bizi diren alde hartara. Txikiak jarri behar ditugu geure arre-taren erdigunean, eta lagundu egin behar diegu hazten doazen bitartean. Galduak direnen bila ibili behar dugu, elkartera era-kartzeko. Horixe egin du Jesusek, horrela Jainkoaren bihotza nolakoa den adieraziz. Hori da benetan inporta duena, gure be-gien erdigune izan behar duena, gure bihotza liluratu eta gure bizitza dinamizatu behar duena. «Aintzarako» bidea da, behin betikorako bidea, handiena denerako bidea; izan ere, halakoekin egiten du bat Jainkoak: «Neuri egin zenidaten».



Andre Mariak
zeruratzean parte hartu
du bere Semearen
Piztueran. Aldi berean,
gizon-emakume guztion
piztueraren aurrerapen
eta berme buhurtuda.
Agur, Ama, zorionak.
Eskerrak, Jauna, gutañ
egin duzun
guztiarengatik.

§ Apokalipsi liburutik 11,19a; 12,1.3-6a.10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdiminez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen.

Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eraman zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten:

«Orain etorri dira
 gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza,
 eta beraren Mesiasen agintea».

[Sal 45 [44]: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.]

§ San Paulok 1 Korintoarrei 15,20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera

ABUZZUA / DAGONILA **Asteazkena /**
Urteko 19. astea. **Eguaztena**

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

Ondarroan, Antiguako Andra Maria. Durangon,
Uribarriko Andra Maria. San Tarsizio, *martiria*.

15

ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik, gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira.

Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-56.**

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat neure barrua,
Jainkoa baita nire salbamena,

ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.
 Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,
 handiak egin baitizkit Ahalguztidunak;
 santua da haren izena,
 eta haren errukia gizaldiz gizaldi
 begirune diotenengana.
 Bere besoaren indarra erabili du,
 buru-harroak suntsitu ditu;
 bota ditu beren aulkietatik ahaltzuak,
 eta gora jaso ditu ezerezak;
 ondasunez bete ditu gose zeudenak
 eta esku-hutsik bidali aberatsak.
 Lagun etorri zaio bere morroi Israeli,
 bere errukiaz oroiturik;
 hala zien gure gurasoei hitzeman,
 Abrahami eta ondorengoei betiko esana».
 Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero,
 etxera itzuli zen.

Mariak onartu zuen Jainkoaren proposamena, Seme hara-
 gi eginaren Ama izatea. Esperientzia honek aldatu egin zion bi-
 zitzita, eta Jainkoaren eta bere herriaren zerbitzari bihurtu zuen.
 Ez zen, ordea, bere duintasunean hesiturik gelditu, baizik eta
 Elisabet bere lehengusina bisitatzera irten zen, hari ustekabea
 gertatu zitzaion haurdunaldian laguntzeko, eta bere sekretua
 harekin partekatzeko, biak baitziren elkar ulertzeko gai. Maria-
 ren abestiak beraren barnekoitasuna adierazten du. Zoriona eta
 konpromisoa, biak batzen ditu abestiak.

ABUZTUA / DAGONILA Asteazkena /
Urteko 19. astea. Eguaztena

ANDRE MARIAREN ZERURATZEA.

Ondarroan, Antiguako Andra Maria. Durangon,
Uribarriko Andra Maria. San Tarsizio, *martiria*.

15

Bere bizitza guztian, fededun handi izan zen Maria, eta Jainkoaren egitasmoaren zerbitzari, bere bizitza xume eta ohar-kabea. Egun bakoitzeko xehetasun txikiez zaindu zuen bere Semea, harik eta gizon egin zen arte, eta bere konpromisoa bere -bere egiteko gai izateko hezi zuen.

Zerura eraman zuen Jainkoak, bere Seme berpiztuaren ondoan bizitzeko. Bera izan zen fededunetan lehena, landa-ema-kume baten bere bizitza xumean. Lehena da, orobat, bere behin betiko bizitzan Jesus berpiztuaren ondoan. Mariaren ondoan sentitzen gara, eta eskaintzen zaizkion hainbat eta hainbat jaiez pozten gara; izan ere, geure zoria bera ikusten dugu, bai Mariaren eguneroko bizitza xumean, arima eta gorputza batasun eder eginik, bai jada berpizturik Jesusen ondoan.



Andre Maria
koroatua.
Fra Angelico

[Ezekiel Profetarem liburutik 12,1-12: Zoaz erbestera egun-argiz, haien aurretik. **Sal 78 [77]:** Ez ahaztu Jainkoaren egintza handiez.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,21–19.1

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?»

Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko.

Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia, eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia.

Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia, eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten.

Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*.

San Roke, *Martiria*.

Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu dida-lako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?” Eta nagusiak, haserre bizian, borroeroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, seni-deok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Hitzaldi hau bukatu zuenean, Galileatik alde egin eta Judea-ko mugetan sartu zen Jesus, Jordanez bestaldera igaroz.

Parabola honen muina, erregearen galderan datza: «Ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?» Beharrezkoa da delituei juzkatu eta beren izena ematea; izan ere, zigorrik ezak laineza ematen die beste irain batzuei. Halere, ez da aski horretan gelditzea

Jainkoaren barkazioa da gure abiapuntua. Baldintzarik gabe barkatu digu Jainkoak, beti eta guztiei, eta «aldi berri bat» eskaini digu, hartan inolako hipotekarik gabe lan egiteko, hartan lan egiteko, mugarik gabeko zor bat ordaindu beharraren zamarik gabe. Barkatzeak, Jainkoak barkatu digun bezala, haren antzeko bihurtzen gaitu, bizi berri baten egiazko egile.

[Ezekiel profetaren liburutik 16,1-15.60.63: Erabatekoa zen zure edertasuna, Nik eman nizkizun apaingarrirei esker, eta prostituzioan hasi zinen. **Salmoa: Isaías 12:** Baretu da zure haserrea eta kontsolatu nauzu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,03-12.

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea edozein arrazoiengatik uztea?»

Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: “Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira”. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?» Jesusek erantzun zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hau diotsuet: bere emaztea utzi -legearen kontra elkartuak ez badira behintzat- eta beste batekin ezkontzen denak, adulterioa egiten du».

Ikasleek esan zioten orduan: «Baldin horrelakoa bada senar-emazteen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen, jaiotzaz ezin dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste

ABUZZTUA / DAGONILA

Urteko 19. astea.

Santa Beatriz Silvakoa, *fundatzailea*
(*Kontzepzionista Frantziskotarrak*).

San Eusebio, *aita santua*.

Ostirala /
Barikua

17

batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

Ezkontza-bizitza giza existentziaren erdigune da. Hartan haragitu ohi da Jainkoaren maitasun kreatzailea gizon baten eta emakume baten artean, seme-alabak sortuz bizitzeko, eta ezkontza-bizitza horretan zaintzen dituzte, osasuntsu eta seguru hazten joateko, iraunkor den egonkortasun batean. Jesusen garaian. emakumeak eta seme-alabek ez zuten babesik ezkontza-bizitza hautsi zezakeen gizona koaren aurrean, ez adulterioz bakarrik, baita atsekabe pertsonal txikiez ere. Pertsona batzuek, ordea, Jainkoaren deia jaso ohi dute ez ezkontzeko, erreinuaren bizitzaren zerbitzuari erabat emanik bizitzeko. Bi bizierek osatzen dute elkar; biak dira bokazio kreatzaile.

18

Larunbata / ABUZZTUA / DAGONILA Zapatua

Urteko 19. astea.

San Agapito, *martiria*. Santa Juliana, *martiria*.
San Alberto Hurtado, *apaiza, jesuita*.

[Ezekiel profetaren liburutik 18,1-10.13b. 30-32: Nor bere jokatidearen arabera epaituko dut Nik. Sal 51 [50]: Bihotz garbia, Jainko, sor ezazu niregan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,13-15.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkieten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoitz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesusek esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena baita zeruetako erreinua». Eta, haurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

Familiari dagokion irakaspenaren testuinguruan, haur batzuk hurbildu zizkieten Jesusi, bedeinka zitzan. Ikasleak hala-koak urrun edukitzen ahalegindu ziren. Baina Jesusek harrera ona egin die, taldearen erdian ipini ditu eta hurbiltasunez eta bero-bero bedeinkatu ditu, eskuak buruan ezarriz. Jesusen keinu hau gogoan dugula, errepara diezaiegun hainbat eta hainbat haurri, modu askotan bortxatuak: haur soldadu, haur prostituitu, etxean tratu txarren pean, lan gogorrera behartuak, eskolarik eta higienerik gabe, familia hautsietan... Haurrek, defentsarik gabe ikusiz, sormenik garbiena eragin beharko lukete gugan. Guretzat, zer esan nahi du haurrak bedeinkatze horrek?

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.
Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta*
Tuterako elizbarrutietan).

§ **Esaera Zaharrak liburutik 9,1-6.**

Jakinduriak bere etxea eraiki du, zazpi zutabe landu ditu; abereak hil ditu, ardoa nahastu eta mahaia prest du.

Neskameak bidali ditu hiriko goialdeetatik hau aldarrikatzeraz:

«Ikasi gabea betor hona!»

Zentzugabeei esaten die:

«Zatozte, jan nire ogia eta edan nik nahasturiko ardoa.

Utzi txorakeriak eta biziko zarete, jarraitu zentzuzko bi-deari».

[Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

§ **San Paulok Efesoarrei 5,15-20.**

Senideok: Begira arretaz nola zabilzaten; ez jokatu ergel, zentzuz baizik, egokieraz baliatuz, garai txarrak ditugu eta. Ez izan, bada, burugabe; baizik eta saiatu Jaunaren nahia zein den ulertzen.

Ez mozkortu, ardotik nasaikeria baitator; aitzitik, bete zaitzte Espirituaz, zeuen artean salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak abestuz. Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez, gauza guztiengatik Jainko Aitari etengabe eskerrak emanaz, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean.

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6,51-58.**

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.
Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?»

Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan.

Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena, niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Jainkoagandik, haren Espiritutik, datorren jakinduria, jakintza akademiko bat baino sakonagoa da. Bizi ez-biziko arazoa da; horregatik, lehen irakurgaiak jai-otordu handi batean parte hartzera gonbidatu gaitu, janari eta ardo, zeinetan jakinduriak elikatu eta poztuko baikaitu, beste gonbidatu batzuen elkartasunean. Paulok ere azpimarratu digu, ez mozkortzeko une baterako pizten baina hutsik uzten gaituen ardoaz, baizik eta edateko Espirituagandik. Bizirako ordezeko asko zabaltzen dute botere-tsuek gure begi aurrean, baina une iheskor baterako bakarrik janaritzen gaituzte, biziaren hondora eta iraupenera iritsi gabe.

San Joan Eudes, *apaiza, fundatzailea (eudistak)*.
Ezekiel Moreno Santua, *gotzaina (Iruñeko eta*
Tuterako elizbarrutietan).

Partekatutako janariaren hizkuntza hau, Jesusek ere erabili du ebanjelioan. Jesus bera da benetan janaritzen gaituena, indarra ematen eta pozten gaituena. Berak digu bizia ematen, bere hitza eta bere bizia bera eskainiz. Beraren jakinduria ez da hodeietakoa, baizik eta emanak dituen beraren gorputzetik eta odole-tik igaro dira. Dela geure burua familia-bizitzan eta lanekoan egunero dohaintzat ematea, dela egunerokotasuna gustuz gozatzea, dela garena eta duguna arriskatzea, dela osasuna eta bizitza ematea, mundua zuzenago eta gizatiarrago izan dadin, Jesusez elikatzeak ematen dizkigun nortasunez, argitasunez eta irrikaz bakarrik gerta daitezke.

Gosea munduan

«900 milioi pertsona, gose kronikoa jasaten ari da munduan, Nazio Batuen arabera. 171 milioi haur, 5 urtez azpiko, elikadura okerra jasaten ari da. 2.000 milioi gizon eta emakume baino gehiagok gose ezkutatua bizi du. XXI. mende honetan gainditu izan ordez, problema larri bihurtu da arazo hau, lotura globalak ditu, guztioi dagokigu». (*Elizabeth Ortega, Delegación de Fundaciones Madrid, Relación Digital 2017-07-02*)

Urteko 20. astea.

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*.
San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*.

[Ezekiel profetaren liburutik 24,15-24: Ezekiel seinale izango da zuentzat: hark egin duen guztia egingo duzue. Salmoa: Deuteronomio 32: Sortu zintuen Jainkoa zenuen baztertu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?» Jesus-ek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak».

Hark, berriz: «Zein agindu?» Eta Jesus-ek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala».

Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?» Jesus-ek erantzun zion: «Gutziz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri».

Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

Jesusi hurbildu zitzaion gazteak betetzen zituen legeak eta ondo kudeatzen zituen bere ondasunak, baina bazuen kezka bat, gabezia baten zuloa bezalako bat. Zerbait falta zuen. Jesus-ek horizonte bat ireki dio esan dionean, uzteko bere biziera bere ondasun-ekin eta bere jarduer-ekin segurtatua, emateko den-dena behartsuei, eta has dezala berarekin erromes-biziera bat, gure artean Jainkoaren erreinua sortzeko. Ondo ulertu zuen gazteak, preso sentitu zen eta triste alde egin zuen. Hau da gure erronka: kristau betetzailen segurtasuna utzi eta, Jesus-ekin, etorkizun ezezagunaren erromes kreaizaile bihurtu.

Urteko 20. astea.

San Pio X.a, 257. *aita santua*.

San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*.

[Ezekiel profetaren liburutik 28,1-10: Zu gizaki huts zara eta ez jainko, nahiz eta Jainkoaren pareko zarela uste duzun. **Salmoa: Deuteronomio 32:** Nik dut heriotza eta bizia ematen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19,23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berrito diotsuet: jostorrazaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake».

Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?»

Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare.

Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Zail da erreinuaren logikan sartzea. Den-dena utzi behar da: ondasunak, harremanak, lekuak, karguak; hain zuzen ere,

bihotzaren eta gure sormenaren erdigunea Jainkoak eta haren erreinuak hartzen dute. Ematen du, erabaki honek gauza guztiez husten gaituela; alabaina, utzi dukeguna halako ehun itzultzen digu, baina gu geu ezereen eta inoren jabe izan gabe, harremanen egiak azaltzen duen askatasunean. Jabe izatetik elkarteko izatera pasatzea, gamelu bat orratzaren begitik pasatzea baino zailago da. Jainkoaren dohaintzat harturik bakarrik da posible.

Jainkoaren Hitza ala Kristoren Gorputza?

«Zer da garrantzizkoago, Jainkoaren Hitza ala Kristoren Gorputza? Egia esan nahi badidazue, dudarik gabe hau behar didazue erantzun: “Jainkoaren Hitzak ez du Kristoren Gorputzak baino inportantzia txikiagoa!” Gainera, Kristoren Gorputza banatzen digutenean, ardura handia izaten dugu eskutik ezer eror ez dakigun; ardura bera izan behar dugu, hots egiten digutenean, Jainkoaren Hitzeko ezerk alde egin ez diezagun bihotzetik, geure gogoia edo geure mihia beste gauza batzuetan ipiniz. Izan ere, ez da erru txikiagoa Jainkoaren Hitza zabar hartzea, Jaunaren Gorputza zabarkeriaz lurrera erortzen uztea baino» (San Agustini egotzia, baina egiaz Arlesko San Zesareorena (470-543); ikus Misa Dominical. Bartzelona, 20 y 27 agosto; 3 y 10 septiembre 2017, 3. or.).

Urteko 20. astea.

Andre Maria Birjina Erregina.

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*.

[Andre Mariaren MEZA: Isaias 9,2-4.6-7. Sal 112,1-2.3-4.5-6.7-8. Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukas 1,26-38.]

[Ezekiel profetaren liburutik 34,1-11: Horien hortz artetik aterako ditut ardiak eta ez dituzte berriro elikagai izango. Sal 23 [22]: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Eguneko lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak.

Goizeko bederatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldirik aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?” Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”.

Iluntzean mahasti-nagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaizanean, besteek baino gehiago har-

tuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten.

Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa jasan du-gunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adis-kide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri be-zainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehe-nengoak azkeneko».

Jesusek, bihotza dar-dar, egunero topo egiten zuen lurrik gabeko landa-jende pobrearekin, plazan lanerako nork hartu zain zegoenarekin; besteren uztarako lan egiteko, gero. Horrela irabazten zuten egunean eguneko ogia. Lanerako iluntze-alde-ra hartuak izan zirenei, lehen ordukoei bezalako egun-soldata eman die mahasti-jabeak. Neurri beraren beharra dute guztiek. Lanerako azken orduan hartuak izan direnen zain egotea, ziur-tasunik gabea eta mehatxagarria, soldata segurtatua duten lehen ordukoek lana baino mingarriagoa izan da. Plazan zain egotea ere, edozein ordutan deituak izateko prest egotea da.

[Ezkiel profetaren liburutik 36,23-28: Bihotz berria emango di-
zuet eta barnean espiritu berria ezarriko. **Sal 51 [50]:** Ur
garbiz ziprirtinduko zaituztet, eta garbi geldituko zarete
zeuen kutsadura guztietatik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,1,14.

Aldi hartan, Jesusek berriro parabola bidez hitz egin zien
apaizburuei eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinuarekin bere
semearen ezteiak ospatu zituen erregearekin bezala gertatzen
da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera, baina haiek
ez zuten etorri nahi izan.

Berriro beste morroi batzuk bidali zituen mandatu honekin:
“Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut
zezenak eta zekor gizenduak, prest dago dena. Zatozte ezteie-
tara”. Baina gonbidatuek ez zioten jaramonik egin: bata bere
lurretara joan zen, bestea bere negoziotara eta gainerakoek,
morroiei heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea eta, bere soldaduak bidaliz, hil egin
zituen hiltzaile haiek, eta su eman haien herriari.

Gero, bere morroiei esan zien: “Ezteiak prest daude, bai-
na gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzeetara eta
deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak”. Atera ziren morroiak bi-
deetara eta aurkitutako guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto.
Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen.

Erregeak, bazkaltiarrek ikustera sartu zenean, eztei-jan-
tzirik gabe zegoen bat ikusi eta esan zion: “Adiskide, nolatan
sartu zara hona eztei-jantzirik gabe?” Hark hitzik ez. Erregeak

mahai-zerbitzarietara esan zien, orduan: “Esku-oinak lotu eta bota ezazue kanpora, ilunpera; han izango da negarra eta hortz-karraska!” Zeren gehiago baitira deituak, aukeratuak baino».

Mateoren ebanjelioko parabola gogor honek judu-herriaren historia kontatu digu. Jainkoak guztiak gonbidatu zituen herri bateratu eta alai baten jai elkartekora. Batzuek, beren ondasunez eta jabetzaz seguru, uko egin diete Jainkoaren mezularietara eta tratu txarra eman diete, hiltzeraino. Israel herria gerlak eta suntsipena jasana zen. Jesusen garaian, Jainkoak dei egin die jai egitera, nola aberats bertan goxo kokatuei, hala bideetan harat-honat galdurik dabiloz behartsuei. Baina guztiak behar dute eraman jantzi berria, hau da, ebanjelioaren arabeko bizi-erata. Indibidualismo seguruan babestu izan direnak, azkenean atarian, kanpoan, geldituko dira beren antzutasuna, oinazea eta guzti.

Urteko 20. astea.

SAN BARTOLOME, APOSTOLUA

[Apokalipsia 21,9b–14: Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak. [Sal 145 [144]: Zure fededunek ager dezzatela, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretekoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?» Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus».

Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Jesusek Natanaelekin, Bartolome ere deituarekin, egin duen topaketan, dena normal gertatu da. Felipek kontatu dio bere adiskideari, Liburu Santuak Mesias ez esana ikusi dutela Jesu-sengan. Bartolomeren objektzioa logikoa izan da: Nazaretek ez

du Biblian inolako osperik. Dena aldatu da, ordea, Jesusek berak hitz egin eta beraren bizitzako gertaera zehatz baten aipua egin dionean. Ez dakigu zer gertatu zen pikupean, baina zerbait garrantzizkoa izan bide zen, Natanaelentzat izan zuen sakontasunik inork ere nabari ez bazion ere. Bidean aurkitzen zuen jendearen bizitza zehatza irakurtzeko Jesusek zuen gaitasuna izan zen eraldaketa harrigarri batzuen jatorria.

Urteko 20. astea.

San Luis Frantziakoa, *erregea*.San Jose Calasanz, *apaiza, fundatzailea*
(*eskolapioak*).

[Ezekiel profetaren liburutik 43,1-7a: Jaunaren aintza tenpluan sartu zen. Sal 85 [84]: Gure lurraldean kokatuko da Jaunaren aintza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta beste leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurtean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Kristo.

Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Irakur dezagun testu hau geure «irudiaren kulturatik». Lege-maisuek eta fariseuek itxurakeria lantzen zuten, jantzi

bereziekin, moraltasun zorrotzeko diskurtsoekin, jendeak ka-
lean beraiei egin beharreko gurpenekin eta nola sinagogan hala
jai-otorduetan berentzat hartzen zituzten aitorten-postuekin.
Kosmetikoa zuten beren irudia. Ez betetzen zuten esaten zutena,
ez laguntzen zieten hatz batez ere zamapean zapaldui. Xume
zerbitzari izateak, titulu eta tratu-bereizketaren bila ibili gabe:
horrek du eraikitzen erreinua egunean eguneko eginkizun eta to-
paketetan. Emankortasuna dugu lantzen, eta ez begi-bistarako
itxurakeria, azal agorrekoa, ordaindua edo txalotua.

Apaltasuna, etsipena, otoitza

«... Horregatik, azken lekuan jarri nahi dut nik eta zure umilazioa
partekatu, “zure partaide” izateko (Joan 13,8) zeruetako erreinuan.

Baina zuk, Jauna, ondo ezagutzen duzu nire ahuldadea; goizero
hartzen dut asmoa apal bizitzeko, eta iluntzean jabetu ohi naiz, ha-
rrokeria-huts asko egin dudala berriro. Orduan, etsipena sentitzen dut
tentazio, baina badakit etsipena ere harrokeria-era bat dela. Horrega-
tik, ene Jainko, zugar bakarrrik eraiki nahi dut neure esperantza; zuk
den-dena dezakezunez, ernearaz ezazu nire ariman gogo dudan ber-
tutea. Mesede hau mugarik gabeko zure errukitik lortzeko, behin eta
beriz errepikatuko dizut: “Jesus, bihotz otzan eta apala, egizu nire
bihotza zurearen antzeko”». (Jesus Haurraren Teresa santua (1873-
1897), karmeldarra, eliz irakaslea).

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina (Adin handikoen Zaindaria)*. Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea (Gurutzearen Alabak)*.

§ Josue 24,1-2a.15-17.18b.

Egun haietan, Israelgo leinu guztiak bildu zituen Josuek Sikiem. Dei egin zien Israelgo arduradun, buruzagi, epaile eta funtzionarioei ere, eta Jaunaren aurrera agertu ziren. Orduan, honela mintzatu zitzaion Josue herri osoari:

«Jauna zerbitzatzea gaizki iruditzen bazaizue, aukera ezazue gaur zein zerbitzatu: zuen arbasoek Eufrates ibaiatz bestaldean zerbitzatu zituzten jainkoak ala amotarren jainkoak, orain bizi zireten herrialdeko jendearenak, alegia. Nik eta nire etxe-koek Jauna zerbitzatuko dugu».

Herriak erantzun zuen: «Urrun gugandik Jauna uztea, jainko arrotzak zerbitzatzeko! Jauna dugu geure Jainkoa; berak atarra gaitu gu eta gure arbasoak Egiptotik, esklabotzatik; geure begiz ikusi ditugu berak egindako mirari handiak; berak zaindu gaitu egin dugun bide guztian zehar, eta igaro ditugun herri guztietan babestu gaitu. Beraz, guk ere Jauna zerbitzatuko dugu, bera baitugu geure Jainkoa».

[Sal 34 [33]: Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.]

§ San Paulok Efesoarrei 5,21-32.

Senideok: Izan zaitezte elkarren menpeko, Kristori diozuen begiruneagatik. Emazteak izan daitezela beren senarraren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputza duen Elizaren salbatzaile delarik. Eliza Kristoren menpeko den bezala, izan bitez emazteak denetan senarraren menpeko.

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina (Adin handikoen Zaindaria)*. Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea (Gurutzearen Alabak)*.

Senarrok, maita ezazue zeuen emaztea, Kristok Eliza maitatu eta beraren alde bere burua eman zuen bezala. Bere burua eskainiz, sagaratu egin zuen Eliza, Bataioko urez eta hitzaren indarrez garbituz. Horrela prestatu zuen beretzat Eliza distiratsua, zikinik eta zimurrik edo horrelako ezer gabea, santua eta kutsugabea.

Era berean, senarrek ere beren gorputza bezala maitatu behar dute beren emaztea. Emaztea maite duenak bere burua maite baitu. Ez du inork bere gorputza gorrotatzen, baizik eta jaten eman eta zaindu egiten du, Kristok Elizarekin egiten duten bezala. Gu guztiok gorputz horren atal gara.

«Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu, eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira».

Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 6,60-69.

Aldi hartan, Jesusen ikasleetako askok esan zuen: «Gogorra da hizkera hau. Nork adi dezake?»

Jesusek, bere baitan oharturik ikasleak marmarka ari zirela, esan zien: «Onartezina iruditzen al zaizue hori? Eta Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, orduan zer? Espiritua da bizia ematen duena; gizakiak ezin du berez ezer eman. Nik esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk». Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuen gainera: «Horregatik esan dizuet ezin

Santa Teresa Jesusena Jornet eta Ibars, *birjina (Adin handikoen Zaindaria)*. Santa Joana Elisabet Bichier des Âges, *birjina, fundatzailea (Gurutzearen Alabak)*.

dela inor ere nigana etorri, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen».

Geroztik, haren ikasleetariko askok atzera egin zuen, eta aurrerantzean ez zen harekin ibili. Orduan, esan zien Jesussek Hamabiei: «Zuek ere alde egin nahi al duzue?» Erantzun zion Simon Pedrok: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu Zu zarela Jainkoaren Santua».

Jesusen elkartean izandako haustura bat dakar Joan ebanjelariak. Askok alde egin du Jesusen proposamena eta hizkuntza entzutearekin. Uste dute, gainerakoengatik bizia ematea eta izaera politiko eta militarreko egitasmo ondo egituratu bat ez azaltzea, ez doazela inora. Hain juxtu, lehen irakurgaian judu aberztale baten eredia dator: Josue, zeinek, Jordan ibaiaren ertzetik eta Irteerako Jainkoarekiko leialtasunez, konkista-prozesu bat antolatu baitzuen, eta basamortutik irten berria zen herria bere lurralde propio batera gidatu.

Jesusen mezuak ematen du, indarrik gabea, funtsik gabea, errealismorik gabea dela. Zertako da on Jesusen gorputz-odolez elikatzea? Guztiengatik heriotzaraino emana den Jainkoaren bizitzatik sortzen den adorea ulertu eta onartzea, Espirituaren bidez bakarrik da posible. Pedrok argiro baieztatu du: «Jauna, norengana joango gara? Zure hitzek betiko bizia dute». Jesusen hitzetatik jasotzen den bizia ez datza zorion-zurrut batzuk, iraungitze-datadunak, izatean; ez da mugatzen ere jarraitzaile-taldetxo batera edo herri bakar batera, ezta lurralde batzuetara ere. Bizi orokorra da eta azkenik gabea. Gure arteko maitasunak dena birbiziarazten eta antolatzen du.

Urteko 21. astea.

Santa Monika, *aitorlea*.San Lizerio, *gotzaina*.

[San Paulok 2 Tesalonikarrei 1,1-5.11b-12: Jesus gure Jaunaren izena goretsia izango da zuengan, eta zuek harengan. **Sal 96 [95]**: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Jendeari zeruetako erreinuko sarre-
ra ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dute-
nei ez diezue uzten.

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Baten bat judu berri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate eta, egin duzuenan, zuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernurako.

Ai zuek, gidari itsuok! Honela irakasten duzue: “Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko urreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Zoro itsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaratzen duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: “Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaratzen duen aldarea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

Mateo ebanjelariak kritika gogorra hasi du, karikatura-marra lodikoa, fariseuen taldean nabari dituen jarrerren aurka,

Urteko 21. astea.

Santa Monika, *aitorlea*.

San Lizerio, *gotzaina*.

baita artean halakoen eraginpean bizi diren bere kristau-elkar-
teko kide batzuen aurka ere. Arau ñimiño eta zenbatezinek he-
situ egiten dute jendea armiarma-sare batek bezala, eta ez diote
uzten erreinuko bizian sartzen, guztientzat grazia eta onginahia
den hartan. Espiritu fariseua ikasle bila ibili ohi da eta, ondoren,
arauen pean itotzen ditu. Probetxu zale dira eta jende ahularen
ondasunak irensten dituzte, amarruz. Hesitu, nahasi eta estutu
egiten dute jendea; erreinuak, berriz, doan eskaintzen du gar-
dentasuna, poza, askatasuna.

Loiolako Ignazio santuaren gomendioa

«Ez dut ikusten bititza honetan beste modurik esker oneko neure
zorria ordaintzeko, hilabete batean Gogo Jardunak egin ditzazun era-
ginez baizik». (*Loiolako Ignaziok ongile bati, 1536an*).

«Gogo Jardunak, bititza honetan pentsa, senti eta uler dezake-
dan gauzarik onenak dira; gizakiak bere probetxurako egin eta fruitu
emateko, eta beste askori laguntzeko». (*Loiolako Ignaziok Aita Ma-
nuel Miona-ri gutuna, 1536ko azaroaren 16a*). (*Huarte, Ignaziok:
Gogo Jardunak nola egin; euskaraz nork argitara emango zain*)

[San Paulok 2 Tesalonikarrei 2,1-3a.14-17: Eutsi tinko hartu dituzuen irakatsiei. Sal 97 [96]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,13-26.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue; legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe. Gidariitsuok! Eltxoa iragazten duzue, eta gamelua irensten!

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz beterik dauden bitartean. Fariseuitsu hori! Garbi ezazu lehenik edalontzia barrutik, kanpotik ere garbi geldidadin».

Fariseismoaren beste ezaugarri bat, gauzak bere onetik ateratzean datza, desfokatzean. Lupaz erreparatzen diete arau txikiak, adibidez landare txikiak hamarrenak ordaintzeari, eta horretan jartzen dute beren arreta, xehetasun txikiak betetzean. Hainbestearino estutzen dute beren arima, non ez baitu jada lekurik izaten erreinuaren proposamen handientzat, adibidez errukiarrentzat eta zuzentasunarentzat. Ahaztu egiten dira bihotzaz non bizi baita Jainkoa «gure barnearen barnetasun handien» bezala (San Agustin). Barneko hutsunean usteldura joan ohi da bere bizilekua egiten, giza harremanetan lapurreta eta gaiztakeria eraginez, eta sinesten dutela dioten Jainkoa arrotz gertatzen zaie.

Urteko 21. astea.

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN
MARTIRITZA*.**

[San Paulok 2 Tesalonikarrei 3,9-10.16-18: Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan. Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6,17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea».

Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion.

Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzairen Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatzari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatzari eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua».

* Pedro Asua eta Mendia (Balmaseda 1890–Cantabria 1936), *apaiza, dohatsua, martiria*.
San Adelfo, *martiria*.
Santa Sabina, *martiria*.

Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari.

Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Joan Bataiatzailea profeta izan zen, erabat emana Jainkoak bidalitakoaren etorrera iragartzeari. Herodesen biziera ustela, nola jendaurrekoa hala pribatua, salatu zuen; baita erlijio faltsutua ere. Uko egin zion tenpluan apaizaren bizitza errespeta-tua eta aurreikusgarria hartzeari, Zakarias aitaren tradizioari zegokiokeenari, eta, iristear zen Mesias onartuz, Jainkoak zekarren berritasunari ireki zion bihotza. Ezarritako botereak preso hartu zuen. Neskatxa gazte baten dantzak, neska honen amaren gorrotoak eta janariz, ardoz eta lausenguz asebetarik zen errege baten promes arinak bat egin zutelarik, lepo egin zuten Joan. Zenbat bizitza zintzo akabatzen duten gaur egun ere apeta hutseko erabakiek!

Esteban Zudairikoa (Amezkoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1,1-9: Kristogan aberastu zaituzte gauza guztietan. **Sal 145 [144]:** Ene Jainko, ene errege, be-deinkatuko dut zure izena betiere.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24,42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein orduan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea.

Izan zaitetze morroi leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman dion morroia bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du.

Baina beste morroi gaizto hura, nagusiak luzatu egingo duelakoan, bere morroi-lagunak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, eta gogor zigortuko du eta itxurazaleek merezi dutena emango dio. Han izango da negarra eta hortz-karraska!»

Jesusen deia, gau ilunean erne egotekoa, gaur-gaurkoa da. Gauez iristen dira lapurrak, ez ikusteko moduan, etxe seguruetan zuloak eginez, edota argi-aingeruz mozorroturik eta paradisu aginduz. Norberaren edo historiaren gau ilunean iristen da

Esteban Zudairikoa (Amezkoan jaioa) eta Joan Maiorga-koa (Donibane Garazin jaioa), *apaizak*, eta lagunak, *dohatsuak*, *martiriak*, *jesuitak*.

Jauna ere, era desberdinetan. Izan daiteke, edo argitzen gaituen barne presentziaz, edo jende desjabetuagandik gure erosotasunari egindako galdera batez, edo presentzia distiratsu batez bizitza antzaldatueta beraien giza nolakotasuna dela medio. Galdera ala ziurtasun izan, garrantzikoa, berari harrera egitea da eta zerbitzatzea eskaintzen digun graziako bizitzan.

GOGO JARDUNAK EGUNEROKO BIZITZAN zer diren adierazten hasi aurretik, ekar dezagun gogora zein zen Loiolako San Ignazio. Hain zuzen, hura izan zen esperientzia espiritual hori bizi eta esperimintatu zuen lehenengoa, Jainkoaren erregalu handi beza-la. Ondoren, geuri eskualdatu zizkigun Gogo Jardunak deitzen ditugun hauek. (Huarte, Ignaziok: Gogo Jardunak nola egin; euskaraz nork argitara emango zain).

Urteko 21. astea.

San Ramon Nonnato, *apaiza, kardinala*.

San Jose Arimateakoa eta Nikodemo, *Jesusen ikasleak*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1,17-25: Guk Jesu Kristo gurutziatua predikatzen dugu, gizakientzat onartezina dena, baina deituentzat Jainkoaren jakinduria da. Sal 33 [32]: Jaunaren graziaz beterik dago lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen.

Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”.

Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten.

Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”.

Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Berriro dakarkigu ebanjelioak parabola bat erne egoteaz. Ez da ari aldien azkenaz bakarrik, baizik eta edozein aldiz; izan ere, Jauna etorri dator beti, etengabe dator, bai norberaren bizitzara, bai elkartearen bizitzara. Jainkoaren etengabeko abendualdi edo etortze horretan, berregin eta zabaldu egiten da beti gure bizitza eta herri osoarena. Egin behar duguna, beraren zain bizitzea da, gogoa prest, jarreraz baikor, planteamendu berriak onartzeko gai, geroa sortuz joateko gogotsu. Jarrera hori, Jauna iritsi aurretik sortu behar dugu. Zer izan daiteke niretzat prest dagoenaren olio?

**Ignazio: «nobelak» irakurtzean lehor eta triste,
santuen bizitzan irakurtzean pozik**

«... munduko haietaz pentsatzen nuenean, asko gozatzen nuen; baina, jada nekaturik, pentsatzeari uzten nionean, lehor sentitzen nintzen, triste eta atsekabe; aitzitik, Jerusalemara joatea pentsatzen nuenean, oinutsik eta belarra bakarrik janez ibiltzea eta santuek egiten zutena ikusi nuena, lazkeria guztiekin, egitea pentsatzen nuenean, ez zen mementoko kontsolamendua bakarrik, baizik eta pentsatzeari utzi ondoren ere gustura eta pozik... gelditzen nintzen». (*Huarte, Ignaziok: Gogo Jardunak nola egin; euskaraz nork argitarara emango zain*).




IRAILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Unibertsala: **Afrikako gazteak**

Afrika kontinenteko gazteek heziketarako eta lanerako aukera izan dezaten beren jatorrizko lurraldean.



Urteko 21. astea.

San Josue, *patriarka*.

San Gil (Egidio), *ermitaua*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 1,26-31: Munduak baliogabetzat duena aukeratu du Jainkoak. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jainak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondatsunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituen haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurrean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta konatuak garbitzen hasi zitzaion. Hurbildu zen bost talentu hartu zituenak, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Hurbildu zen bi talentu hartu zituenak, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”.

Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun

Urteko 21. astea.

San Josue, *patriarka*.San Gil (Egidio), *ermitaua*.

tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”

Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua diru-trukatzaileen utzi behar hien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”»

Salbamen historian lekaturik gaude, eta guri gomendatu digu bera aurrera eramatea. Horretarako, talentu desberdinak eman dizkigu eskura, norberaren gaitasunaren arabera, erronka horri era kreatzailean aurre egiteko, historia norberaren nortasunaren arrastoaz markatzeko. Talentu bakarra hartu zuenari, hau guztia aurpegiratu dio nagusiak: diru zaharkitua eta balio gutxitua itzuli izana, alferkeria, arriskatu ez izana, bestek sortutako eremuan eroso leku hartu izana. Sortzean, geure burua dugu birsortzen. Zerk eragozten dit etorkizun gizatarrago batean partaide izatea neure talentuekin? Beldurrak, alferkeriak, ilusio-faltak, neure burua gutxiesteak?

Urteko 22. astea.

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoa), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)**.

§ Deuteronomio liburitik 4,1-2.6-8.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Orain, Israel, entzun irakasten dizkizuedan legeak eta erabakiak, eta bete. Horrela, biziko zarete eta Jaunak zeuen arbasoen Jainkoak emango dizuen lurraldean sartuko zarete eta haren jabe egingo. Ez erantsi, ez kendu, nik agintzen dizuedanetik ezer; aitzitik, bete nik ematen dizkizuedan Jaunaren, zeuen Jainkoaren, aginduak.

Gorde itzazue eta bete, horrek jakintsu eta buru argi egingo baitzaituzte herrien aurrean. Lege hauen berri izatean, esango dute: “Bai herri jakintsua eta buruargia nazio handi hau!”

Izan ere, ba ote da nazio handirik, bere jainkoak, guk Jauna geure Jainkoa bezain hurbil dituenik, dei egiten diogun baikoitzean? Ba ote da nazio handirik, gaur nik adierazten dizuedan irakaspen hau bezain lege eta erabaki zuzenak dituenik?»

[Sal 15 [14]: Nor bizi, Jauna, zure etxean?]

§ Santiago apostoluaren gutunetik 1,17-18.21b-22.27.

Ene senide maiteok: Emaizta on eta dohain bikain oro goitik dator, Aitagandik, aldaketarik eta ilunaldirik ez duen argien Egileagandik. Berak, hala nahita, bizia eman digu egiaren mezuaz, sorkari guztien artean lehenengoak izan gaitezen.

Onar ezazue otzan-otzan zuengan erein den eta zuek salbatzeko indartsu den mezua. Bete ezazue mezua, eta ez entzun bakarrik, zeuen burua engainatuz.

* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*. Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea).

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoan), *dohatsua*, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)*.

Jainko Aitaren aurrean benetan garbi eta akatsik gabeko erlijioa hauxe da: umezurtzei eta alargunei beren premietan laguntzea, eta munduko gaiztakeriarekin nork bere burua ez kutsatzea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,1-8.14-15.21-23.

Aldi hartan, fariseuak eta Jerusalem dik etorritako lege-maisu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta ikasleetako batzuek esku kutsatuekin -hau da, eskuen garbikuntza egin gabe- jaten zutela ikusi zuten. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbikuntza egin gabe; eta badute ohiturazko beste hamaika bete-behar: hala nola, edalontzi, pitxer eta suilen garbiketa.

Horrela bada, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten Jesusi: «Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokutzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?» Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean:

Herri honek ezpainez ohoratzen nau,
baina nigandik urruti du bihotza;
alferrik naute gurtzen,
hauen irakaspena giza agindu hutsa da”.

Zuek, Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue».

Urteko 22. astea.

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733 – Paris 1792, Iraultzakoa), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan)*.

Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia».

Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Jesusek argi bereizten ditu giza ohiturak eta Jainkoaren legeak, beti jakinduria- eta bizi-iturri diren hauek. Batzuek uste dute Jainkoarekiko leialago direla, eta ehunka lege ñimiño asmatzen dituzte, jendearen bizia hesitu eta itotzen dutenak; zurrunten dutenak, bai oinarrizko legeen bizipena, gainerakoekiko harremanetako zuzentasuna eta errukia bizitzea, alegia, bai Jainkoari bihotza irekitzea, bai maitasunez giza historian gauza guztiak berri egitea. Jesusek esan dio herriari, ez dezala ezabatu agindu bakar bat ere eta ez dezala gehitu agindu berririk ere, atsekabe argi nahiz anbiguo izan daitekeen giza zama ekar lezakeenik. Bete ditzagun berak eman dizkigunak.

Jesusek funtsezkoari erreparatu izan dio beti, bihotzari; izan ere, honetan garatzen dira portaerak, hau da, bizia, maitasuna edo gorrotoa, zuzentasuna edo abusua, etsipena edo esperantza markatzen dituzten portaerak. Egunero behar dugu miatu nork bere bihotza, ikusteko zer etorkizun ari den heltzen geure afektibitate sakonean. Afektiboa da efektiboa: «Jesus, egizu gure bihotza zurearen antzeko».

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, 64. *aita santua eta eliz irakaslea.*

[San Paulok 1 Korintoarrei: Jesu Kristo gurutziltzatua hots egin nizuen. Sal 119 [118]: Bai maite dudala, Jauna, zure legea!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurra egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

«Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko.
Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali
nau, zapalduen askatasuna ematera,
Jaunaren onginahi-urtea hots egitera».

Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan.

Jesus honela hasi zitzaion: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginahiaz esaten zituenengatik. Baina hau zioten: «Ez al da, ba, hau Joseren semea?»

Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogoraziko didazue, noski: «Sendagile, sendatu zeure burua», eta esango: «Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak»».

Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargun asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabe-

Urteko 22. astea.

San Gregorio Handia, 64. aita santua eta eliz irakaslea.

tez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legendunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik».

Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Nazareteko jendeak entzuna zuen Jesusek gauza harrigarriak egiten zituela. Kasu batzuetan, mireспен-iruzkinak izaten ziren, uste handiak harrotu zituztenak bere herrira joatean Jesusek egingo zituenez, bizitza guztiko auzokideen artean. Beste batzuetan, burua galdu zuela ere esaten zen. Larunbatean sinagogan hitz egin zuenean, denak harritu ziren haren hitzez. Baina ez zuen egin uste zuten bezalako gauza harrigarriak, aseko zituenik. Jesus gizon askea da, eta ez die erantzuten, ez presioei, ez gehiegizko usteei; herriaren egiazko premiak ditu aintzat hartzen, harrigarria den erreinuaren dohaina eskainiz.

Urteko 22. astea.
San Moises, *profeta*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 2,10b-16: Giza maila hutsez, giza-kiak ez du onartzen Jainkoaren Espirituari dagokiona; Espiritua duenak dena juzkatzen du. Sal 145 [144]: Zintzoa da Jauna bere bide guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen.

Bazen sinagogan espirtu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian hau zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazarettarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua».

Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horren-gandik!» Deabruak jendartean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik.

Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarki galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espirtu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira».

Jesusen entzutea herrialde hartako bazter guztietara zabaldu zen.

Jesus bertan dela, sinagoga ez da Liburu Santua irakurri eta komentatzeko lekua bakarrik; gainera, jendea saneatzeko leku bihurtu da. «Espirtu lohia» izateak, barnetik dominatua egotea esan nahi du: pertsonaren barne harmonia hausten duten indarrez dominatua, pertsonaren bizikidetasun-harreman sa-

Urteko 22. astea.
San Moises, *profeta*.

noak aldarazten dituzten indarrez dominatua. Geure hizkuntzan esango genuke, zauri psikologikoez eta indar espiritualek bat egiten dutela pertsona barnean banatzeko eta gizarte-ehuna urratzeko. Jesusengan harrigarri gertatu da beraren «aginpidea», gaitz orotatik askatzen baitu. Jesusekin etengabe bat egiteak gero eta sanoago eta saneagarriago egingo gaitu, bera bezala.

Pertsona-trafikoa

Pertsonen Trafikoaren kontra borroka egitea, premiazko beharra Brasilgo Eliza Katolikoarentzat.

Batzordearen Presidenteak [Brasilen] azpimarratu du: aldi berean «beharrezkoa da organizatzea geure elkarte eta elizbarrutietan, trafikoa desagertu dadin; beharrezkoa dugu erakunde publikoen lankidetzatza». Elizak eskatu beharra du «pobretasuna desertetzea; izan ere, Trafikoaren biktima asko, bizitzeko beraiek jasaten dituzten baldintza txarren ondorio dira». Baina ezin izan gara gizajo; izan ere, askotan «talde organizatuak dira, merkatua kontrolatzen duten mafioso, errentagarritasun handia lortzen dutenak, gizakia esplotatuzetik datorenen dirua». (*Religion Digital 2017-07-02*)

5

Asteazkena / Eguaztena

IRAILA

Urteko 22. astea.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.

Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea (Karitateko Misiolariak)*

[**San Paulok 1 Korintoarrei 3,1-9:** Gu Jainkoaren lankideak gara; zuek, berriz, Jainkoak lantzen duen soroa, Jainkoak eraikitzen duen etxea. **Sal 33 [32]:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4,38-44.**

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbait egiteko eskatu zioten.

Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaian amaginarreba.

Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkieten, eta hark, baikoitzari eskuak ezarriz, sendatu egiten zituen.

Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!» Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela.

Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez diezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak».

Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

Badu Jesusek indar saneagarri bat. Badira beste pertsona batzuk ere, hitz egoki batez edo entzute jakintsu batez senda-

IRAILA

Asteazkena / Eguaztena

5

Urteko 22. astea.

San Lorenzo Justiniano, *gotzaina*.

Santa Teresa Kalkutakoa, *fundatzailea (Karitateko Misiolariak)*

tzen gaituztenak estutzen gintuzten eta zurrundurik edukitzen gintuzten gaitz desberdinetatik. Jesusek ere jende asko sendatu du hurbiltasun-keinu batez: eskuak gainean ezarriz. Egunsentian bakardadera joan ohi da, otoitz egitera. Hor jabetzen da, arrakasta ez dela irizpidea gelditzeko edo joateko, baizik eta erreinuaren zerbitzua dela irizpidea. Goiz irten ohi da urrunago eta galduago diren herrixketara joateko; haietara ere iritsi beharrekoa da Jainkoak eskaintzen duen Jainkoaren bizi-dohaina.

Menora (7 besoko argimutla [hobe: berezkoa + sei beso], Irteera liburua 25.31; 37.17-26...)



Argazkian menora bat (argimutla) zizelkatua harri batean. Galileako Magdala herriko sinagoga batean aurkitua. Segur aski, Maria Magdalakoak eta Jesusek ezagutua.

Menora, gaur egun, juduen sinbolorik handienetakoa da.

Urteko 22. astea.
San Eleuterio, *abadea*.

[**San Paulok 1 Korintoarrei 3,18-23:** Guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena. **Sal 25 [24]:** Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haie-tako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendeari irakasten jardun zuen.

Hitzaldia bukatzean, esan zion Simoni: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino.

Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaizen Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simoni: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara».

Urteko 22. astea.
San Eleuterio, *abadea*.

Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Aintzira inguruan, hainbat unetan mintzatu ohi zen Jesus jendearekin: arrantzua egitean, merkatukoan, adiskidetasunean, lanekoan... Topaketa baten ondoren, Jesussek Pedrori esan dio itsasoan barna arraunean egiteko. Ugari harrapatu dute arrainik ez zen puntuan. Pedrok badaki Jesus santu baten aurrean dagoela, eta beragandik apartatzeko eskatu dio bera bekatar bat delako. Kontrakoa izan beharko zukeen, ordea, otoitza: «Jauna, ez apartatu nigandik, bekatar bainaiz». Pedrori misio baterako deia egin dio Jesus: hots egin behar du, Jainkoa hainbestearaino hurbildu zaigula bere Semeagan, non «madarikatu-zat» kondenatu baitute.

Gau batean amets egin nuen, Jesusekin nenbilela hondartzan. Bizitzako pasadizo asko etorri zitzaidan burura. Pasadizo bakoitzeko, hanka-arrastoak eratzen ziren harean: batzuk nireak, besteak Jainkoarenak. Batzuetan bi arrasto-pare; besteetan arrasto-pare bakarra. Tristuraz konturatu nintzen, tristura ematen zidaten pasadizoen kasuan arrasto-pare bakarra agertzen zela.

Orduan esan nion Jainkoari: «Zuk agindu zenidan beti neurekin izango zintudala. Baina konturatu naiz, nire bizitzako pasadizo tristeetan, arrasto-pare bakarra, nirea, gelditzen dela harean. Zergatik gehiena behar zintudanean, ez zinen zu nirekin ibiltzen?»

Jainkoak erantzun zidan: «Ene seme: nik ez zaitut sekula bakarrik utziko. Arean arrasto-pare bakarra ikusten zenuenean, nik zu besoetan hartzen zintudalako zen». (Una parábola: pisadas en la arena, Carmelo Urso, Venezuelako kazetari eta idazlea).

Urteko 22. astea.
Santa Regina, *martiria*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 4,1–5: Jaunak agertuko ditu bihotzeko asmoak. Sal 37 [36]: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,33-39.

Aldi hartan, fariseuek eta lege-maisuek esan zioten Jesusi: «Joanen ikasleek sarri egiten dute barau eta otoitz, baita fariseuen ikasleek ere; zureak, ordea, jan eta edan ari dira».

Jesusek erantzun zien: «Nolatan nahi duzue ezteietara deituek barau egitea, senar berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan, egun hartan, egingo dute barau».

Parabola hau ere esan zien: «Inork ez du jantzi berririk urratzen, zaharrari adabakia ipintzeko; bestela, jantzi berria hondatu egingo litzateke, eta zaharrari ez litzaioke berriaren adabakia egoki etorriko.

Ez du inork ardo berririk sartzen ere zahagi zaharretan; ardo berriak zahagiak lehertu egingo lituzke; ardo isuri egingo litzateke eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartu behar da. Ardo zaharrek ohitua dagoenak ez du berririk nahi, “zaharra hobea duk” esaten baitu».

Jesusek eta ikasleek ez zituzten gordetzen errituzko barauak. Hori bai, «jasaten zuten» goserik, biziera behartsu eta ibiltariak zekarkienik. Behin baino gehiagotan konparatu izan du erreinua Jesusek eztei-jai batekin. Ikasleak, beraren adiskideak, jende alai eta jai zale dira. Jesus ez da etorri juduen mun-

Urteko 22. astea.

Santa Regina, *martiria*.

duko hausturetan adabakiak ezartzera, ezta ardo berria zahagi zaharretan ematera ere. Jesusek eman digun bizi berriak jaietako jantzia estreinatzearen poza du berekin, eta uzta berri bateko ardoa edatearena. Frantzisko aita santuak asko azpimarratzen du poza, ebanjelioaren araberrako bizieraren funtsezko alderdi bezala.

Zergatik jarraitu Elizan?

Hans Küng teologo handia gogor zigortu zuen Vatikanok; besteak beste, unibertsitatean teologia irakastea debekatu zioten. Hartan, jende batek galdetu zion: Nolatan jarraitzen duzu Elizan? Nolatan ez esan agur berari eta apaiz izateari? Segidako hau da erantzunaren zatitxo bat.

«Hona nire funtsezko erantzuna: Elizan jarraitu nahi dut, Jesusen arazoa konbentzigarri gertatu zaidalako, eta eliz elkarte, akatsak eta guzti, JESU KRISTOREN DEFENDATZAILEA delako, eta horrela jarraitu behar duelako. Honen baitan dagoke arazo eginkor guztia: lekuren batean parrokia-erretore batek Jesus hots egitean; katekistaren batek Kristoren erara irakastean; norbanako batek, familia batek edo elkarte batek benetan otoitz egitean, esaldirik gabe; bataio bat ospatzean Jesu Kristoren izenean; elkarte konprometitu batek, bere ondorioak izango dituen Afaria ospatzean; Jainkoaren indarrez, era misterioitsuan, bekatuen barkamena eskaintzean; nola jainkozko zerbitzuan hala giza zerbitzuan eta irakaskuntzan eta pastoraltzan, solasaldian eta diakonian Ebanjelioa hots egina izatean, egiaz aurre-biziz eta post-biziz. Hitz gutxiz esateko, Kristori jarraitzea gauzatzean; «Jesu Kristoren arazoa» aintzat hartua izatean...». (Hans Küng teologoa)

§ Mikeas profetaren liburutik 5,1-4a.

Honela mintzo da Jauna:
 «Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena,
 zugandik aterako da Israelen buruzagia.
 Aspaldikoa da honen sortzea,
 betiereko egunetakoa.
 Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria,
 amak haurra izan dezan arte.
 Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak
 Israelgoengana itzuliko dira.
 Sendo eutsiko dio
 eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez,
 Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz.
 Lasai biziko dira herritarrak;
 handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino,
 eta bakea ekarriko du».

[Sal 13 [12]: Pozaren pozez nago Jaunarekin.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-16.18-23.

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren ja-
 torri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda
 eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sor-
 tu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab,
 Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonek Rahaben-
 gandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek
 Jese, Jese David erregea.

Urteko 22. astea.

ANDRE MARIA BIRJINAREN JAIOTZA.

Artziniagako, Koruko, Guadalupeko, Arrateko,
Haizpeko... Andre Maria.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiassek Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiassek Babiloniako erbestealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu
eta semea izango du,
eta Emmanuel ipiniko diote izena
(Emmanuel izen honek «Jainkoa gurekin» esan nahi du)».

Maria norabidetua zegoen jaio aurretik Seme gizon eginaren Ama izatera. Hauxe du bere bizitzako gertaera nagusia. Gaurko jai honetan, jaiotza honek belaunaldi guztientzat berekin duen zoriontasun osoa ospatzen dugu. Beraren askatasuna eta giza joan-etorriek behar izaten duten denbora errespetatuz, Mariaren prestaera garatzen joan zen Jainkoa, beraren familia-bizitza, jokoak eta nola haurtzaroko hala gaztaroko ikasketak zirela medio, beraren ulermenaren gaindi zegoen misterioa onartzeko. Iragarpeneko aingerua aurkeztu zitzaionean, Maria prest zegoen bere buruaren ekarpena egin eta berez ezinezko zena onartzeko.

«Zure jaiotzak, Jainkoaren Ama, poza iragarri dio mundu guztiari. Zugandik jaio da zuzentasun-eguzkia, Kristo gure Jainkoa, madarika-zioa ezabatuz bedeinkazioa ekarri diguna, eta, herioa garaituz, betiko bizia eman diguna». (Gorespenetako Benedictus-eko antifona?)



Andre Mariaren Jaiotza, Kristok ekarri dizkigun ...
dohain guztien hasiera izan da: Mariagan
haragituko da Jainkoaren Semea.

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *misiolaria, jesuita.*

(*Ikus beherago Arantzazuko Andre Mariaren Meza*)

§ Isaias Profetaren liburutik 35,4-7a.

Esan bihotz-beldurtiei:

«Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa!
Hura bera dator zuek salbatzera
eta merezia duten zigorra etsaiei ematera».

Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; basahuntzak bezala egingo du jauzi herrenak eta oihiu egingo pozez mutuaren mihiak.

Urak sortuko dira basamortuan eta errekek eremuan; lur idorra aintzira bihurtuko da eta lur agorra iturri.

[Sal 146 [145]: Goretzazu Jauna, ene barrena.]

§ Santiago Apostoluaren gutunetik 2,1-5.

Ene senideok: Ezin elkartuak dira Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuagan duzuen sinesmena eta pertsonen artean bereizketa egitea.

Eman dezagun zuen batzarrean bi gizon sartzen direla, bata aberatsa, urrezko eraztunez eta dotore jantzia, eta bestea pobrea, zarpail jantzia; eta dotore jantzitakoari sekulako begiramenez esaten diozuela: «Eseri zu hemen, ohorezko to-kian»; pobreak, berriz: «Hago hi hor zutik» edota «jar adi lurrean, nire oinazpikoaren ondoan». Horrela jokatzuz, ez al zarete zeuen artean bereizketa egiten ari, eta ez al duzue irizpide okerreaz epaitzen?

Entzun, ene senide maiteok: Ez al ditu aukeratu Jainkoak munduaren begietan pobre direnak, sinesmenez aberats izateko eta bera maite dutenei agindutako erreinua ondareztat jasotzeko?

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7,31-37.

Aldi hartan, utzi zuen Jesusek Tiro aldea eta, Sidonen barna, Galileako itsasora itzuli zen berriro, Dekapolisko lurraldean zehar.

Gizon gor eta hitz-motela eraman zioten, eta eskua gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jendeagandik aparte harturik, hatzak belarrietan sartu zizkion eta listuz mihia ukitu. Gero, zerurantz begiratzuz, hasperen egin eta esan zion: «Effeta», hau da, «ireki». Eta une berean, belarriak ireki zitzaizkion, mihia askatu eta garbi hitz egiten hasi zen.

Gertatua inori ez esateko agindu zien Jesusek; baina zenbat eta gehiago agindu, orduan eta areago zabaltzen zuten.

Biziki harrituta, zioten: «Ondo egin du dena: gorrei entzun ahal izatea eman die eta mutuei hitz egitea».

Itun Zaharreko profetengan behin eta berriz errepikatzen diren iragarpenek gauzatzeraz etorri da Jesus. Mutuak, gorrak eta itsuak, medizina gutxi garatua zuten herri haietan hain sarritakoak zirenak, baztertu egiten zituzten familiako eta elkarteko bizitzan partaide izatetik. Jesus, berriz, guztiak sendatzera etorri da eta guztiak bizitzan txertatzera.

Santiagoren irakurtean, zokoratzearen eta pobretasunaren beste arrazoi bat ageri da. Hor dator aberats bat, eta ondo har-

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *misiolaria, jesuita.**(Ikus beherago Arantzazuko Andre Mariaren Meza)*

tzen dute elkartean. Hor dator pobre bat, eta zutik uzten dute edota lurrean esertzeko esaten diote. Ez zen izan hori Jesusen jarrera. Jainkoak behartsuak hautatu zituen elkartearen erdian ipintzeko eta erreinuaren kreatoraile bihurtzeko.

Palestinatik at, Tiron eta Sidonen, gor bat sendatu du Jesus, hurbiltasunez eta txeraz hitz egiteko zailtasunak zituen bat; horretarako, hatzak ipini dizkio belarrietan eta mihian. Unibertsala da Jesusen misio sendatzailea. Gaur ere egiaztatzen dugu, nola entzuten duten gorrek, periferia askotan, Jainkoaren hitza, eta nola entzuten dioten elkarri, eta nola, mekanismo sozialen eraginez isilaraziak izan direnak, hasten diren beren hitz propioa eta duina jaulkitzen, mundu zuzenago eta barne hartzaileago bat kreatoraile lagunduz.

[Arantzazuko Andre Mariaren Meza. Judit liburutik 15,8-10; 16,13-14. Salmoa: Lukas 1,46-54].

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi

Urteko 23. astea.

Arantzazuko Andre Maria.

San Pedro Claver, *misiolaria, jesuita.*

duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!» Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Ama

Gaur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigo-txok (Baltzategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa eguneko ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekit zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betea ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

Urteko 23. astea.

San Nikolas Tolentino-koa, *aitorlea*.

Frantzisko Garate (Loiola 1857 – Bilbo 1929),
dohatsua, jesuita

[**San Paulok 1 Korintoarrei 5,1-8:** Bazter ezazue legamia zaharra, Kristo, gure Pazko Bildotsa, opari eskainia izan denez gero.

Sal 5: Gida nazazu, Jauna, zeure zuzentasunaren bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarria zuen gizon bat.

Lege-maisuak eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien gogoetei igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen.

Jesusek esan zien orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?»

Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion.

Lege-maisuak eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

Sinagogak bazter batean zeukan gizon beso-elbarri bat. Jesusek, inork ezer eskatu gabe, erdira etorrarazi eta, zer entzungo urduri den batzarrean, larunbatean zer den zilegi galdetu du: on egitea ala gaitz egitea, pertsona sendatzea ala hiltzen uztea. Ez dago tarteko aukerarik, ezinezko da ezer ez egitea; izan ere, premian den batentzat zerbait onik egin badezake eta egiten ez badu, kalte egiten dio. Azken auziaren parabolan ere (Mateo 25,45) ez dago tarteko aukerarik premian denari laguntzearen eta kalte egitearen artean. Ez jardutea heriotzarekin bat egitea da.

Tomas Zumarragakoa (Gasteiz 1577 – Japonia 1622),
dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak (Gasteizko elizbarrutian).

[San Paulok 1 Korintoarrei 6,1-11: Senidea senidearekin auzitan zabilzate, eta epaile jentilen aurrean, gainera. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolomé, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena.

Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituena.

Jesu ibilia zen aintzira inguruko hirietan eta landako herrixka bakanduetan. Egiatzatu zituen jendearen premiak; ikusia zuen nola ari zen bertakotzen Jainkoaren erreinua, oinazeak sendatzen eta esperantza pizten ari zela. Gau osoa otoitzean eman zuen Jesusek, mendian, Aitarekin hizketan bere erabakia findu nahiz, eta hamabi ikasle aukeratu zituen. Nork bere izena zuen,

Urteko 23. astea.

Tomas Zumarragako (Gasteiz 1577 – Japonia 1622),
dohatsua, apaiza, eta lagunak, martiriak (Gasteizko elizbarrutian).

nork bere ezaugarriak, berezi bihurtzen zituenak, oso bestelako beren artean; guztiak, ordea, erreinua hots egiteko misio berak baturik. Frantzisko aita santua kalera irten beharra azpimarrazten ari zaigu. Fedeak bere muinean du poz-pezik partekatua izan beharra.

HAR NAZAZU ESKUTIK

Ene Jainko, har nazazu eskutik!

Deliberatuki jarraituko dizut, kontra-indar handirik gabe.

Ez diot ihes eginen bizitza honetan etor dakidakeen ekaitz bakar bati ere.

Ene indarren handienarekin utsiko diot talkari.

Halere, emadazu inoiz edo behin bake-unetxo bat.

Ez dut uste izango, xalotasunez, datorkidakeen bakea betikoa izango denik.

Onartuko dut segidan datorkidakeen kezka eta borroka.

Gustukoa dut bero eta seguru bizitzea,

baina ez naiz asaldatuko hotzari aurre egin beharko diodanean, zuk eskutik hartzen banauzu.

Alde guztietara jarraituko dizut eta saiatuko naiz ez beldur izaten.

Nonahi naizela, maitasun-apur bat distiratzten saiatuko naiz, nigan den hurkoarekiko zinezko maitasunetik.

(Etty Hillesum, Egunerokoa nazien pertsekuzio-aldian)

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).
(ikus beherago Estibalizko Andre Mariaren Meza)

[San Paulok 1 Korintoarrei 7,25-31: Ezkondua zaudela? Ez ibili banandu nahian. Ezkongabea zarela? Ez hasi emazte bila. Sal 45 [44]: Entzun, alaba, eta ikus, makur ezazu belarria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien:

«Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua. Zorionekoak orain gose zaretanok, aseko baitzaituzte Jainkoak.

Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue.

Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaituzteteanean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitzte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek.

Baina ai zuek, aberatsok, hartu baituzue zeuen poza!

Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete!

Ai zuek, orain barre egiten duzuenok, aiene eta negar egingo baituzue!

Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!»

Jesusek bi biziera kontrajarri aurkeztu ditu. Batetik, jende behartsua dago, ondradu lan egiten duen jendea bizitza ona izan dadin; bestetik, bizitza neurrigabeko metatze bezala har-

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

(*ikus beherago Estibalizko Andre Mariaren Meza*)

tzen duen jendea, harrapatzailea eta sentiberatasunik gabea gainerakoan eta lurraren beraren premiekiko eta eskubideekiko, beste guztien bizitzarako mehatxu den jendea. Bada dagoeneko zoriontasun den jenderik, berea duena Jainkoaren erreinuaren oraina; beraien bidez eta beraiek bitarteko direla ari da zabal-tzen erreinu hori. Guztientzat izango den etorkizun duin baten alde ari dira borrokan, eta beraierengan taupaka ari da jada erreinuaren behin betiko bizia.

Estibalizko Andre Mariaren Meza

[Sirak 24,1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia.

Salmoa: 1 Samuel: Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Mariak esan zuen:

Urteko 23. astea.

Estibalizko Andre Maria (*Arabako Zaindaria*).

«Handiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat neure barrua,
Jainkoa baita nire salbamena,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Estibalizko Andre Maria Birjina

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalitzen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren leian ospatu ohi zuten– eta iraileko igande batean, ziur aski Estibalizko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziakotarrekin beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalizko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalitzeko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zuten zuzen geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuten apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalitzen. (*Dionisio Amundarain*).

Urteko 23. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 8,1b-7.11.13: Senideen kontzientzia hezigabea kaltetuz, Kristoren kontra egiten duzue bekatu. **Sal 139 [138]:** Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,27-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau diotsuet zuei, entzuleoi: Maita itzazue zeuen etsaiak, egin on gorroto dizuenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari ez ukatu jantzia ere. Eskatzen dizun edonori eman, eta zeurea kentzen dizunari ez itzularazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta on egiten dizuenei bakarrik egiten badiezue on, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, dagokiena hartzekotan.

Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin on eta eman maileguz, ordainari begiratu gabe; handia izango da zuen saria eta Goi-goi-koaren seme-alaba izango zarete, ona baita hura esker txarrekoentzat eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukiorrak, zuen Aita errukiorra den bezala.

Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko

Urteko 23. astea.

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurri-zein neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Etsaia maitatzeak Jainkoaren antzeko bihurtzen gaitu, hura ez baita nahasten begia begi truk eta hortza hortz truk delako giza jarreran. Haustura-egoeretan, pertsonen, familien eta herrien artekoetan, indarkeriaren eta erresuminaren gurpila gerarazi dezakeen jokabide bakarra barkatzea da, Jainkoak barkatzen duen bezala; hark, irainaz ahazteaz gain, iraina oso begi-bistan izanik, harreman berriak sortzea eskaintzen du. Etorkizun hori sortzeko adorea, Jainkoagan beragan bakarrik aurki dezakegu. Irain asko ez dira ahazten ehun urtez bizi arren; aska gaitzke, ordea, haren pozoitik eta sanea dezakegu gorrotoaren sorburua.

Urteko 23. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

§ Zenbakiak liburutik 21,4b-9.

Egun haietan, herria, bidez gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperiturik gaude mana delako janari kaskar honekin».

Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien ziztadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko».

Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzeko sugea eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzeko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzeko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugeren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzekoari begiratzean sendatu egiten zen.

[Sal 78 [77]: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.]

§ San Paulok Filipoarrei 2,6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen gutzietan bikainena eman zion,

Urteko 23. astea.

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA.

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*.

Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihi guztiek aitor dezaten Jesu Kristo dela Jauna,
Jainko Aitaren aintzarako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

Jesus gurutzean josi zuten eta guk ez dugu ahaztu nahi giza historiako une tragiko hori. Eraikin askotan ageri da gurutzea: eskola, kale, museo... Gaur egun gurutze eta gurutziltzatu gehiegi daukagu geure munduan, Jesusez ahaztu ahal izateko. Zenbat jende ez du aurkitzen kontsolamendua mutur-muturreko oinaze-egoeratan, edota eguneroko bizitzako atsekabe ilunetan, gurutziltzatuari begira jarriz! Arrazoiak, logika, indarra, lagunartea, egitasmoak... bukatzen zaizkigunean, gurutziltzatuari berari begira jartzen gara, eta sentitzen dugu Jainkoarekiko sintonia misterioitsu bat sortzen zaigula, adorea ematen diguna eta birbiziarazten gaituena. Gu bizi gaitezen hil da Jainkoa.

Urteko 23. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

[San Paulok 1 Korintoarrei 10,14-22: Guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen baitugu denok. Sal 116 [115]: Gorespen-oparia dizut, Jauna, eskainiko.]

Neurtitza (Doloretako Andre Mariarena)

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik. / Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama bedeinkatua! / Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen kupitua.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halako oinazez ikusita? / Ama Semeak ikustean / biak oinazez berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea. / Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinazez bizi / har dezadan egizu. / Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin nazazu.

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami-mamian. / Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, / maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin arteraino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan / nagon bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar eragin. / Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau adoretzu egin.

Urteko 23. astea.

DOLORETAKO ANDRE MARIA.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-iturripean. / Sugarrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama azken egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, garaipenera. / Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan / Zeruko pozetara. Amen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 19,25-27.

Aldi hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdaleana. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!» Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!»

Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Mariak erarik hurbilenean esku hartu zuen bere Semearen gurutzean. Eta Jesusek Joan gomendatu zion, baita ikasleak eta gutako bakoitza, guri ere lagun egin diezagun geure bizitzan eta geure nekaldian. Bere presentziaz munduari ondo agertu zion Mariak, bere Semea nola maite zuen, haren arazoa eta haren ebanjelioa nola maite zituen, baita zein hurbil zen biziera zuzenaren kontrakoa salatzeagatik sufritzen ari ziren eta ari diren guztiengandik ere. Ikas dezagun Mariagandik, gurutziltzatuen ondoan bizitzen, halakoekin adorez solidario izaten, boterearen etengabeko presioaren eta unean uneko kolpeen aurrean makurtu gabe, beste guztiok higatu eta lur joarazi nahian jardun ohi baita boterea.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

§ Isaias profetaren liburutik 50,5-9a.

Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin,
ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei, masaila, bizarretik
tiraka ari zitzaizkidanei.

Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile;

horregatik, ez naiz kikildu;

horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala,

bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Ondoan dut defendatzailea: nork eraman ni auzitara?

Aurkez gaitezen elkarrekin!

Nork du nirekin auzirik? Datorrela!

Hara, Jainko Jauna dut laguntzaile: nork kondenatuko
nau?

[Sal 116 [114]: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean, bizidunen lurraldean.]

§ Santiago apostoluaren gutunetik 2,14-18.

Ene senideok: Zertako du batek «nik badut fedea» esatea,
egintzetan ez badu azaltzen? Horrelako fedea salba ote dezake?

Anaiaren nahiz arrebaren batek zer jantzirik edota egunero-
ko janik ez badu, eta zuetako batek esaten badio: «Zoaz bakean,
berotu zaitetz eta ase», baina behar duen laguntza ematen ez,
zertako balio du horrek? Halaxe fedea ere: bera bakarrik, egin-
tzarik gabe, hilik dago.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

Norbaitek esan dezake: «Zuk fedea duzu; nik, berriz, egintzak». Bada, nik esaten dizut: Erakustazu egintzarik gabeko zeure fedea, eta nik egintzen bidez erakutsiko dizut neure fedea.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8,27-35.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesusek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzairen, Gizonaren Semeak asko sufritu beharra zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztuko zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzairen honetaz.

Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanak! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin diezai bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai diezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigitatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du.

Urteko 24. astea.

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*.

Jesusen bizitzak aldaketa dramatikoa izan du. Arrakasta lortu du eta beraren bila dabilta, baina ez dakite zein den egiaz; petrikilotzat-edo daukate. Herrian duda asko da Jesusez. Batzuek diote sasi-profeta bat dela; beste batzuek, itzuli den iraganeko egiazko profeta bat dela. Beste urrats bat egin beharrean da Jesus. Horretarako, bere nortasuna baieztatu beharra du. Mesias da bera, herriarentzat bizia dakarrena, erreinuaren zerbitzaria. Hori baieztatu beharra du Jerusalemen, otsoaren aurrean, judu-herriaren erakunde boteretsuen erdian,

Pedroren aitortpenaren ondoren, Markosen testuak dio, Jesusen bizitzak eta jarraitzaileenak hartzen ari ziren ildo berrian ikasleak eskolatzen hasi zela Jesus. Eragin dituen larria eta nahasmendua direla-eta beste dei bat egin du Jesusek: «Norbaitek jarraitu nahi badit, uko egin diezaiola bere buruari eta har dezala gurutzea lepoan». Gurutzea lepoan hartzea ez zen metafora hutsa, zama latzak eta mingarriak hartzeaz ari garenean gaur erabiltzen duguna bezalakoa. Garai hartan, heriotzara galduak zirenek gurutzearen zutoin bertikala lepoan eraman behar izaten zuten. Piztuerak bakarrik argitzen digu hiltzearen zentzua guztiei bizia emateko.

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.*

[San Paulok 1 Korintoarrei 11,17-26.33: Alderdikeriak baldin badira zuen artean, hori ez da Jaunaren afaria jatea. Sal 40 [39]: Iragarri Jaunaren heriotza, bera etorri arte.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,1-10.

Aldi hartan, Jesus, herriari egindako hitzaldia amaiturik, Kafarnaumen sartu zen. Bazen han erromatar ehuntari bat, eta honek morroi bat zuen, oso maitea; morroia gaizki zegoen, hiltorian. Ehuntariak, Jesusen berri entzunik, judu buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko erreguaz.

Haiek, Jesusengana joanik, arren eta arren eskatu zioten: «Merezi du Zuk hori egitea, maite baitu gure herria eta berak egin digu sinagoga ere».

Jesu haiekin joan zen. Etxera hurbilduxea zela, lagun batzuk bidali zizkion ehuntariak, esatera: «Ez hartu nekerik, Jauna, ni ez bainaiz inor Zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zugana joaten; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du».

Hau entzutean, Jesus harritu egin zen hartaz eta, ondoren zetorkion jendeagana itzulirik, esan zuen: «Egia esan, Israelen bertan ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik». Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatua aurkitu zuten morroia.

Urteko 24. astea.

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita.*

Pertsona baten bizia ez da hesitzen bere karguan eta bere jantzian. Ehuntariak estimu handia zion morroi bati eta kezkatu-rik zebilen hartaz. Oso urrun zebilen ehuntari hori erromatar sentiera komunetik: hauek esklaboak «gauzatzat» (res) baitzitu-zen. Ehuntari honek eraikia zuen sinagoga bat juduentzat. Uste zuen, Jesusek senda zezakeela gaixoa, ukitu beharrik izan gabe. Oraino, geure arteko aldeak geure erasoan dianatzat har-tu ohi ditugu. Jesusen begiratuak, berriz, gu ez bezalako dire-nengana bihotz ireki batez hurbiltzen erakusten digu. Halakoak harrigarri eta pozgarri gerta dakizkiguke, Jainkoaren erreinua desberdintasunean ere hazten baita.

Isilik egon nahi nuke, Jauna, eta zure zain egon.

Isilik egon nahi nuke, ulertzeko
zer ari den gertatzen zure munduan.

Isilik egon nahi nuke
gauzen ondoan egoteko,
zure sorkari guztien ondoan,
eta zure ahotsa entzuteko.

Isilik egon nahi nuke
zure ahotsari antzemateko beste askoren artean.

Gauza guztiak zeudenean
isilpean –dio Bibliak–
etorri zen Jainkoaren tronutik,
oi Jauna, zure hitz ahalguztiduna.

Isilik egon nahi nuke eta harriturik gelditu
hitz bat duzulako zuk niretzat.

Jauna, ni ez naiz duin zu nigana etortzeko,
baina esan hitz bat bakarrik
eta eraldaturik geldituko da nire bizia (*Jorg Zink*).

Karlos Eraña (Aretxabaleta 1884 – Ciudad Real 1936), *marianista*, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijio-
sota eta martiriak*. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 12,12-14.27-31a: Zuek Kristoren gorputz zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal. Sal 100 [99]: Jaunaren herri gara eta haren larreko artalde.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,11-17.

Aldi hartan, Nain izeneko herrira joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin.

Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik!» Hurbildurik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramateak gelditu ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: jaiki!» Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari eman zion.

Beldurrak hartu zituen denak eta Jainkoa goستن zuten, esanez: «Profeta handia sortu da gure artean». Eta beste hau ere bazioten: «Bere herria salbatzera etorri da Jainkoa». Judean eta inguruko lurralde guztian zabaldu zen gertaera honen berria.

Emakume alargunak babesik gabe bizi ohi ziren juduen munduan. Inork ezer eskatu gabe, Jesus, gupidak eraginda, hilobira doan talde batengana hurbildu da, eta amari itzuli dio semea. Pasarte hau, Jesusek hilobitik aterarazi duen Lazarorena bezala, Jesus piztueragandik bakarrik uler daiteke. Piztuera eta bizia da Jesus, ez aldien bukaeran bakarrik, baita oraintxe ere. Berpiztu beharra dugu historian jasaten ditugun heriotzetatik, eta berpizten lagundu beharra hilobi itxien egoeran, ezin irtenik, harrapatu daudenei.

Urteko 24. astea.

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 12,31–13,13: Sinesmenak, itxaropenak eta maitasunak diraute orain; baina hiruretan handiena maitasuna da. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zeinekin konparatuko nuke gizaldi honetako jendea? Zeinen antzekoa da? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei:

“Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez”.

Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ogirik jaten ez eta ardorik edaten ez duela, eta deabruak hartua dagoela diozue. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta hau diozue: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea!” Baina hura onartu dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari».

Jesusek bere belaunaldiko jendea haur apetatsuekin alderatu du, plazan jolasean dabilzanekin, jartzen dieten musikaz sekula ere konforme ez daudenekin. Jainkoa hurbildu zen Joanengan eta uko egin zioten; aurkezten zen gero bere Seme Jesusengan, eseri zen hau gonbidatzen zutenen mahaian, dastatu zituen haien ardoak eta kritikatu egin zuten. Kontaezin beste dira Jainkoari harrrerarik ez egiteko aitzakiak. Ebanjelioaren jakinduriak, ordea, Jainkoa egoera eta mezulari guztietan nola aurkitu erakusten digu. Funtsezkoa da txundidura sor diezagun uztea, Jainkoaz eta historian dituen bide berriez dakiguna baino harago joateko.

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak (Koreako martiriak)*.

[San Paulok 1 Korintoarrei 15,1-11: Horixe da hots egiten dugun mezua, eta horixe zuek sinetsi duzuen**a. Sal 118 [117]:** Eskerrak Jaunari, ona baita.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7,36-50.

Aldi hartan, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaian jarri zen.

Honetan, emakume bat, herrian bekatarizat ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean, oinen ondoan, jarri zen negarrez, eta haren oinak malkoz bustitzen hasi zen; gero, ileaz xukatu eta musukatu ondoren, ukenduz gantzutu zizkion.

Hau ikusirik, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: «Gizon honek, benetan profeta balitz, jakin behar luke zer-nolakoa den bera ukitzen ari den emakumea, bekataria baita».

Jesusek esan zion: «Simon, badut zerbait zuri esateko». Hark erantzun: «Esazu, Maisu».

«Mailegu-emaile batek bi zordun zituen: batak bostehun denario zor zizkion, eta besteak berrogeita hamar. Nondik ordaindu ez zutelarik, barkatu egin zien bie. Bietako zeinek izango ote du maiteen?» Simonek erantzun zion: «Ghien barkatu zaiolak, nik uste». Jesusek esan zion: «Zuzen diozu».

Eta, emakumeagana itzulirik, Simoni esan zion: «Ikusten al duzu emakume hau? Zuenean sartu naizenean, zuk ez didazu oinak garbitzeko urik eman; honek, berriz, malkoz busti dizkit oinak eta bere ileaz xukatu. Zuk ez nauzu musu emanez agur-

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak (Koreako martiriak)*.

tu; hau, berriz, sartu denetik ez da gelditu nire oinei musuka. Zuk ez didazu burua olioiz gantzutu; honek, berriz, oinak ukenduz gantzutu dizkit. Hau diotsut, beraz: hainbesteko maitasuna agertzen duenean, bekatu asko barkatu zaion seinale da; gutxi barkatu zaionak maitasun txikia agertzen du». Eta emakumeari esan zion: «Barkatuak dituzu bekatuak».

Beste bazkaltiarrek beren artean esaten hasi ziren: «Nor ote dugu bekatuak barkatu ere egiten dituen hau?»

Baina Jesusek esan zion emakumeari: «Zeure sinesmenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

Fariseuak eta emakumeak desberdin jokatu dute. Jesusek onartu du otordurako gonbita. Baina fariseuak errezeloz onartu du, azpikeriaz ikertzeko. Emakumeak, berriz, eskerronez eta juduen abegikortasunaren harira, parfumez gozatu dizkio oinak Jesusi, eta malko kontrolaezin eta eskerronekoz lehertuaz batera bere ile-adatsez lehortu dizkio. Fariseua epaile izan da Jesusekiko eta deskalifikatu egin du. Emakumeak bere bizi berria berretsi du, Jesusi kalean hitz egiten entzun zionean sentitu zuen hura. Barkaturik eta zoriontsu irten da. Bizirantz maitasunez, bazterketa-jarrerarik gabe, hurbiltzen garenean egiten dugu topo Jainkoarekin eta haren pozarekin.

Urteko 24. astea.

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA.

San Jonas, *profeta*.

§ San Paulok Efesoarrei 4: Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua. [Sal 19 [18]: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?»

Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Gauden lekura etorri ohi da Jesus gure bila, ez digu esaten erromes joateko inongo urruneko Jordanera. Bera da erromes etorri datorrena. Zerga-biltzaileen mahaian dago Mateo; haren ondotik igarotzean, berari jarraitzera gonbidatu du Jesusek. Zokoratu bat zen Mateo herrian. Bere bihotza bere lanbidea baino harago duen gizon ikusi du, ordea, Jesusek Mateo hori. Ekonomia-, arraza- edo erlijio-mailako hainbat zokorateren artean, bihotz bakoitzaren hondora begiratu behar dugu; hondo hura du Jainkoak arnastean; eta desberdintasuna onartzen jakin beharko genuke, Aita bakarraren mahai komun eta nabarra sortzeko, inor ere orain den hartara mugatu gabe, paralizatu eta zokoratu gabe.

Urteko 24. astea.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896)*,

[San Paulok 1 Korintoarrei 15,35-37.42-49: Ereiten dena ustelkorra da, pizten dena ustelezina. Sal 56 [55]: Zure aurrean ibiliko naiz, oi Jainko, biziaren argitan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusek parabola hau esan zien: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Beste zenbait harri artean erori zen eta, erne orduko, ihartu egin zen, hezetasunik ez zuelako. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiek, harekin batera ernerik, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne eta bateko ehun eman zuten fruitua».

Hau esanik, honela egin zuen oihu: «Entzuteko belarririk duenak entzun beza».

Orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten ikasleek Jesusi. Honek erantzun zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabola bidez hitz egiten diet. Horrela, begiratzen dute, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez.

Hona, bada, parabolaren esanahia: Hazia Jainkoaren hitza da. Bide bazterreko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzuten

* Feliziana Uribe (Muxika 1893), Kotsuelo Cuñado (Bilbo 1884), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (Gasteiz 1970), Daria Campillo (Gasteiz 1873) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak*, 1936.

Frantziska Amezual (Abadiño 1881), Justa Maiza (Ataun 1897), Kontxi Odriozola (Azpeitia 1882), Klara Ezkurra (Arrasate 1896),

dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezen. Harri arteko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzutean pozik hartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinesten dute, baina tentaldi-garaian atzera egiten dute. Sasi artean eroritako hazia bezalakoak beste hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina bizitzako arduen, diruaren eta atseginen artean itota gelditzen dira eta ez dira iristen fruitua ematera.

Lur oneko hazia bezalakoak, berriz, hauek dira: hitza bihotz onez eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak».

Jende askok entzuten du Jainkoaren hitza. Baina arrazoi desberdinak direla medio, kasu batzuetan ez du ematen fruiturik. Izan ere, hitzak ez du jokatzeko era magikoan, ezkutuko formula batek bezala, bat-batean irispide gordeak, ametsetako munduak, lur-muga debekatuak irekiz. Ezinbestekoa da hitza ondo entzun eta onartzea, hazia onartzen duen lur landu batek bezala; ondoren, bere sakontasunean gorde behar izaten da, gure-gurea eginez joan dadin, eta iraun beharra izaten da hitza gu baitan haziz doan eta erabat gure egin bitartean, harik eta uzta-garaia iritsi arte; hala, bateko ehun jaso ahal izango dugu, hitza gu baitan eta gure elkarteetan bizi bihurtuko denean.

Urteko 25. astea.

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*.

§ Jakinduria liburutik 2,12.17-20.

Hau zioten gaiztoek:

«Jar diezazkiogun sareak zintzoari;
ikus dezagun esaten duena egia den ala ez,
azter dezagun, nolako amaiera duen ikusteko.

Benetan Jainkoaren seme bada, etorriko zaio hura zintzoari
laguntzera eta libratuko du etsaien eskuetatik.

Irainak eta oinazeak jasanaraziko dizkiogu, haren lasaitasuna
ezagutu eta eroapena probatzeko.

Heriotza lotsagarria kondenatuko dugu; bere esanetan,
Jainkoa alde aterako omen baitzaio eta».

[Sal 53: Jauna da nire biziaren babesle.]

§ Santiago apostoluaren gutunetik 3,16-4,3.

Senide maiteok: Bekaizkeria eta norgehiagokeria diren tokian, han dira nahasmendua eta era guztietako gaiztake-riak. Goitik datorren jakinduria, berriz, garbia da lehenik; gainera, baketsua, bihozbera, amore-emailea, errukitsua eta fruitu onak dakartzana, alderdikierarik eta itxurazalekeriarik gabea. Bakegileek bakean ereiten dute eta fruitutzat zuzentasuna biltzen.

Nondik sortzen dira zeuen artean dituzuen haserreak eta borroak? Ez ote zuen barruan borrokan dabiltzan grina txarretatik? Zerbait irrikatu eta eskuratu ezin duzuenean, hilketak egi-ten dituzue; zerbait gutiziatu eta lortu ezin duzuenean, liskarra

Urteko 25. astea.

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*.

sortu eta borroka egiten duzue. Ez badaukazue, eskatzen ez duzuelako da; eskatu eta hartzen ez baduzue, gaizki eskatzen duzuelako da, zeuen grina txarrak asetzeko eskatzen duzuelako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?» Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria».

Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, biduali nauen hura baizik».

Esana zien jada Jesusek ikasleei, bidean gora Jerusalemara zihoazela han Jainkoaren erreinua hots egiteko. Han, ordea, aurkaritza eta heriotza aurkitu zituen. Ez zen gauza berria. Jakinduria liburuan jainkogabeek esana zuten: Jar diezazkiogun sa-

Urteko 25. astea.

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*.

reak zintzoari... tortura dezagun..., ea libratzen duen Jainkoak. Zaugarri den zuzenaren hitzari aurrez aurre etorriko zaio talde zuzengabe bat, zapaltzeko eta indarrez hiltzeko.

Goitik datorren jakinduriak –dio Santiagok– bakea eta zuzentasuna ereiten ditu, liskarra eta gerla sortzen dituzten inbidia-aren eta diru-gosearen aurka. Jesusen mesianismoa ez da bostere-nahia, baizik eta zerbitzukoa; ez da ezartzen ezpataz eta era uniformearen, baizik eta arretaz ereiten da, ez da segurtatzen kateez, baizik eta begirunez errespetatzen da. Ikasleek ez zuten tutik ere ulertu. Jesus aurretik zihoan, taldeari tiraka; ikasleak, berriz, ezbaian ziharduten beren artean, garrantzitsuago zein izango; gainera, atsekabeak nagi eta oldarkor bihurtu zituen. Jesus bakar sentitzen da; halere, pazientziak irakatsi die beste behin ere, berak besarkatu duen kaleko haurra bezala, txiki eta zaugarri dena onartzen eta halakoaren zerbitzari egina dela handiena.

Urteko 25. astea.
Mesedeetako Andre Maria.

[Esaera Zaharrak liburutik 3,27-34: Gorroto dio Jaunak maltzurriari. Sal 15 [14]: Zintzoa zure mendi santuan biziko da, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du argia pizten eta ontzipean gordetzen edota ohepean ipintzen, baik zik eta argimutilaren ganean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik.

Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

Antzinako etxeetan kriseiluak pizten ziren argitzeko. Jesu- sen gonbita honetara dator: utz diezaiogula ebanjelioaren argiari norberaren etxea eta bizitza argitzearen lana, hark baitu bizia sortzen eta gardentasuna eskaintzen, zer ezkutaturik ez dagoelako. Jende gaiztoaren alderantzizkoa da: hauek ihes egiten diote argiari, nahiago izaten dute iluna, beren ustelkeria, beren banku-kontu isilak, garbitu gabeko krimenak, beren biziera paraleloa non ezkutatu izateko. Egun batean, ebanjelioaren argiak dena, ontasuna eta ustelkeria, bistan jarriko du. Egiaren ordua izango da, zeini batzuek ihes egin nahi baitiote orain.

Urteko 25. astea.

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*.

[Esaera Zaharrak liburutik 21,1-6.10-13: Esaera batzuk. Sal 119 [118]: Gida nazazu, Jauna, zeure aginduen bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8,19-21.

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinaz-razi zioten Jesusi: «Hor dituzu kanpoan ama eta anai-arrebak, Zu ikusi nahian».

Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

Noizbehinka hor agertzen dira ebanjelioan Jesusen familiar-tekoak. Ez zeuden libre haiek ere Jesusek Nazareten eragin zuen eskandalutik, eta errezeloa sortu zen haietako askoren bihotzean. Argia da Jesusen baieztapena. Beste familia bat hasi da, beraren jarraitzaile izan nahi dutenena, beren burua erreinuaren zerbitzura buru-belarri eskaintzeko. Gaur egun jende askok sinesten du Jesusengan, baina nork bere eran, elkarteko kide izan gabe, hartatik kanpo biziz, haren irakaspenak iragaziz eta komeni zaiona hautatuz. Zerk eragiten dio jendeari jokabide honetara?

Urteko 25. astea.

San Kosme eta San Damian, *martiriak*.

[Esaera Zaharrak liburutik 30,5-9: Ez nazazu egin, ez txiro, ez aberats; eman soilik bizitzeko behar dudana. Sal 119 [118]. Kriseilu da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaituztete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat».

Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots egingez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

Erreinua iritsi dela hots egiteko hamabi ikasleak bidaltzean, misioa nola gauzatu irakatsi die Jesusek, baita zein eduki aldarrikatu ere. Esan die, alegia, ez joateko botere ezartzaile batean sostengaturik, ezta itxura liluragarri batean ere, ezta kontsumo-ondasunak banatzeko ere. Baieztapen bakar batean bildu du guztia: iritsia da Jainkoaren erreinua. Jendea nahigabetzen duten gaitz korporal, psikologiko eta espiritualetik askatzea da hori egiaztatzen duen seinalea. Doakotasun eta eskerroneko harreman-jarreraz hots egingo dute Erreinua, bihotz abegikorrez onartuak direla eta.

Urteko 25. astea.

San Bizente Paul, *fundatzailea* (Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak).

[Kohelet liburutik 1,2-11: Ezer ez berririk eguzkipean. Sal 90 [89]: Jauna, gure ihesleku Zu izan zara gizalditik gizaldira.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela.

Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?» Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

Herodes harriturik ageri da. Berak hil zuen Joan. Ez da hain erraza zintzoak galtzea, desegitea, halakoen eragina zapuztea, ezkutuki duten bihotzetik erauztea, hara ezin iritsi da poliziaren abildadea. Antzinako profeten espiritua, Joanena eta Jesusena, Jainkoaren espiritua bera da, aro eta aurpegi desberdinetan pil-pil ari dena. Ez da arrotza Herodesen galdera. Jesusengan bizirik dira berriro profeta pertsegituak. Odol errugabez zikindutako eskuak ezin garbitu dira erabat, eta zuzenaren Espiritua ez da ahitzen sekula.

San Domingo Erkizia (Errezil 1589), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (Oñati 1598), *domingotarra*, *biak apai-zak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak* (Japonian 1637).

[**Kohelet liburutik 3,1-11**: Gauza bakoitzak bere garaia du eguzkipean. **Sal 144 [143]**: Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik **9,18-22**.

Jesus, bakarrik, otoitzean ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Inori ez esateko agindu zien Jesusek zorrotz. Eta esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Kohelet liburuak dio, «gizakiak ezin dituela atzeman Jainkoak hasieratik azkenera egin dituen egintzak». Guk geuk jendearen eta herrien bizitzako aro labur batzuk bakarrik ikusten ditugu. Batzukaldi argitsu eta baketsuak izaten dira, eta horrelakoetan bizi nahi izango genuke beti. Bestealdi batzuk ilunak eta latzak izaten dira, eta horrelakoetan uste izaten dugu ezerk ere ez duela zentzurik. Jesusek eta ikasleek gau ilun itxiko uea bizi dute. Iluna bakarrik sentitzen dute ikasleek. Jesus, ordea, askoz harago doa, eta sentitzen du azken hitza piztuera izango dela. Azken horrek argitzen du ibilbide guztia.

Urteko 25. astea.

GOIINGERU SANTUAK: MIKEL, GABRIEL
ETA RAFAEL.

[Daniel 7,9-10.13-14: Jendetza izugarria zuen zerbitzari. Sal 138 [137]: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?» Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan».

Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

«**A**ingeru» hitzak Jainkoaren mezulari esan nahi du. Jainkoaren egitasmoan zerbitzari direnen une berezietan agertzen dira aingeruak, lagun egiteko eta misterio zail bat ulertzen laguntzeko. Mariak Iragarpenekoan eta emakumeek piztuera goizean bizi izan zuten aingeruen laguntza. Jesus izan da Jainkoaren benetako komunikazioa, ezin handiagoa gurekiko hurbiltasunean. Aingeru gaur egun, eguneroko geure bizitzan agertzen zaigun jende guztia da, bere biziera argitsuaz laguntzen digun guztia. Arrazoiz esan ohi dugu: «Aingeru bat da». Adi bizitzeko gai bagara, Jainkoaren ezin konta ahala mezulari aurkituko dugu, egundoko diskrezioz bedeinkatzen gaituena.

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea.*

§ Zerbakiak liburutik 11,25-29.

Egun haietan, Jauna lainoan jaitsi eta Moisesekin mintzatu zen; gero, Moisesek zuen espiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-arduradunei isuri zien. Espiritua haiengan kokatu orduko, profeta gisa hasi ziren mintzatzeko; baina ez zuten jarraitu. Bi gizaseme, bata Eldad eta bestea Medad zeritzenak, hirurogeita hamarren taldekoak izan arren, ez ziren elkarketa-etxolara joan, baizik eta kanpalekuan gelditu ziren. Baina kokatu zen espiritua haiengan ere eta profeta gisa mintzatzeko hasi ziren.

Orduan, mutiko batek Moisesengana lasterka joan eta esan zion: «Eldad eta Medad profeta bezala mintzatzeko ari dira kanpalekuan». Nunen seme Josuek, gaztetandik Moisesen laguntzailer zenak, esan zuen: «Moises, ene jauna, debeka izeaiez». Baina Moisesek erantzun zion: «Nigatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta balitz eta Jaunak bere espiritua denei emango balie!»

[Sal 19 [18]: Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.]

§ Santiago apostoluaren gutunetik 5,1-6.

Entzun orain, zuek, aberatsok! Egizue negar eta aiene, gainera datozkizuen zoritarrengatik. Ustelak jota daude zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantziak. Herdoilak jota daude zuen erre-zilarrak, eta herdoil hori izango duzue testigu zeuen kontra, eta suak bezala jango du zuen haragia. Auzi aurreko azkenak diren egun hauetan pilatu duzue aberastasuna.

Zuen sorroetan uzta bildu zuten langileei ordaindu ez zenietan soldata deiadarka ari da, eta igitarien deiadarra Jaun ahal-

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*.

guztidunaren belarrietara iritsi da. Bapo bizi izan zarete zuek hemen lurrean eta atseginetara emanak; horrela, abereak bezala gizendu zarete hilketa-egunerako. Errugabea kondenatu duzue eta hil, eta inork ezin izan dizue aurre egin

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9,38-43.45.47-48.

Aldi hartan, Joaneke esan zion Jesusi: «Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun: «Ez galarazi, ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki esaka jardungo duenik. Zeren gure aurka ez dagoena gure alde baitago».

Mesiasen jarraitzaile zaretelako, baso bat ur bada ere ematen dizuena, benetan diotsuet, ez da saririk gabe geldituko.

Nigan sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute.

Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizian sartu, bi eskuak dituzula infernura, itzalezineko sura, joan baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hanka-motz betiko bizian sartu, bi oinak dituzula infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiak dituzula infernura jaurtia izan baino; han ez da hiltzen barruko harra, ezta itzaltzen ere sua».

Urteko 26. astea.

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea.*

Moisesen espiritu profetikoa ez da beraren dohaina bakarrik; ez dute den-denek haren dendara zertan jo, orakulu apelaezinekotzat, misterioz eta gurpenez inguraturikotzat, harturik. Moisesek diotso Josue bere zerbitzariari, beste batzuek profetizatzen dutelako nahasirik-edo ageri denari: «Nahiago nuke Jaunaren herri guztia profeta izan eta Jaunaren Espiritua hartuko balu». Mendekoste egunean beteko da hori, Espiritua elkarte osoaren gainera jaitsiko denean.

Jesusen garaian, ikasleak konturatu dira beste batzuek ere sendatzen dutela Jesusen izenean. Halakoek ere Espiritua dute beren barnean. Geroago, elkarte zabaldu egingo da hurbileko nazioetan, eta ikasleek ikusi dute paganoek ere hartzen dutela Espiritua. Gaur egun, posible dugu beste herri, kultura eta erlijio batzuetara hurbildu eta hori bera ikustea. Jende askorengan nabari dugu, era argian, nola ageri den Jesusen Espiritua jende horren bizitzan eta nola den jende hori zerbitzu-eredu herri osoarentzat. Pozgarri da hori guretzat. Jesusen espiritua ez dago mugatua talde jakin batzuetan; benetan, guztientzat piztu da Jesus. Alde guztietan ageri dira gaur egun mundu zuzenago eta solidarioago baten profetak. Begi eta esku unibertsalagoak behar ditugu. Ez du, ordea, frontierarik zuzengabekeriak ere, ezta zoroaren zoroaz xahutzeak ere, ez indarkeriak ere.




URRIA / URRILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Ebanjelizazioa: **Sagaratuen misioa**

Sagaratuek, erlijioso eta erlijiosa, beren misio-zaletasuna iratzarri dezaten, eta bizilagun izan daitezen pobreen, baztertuen eta ahots gabeen artean.



Urteko 26. astea.

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea*.

[Joben liburutik 1,6-22: Jaunak eman dit, Jaunak kendu. Be-
deinkatua Jaunaren izena! Sal 17 [16]: Itzul nigana belarria,
entzun nire mintzoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,46-50.

Aldi hartan, eztabaida sortu zen ikasleen artean, zein ote
zen haietan handiena.

Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta, haurtxo bat har-
tu, beren ondoan jarri eta esan zion: «Haur hau nire izenean onar-
tzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauen
hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena».

Orduan, Joanek esan zion: «Maisu, gizon bat ikusi dugu
zure izenean deabruak botatzen, eta galarazi egin nahi izan dio-
gu, ez baita gure taldekoa».

Baina Jesusek erantzun zion: «Ez galarazi, zeren zuen aurka
ez dagoena zuen alde baitago».

Zerbait galtzea gertatzen zaigunean, ematen du, urtuz joan
ohi garela; hala gertatu zitzaion Jobi, bere burua alabarik gabe,
ondasunik, osasunik eta jende aurreko osperik gabe ikusi zue-
nean; bere burua zabortegian eseria ikusi zuen, errautsez ingu-
ratua. Ezer ez izateko kinka horren azkena ez da izaten, ordea,
norbera erabat desegitea. Jesusek eskutik hartzen du haziz doan
haurra, harekin bat egiten da eta, diosku, haur bat hartzean bera
dugula hartzen. Jainkoa ez da gu nola biluzten ari garen begira
dagoen bat. Aitzitik, gure ondoan dago eta bat egiten du gurekin.
Jobek bezala, jasan dezakegu galerarik baina,aldi berean, hazi
gintezke izatasun berri batekin.

[Joben liburutik 3,1-3.11-17.20-23: Zergatik eman argia doha-kabeari? Sal 88 [87]: Hel bekizu, Jauna, nire otoitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien:

«Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau.

Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

Haur bat gutxiestea Jainkoari uko egitea da, eta haur bat onartzea Jainkoa besarkatzea. Zeruetao erreinuan garrantzizkoena bidaia hori egin duena da; alegia, txikiak, zaugarriak, ez hirian, ez produkzio- eta ez kontsumo-eremuetan lekurik ez dutenak bizi diren lekura bidaia egin duena. Horixe egin du Jainkoak Jesusengan gizon egin denean, behean egoteko eta txiki-erien adiskide eta zerbitzari bihurtzeko. Ebanjelioa tranparik gabe onartzeko, haur bat bezalako bihurtzeak eragiten du gu baitan funtsezko zoriona.

URRIA / URRILA Asteazkena / Eguaztena

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Borja-koa, *apaiza, jesuita*.

San Birila Leirekoa, *abadea (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

3

[Job 9,1-12.14-16: Gizakiak ez du arrazoi Jainkoaren kontra.
Sal 88 [87]: Hel bekizu, Jauna, nire otoitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,57-62.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak bidean zihoazela, batek esan zion: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri».

Beste bati esan zion: «Jarraitu niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik neure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinua hots egitera».

Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik etxekoei agur egiten». Jesusek erantzun zion: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

Jesu irmo doa Jerusalemen aurkituko duen aurkako giro-rantz. Jarraitzen dionak bidaiari izan beharra du, eta erreinuak dakarren berritasunaren kreatoraile, ondasunen eta harremanen mende erori gabe. Eskua goldean duen laborariaren irudia etorkizunaren imajina da. Bere haziak eta bere ametsak arriskatu ditu goldatzen ari den lurrean, eta horretan jarri ditu bere energia eta denbora. Bihotzean darama bihar familia-mahaian partekatuko duen ogia, erdin duenaren fruitua. Begiak tinko ezarriak ditu zeruertzean, ildotik ez ateratzeko. Eta ni, ari al naiz geroa sortzen Jesusekin?

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*).

[Joben liburutik 19,21-27: Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela. **Sal 27 [26]:** Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurreen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-12.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uzgara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haien gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukate-netik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaieuzue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”.

Baina herriren batean sartu eta onartzen ez bazaituztete, irten plazara eta esan: “Oinetan itsatsi zaigun zuen herriko hautsa ere hor astintzen dizuegu. Dena dela, jakizue hurbil dela Jainkoaren erreinua”.

Begira: auzi-egunean Sodomak zigor bigunagoa izango du, herri hark baino».

Urteko 26. astea.

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*).

Asisko Frantzisko. Gaur gogoetarako entzun dugun ebanjelioaren haragitze bat izan zen gizon hura. Pobre bizi izan zen, eta etxez etxe joanez hots egiten zuen ebanjelioa, adiskide hurbileko ageri ohi zen, berarekin topo egiten zutenak bakeaz eta pozaz betez. Ezagutzen zuen otsoen mundua, eta xumea zen gizajo izan gabe, zuhurra hipokrita izan gabe. Porrotak eta ukoak ez zizkioten oinetakoak astundu, oinak astindu eta zalu jo zuen esperantzaz beteriko gerorantz.

Bakearen zerbitzari

Jauna, egin nazazu zeure bakearen zerbitzari.
Gorrotoa dagoen lekuan, erein dezadala maitasuna.
Iraina dagoen lekuan, sorraraz dezadala barkamena.
Haserrea dagoen lekuan, bila dezadala elkartasuna.
Gezurra dagoen lekuan, maitarazi dezadala egia.
Duda-muda dagoen lekuan, piztu dezadala fedea.
Etsipena dagoen lekuan, ernearaz dezadala esperantza.
Ilunpea dagoen lekuan, distiraraz dezadala argia.
Tristura dagoen lekuan, sar dezadala poza.

(*Asisko Frantzisko santua*)

§ Deuteronomio liburutik 8,7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, erreka, iturri eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, mingranondo (granada-hondo), olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa bedeinkatuko duzu, eman dizun lurralde ederragatik.

Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterreraz utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsu eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarririk ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da.

Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebeziaz lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemanda-koari».

[Salmoa: 1 Kro 29: Zeureak dituzu, Jauna, handitasuna eta indarra.]

§ San Paulok 2. Korintoarrei 5,17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman digu. Izan ere, Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen, gizon-emakumei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua.

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi gezan.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio.

Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!»

5

Ostirala / Barikua

URRIA / URRILA

Urteko 26. astea.

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ

EGUNA.

San Froilan Leon-goia, *ermitaua eta gozaina.*

Zerbait eskatzen duzunean, bihotza irekitzen diozu Ontasun mugagabeari; zerbaiten bila hasten zarenean, alde batera uzten dituzu zeure jakintza, zeure jabetzakoak, zeure segurtasunak, eta eremu berri bat eraikitzen duzu, han Jainkoaren dohaina hartu ahal izateko. Otoitz egiteko esan digu Jesusek, bila ibiltzeko, eskatzeko. Kontua ez da Jainkoa konbentzitzea, zeren eta Aita ona da Jainkoa, eta badaki zer behar dugun eta eman egin nahi digu. Baina gure bizitzan sartuko bada, atea zabalik ikusi behar du, eremu onargarri bat aurkitu behar du eta beharrezko aldi bat, dohaina apurka-apurka etor dadin, topaketa batean maitasuna hazi ohi den bezala.

«Pikondoak ez du pikurik,
ezta mahastiak ere fruiturik.
Olibondoak huts egin du,
soroek uztarik ez.
Artegian ez dago ardirik,
ezta ukuiluan ere abererik.
Hala ere, alai nago ni Jaunarekin,
pozaren pozez
salbatzaile dudan Jainkoarekin».

(Habakuken liburutik 3,17-18)

Urteko 26. astea.

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*.

[Job liburutik 42,1-3.5-6.12-16: Orain, neure begiz ikusi zaitut!
Beraz, damutzen naiz esandakoaz. Sal 119 [118]: Erakutsi
aurpegi argia, Jauna, zeure zerbitzari honi.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,17-24.

Aldi hartan, hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean».

Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menperatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen ize-nak zeruan idatzirik daudelako».

Une hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun, zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

Urteko 26. astea.

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*.

Ikasleak oso pozik itzuli ziren, jende baten bizitza trabatzen zuten espiritu gaizto batzuek obeditu egin baitzieten. Erreinuko bizitzarekin topo egite bat izan zen guztia, jendeagan elkorturik zeuden gaitzaren indarrak baino ahaltzuagoa baitzen hura. Jesus-ek gustura ikusi du poz hori, baina oinarri bat ezarri dio. Beste hau dute beti pozik egoteko arrazoia: beraien izenak zeruan idatziak egotea, Jainkoarentzat bakoitzak baitu izen bat, nahiz eta batzuetan sentitu, gaitza gu geu baino indartsuagoa dela eta zauritu egiten gaituela. Jesus pozak bete zuen eta Aitari adierazi zion eskerronezko eta zorionezko otoitz batez.

Hor konpon?

Duela bilioika urte zegoen ur-kantitate bera dago lur planetan gaur egun. Kasik lurraren erdia estaltzen du, baina %3tik bat bakarrik da edan-garri.

Hurbil da ur-krisialdi larri bat.

XX. mendean munduko jendetza hirukoiztu egin zen.

Uraren erabilera 6 aldiz gehiago igo zen.

XXI. mende honen erdi aldera, jendetza hiru mila milioi gehiago izango da; esan nahi baita, munduko jendetza 10 mila milioira iritsiko dela.

Gehienak, dagoeneko ur-eskasia jasaten duten lurraldeetan jaioko dira. 25 milioi aterpetu lekualdatuko dira ur-iturburuen kutsadura dela-eta. ONUren arabera, haur bat hiltzen da 15 segundo oro ur ez-edangarriarekin zerikusia duten gaixotasunez.

Ur-falta, planetan, premialdi aski garrantzizkoa bilakatuko da laster. Diote, ur-falta petrolioarena baino lehenago etorriko dela. (By Jeff Brenman, Founder & Director at Apollo Ideas-en Power batatetik hartutako datu bakanak)

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

§ Hasiera liburutik 2,18-24.

Jainko Jaunak esan zuen: «Ez da on gizona bakarrik egotea; eman diezaiodan berari dagokion laguntza».

Jainko Jaunak landako abere eta zeruko hegazti guztiak moldatu zituen lurretik eta gizonari eraman zizkion, zein izen ematen zien ikusteko; honela, bada, bizidun orok gizonak ezarritako izena darama. Beraz, gizonak izena ezarri zien abere guztiei, zeruko hegazti guztiei eta piztia guztiei; baina ez zuen aurkitu berari zegokion laguntzarik.

Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saihets-hezur bat kendu zion eta hutsunea haragiz bete. Gizonari kendutako saihets-hezurraz emakumea moldatu zuen Jainko Jaunak, eta gizonari eraman zion. Honek esan zuen:

«Hau bai dela ene hezurretik datorren hezur, ene haragitik datorren haragi.

Emakume izango da deitua, gizakumeagandik izan baita hartua».

Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira.

[Sal 128 [127]: Jaunak bedeinka gaitzala geure bizitzako egun guztietan.]

§ Hebrearrei gutunetik 2,9-11.

Senideok: Aingeruen pareko egina izan den Jesus hura aintzaz eta ohorez koroatua ikusten dugu, jasan zuen heriotzagatik; zeren, Jainkoaren onginahiaz, guztien onerako jasan baituen heriotza.

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

Jainkoak, gauza guztien sorburu eta helburu denak, seme-alaba asko aintzara eraman nahi zuen. Egoki zen, beraz, haiek salbamenera gidatuko zituen burua, Jesus, oinazeen bidez bete-beteko egitea. Izan ere, bai santu egiten duen Jesusek, bai honek santu egiten dituenek, jatorri bera dute denek. Horregatik, Jainkoaren Semeari ez dio lotsarik ematen hauei senide deitzeak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,2-16.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion fariseu batzuk Jesusi eta, hura zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari emaztea uztea?» Hark erantzun zien: «Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?» Eta haiek: «Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena eman zigun».

Jesusek esan zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek lege hori. Baina, munduaren hasieratik, Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu».

Gero, etxean, arazo berari buruz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Bere emaztea utzi eta beste batekin ezkontzen denak adulterioa egiten du lehenengoaren kontra; eta bere senarra utzi eta beste batekin ezkontzen den emazteak adulterioa egiten du era berean».

Beste batean, haurrak eraman zizkieten Jesusi, uki zitzaizkien; ordea, haserre egiten zieten. Hori ikustean, haserretu zen Jesus eta esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez ga-

Urteko 27. astea.

Arrosarioko Andre Maria Birjina.
Santana Justina, *birjina eta martiria*.

larazi, horrelakoena da-eta Jainkoaren erreinua. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

Eta, besarkatuz, bedeinkatu egiten zituen haurrak, eskuak gainean ezarriz.

Jesusen garaian, itxuragabekeria handia bizi zuen ezkontza-bizitzak jenderik ahulenaren kaltetan: andrearen eta haurren kaltetan. Gizonezkoak zapuzten ahal zuen emaztea buruan jartzeko hutsagatik; haurrak, berriz, jabetzakotzat zeuzkaten, saltzen ere ahal zituzten, inolako arrazoirik eman beharrik gabe. Jesusek, ordea, dio, ezkontza-bizitzak Jainkoaren beraren bihotzean duela bere jatorria, eta Jainkoak maitasuna digula ematen eta biziaren misterioa digula gomendatzen. Mirari dira seme-alabak. Ezin eman diozu tratu txarrik emazteari, zeure burua zauritu gabe. Senar-emazteak haragi bat bera dira, bizitza guztirako maitasunak bedeinkatua. Seme-alaben bizia, berriz, eguneroko harrigarritasun horren giroan sortzen eta zaintzen da. Bere seme-alabak bedeinka ditzan, beragana dakartzan jendearen alde jarri da Jesus.

Andrearen eta seme-alaben aurkako indarkeriak ez du etenik. Izaten dira, amaren sabelean jada eratuak diren haurrak, zapuztuak izaten direnak; batzuk akatsen bat dutelako baztertzen dira; beste batzuk beraien gorputz-atalak saltzeko suntsitzen dira; beste batzuk, lan fisikoz eta goseak markatzen dira, bizitza guztirako garuna mugatzen zaielarik. Badira, ordea, bakar diren haurrak adoptatzen dituztenak ere, eskolak eraikitzen laguntzen dutenak, katekesia ematen dutenak, laguntza «mugarik gabe» eskaintzen dutenak. Zer esan nahi du guretzat gaur haurrak besarkatzeak eta bedeinkatzeak?

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

[San Paulok Galaziarrei 1,6-12: Berri Ona ez dut inongo gizakirengandik hartu edota ikasi; Jesu Kristok agertu zidan. Sal 111 [110]: Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?» Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?»

Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?»

Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zuenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen.

Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion.

Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olioaz eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txan-

Urteko 27. astea.

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*.

pon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”.

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?» Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Parabola honek ebanjelioaren funtsezko erronka planteatu digu. Zer ari gara egiten jendeaz, elkartez eta herri osoez, kolpatuak eta biluzik eta bide-bazterrean etzanik utziak ere direnez? Gure ohiko ibilbideetan eta bide digitaletan jendetza handiak ageri dira mendetan lapurto dituzten sistema ekonomiko eta politikoen erasoak jorik, edota minutu batzuetan beren oreka hauskorra galdu dutenak. Halakoak tarteka begi-bistara ekartzan dizkiguten komunikabideek berek berehala ahaztarazten dizkigute estimulu berri eta hutsalen bidez. Zer egin, geure bizitzan solidaritatea iraunkorki txertatzeko?

9

Astearta / Martitzena URRIA / URRILA

Urteko 27. astea.

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*.
San Joan Leonardi, *apaiza*.

[San Paulok Galaziarrei 1,13-24: Bere Semea agertu zidan, haren Berri Ona jentilei iragartzeko. Sal 139 [138]: Gidatu ni, Jauna, betiko bidetik.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zerritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen.

Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al dizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko».

Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askoren-gatik zabilta kezkatua eta larri; baina bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

Jesu Martaren eta Mariaren etxean sartzearekin, familia horrek kontaera berri bati eman zion bide, eta herri guztia ipini zuen airean. Marta samurtasun handiz ari zaio Jesusi kasu egiten, juduen abegikortasun-lege tradizionaleri jarraituz. Mariak bakarrik utzi du ahizpa lanean; izan ere, Jesusi entzuteari eman dio eta hark bere hitzaz eta bizieraz eskualdatzen duen berritasun liluragarriari harrera egiteari. Marta eta Maria, biak gonbidatu ditu Jesusek etxeko pareta artean kabitu ezin den biziera berri horren misioari ekitera. Entzun, etxetik irten eta biziera berri horren zerbitzari izan: horra alderik hobena.

Urteko 27. astea.

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina*.

San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*.

[San Paulok Galaziarrei 2,1-2.7-14: Jainkoak niri emandako dohaina aintzat hartu zuten. Sal 117 [116]: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joaneke bere ikasleei irakatsi zien bezala».

Jesusek esan zien: «Otoitz egitean, esazue:

“Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, eta ez gu tentaldira eraman”».

Ikasleak begira-begira jartzen zitzaizkion Jesusi otoitzetik zetorreanean, eta, beraren aurpegian eta hitz egiteko eran antzematen zioten, gaindiezineko onberatasunaren eta hurbiltasunaren Aitarekin egona zela. Posible ote zuten berek ere Jainkoarekin antzeko topo egite bat izateko zoriona? Jada bazekiten otoitz egiten, sinagogan irakatsi zieten bezala. Baina Jesusen hitz guztiek estreinatu gabeak zirela ematen zuten. Eta otoitz agortezina irakatsi zien Jesusek: Aita da Jainkoa, santutzat agertzen dugu haren izena bizitza zuzen baten bidez, eta bera da jatorria, bai eguneroko ogiarena, bai barkazioarena, bai etorkizun unibertsalarena, amets egitekoa dugun eta gurekin batean kreatu nahi duen etorkizunarena.

[San Paulok Galaziarrei 3,1-5: Legea betetzeagatik ala mezuari sinesmenez erantzuteagatik hartu duzue Espiritua? **Salmoa:** **Lukas 1:** Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,5-13..

Aldi hartan, esan zien Jesusek ikasleei: «Eman dezagun, zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: “Adiskide, emazkidak hiru ogi, itzuliko ditiat eta; lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat zer eskaini”. Eman dezagun, besteak barrutik erantzuten diola: “Utz nazak bakean! Atea itxia zegok, eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki”. Hau diotsuet: adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta emango dio behar duena».

Hau diotsuet, beraz: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitu, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, aita izanik, semeak arraina eskatuta, sugea emango ote dio arrainaren orde? Edota arrautza eskatuta, eskorpioia emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez ote die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei!»

* San Joan XXIII.a, 261. *aita santua.*
(*Ikus beherago Begoñako Andre Mariaren Meza*)

Jainkoak bihotza esna du beti eta entzumena abegikor. Otoitz iraunkorra beharrezkoa da, eskatze-aldi horretan geugandik botatzen joan gaitezen, bai geure buruaskitasuna, bai Jainkoa kontrolatu nahia geure eskariez, haur apetatsuen jokabideaz. Jainkoa beti dago entzuteko prest. Batzuetan, berehala sentitu ohi dugu haren erantzuna. Beste batzuetan, gure bihotzeko ildoetan eraiten du bere dohaina, gure baitan loratzen joan dadin geure uzta bailitzan, eta, loratuko eta poztuko gaituenean, guztiz geure senti dezagun, geure aztarnez, geure ahaleginez eta ametsez markatua, baina Jainkoaren ezaugarriak aurpegian ditugula.

Begoñako Andre Mariaren Meza

[Ben Sirak 24,17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. **Salmoa:** Lukas 1: Handiesten du nire arimak Jauna. **San Paulok Galaziarrei 4,4-7:** Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemera joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemera igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemengelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren haren bila.

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiko zaindaria).
 Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea* (Mariaren
Mirabeak).

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

Begoñako Andre Maria

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Je-



Begoñako Andre Maria

sus Haurraren gertakariak, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu. Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezau-garririk sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Deikunde egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!

Jesu Kristogan alderik zailena Jesus

«Ellaku maitea... 1979an Puebla izan zen, aurten Aparecida... Eta ez ziren agertu dokumentuan, behar bezala historiaturik, zuk azpimarratzen zenuena, Gogo Jardunetako hirugarren astean, Jesusen nekaldia eta heriotza. Boteretsuekin izandako gatazka objektibo batek, eta ez prestasun abstraktu batek, eraman zuen Jesus gurutzera. Hori aintzat ez hartzeak ondorio larriak ditu. Izan ere, aukera ematen du uste izateko, gaur geure misioa gatazka larririk gabe gauzatu dezakegula. Berriro azaldu da zein zaila den Jesus benetan onartzea. Uste dut, Jesu Kristogandik onartzeko alderik zailena Jesus dela, honengandik lurreko beraren bizitza, eta honetatik beraren gurutzera boteretsuen eskutik. Eta oker ez banabil, 1978an jada, kritikatu zenuen Puebla-ko kontsulta-dokumentua. Irakurketa “larriki akastuna eta pobrea” eskaintzen zuen Nazaretoko Jesusez. Eta Jesusen gurutzarekin, hura bezala hil diren gure garaiko martirien erdikotasuna ere galdu da. Hauen gainetik hanka-puntan igaro da Aparecida; ez die agertu ez eskerronik, ez beraien urratsei jarraitzeko konpromisorik». (Jon Sobrino, *Eclesalia* 2007-10-07; puska laburra)

Urteko 27. astea.

Pilare-ko Andre Maria.

San Joan Beyzym, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

[1 Kronikak liburutik 15,3-4.15-16; 16,1-2: Ekarri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikia zuen oihal-etxolaren erdian ipini zuten. EDO Apostoluen Eginak liburutik 1,12-14: Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. Sal 27 [26]: Jaunak koroatu nau eta zutabe gainean goratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Andre Mariaren zoriona ez datza soilik Jesus bere erraie-tan eraman izanean eta bularra eman izanean, gure kontzeptuen gainetik dagoen batasuna eratuz. Andre Maria zorionekoa da, hitza entzun zuelako, bere baitan haragitzen utzi ziolako, erdi arte hazten etengabe lagun egin ziolako. Orduan beste ibilbide bat hasi zuen: semeari hazten joateko, semea bere autonomia baiesten joateko, Aitak egindako deiari semeak leial jarraitzeko, bidea ahalbidetzea. Horixe da Jainkoaren hitza onartzen duenaren eta nola bere haragian hala bere konpromisoan haragi bihurtzen uzten dionaren zoriona ere.

San Romulo, *gotzaina*.

San Fausto, *martiria*.

Santa Zeledonia, *birjina*.

[**San Paulok Galaziarrei 3,22-29:** Guztiok Jainkoaren seme-alaba zarete sinesmenari esker. **Sal 105 [104]:** Gogoan du beti Jaunak bere ituna.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,27-28.**

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!»

Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!»

Herriko emakume bat da; Jesusen hitzak entzun eta harekin topo egitean sortu ohi ziren bizi berriaren seinaleak kontenplazten zituzten beste emakume askoren sentiera adierazi du, zoriontasun bat aldarrikatuz; Mariak lehenago Elisabet lehen-gusinari bisita egin zionean abestu zuen zoriontasuna: «Zorioneko deituko naute belaunaldi guztiek». Kantuaren zergatia bat dator Jesusek emakume anonimo honi eraman dion erantzunarekin. Maria zorioneko da Jainkoaren Hitza entzun duelako, bere erraietan onartu duelako, eta zaindu duelako gizon bihurtu arte, orain guztiak esperantzaz betetzen dituen gizon bihurtu arte, alegia.

Urteko 28 astea.

San Romulo, *gotzaina*.San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*.

§ Jakinduria liburutik 7,7-11.

Otoitz egin nuen, eta zuhurtzia eman zidan Jainkoak, dei egin nion, eta jakinduriaren espiritua iritsi zitzaidan; errege-aulkia eta aginte-makila baino nahiago izan nuen; haren aldean aberastasuna ezereztat jo nuen; harribitxirik preziatuenarekin ere ez nuen parekatu, urre guztia, haren aldean, hondar-apur bat besterik ez, eta zilarrak, haren aurrean, lokatza dirudi.

Osasuna eta edertasuna baino maiteago izan nuen
eta neure argitzat aukeratu,
haren distira ez baita inoiz itzaltzen.

Eta jakinduriarekin ondasun guztiak batera etorri zitzaizkidan, eta ezin konta ahala aberastasun haren eskutik.

[Sal 90 [89]: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugan.]

§ Hebrearrei gutunetik 4,12-13.

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eraginkorra, aho biko ezpata baino sarkorragoa; arimaren eta espirituaren sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutueneraino, eta barneko pentsamenduak eta asmoak aztertzen ditu. Ez da harentzat munduan ezer ikusezinik; dena dago biluzik eta agerian, kontuak eman beharko dizkiogun haren begien aurrean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,17-30.

Aldi hartan, Jesus abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion:

Urteko 28 astea.

San Romulo, *gotzaina*.

San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*.

«Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?»

Jesusek erantzun zion: «Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona, Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, hartu aintzat aita-amak». Hark, orduan: «Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia».

Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: «Gauza bat besterik ez zaizu falta: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu Niri». Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta nahigabez joan, ondasun handien jabe baitzen.

Orduan, Jesusek, ingurura begiratuz, esan zien ikasleei: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!» Harriturik utzi zituen ikasleak esaldi honek. Baina Jesusek berriro ere: «Ene semeok, zaila da benetan Jainkoaren erreinuan sartzea! Orratzaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino».

Ikasleek, gero eta harrituago, elkarri ziotsaten: «Nor salba daiteke, orduan?» Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezko da, baina Jainkoarentzat ez, dena baitezake Jainkoak».

Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko».

Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe,

Urteko 28 astea.

San Romulo, *gotzaina*.San Kalisto I.a, *16. aita santua eta martiria*.

senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia.

Lehen irakurgaia kantu bat da Jainkoagandik datorren jakinduriari. Idazleak handiagotzat jo du boterea baino, aberastasuna, osasuna eta edertasuna baino. Jakinduria honekin dator ondasun oro. Aitaren jakinduria haragitua da Jesus, zorakeria paganoentzat eta eskandalua juduentzat (1 Ko 1,23). Jakinduria «bitxia» gure munduarentzat; izan ere, jakinduria gurutziltzatua da, bere buruari uko egiteko gai, bere burua azkeneraino eskaintzeko gai. Maitasunaren jakinduria da.

Hau da Jesusek gazte aberatsari aurkeztu dion jakinduria, Jainkoaren legearen zerbitzari leial hari. Gazteak ez du alde egin topaketatik Jesus burutik egina dela esanez, ezta haserre bizian ere halako burugabekeria proposatu diolako, baizik eta triste joan da, burumakur. Agian, zerbait barruntatu zuen bere ahalbideez gainekotzat jo zuen jakinduria horretaz. Aberastasuna bihur daiteke gure nagusi, edertasuna bihur daiteke mozturro edo maskara, osasuna bihur daiteke unetxo batean galtzen den ondasun, boterea bihur daiteke gogortzen gaituen armadura. Maitasunaren jakinduriak, berriz, beti hazten joateko ahalbidea eskaintzen digu, eta, are gehiago, geure burua doako dohain eginez dena galdu dugunean, bihotzen eta giza historiaren misterioan.

Urteko 28. astea.

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*.

[Ben Sirak 15,1-6: Jakinduria- eta adimen-espirituz beteko du eta soinekorik ederrenaz jantziko. Sal 89 [88]: Iragarriko diet zure izena neure senideei, goretsiko zaitut batzarraren erdian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik.

Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzat atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Jesusen Teresaren garaian, oso gutxi ziren oinarrizko ikasketak eginak zituzten emakumeak. Teresa ez zen joan bere garaiko unibertsitateetara. Halaz guztiz, Eliz Irakasle deklaratu dute. Aldi guztietako jakintsu eta jainkozaleak hurbiltzen dira beraren idazkietara, arimaren ibilbidean zein bide hartu ikusteko, Jainkoarekin berak izan zuen batasunean eta bizi izan zuen adore alaiaren sekretuan barna. Oinarrizko jakinduriaz betetako emakumea izan zen Teresa, Jainkoak beragana bihotz xume eta apalez hurbiltzen zaizkionei erregalu ematen dien jakinduriaz. Berarengan bete zen Jesusek dioen hau: «zatozte nigana... eta ikasi nigandik».

Urteko 28. astea.

Santa Eduvigis, *moja*.Santa Margarita Maria Alacoque, *birjina*.

[San Paulok Galaziarrei 5,1-6: Erdaindua izateak edota ez izateak ez du ezer balio; maitasun-egintzetan agertzen den sinesmena da balio duena. Sal 119 [118]: Betorkit, Jauna, zure maitasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,37-41.

Aldi hartan, Jesusek hitzaldia bukatu zuenean, fariseu batak bere etxean bazkaltzera gonbidatu zuen. Sartu zen Jesus eta mahaiari jarri. Fariseua harriturik gelditu zen bazkal aurretik eskuen garbikuntzarik egin ez zuela ikustean.

Orduan, Jaunak esan zion: «Zuek, fariseuok, edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, zeuek barrutik lapurretaz eta gaiztakeriaz beterik zaudetelarik. Zentzugabeok halakook! Ez ote du kanpokoa egin zuenak berak egin barrukoa ere? Hobe zenukete daukazuena limosnatzat emango bazenute! Horrela, gauza guztiak garbi izango lirateke zuentzat».

Juduak ageriko hainbat aginduri atxiki ohi zitzaizkion, jokatibide hura beren nortasun erlijiosoaren ikurtzat hartuz. Jan aurretik eskuak garbitzea higie-ne-eginbehar bat da. Ezin mugatu gara horretara, bihotzean ustelkeria pilatua dugularik, zabor-tegi okaztagarri batean bezala; ezta giza harremanetan bizitza eteten duten gezurra eta saldukeria bertan gordeak ditugularik ere, erritu sozial eta erlijiosoen itxura zainduz. Fariseuak, oreka bere hipokresia-mezuaz kutsatzen duen legamia bezalako dira; bihotz ondradua, berriz, eskukada bat legamia ebanjeliko bezalako da, bizi-erregalu sano bat bezalako, guztientzat.

Urteko 28. astea.

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*.

[San Paulok Galaziarrei 5,18-25: Kristorenak direnek gurutzean erail dute bekatuzko beren giza izaera, beronen grinekin.

Sal 1: Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, bizirako argia izango du.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11,42-46.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, fariseuok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta zuzenbidea eta Jainkoaren maitasuna, berriz, alde batera uzten. Hauek bete behar zenituzten, haiek baztertu gabe.

Ai zuek, fariseuok! Sinagogetan aurreneko aulkiak eta plazetan jendearen agurrak maite dituzue!

Ai zuek! Ikusten ez diren hilobiak bezalakoak zarete, jendea oharkabean haien gainetik baitabil».

Orduan, lege-maisu batek esan zion: «Maisu, horrela hitz eginez, gu ere iraindu egiten gaituzu». Jesusek erantzun zion: «Ai zuek ere, lege-maisuok! Eraman ezineko zamak leporatzen dizkiezue besteei, eta zeuek atzamar batez ere ukitu ez».

Fariseuek arreta handiena eskaintzen zieten gauzarik txikienei; adibidez, landare txikien hamarrenak ordaintzeari, ez bihotzaren, ez gizartearen aldaketarik eskatzen ez bazuen ere. Arauak biderkatzen zituzten, Jainkoa kontu-emaile zorrotz baitlitzan. Itxura zaintzen zuten, gizarte-kroniketan jende berezitatat agertzeko. Aitzitik, ez zuten kontuan hartzen, ez ziren saiatzen, guztien eskubideak errespetatu zitezen, gizarte zuzen batean; ez ziren arduratzen, Jainkoa eta gainerakoak maitatzea beren bihotzaren eta beren bizitzaren erdian jartzeaz. Eta badakigu: maite duen bihotzetik bakarrik ateratzen da bizia gainerakoentzat.

Urteko 28. astea.

SAN LUKAS, EBANJELARIA.

San Justo, *haurra*.

[San Paulok 2 Timoteori 4,9-17: Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Sal 145 [144]: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten.

Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitetze etxe berean; eta jan eta edan daukate-netik, zor baitzaio langileari bere saria.

Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Jesusek ikasleak bidali ditu, Jainkoaren erreinua, guztientzat bizia, iritsia dela hots egitera. Ez dira akatsik gabeko pertsona, ezta adituak ere ikasketa sotiletan, ez dute ere guztiz ulertu Jesus, baina berak bidali ditu beren eskura duten zerbait

Urteko 28. astea.

SAN LUKAS, EBANJELARIA.

San Justo, *haurra*.

egitera: ikusi eta entzun dutena jendeari adieraztera, nola ari den jende asko errotik aldatzen Jesusekin topo egitean, badela ere sendatzen den gaixorik eta guztiak askatzen direla preso eta triste zeuzkan beldurretik. Eta guk, gaur egun, ikusi dugun bizi berri hau adierazteko misioa dugu, horixe baita jendeak entzun nahi duen gauza bakarra, hainbat eta hainbat desengai-
nuren artean.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.
San Pedro Alkantarakoa, *apaiza**.

[San Paulok Efesoarrei 1,11-14: Lehendik Mesiasengan itxaroten genuen guk; zuek ere Espiritu Santuaz zigiluz bezala markatuak izan zarete. Sal 33 [32]: Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,1-7.

Aldi hartan, milaka eta milaka lagun bildu zen, elkar zapaldu beharrean. Jesus hizketan hasi zitzaien, lehenik ikasleei zuzenduz: «Ibili kontuz fariseuen legamiarekin, hau da, itxurazalekeriarekin. Ez dago ezer gordea, agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere, jakingo ez denik. Zeren gaueko ilunean esan duzuen egun-argitan entzungo baita, eta etxe-zokoan belarrira esan duzuen etxe gaisetara hots egingo.

Zuei diotsuet, ene adiskideoi: ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Esango dizuet nori beldur izan: izan beldur hiltzeko eta ondoren infernura botatzeko ahalmena duenari. Bai, horri izan beldur!

Ez al dira bost txori bi txanponetan saltzen? Hala ere, haie-tako bat bakarra ere ez dauka Jainkoak ahazturik. Zuen buruko ile guztiak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan: txori guztiak baino gehiago balio duzue zuek».

Fariseuen legamia une honetan hipokresia da. Asko hitz egiten zuten, besteak baino handiago zirelakoan, baina ez ziren

* San Paulo Gurutzekoa, *apaiza*.
San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*.

URRIA / URRILA

Ostirala / Barikua

19

Urteko 28. astea.

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*.

San Pedro Alkantarakoa, *apaiza*.

esaten zutena. Azkenean, dena jakiten da. Jesusen jarraitzaileen hitzak egiazale izan behar du. Jesusek esan die ikasleei, ez izateko gizon-emakumeen beldur. Jainkoari beldurra izateak ez du esan nahi haren ikara izatea; sinestea esan nahi du, hark ahalmena duela egia argitan jarri eta pertsona zuzenaren sostengu izateko. Jainkoak gure ardura du samurkiro. Txolarreari jaten emateaz arduratzen bada, nolatan ez ditu gogoan izango gure bizitzako gauzarik txikienak?

Urteko 28. astea.

Santa Aurora, *aitorlea*.San Kornelio, *ehuntaria*.

[San Paulok Efesoarrei 1,15-23: Kristo ezarri du Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza. Sal 8: Zeure eskulan guztien buru ipini duzu zeure Semea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko.

Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eramango zaituztetenean, ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitizue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

Garrantzizkoa da kontuan izatea, nola baliatzen garen hitzaz ebanjelioa eskualdatzeko eta geure fedearen kontu emateko, kristauok gobernuen auzi-mahaira eramaten gaituztenean; are gehiago, kartzelara eramaten eta heriotzara galtzen gaituztenean, eta jendaurreko irizpidearen edota herri-zurrumuruaren aurrean nola jokatzeko dugun, zeinak ere ematen baitu epairik eta deskalifikatzen. Jesus Espirituaz mintzo denean, haren egin-tzaz ari ohi da, beti presente baita Espiritu hori pertsona, herri eta erlijio orotan. Pertsona ateo edo beste sineskizunetako jendeagan Espirituaren egintza nabari ez dugunean, Jainkoaren maitasunetik at bizi ohi gara.

URRIA / URRILA Igandea / Domeka. B

Urteko 29. astea.

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.

Diego Luis de San Vitores, *dohatsua, apaiza*, eta San Padro Calungsod, *martiriak, jesuitak*.

21

§ Isaias profetaren liburutik 53,10-11.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen.

Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da.

Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asean izango da.

Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

[Sal 33 [32]: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.]

§ Hebrearrei gutunetik 4,14-16.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiozun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitetzen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,35-45.

Aldi hartan, Santiagok eta Joaneke, Zebedeoren semeek, Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Maisu, eskatuko dizuguna Zuk guri egitea nahi genuke». Jesusek galdetu zien: «Zer

nahi duzue, bada, Nik zuei egitea?» Eta haiek: «Eser gaitetzela bata zure eskuinean eta bestea ezkerrean, Zu zeure aintzara iristean».

Jesusek esan zien: «Ez dakizue zer eskatzen ari zareten. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kaliza mingotsa edateko, edo Nik murgildu behar dudan urean murgiltzeko?» «Bai, gauza gara!», erantzun zioten.

Jesusek, orduan: «Nik edan behar dudan kaliza mingotsa, bai, edango duzue, baina Nik murgildu behar dudan urean murgilduko ere; baina nire eskuin-ezkerretan esertze hori ez dago nire esku inori ematea; Jainkoak norentzat duen prestatua, hari emango zaio».

Beste hamarrak, hori entzutean, haserre jarri ziren Santiagoren eta Joanen aurka. Jesusek dei egin eta esan zien: «Dakizuenetz, herrien buruzagiek mendean hartzen dituzte herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar zuen artean. Zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi denen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita zerbitzatua izatera etorri, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia denen alde ordainsari ematera».

Jesus gora doa Jerusalem bidean ikasleekin, Jainkoaren erreinua iritsia dela hots egitera, hain juxtu Pazkoa ospatuko den garaian, hiria jendez beteko denean Galileatik eta hurbileko nazioetatik etorritakoez. Galileatik Jerusalemeko ibilaldi luzean, Jesus irakasten ari zaie, baina piztuera ondoren bakarrik

URRIA / URRILA Igandea / Domeka. B

Urteko 29. astea.

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*.

Diego Luis de San Vitores, *dohatsua, apaiza*, eta
San Padro Calungsod, *martiriak, jesuitak*.

21

ulertuko dute agertzen ari zaiena Ez du arrakastarik izan; hain zuzen, bera aurkakotasunaz, torturaz eta heriotzaz mintzo zaien bitartean, ikasleek handitasun-ametsak dituzte jardungai taldeko lehiakortasun-giroan. Gero eta bakarrago ari da sentitzen Jesus, ikasleek berek ezin ulertu dute. Joanen eta Santiagoren itxuragabeko eskariak baliatu da Jesus, beraren proposamena zein desberdina den adierazteko: giza bizitza eraldatuko duena, ez da berek ezagutzen duten boterea, zapaltzen eta tiranizatzen duen hura, baizik eta zerbitzu-biziera, guztien alde, inor baztertu gabe, bizia ematearena.

Kristau-elkarteak aginpidea gauzatzeko beste modu bat, ordezkia, haragitu behar du: zerbitzuaren aginpidea. Eliza ez litzateke antolatu behar, sekula, errege-gorte baten arabera, hartan jendeak helburu Erregearen faborea nola lortuko izaten baitu, posturik kotizatuenean bila lehiakide izanik. Boterea, bizia «ahalbidetzeko» da zerbitzu-giroan, eta ez gainerakoez «jabetzeko».

[San Paulok Efesoarrei 2,1-10: Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Sal 100 [99]: Jaunak egin gaitu, harenak gara.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko».

Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edota ondasun-banatzaile?» Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde zeuen burua diru-gosetik, ondasunek ez baitio-te inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere».

Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko ditut garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”

Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”» Eta honela amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

Gizon batek kexu bat agertu dio Jesusi ondare baten inguruan, eta epaile izateko eskatu. Abagune horretaz baliatu da Je-

Urteko 29. astea.

San Joan Paulo II.a, *aita santua*.

Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, ahizpak, *birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*.

sus aberastasunak beren lekuan ipintzeko. Beharrezkoak ditugu, bizitzeko, Jainkoak eman dizkigun ondasunak; eta arlo horretan sortzen diren tirabirak askatzeko epaileak izaten dira gizartean; baina pertsona dramatikoki murriztea gerta liteke, ondasunak metatzeko bizi bagara, dinamismo irense batek harrapatu, balio duen guztia norberaren izenean jarri nahiz, norberaren autoestimua jabetza-tituluetan jarri nahiz. Bizitzaren bukaeran erregalatu izan duguna bakarrik geldituko zaigu, gorde izan duguna galdu egingo dugu erremediorik gabe.

Irakur dezadan 63 [62]. salmoa:

Jainko, ene Jainko, lehia biziz nabilkizu bila,
zure egarri da nire barrena, zure irrika naizen guztia,
lur lehor, agor, urik gabea bezala.
Bizia baino ederrago zure maitasuna!...
Zuri itsatsia nago oso-osorik.

Urteko 29. astea.

San Joan Kapistrano-koa, *apaiza*.

[San Paulok Efesoarrei 2,12-22: Kristo da gure bakea. Bat egin ditu berak bi herriak. Sal 85 [84]: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitezte nagusia ez-teietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak.

Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraziko ditu eta zerbitzatzten hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!»

Parabola labur honetan, Jainkoaren irudi eder bat dakarkigu Jesusek. Zerbait berri bezala etorri ohi zaigu Jainkoa beti geure bizitzan: pertsona bezala eta gizarteko bezala hazten joateko lagungarri. Jainkoaren erreinuko dohainak ez du ordutegirik, eta ezusteko gozagarri izan ohi da. Inporta duena, beti adi egon gaitzen da, atea irekitzeko prest, gauerdian datorkeenean. Une horretan bera ez da eseriko mahaian guk zerbitza dezagun, baizik eta esertzeko eskatuko digu, eta bera izango dugu zerbitzari. Jainkoa historian barna, aurreko mantala jantzirik, geure zerbitzari dugu.

Urteko 29. astea.

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*
(*Klaretarrak*)

[**San Paulok Efesoarrei 3,2-12:** Kristoren misterioa orain agertu du Jainkoak: jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, alegia. **Salmoa: Isaias 12:** Aterako duzue ura pozik salbamenaren iturrietatik.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,39-48.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeke nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea».

Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?»

Jaunak erantzun: «Izan zaitzete etxezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroien buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio.

Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Askok eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Jesusen iruzkinak gogorarazten digu, denentzat diren Jainkoaren ondasunen administratzaile garena; ez direla abildade edo indar handiagoa dutenentzat. Boterea, jende guztiari bizitza ahalbidetzeko da, eta ez besteen ondasunez jabetzeko. Batzuk, beren talentuez edo postu politiko edo erlijiosez, ondasunak metatzeko baliatzen dira, lanean eta zerbitzatzen ari direnei tratu txarra emanez. Uste izaten dute, abildade politikoa dela hori eta gainerakoak bainoa azkarragoak direla; egiaz, ordea, zoroagoak dira. Lurralde askotan ari dira aurkitzen gaur egun ustelkeriari emandako jendea: zuzenbideak eta iritzi publikoak «zartako» ederrik ematen diotena.

LOTU GAMELUA!

Heldu zen ikaslea, gameluaren gainean, maisu sufiak zeukan etxolara. Animalia atarian libre utzi eta maisuaren aurrean aurkeztu zen. Eta erreberentzia handi bat eginik, esan zuen:

-Maisu jauna, hara nolakoa den nik Jainkoagan dudan fedea: gamelua batere lotu gabe atarian utzita natorkizu, seguru bainago Jainkoak zainduko didala animalia.

Maisuak esan zion:

-Kaikua halakoa! Uste al duzu Jainkoak egingo duela zuk egin beharrekoa? Zoaz azkar, gameluak hanka egin baino lehen, eta lotu animalia atariko posteari, eta ez zaitez izan inozoa. Jainkoa ez da arduratzen guk egin beharreko gauzez eta. (Anthony de Mello, Arantzazu gutegia 2016-10-20.)

Urteko 29. astea.

San Krispin eta Krispiniano, *martiriak*
(*Zapatarien Zaindaria*k).

[**San Paulok Efesoarrei 3,14-21:** Izan dadila maitasuna zuen bizi-
zitzaren erro eta oinarri; horrela, Jainkoaren betetasunaz be-
teko zarete. **Sal 33 [32]:** Jaunaren graziaz dago lurra betea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,49-53.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartze-
ra etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! He-
riotza-uretan murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte!

Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Ba-
kea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko
bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta
bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aur-
ka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba
errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Sua, Biblia guztian, Jainkoaren presentziaren seinaleztat
erabili izan da; izan ere, suak garbitu egiten du zikina, berotu
eguraldi hotzean, argitu ilunpean. Suharki maite duen bihotz ba-
ten irrika adierazten du. Jesus ez da gizon hotz eta aseptikoa,
baizik eta sakon maite du eta konpromisoa bizi du gizarte zuze-
nago eta sanoago baten alde. Askok hartu izan du bera mehatxu-
tzat bere pribilegioen, ustekizunen, harremanen kontra, eta uko
egin dio. Piroteknia asko dago gure denbora pasaren kulturari,
eta su egin beharra dugu, modu apalean, inor itsutu gabe.

Urteko 29. astea.

San Evaristo, 5. *aita santua*

[San Paulok Efesoarrei 4,1-6: Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa. Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12,54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den?

Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitez bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epailegana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

Juduak, aurreikuspen-erreferentzia teknikorik gabe, ohi-tuak zeuden zeruko seinaleak irakurtzera, biharamunean zer eguraldi egingo zuen jakiteko. Baina gauza sakonago bat eza-gutu beharra dute: zer ari da gertatzen historian une honetan, jabetu Jainkoaren erreinua iristen ari dela, eta zein den horrek dakarren kanbioa. Hori da gaur egun ere gure erronka. Irakurtzen ikasi beharra dugu gaur zein diren «aldien ezaugarriak», ebanjelioari doazkion erronkak deskodetzeko, eta zer den Jau-nak eskaintzen digun gauza berria, berarekin gauzatzeko «Jainkoaren eskaintza berriak».

Urteko 29. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

[San Paulok Efesoarrei 4,7-16: Kristo da burua eta berak ematen dizkio gorputz osoari barne-lotura eta batasuna. Sal 122 [121]: Goazen pozik Jaunaren etxera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,1-9.

Aldi hartan, etorri zitzaizkion batzuk Jesusi, galilear batzuei gertatuaren berri ematera: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren oparien odolarekin haiena nahastuz. Jesusek erantzun zien: «Uste al duzue galilear haiek gainerako galilearrak baino bekatariago zirela, horrelako heriotza izan zutelako? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete.

Eta Siloeko dorrea gainera erorita hil ziren hemezortzi haiek, uste al duzue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirela? Ezetz diotsuet, eta, bihotz-berritzen ez bazarete, guztiok era berean galduko zarete».

Eta parabola hau esan zien: «Gizon batek pikondo bat zeukan, bere mahastian landatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, esan zion mahastizainari: “Bada hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertako eduki hor, lurra alferrik jaten?”

Mahastizainak, ordea, erantzun zion: “Jauna, utzazu aurtengoz; bitartean, ingurua aitzurtu eta ongarria botako diot, ea aurrerantzean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu”».

Juduek uste zuten, Pilatoren ezpatak lepo eginik edota dorre bateko harriek leherturik hiltzea, Jainkoaren zigorra zela.

Urteko 29. astea.

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*.

Jesusek hankaz gora ipini du arrazoibide hori. Benetako kezka fruitu ematea da, eta Jainkoaren bihotzaren arabera jokatzeara. Pikurik ekarri ez duen pikondoa, lekua alferrik betetzen duen eta itxura hostotsua besterik ez duena, laborariak simaurtu egin du eta beste aukera bat eman dio. Jainkoak arreta bereziaz zaintzen gaitu, eginkortasunaren logikak bota beharrekoak garelara esaten duen arren lekua beste bati uzteko. Ematen al diegu aukerarik gainerakoei eta zaintzen al ditugu?

Herria eta ebanjelizazioa (1)

Beraren, Luis Rafiringa-ren, ustea adierazteko funtsezkoa da esaldi hau: «Nazio bakoitzaren ohiturak eta ekanduak ez dira gizon-emakumeen asmakizun; Jainkoaren jakinduriaren egintza dira; halakotzat harturik zor diegu geure errespetua». Bere konbentzimendua oinarritzeko, Bibliara jo du: «Jainkoak gure arbasoei esana die: “hazi eta ugaltu zaitetze, eta bete Lurra”; hala, gizakia alde guztietan barreiatu zen, klima eta paisaia desberdinetan. Diferentzia horiek izan zuten beren eragina leku bakoitzeko jendeagan, eta guztiz desberdinak diren jende-taldeak osatu ziren».

Mundo Negro aldizkarian (617 zen., 2016ko ekaina, 35-38 orrietan irakurria). Madagaskarreko Luis Rafiringa lehen erlijioso dohatsu deklaratuaren esaldiak dira. Madagaskarren oso ezaguna lider aberzale gisa. Konplot antikolonial batean parte hartu zuelakoan, kartzelatu ere egin zuten. Oso ezaguna lider katoliko bezala ere. Hezitzaile ona. Bere ama-hizkuntza sakon ezagutzen zuen. Eta, guztien gain, bere santutasunaz nabarmendu zen. 1856an jaioa. Salletar frantsesen lehen ikasleetakoa Madagaskarren. (Jarraituko du: urriaren 29an).

Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.

§ Jeremias profetaren liburutik 31,7-9:

Honela mintzo da Jauna:

«Egin oihu pozaren pozez Jakoberen herriagatik, egin irrintzi herrien buru denagatik.

Egin oihu, goretsi Jauna, esanez:

“Salbatu du Jaunak bere herria,

Israelen bizirik geldituak”.

Begira, iparraldetik ekarriko ditut, lurreko azken mugetatik bilduko.

Jendetza izugarria itzuliko da: horien arteanitsuak eta herrenak, haurdunak eta haurra izan berriak batean.

Negar eta otoitz artean ekarriko ditut.

Ongi ureztaturiko ibarretan zehar eramango ditut, estropezurik egingo ez duten bide zelaian barna,

Aita izango naiz Israelentzat, nire lehen- seme izango da bera».

[Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!]

§ Hebrearrei gutunetik 5,1-6:

Apaiak nagusia gizonen artean hartua eta Jainkoaren aurrean gizon-emakumeen ordezkari izateko jarria izaten da, bekatuenagatik emaitzak eta opariak eskaintzeko.

Badaki ezjakinez eta okerbideratuez gupidatzen, bera ere giza ahuleriaz inguratua dagoenez gero. Horregatik, bere beka-

Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.

tuengatik ere opariak eskaini behar ditu, herriaren bekatuengatik bezala. Eta ezin du inork apaiz nagusigoaren ohorea beretzat hartu, Jainkoak deiturik ez bada, Aaron bezala.

Horrela, Kristok ere ez zion berak eman bere buruari apaiz nagusigoaren ospea, Jainkoak baizik, honela hitz egin baitzion:

«Nire Seme zara Zu,
Nik zaitut gaur sortu».
Beste salmo batean ere hau esaten dio:
«Apaiz zara Zu, Melkisedek bezala, betiko».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10,46-52.

Aldi hartan, Jesus ikasleekin eta jendetza handiarekin Jerikotik ateratzean, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eseria. Jesus Nazaretarra zela jakitean, deia-darka hasi zen: «Daviden Seme, Jesus, erruki zakizkit!» Askok gogor egiten zion isilarazteko; baina hark areago egiten zuen oihu: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek gelditu eta itsuari dei egiteko agindu zuen. Deitu zioten, esanez: «Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik». Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Maisu!» Jesusek esan zion: «Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu». Une berean ikusmena berreskuratu zuen, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

Urteko 30. astea.

San Simon eta San Judas, *apostoluak*.

Bartimeo Jesusekin doan ikaslearen irudi da, baina halako batean nola jarraitu ez dakienaren irudi, bidea ilundu zaiolako, itsu gelditzeraino. Jerikotik irtetea, jada Jerusalemdik oso hurbil, etsaigo handi baten mehatxuzko irudia nabari du jende batek, erreinuaren eta Inperioaren gehi judu-agintarien indar dominatzaileen arteko etsaigo handiaren irudia, mehatxuzkoa, izu-ikara eragin diona, eta ezin du eman arrazoizkotzat eta zentzuzkotzat Jesusek ez bairik gabe ari duen Jerusalemerako bide hori. Zer egin dezake nazaretar gizajo honek izen txarreko Galileatik datozen ikasleez inguraturik? Herio-usaina dario orori, oinaze- eta porrot-usaina. Hori izan ohi da gure egoera bizitzako une batzuetan. Dena ilun ikusi ohi dugu.

Miresgarria da itsuaren jarrera. Bide-ertzean dago, zurrun, itsu, eta zurrumurrua entzun du, Jesus dela ikasleekin bidean doana, eta oihu egin dio, erruki dakiola apal-apal eskatuz, senda dezala berriro ikusteko, lehenago bezala, maisuaren seinaleez eta hitzez harriturik zegoenean bezala. Jesusek ikusmena eman dio, eta Bartimeo ez doa bere asmoak betetzera, baizik eta Jesusi jarraitzeari eman dio Jerusalemen erreinua hots egiteko.

Urteko 30. astea.

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*.

[San Paulok Efesoarrei 4,32–5,8: Bizi zaitezte maitasunean, Kristoren antzera. Sal 1: Izan gaitezen Jainkoaren antzeko, haren seme-alaba maite garenez gero.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,10-17.

Aldi hartan, larunbatez sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espiritu baten menpe gaixo zegoena; erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu.

Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakume, libre zara zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion, eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa goresten hasi.

Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatean sendatu zuelako haserre, esan zion jendeari: «Astean sei egun daude lanerako; etorri egun horietan sendatzera, eta ez larunbatean».

Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez idia nahiz astoa ukuilutik askatzen eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?»

Hitz hauekin, lotsa-lotsa eginik geratu ziren Jesusen etsai guztiak; jendetza, ordea, pozik zegoen hark egiten zituen gauza miragarri guztiengatik.

Gaur ere aurkitzen dugu sinagoga- eta kultura-mota askotan emakume asko, konkorturik nor bere oinazepan, bere

Urteko 30. astea.

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*.

espirituan eta gorputzean isilik barneratu izan dituen emakume asko, haurtzarotik, zauriturik, gutxiespen-diskurtsoak eta jarduerak, gizonezkoen boterearen aldetik. Jesusekin topo egin zuen emakumeak konfiantza osoaz jaso zituen begiak, gizonezko batek «emakumea» esan ziolako, inoiz entzun ez zuen bezalako begirunez, eta tentetu egin zen dominaturik zeukaten zauri sakonetatik bere burua liberatuz. Jesusek bere Amaren aurpegian ikusia zuen Jainkoaren irudia guztiz argi eta garden, eta emakume guztietan duintasun bera ikusten ikasi zuen.

Herria eta ebanjelizazioa (2)

(ikus lehena urriaren 27an)

Herri bakoitzaren kultura bereziaz jarduteko, Mendekoste eguneko kontakizunera jo du Rafiringak; «Apostoluen predikua entzuten zuen talde desberdinetako bakoitzak bere herriko hizkuntzan ulertzen zien» dioen hartara. Lekuan lekuko hizkuntzaren garrantzia azpimarratzeko: «zeren eta –dio– “hizkuntza” kontzeptuan biltzen ahal dugu herri bat besteetatik bereizten duen guztia». Eta honela koroatzen du bere gogoeta: «Darmesteter-ek [James Darmesteter (Château-Salins, Frantzia, 28 de marzo de 1849-03-28 / Maisons-Laffitte, 1894-10-19), hizkuntzalaria, orientalista, idazlea eta antikuario frantsesak] idatzirik utzia du: “hizkuntzak ispiluak bezalako dira, herrien buru-ohiturak eta psikologia islatzen dute”». (Jarraituko du: urriaren 31n).

Urteko 30. astea.

San Martzelo, *martiria*.Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*.

[San Paulok Efesoarrei 5,21-33: Handia da misterio hau, eta nik Kristori eta Elizari loturik ikusten dut. Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,18-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudiko da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia».

Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi gutzia harrotzen da».

Bi parabola hauek txikia izanik handi egiten den gauza batez mintzo zaizkigu. Desberdinak dira biak, baina bata bestearen osagarri. Mostaza-hazia gauza txikia da eta hazi egiten da; legamiak, berriz, hazarazi egiten du oreka eta bera ezkutatu egiten da mahaian partekatu ohi dugun ogian. Egiazko diren kristau-elkarteek bietatik dute zerbait. Hazi eta handi egiten dira zailtasunen artean; aldi berean, hazarazi egiten dute giza errealitatea. Eta nire elkarteak, bizirik al dago mostaza eta legamia bezala, ala hilik al dago jada, inor biziartzeko gai ez delarik?

Urteko 30. astea.

San Alonso Rodriguez, *jesuita*.

[San Paulok Efesoarrei 6,1-9: Ez gizakiei atsegin izateko bakarrik, baizik eta Jainkoaren nahia gogoz betetzen duten Kristoren esklabo bezala. Sal 145 [144]: Fidagarria da Jauna bere hitz guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13,22-30.

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera bidean zihoala, igarotzen zituen herri eta auzoetan irakasten zuen.

Batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?» Jesusek erantzun zion: «Saia zaitetzete ate estutik sartzen. Egiaz esan, askok sartu nahi izango du, baina ezin izango da sartu.

Etxeko jaunak jaiki eta atea itxiz gero, kanpoan geldituok ate joka hasiko zarete: “Ireki, Jauna!” Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten”.

Zuek, orduan, honela hasiko zatzaizkiote: “Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure plazetan irakatsi izan duzu”. Baina hark erantzungo dizue: “Ez dakit nongoak zareten. Alde nigan, gaizkileok!”

Orduan, negarra eta hortz-karraska izango da, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jainkoaren erreinuan ikustean, zeuen burua, berriz, jaurtia. Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, iparretik eta hegotik, eta Jainkoaren erreinuko mahaian eseriko dira. Begira: orain azkeneko den zenbait lehenengo izango da, eta lehenengo den zenbait azkeneko».

Inporta duena ez da zenbat salbatuko diren zenbatu eta jakitea, baizik eta gogoan hartzea salbazioa zabalik dagoela herri

eta sineskizun guztientzat, eta, aldi berean, erazten joatea erreinuko ate estutik sartzea eragozten diguten handikeria guztiak. Maitasunez jokatzek apal bihurtzen gaitu eta txikienen zerbitzari. Jesusengan agertu zaigun Jainkoarekin topo egitera iristen azkenak izan direnak sartuko dira erreinuko behin betiko jai-otordura; alabaina, beste batzuek hartarainoko boterea eta ongizatea dituzte erlijioan eta gizartean, non ez baitute lortuko tituluen eta ondasunen segurtasun horretatik askatzea.

Herria eta ebanjelizazioa (3)

(Ikus urriaren 27an eta 29an 1.a eta 2.a)

Misiologiaz ari delarik, zorrotz mintzatu da: «...misiolari baten-tzat funtsezkoa da ezagutzea bidalia den nazioko ohiturak, ekanduak, pentsaera. Ezagutuko ez balitu, soilik mirariz izango luke arrakastarik bere apostolutzan». Eta konparazio hau gehitzen du: «Fedega-beak jende gaixoa dira, zeinen sendagilea baita misiolaria. Eta gaixoa ezagutuko ez lukeen sendagileak, nola senda lezake? Seguruena da hiltzera eragingo liokeela». (Jarraituko du: azaroarem 4an)




AZAROA / ZEMENDIA

AITA SANTUAREN ASMOA

Unibertsala: **Bakearen zerbitzura**

Bihotzaren eta elkarrizketaren hizkuntza eta hizketa armenen gaineko izan daitezen beti.



§ Apokalipsi liburutik 7,2-4.9-14.

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte».

Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak.

Ordoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar:

«Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamera».

Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean eta Jainkoa adoratu zuten, esanez:

«Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, eskerrona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen».

Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?» Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

1

**Osteguna /
Eguena**

AZAROA / ZEMENDIA
Urteko 30. astea.
SANTU GUZTIEN OROIPENA.

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria]
1936), *apaiza, dohatsua, martiria.*

[Sal 24 [23]: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

§ San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3,1-3.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako.

Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko deanean, haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak gogoz behartsu direnak,
berena baitute Jainkoaren erreinua.
Zorionekoak atsekabetuak,
beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko.
Zorionekoak apalak,
berek izango baitute agindutako lurra ondare.
Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak,
beraiek baititu Jainkoak aseko.
Zorionekoak errukitsuak,

AZAROA / ZEMENDIA

Urteko 30. astea.

SANTU GUZTIEN OROIPENA.

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936), *apaiza, dohatsua, martiria*.

Osteguna /
Eguena

1

beraiek baititu Jainkoak erruki izango.
Zorionekoak bihotz-garbi direnak,
berek ikusiko baitute Jainkoa.
Zorionekoak bakegileak,
Jainkoaren seme-alaba izango baitira.
Zorionekoak zuzentasunagatik eraso jasaten dutenak,
berena baitute Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaitzutenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaitzutenean. Poztu zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Santu Guztien Jaia ospatzen dugu gaur; ez da, beraz, santu ezagunena eta kanonizatuena bakarrik. Ebanjelioaren arabera-ko biziera egin ondoren, jada Kristorekin bat diren guztiak ospatzen ditugu. Jesusen hitz batzuk entzun ditugu; hurbiltzen ari zitzaion jendeari begira jarri eta zoriontasunak jaulki zituen; hitz horiek ez zetozen bat jendeak txikitan sinagogan entzun zuenarekin. Jesusentzat, behartsuak eta sufritzen ari direnak ez dira zoritxarreko, baizik eta zorioneko eta Jainkoaren maite. Gure begiek sakonera jo behar dute, Jesusenek bezala; ez dute gelditu behar azalean eta itxuran, baizik eta gizarteak bazterten duen jendearen duintasuna eta handitasuna ikustera jo behar dute.

Zoriontsu dira, orobat, borroka egiten dutenak mundu baten alde, zeinetan jende guztiak aurkituko baititu erabat gizatar izateko behar dituen ondasunak, zuzentasuna eta askatasuna. Jesusek esan dio jendeari, ez atsekabetzeko, pozari eusteko, boteretsuek pertsegituko dituenean. Beraien ahaleginik txikiena ere ez dela al-

1

**Osteguna /
Eguena**

AZAROA / ZEMENDIA
Urteko 30. astea.
SANTU GUZTIEN OROIPENA.

Pedro Asuakoa (Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria]
1936), *apaiza, dohatsua, martiria.*

ferrik galduko. Dena geldituko da bildurik Jainkoaren erreinuan. Zorionsu izango gara eta Jainkoaren lankide, Jesusek bezala, pertsona guztien duintasuna, edozein erlijio eta kultura izanik ere, kontuan hartuko dugunean, eta zerbitzari izango garenean, bereziki jende hautsienari eta zokoratuenari dagokionez.

GAZTE HILTZERAT DOANA (1)

(Jean Baptiste Elizanburu, 1860)

- Hogoigarren urtera ari naiz hurbiltzen,
Eta nere oinetan tonba dut ikusten.
Ni zertako mundura etorria nintzen?
Ondikotz! ez sortzea neretzat hobe zen.
- Sekulan zoriona zer den jakin gabe,
Ainitz dut nik lurlean izan atsekabe.
Lore sortu orduko histu [zimel] baten pare,
Biziaren uztera guti naiz herabe [lotsa].
- Ez, ez, ez nau izitzen ez ni herioak,
Laster ken dekadala bizia Jainkoak!
Sehaskan galdu ditut nere burrasoak;
Zer diren ez dut jakin etxe gozoak.
- Aita ama maiteak, zertako mundutik
Zerura goan zineten ni hemen utzirik?
Ez dut nik mundu huntan izan sosegurik,
Ez baitut ezagutu amaren musurik.
- Hamazazpi urtetan, zorigaitz dorpea!
Izar bat maitatu dut parerik gabea;
Aingeru bat zaiteken, zeruko umea;
Nere bihotz eritik jua darot bakea.

(*Jarraituko du: azaroaren 3an*)

Urteko 30. astea.
HILDAKO GUZTIEN OROIPENA.

§ Joben liburutik 19,1.23-27a.

Jobek esan zuen: «Ai, idatziak balira nire hitzak! Ai, liburu batean jarriak baleude, burdinazko eztenez berunean eta harriaren betiko ezarriak! Nik badakit, nire Salbatzailea bizi dela, eta azkenean zutituko dela lurraren gainean. Nire larrua galdu ondoren, haragirik gabe ikusiko dut Jainkoa. Neuk ikusiko dut, eta ez bestek».

[Sal 25 [24]: Jauna, zugana jasotzen dut gogoia.]

§ San Paulok Filipinoarrei 3,20-21.

Senideok: Guk zerua dugu geure herri, eta, itxaro, handik itxaro dugu Salbatzailea, Jesu Kristo gure Jauna. Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaeren antzeko eginez, gauza guztiak menperatzeko duen indarrez.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15,33-39; 16,1-6.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar

handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago gaztearen eta Joserren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin batean Jerusalemera igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaroten zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitzirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joserren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

Ebanjelioko hiru emakumeak Jesusen hilobira joan ziren; gu ere hala joaten gara geure pertsona maiteen hilobira, beraien oroimena egiteko, otoiitz, kandela eta loreekin. Bizia eman ziguten, adiskidetasuna, jakituria... eta beren burua. Dohain horrek bizirik jarraitzen du eta haziz doa orain gegan. Guk eman genien maitasunak ere berpizturik jarraitzen du beraiengan. Bizirik gogoratzen ditugu eta geurekiko elkartasun misteriotsuan. Geure otoiitzean sartzen ditugu, arrastorik utzi gabe, itsasoan, basamortuan, tortura-geletan galdu diren guztiak ere.

Urteko 30. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.

Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

[San Paulok Filipinoarrei 1,18b-26: Niretzat, bizitzearen arrazoia Kristo da, eta hiltzea irabazpide. Sal 43 [41]: Jainko biziaren egarri naiz.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,1.7-11.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien:

«Zteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, baliteke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”. Orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zen nuke lotsaturik.

Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokiari, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago!” Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Urtero argitaratzen dira boterearen, famaren, edertasunaren, diruaren... top ten (hamar lehenak) direlakoak. «VIP» (Very Important Person = pertsona oso inportantea) pertsonari tratu berezia eman ohi zaio, ez du zain egon behar izaten bulego, aduana eta itxaro-aretoetan beste askok pazientziaz erutzen dituen jende-lerro luzeetan. Beti izan ohi da gizartean sokatira

Urteko 30. astea.

San Martin Porres, *domingotarra*.Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*.

lehiatsua lehen postuen bila. Erreinuko azkenik eta eguzki-sarterik gabeko afarirako guztiok eseriko garenean, azkenak diren askori esango die Jaunak beraren ondoan esertzeko, zeren eta han egonak baitira aspaldidanik, beren bizitzan, berek jakin gabe bazen ere.

GAZTE HILTZERAT DOANA (2)

- Nahiz, aingeru ona, ez duzun sekulan
Munduan jakin zenbat nik maite zintudan,
Urus [zoriontsu] zarenaz geroz Jaunaren oinetan,
Ez nezazula ahantz zure otoitzetan.
- Anaia bat banuen haurra nintzelarik,
Soldado jua zen eta nik ez dut berririk:
Aita amekin dela ez daite dudarik,
Niri begira daude hirurak zerutik.
- Ahituz banarama nere oinazeak,
Burrasoen aldera deitzen nau zorteak,
Nork ditu artatuko, ait'ama maiteak,
Zuen tonba gainean nik eman loreak?
- Nere gorputz flakoa lurrerat orduko,
Nor ote da munduon nitaz oroituko?
Nere ehorts-lekura nor da hurbilduko?
Lore berririk ez da neretzat sortuko!
- Mendian ur xirripa, harrien artean,
Auhena eta nigarrez jausten da bidean,
Izan nahi bailuke zelai ederrean...
Hala nere egunak badoaz lurrean.

(Azaroaren lehen zatia).

Urteko 31. astea.

San Karlos Borromeo, *gotzaina*.

§ Deuteronomio liburutik 6,2-6.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Begirune izango diozu Jaunari, zeure Jainkoari, eta bai zuk eta bai zure ondorengoek nik ematen dizkizudan Jaunaren lege eta agindu guztiak beteko dituzue zeuen bizitza osoan, luzaro bizi zaitezten.

Entzun itzazu, beraz, Israel, eta saiatu betetzen, zoriontsu izan zaitezten eta biziki ugaritu, esnea eta ezia darion lurraldean, Jaunak, zuen arbasoen Jainkoak, hitzeman bezala.

Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz. Izan beti gogoan gaur esaten dizkizudan hitz hauek».

[Sal 18 [17]: Maite zaitut, Jauna, neure indar!]

§ Hebrearrei gutunetik 7,23-28.

Senideok: Lehengo ituneko apaizak asko ziren, ezin baitzuten iraun, hil egiten zirelako. Jesusek, ordea, beti irauten duenez, inoiz amaituko ez den apaizgoa du.

Jesusek betiko salba ditzake beraren bidez Jainkoagana hurbiltzen direnak, bizirik baitago haien alde beti erregutzeko.

Benetan, Jesus bezalako apaiz nagusia behar genuen guk: santua, errugabea eta kutsugabea, bekategoriengandik bereizia eta zeruak baino gorago jaso. Honek ez du, beste apaizek bezala, lehenengo bere bekatuengatik eta gero herriarenengatik egunero opariak eskaini beharrik, behin betiko egin baitzuen hori, bere burua opari eskaini zuenean. Legeak, izan ere, gizon

ahulak izendatzen ditu apaiz nagusi; legea baino geroagokoa den Jainkoaren zinak, ordea, Semea izendatu du apaiz nagusi, betieran bete-beteko dena.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusia?»

Jesusek erantzun: «Hau da nagusia: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik».

Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere».

Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik».

Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Lege-maisu batek, Liburu Santuetan aditua zen batek, galdetu zion Jesusi, zein zen legeko agindu nagusia. Jainkoa ahal guztiaz eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea. Horren arrazoia: Jainkoak bere bihotz guztiaz eta bere ahal guztiez gu maite izatea. Jainkoa maitatzeak ez garamatza gainerakoak geure begi-bistatik kentzera; Jainkoaren presentziaren

Urteko 31. astea.

San Karlos Borromeo, *gotzaina*.

esperientzia sakona egiten dugunean, errealitate guztia izaera berri batez agertzen zaigu. Jainkoaren maitasuna ezin berezi da gainerakoak eta geure burua maitatzetik. Jende askok ez du maite bere burua, uste baliogabetua du bere buruaz, mesprextatu egiten du, nazka sentitzen du eta zartatu egiten du motako askotako jokabide buru-suntsitzailez. Jainkoak bezala maite duen bihotz batentzat ez dago jende bazterturik, ez etsairik, ez txirikirik. Jainkoaren maitasun hori esperimintatu beharra dugu; askotan iristen zaigu errespetua diguten eta maite gaituzten beste pertsona batzuk tarteko direla. Pertsona guztientzat agertu da Jainkoaren maitasun hori, era ezin handiagoan, Jesusengan, behin eta betiko.

Herria eta ebanjelizazioa

(Ikus urriaren 27an, 29an eta 31n 1.a, 2.a eta 3.a)

Jainkoaren obra handia den herrien idiosinkrasia bereziaz ari dela: «paganoak konbertitzeko misio edo eginkizun honek, beste edozein lanbide bezala, misiolariengan nolakotasun eta ezagutza bereziak eskatzen ditu; horregatik, berezko gauza ematen du etorkizuneko ebanjelizatzaileentzat alde aurreko formaziorako etxeak eskatzea, aipatu nolakotasuna eta ezagutzak landu ahal izateko.

Eta misiolari atzeritarrez zehazkiago ari dela: «Madagaskarreko apaizek eta erlijiosoek ez dute aski hizkuntzak, adibidez latina, grekoa edota hebreera bera, ezagutzea. Ezinbestekoa da malgaxe hizkuntza dominatzea, ortografia eta gramatikatik joskeraraino, gai izatea jendaurrean zuzen hitz egiteko, eta, are, poesia idaztea bera ere. Bestela, malgaxeren txotxongilotzat hartuko dituzte bertakoek, eta ez benetako madagaskartartzat».

5

Astlehena

AZAROA / ZEMENDIA

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak.

Zakarias eta Elisabet santuak,

Joan Bataiatzailearen gurasoak.

[San Paulok Filipoarrei 2,1-4: Bete nazazue pozez, zuek denok sentiera bereko izanez. Sal 131 [130]: Zaindu ezazu nire bizia bakean zeure baitan, Jauna.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion gonbidatu zuen fariseu-buruetakoari: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senideak, ahaideak edota auzoko aberatsak ere; zeren haiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordua ematean, gonbidatu behartsuak, elbarriak, herrenak eta itsuak. Zorionekoa zu, orduan, ezin izango baitizute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

Otorduak adiskideak ohoratzeko izaten ziren, elkartek egiteko, eta jendaurrean azaltzeko gonbidatzaileak baliabiderik bazuela. Pertsona aberats batek norbait gonbidatzean, zintzilik gelditu ohi zen errezeloa, ezkutuan onuraren bat ote zebilen, otorduaren eta perfumeen atzean. Jesusek zabaldu egin ditu gonbidatzailearen zeruertza eta bihotza. Pobreak eta ezgaituak ere, garai hartan bizitza ezin atera zuten haiek ere, errespetagarri ziren eta duintasun handiko. Gonbidatzen baditu, ebanjelioaren doakotasuna jabetuko da gonbidatzailearen bihotzaz eta sare sozialaz. Jesusen irakaspenak beste giza nolakotasun bat ezarri dio bizitzari.

Urteko 31. astea.

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria**.

[SanPaulok Filipinoarrei 2,5-11: Apaldu egin zuen bere burua; horregatik goratu zuen Jainkoak. Sal 22 [21]: Zugana nire gorespena, Jauna, batzar nagusian.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena».

Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat eman zuen eta jende asko gonbidatu. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: “Zatozte, prest dago dena”. Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzen hasi ziren denak. Lehenengoak esan zion: “Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren”. Beste batek, berriaz: “Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren”. Eta hurrengoak: “Ezkundu berria naiz, eta ez naiteke joan”.

Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiarri. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiari: “Hoa bizkor herriko plazara eta kaleetara, eta ekarri behartsuak,

* Eugenio Mari (Lazkao 1902–Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*.

Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

Joakin Esnaola (Idiazabal 1898–Madril 1936), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (Arrasateko Ulibarri 1896–Valencia 1936), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*.

6

Asteartea /
Martitzena

AZAROA / ZEMENDIA

Urteko 31. astea.
Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.
San Severo, *martiria*.

elbarriak,itsuak eta herrenak”. Geroago, morroiak esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekua”. Orduan, nagusiak esan zion: “Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan”. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko».

Erreina Biblian askotan parekatzen da jai-otordu batekin; hartan mahaikide guztiek partekatzen dituzte, maila berean, lurreko fruituak, pozik. Jai-adiskidetze baten irudia da: Jainkoarekin, gainerakoekin eta janariarekin. Jesusek gehitu du, jende askok ez duela parte hartzen jai komun horretan, eta nahiago izaten dituela zoriontasun txiki pertsonalak. Entzuleen harridurarako, nagusiak gonbidatu ditu ezinduak ere, baita kaletan eta hiritik at, etxerik gabe, dabiltzanak ere. Bere indibidualismo hertsian hesitzen denak, berak bazterten du bere burua jai unibertsal eta azkenik gabekotik.

Urteko 31. astea.

San Florentzio Irlandakoa, *gotzaina*.

[San Paulok Filipinoarrei 2,12-18: Saia zaitezte zeuen salbamena burutzen. Jainkoa da, bai nahi izateko eta bai burutzeko gai egiten zaituztena. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14,25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honak, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle.

Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”.

Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde aurretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandataria bidaliko dizkio bakea eskatuz.

Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Jesusen hitzak ez dira ikasle bila dabilen batenak. Gure kultura lausengari honetan ulertezinak dira. Politiko izangai bakar

bat ere ez litzateke baliatuko antzeko diskurtso batez zaleak egiteko. Aitzitik, ematen du, jendea izutzeko diskurtsoa dela. Eskakizunik zorrotzena agertu du. Ez giza bizitzako harremanik hurbilenak, ez ondasunak, ez norberaren desioen araberako garatze pertsonala tarteka eta aurkeztu daitezke. Are gehiago, ikasleak lepoa prestatu beharra du gurutze astunak hartzeko. «Bai» esan aurretik, ondo pentsatu behar da. Horiek horrela, zer du Jesusek eta zer berak eskain digun bizi berriak, hainbat eta hainbat jendek berari jarraitzeko?

«Kristau garen aldetik,
bizi garen bekatuzko egitura hau,
ustelkeria hau,
egoismoaren nahaspila
eta zuzengabekeria sozial hau
kondenatu beharra dugu».

(El Salvadorreko Romero artzapezpikua.)

Urteko 31. astea.

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*.

[San Paulok Filipoarrei 3,3-8a: Baliotsutzat nituen gauzak baliogabetzat jo ditut Kristogatik. Sal 105 [104]: Poztu bihotzez Jaunaren bila zabilzatenok.]

† Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 15,1-10.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi hartzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin».

Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Zuetako bat, ehun ardi izan eta bat galtzen bazaio, ez al da beste laurogeita heme-retziak larrean utzirik, galdutakoaren bila joaten aurkitu arte? Eta, aurkitzean, lepoan hartzen du poz-pezik eta, etxera iristean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitetze nirekin, aurkitu baitut galdutako ardia”.

Hara Nik esan: Jainkoak ere poz handiagoa hartzen du bihotz-berritzen den bekatari batengatik, bihotz-berritu beharrik ez duten laurogeita hemeretzi zintzoengatik baino.

Eta zein emakumek, zilarrezko hamar txanpon izan eta bat galtzen bazaio, ez du, kriseilua pizturik, etxea garbitu eta arduraz guztiz bilatzen aurkitu arte? Eta aurkitzean, adiskideak eta auzokoak bildu eta esaten die: “Poztu zaitetze nirekin, aurkitu baitut galdutako txanpona”.

Hara Nik esan: Berdin pozten da Jainkoa bere aingeruekin bihotz-berritzen den bekatari batengatik».

Jainkoaren bihotzak sufritu egiten du pertsona bat galtzen denean, mendiko bakardadean, ardia bezala, edota etxeke zaborretan, moneta bezala. Galdurik eta nahasirik, ezin ipini da harremanetan bere barrunbearekin, eta ezin itzuli da. Bakarrik sentitzen da, babesik gabe. Beraren bila joatea da salbatzeko ahalbide bakarra. Zori horretan, Jainkoak bakarrik du ekimena, eta deliberatuki joko du haren bila. Jesusek, artzain onak, lepoan hartu zuen galdua zen ardia. Gizon egin den Jainkoak «ardi usaina» du, eta aurkitua den ardiak badu jada «Jainkoaren usaina».

Dueso-ko kartzelatik (1937-10-15)

«Maritxu maite-maitea: ordu gutxi barru donokira [zerura] noa, Jaungoikoak bere besotan artuko nauan uste oso-osoakin, maitien zindudanian eta zurekin eta gure txikiakin bizitzeko poza aundien zanean. Jaungoikoak berak daki zer egiten duan eta bere naia egin bedi. Idazteko astirik ere oso gutxi utzi didate. Gure aurtxoak Jaungoiko bidetik azitzen jakin dezazun, gure Jaunari eskatuko diot. Gure odol au ez da alperrik izango, zuek utzitzeak ituntzen [tristatzen] ñau, bestela mundu ontatik alde egiteko aurrez ordua jakitea... orixe Jaungoikoak eman lezaken eskerrik andiena, eta neri eman dit. Muxu asko eman ñire eta zure Itziartxo, Lore, Nekane... ezin jarraitu det. Bai maite zaituztedala... zerutik lagunduko dizuet... Agur, Maritxu, agur, agur, txikitxuak... Gora Euzkadi Askatuta, Jaungoikogan bakarrik lotuta. Maite-maite zaitu zure Polentzi»

(Karmel aldizkaria 273. zenb., 2011-1 urtarrila-martxo). (Polentxi sinatzaile hori Debako alkate izana da; El Dueso-n fusilatu baino lehentxeago idatzi zuen).

Urteko 31. astea.
Letrango Eliza Sagaratzea.

[Ezekiel profetaren liburutik 47,1-2.8-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. Sal 46 [45]: Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2,13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaiia, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarriz zar-tailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutuko nau».

Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?» Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?» Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Hilen artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

Jesusen garaian, Jerusalemgo Tenplutik ez zerion urik lur lehorrean barna, bidean lurra arbolaz eta landarez betez, itsaso gazira iritsiko zenik; baizik eta kontrako mugimendua ari zen

egiten. Tenpluraino iristen ziren zergak eta animalia opari egiten dirua, beren baitan herri pobretu baten lana eta estutasuna zeramatzenak. Jesusek kanpora bidali ditu merkatariak, eta iragarri du, beraren gorputza izango dela egiazko tenplua. Beraren zauri berpiztuetatik sortuko da biziaren ura herri guztientzat, doan eta inor baztertu gabe. Jainkoak ez du bereganatzen bizia, baizik eta banatu egiten du.

ESTUALDIAN KONFIANTZA JAUNAGAN

(Salmo 31,2-6)

Jauna, zugar dut nik neure babesle:
ez dakidala inoiz neure ustea huts gerta!
Zuzena baitzara, atera nazazu onik.
Entzun, arren, niri! Libra nazazu, ez luza!
Izan zakizkit harkaitz babesle, gaztelu salbatzaile.
Zu zara, izan ere, nire haitz eta gotorleku.
Eraman nazazu eta gidatu, zarena zarelako.
Atera nazazu jarri didaten tranpatik,
zu baitzaitut gotorleku.
Zure eskuetan jartzen dut neure bizia:
aska nazazu, Jauna, Jainko leiala!

Urteko 31. astea.

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea.

San Andres Avelino, apaiza.

[San Paulok Filipinoarrei 4,10-19: Dena dezaket indartzen nauen Kristogan. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16,9-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondarena? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman benetan dagokizuena?

Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi».

Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egingen zioten Jesusi. Honek esan zien: «Zuek zeuen burua zintzo agertzen duzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak baliotsutat daukana, Jainkoarentzat mespretxagarri da».

Jende askorentzat dirua hain garrantzizkoa da, non bere bizitzako nagusi izaten baitu. Uste izaten du jende horrek, bera dela diruaren jabe, baina kontrakoa izaten da egia: dirua bihurtzen da jende horren jabe; diruaren zerbitzari bihurtzen da. Di-

ruak ezartzen dio ordutegia, jende hori bera eta jende horri lotua den guztia suntsitzen duena; huts eginik sentitzen da jende bat, halako maila batera iristen ez bada; modu jakin bat ezartzen dio diruak jolaserako, bidaiatzeko, janzteko, gainerakoekin harremanak izateko. Beharrezkoa da dirua bizitzeko, baina diruak dominatu dezan uzten duen pertsonak bere burua galtzeko du.

Solidario izaten jakin

«Eta hori duintasunak ematen du; jakin solidario izaten, jakin laguntzen, jakin eskua luzatzen ni baino gehiago ari denari sufritzen. Solidario izateko gaitasuna, pobretasunak ematen dizkigun fruituetarik da. Aberastasun handia duzunean, ahaztu egiten zara solidario izateaz, ohitua baitzara ezeren faltarik ez izatera. Pobretasunak, batzuetan, sufriarazten dizunean, solidario bihurtzen zaitu eta eskua luzatzera eragiten dizu zu baino egoera latzagoa bizitzen ari denari. Erakutsi solidaritatea munduari» (Frantzisko aita santuak, Vida Nueva 19-25/11/2016, n° 3012,32.or.)

Urteko 32. astea.

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*.
Toribio santua, *monjea*.

§ 1 Erregeak liburutik 17,10-16.

Egun haietan, jaiki zen Elias profeta eta Sareptara joan zen. Hiriko ateetara iritsi zenean, emakume alargun bat ikusi zuen zotzak biltzen. Eliasek deitu eta esan zion: «Ekardazu ontzian ur-pixka bat edateko». Bila zihoala, Eliasek atzetik oihu egin eta esan zion: «Ekardazu, arren, ogi-zati bat ere».

Emakumeak erantzun zion: «Ala Jauna, zure Jainkoa! Ez dut batere ogirik; eskutada bat irin besterik ez dut katiluan, eta olio-pixka bat pitxerrear; zotzak biltzen ari nintzen, neure semearentzat eta biontzat opil bat egin, jan eta gero hil gaitez».

Eliasek esan zion: «Ez beldur izan. Zoaz eta egin esan duzuna; baina egidazu lehenbizi niri sutopiltxo bat eta ekardazu. Gero, egingo duzu semearentzat eta zeuretzat. Hau baitio Jaunak, Israelen Jainkoak: “Irin-katilua ez da ahituko, ezta oliontzia agortuko ere, Jaunak lurrera euria bidaliko duen eguna arte”».

Joan zen, bada, emakumea eta egin zuen Eliasek esana, eta luzaroan jan zuten Eliasek eta ama-semeek. Irin-katilua ez zen ahitu, ezta oliontzia agortu ere, Jaunak Eliasen ahoz esana zuen bezala.

[Sal 146 [145]: Goretsazu Jauna, ene barrena.]

§ Hebrearrei gutunetik 9,24-27.

Senideok: Kristo ez zen sartu giza eskuz egindako santutegian –egiazkoaren irudi besterik ez zen santutegian–, zeruan

bertan baizik, orain Jainkoaren aurrean gure alde agertzeko; eta ez zen sartu bere burua behin eta berriz opari eskaintzeko, apaiz nagusia berea ez duen odolarekin santutegian urtero sartu ohi den bezala; bestela, hil ere askotan hil behar izango zuen, munduaren hasieratik. Baina ez, Kristo behin bakarrik agertu da orain, azkenak diren garai hauetan, bere buruaren opariak bekatua ezerezteko.

Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakia dagoen bezala, halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen opari eskainia guztien bekatuak kentzeko, eta gero bigarrenez agertuko da, bekatuarekin zerikusirik gabe, beraren zain daudenak salbatzera.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12,38-44.

Aldi hartan, Jesusek, bere irakastaldian, esan zion jendeari: «Zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahaiburuak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoek eparirik zorrotzena izango dute».

Jesus tenpluko diru-kutxaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuen. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zien: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honen beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste

Urteko 32. astea.

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*.
Toribio santua, *monjea*.

guztiak sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Emakume alargunena talderik zaurgarrienetakoa zen. Ez ziren izaten inoren arreta-helburu; askoz gutxiago inorentzat erreferentzia-eredu. Tenpluaren aurretik jende dirudun asko igaro ohi zen, eskaintza handiak egiten zituena. Begi guztiak emaile dirudun horietara joaten ziren. Jesusek beste sentiera bat du bizitza sumatzeko. Ebanjelioko emakume alargunak bizitzeko duenetik eman du, partekatuz. Ez zuen banku-konturik, ez segururik, ez ondasunik premiazko kasu batean saldu ahal izateko; baina solidarioa du bihotza eta zabala. Han hurbildu da bere eskaintza apurra egiteko, kasik inor ez ohartzeko eran, inork erreparatzen ez dion itzala bailitzan.

Pobreekin, baliabiderik gabeko migratzaileekin, beren arrerakin eskasak ustekabeen krisialdiak lapurtu dizkietenekin partekatzen duguna, ez da izaten laguntza gainerakoentzat bakarrik, erakundeetatik, agenda politikoetatik eta plan soziale-tatik at bizi direnentzat bakarrik, geuretzat ere bai; izan ere, ekintza horrek bihotzean eremu bat zabaltzen digu, non egiazko maitasuna eta doakotasuna hazi ahalko baitira, gure giza harremanetatik negozio-usain guztia desegino delarik.

Urteko 32. astea.

San Josafat, *gotzaina eta martiria*.San Millan [Emiliano] Kukulakoa, *apaiza*.

[**Titori gutunetik 1,1–9**: Ezarri elkarte-arduradunak, eman dizkizudan argibideen arabera. **Sal 24 [23]**: Hau da, Jauna, zure aurpegi hila dabiltzanen taldea.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,1-6.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzen duena! Hobe luke errotarria lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino.

Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu».

Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gugu». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zenioke, eta obeditu egingo lizueke».

Jesus ikasleekin ari da hizketan eta elkarteko direnei mintzo zaie. Txikiak ez dira, ezinbestean, haurrak, baizik eta ahulenak direnak, Jesusi jarraitzen hasikinak egiten ari direnak, beren fedean beren burua larri ikusten dutenak elkartean «lehenengo direnen» portaera ikusita. Barkaziorik gabe, ezinezkoa da elkarte-bizitza. Beti behar da barkatu eta guztiei, anai-arreba artekotasuna berregiteko, eskandalagarri direnak barne. Fedea irmoa bada, Jainkoagandik sendotasuna hartuko dugu, oztopoak gainditzan dituenak, mendiak bezain handi izan arren.

Urteko 32. astea.

San Estanislao Kostka, *jesuita*.San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*.

[Titori gutunetik 2,1-8.11-14: Jainkozaletasunez bizi gaitezen, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz betarik noiz agertuko zain. Sal 37 [36]: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,7-10.

Aldi hartan, Jaunak esan zien apostoluei: «Emazue, zuetako batek morroia duela soro-lanean edota artzaintzan. Morroia etxeratzean, “hator berehala mahaira” esango ote dio? Ez ote dio beste hau esango: “Presta iezadak afaria, jantzi aurreko mantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?” Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako?

Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

Jainkoaren benetako zerbitzariak, batez ere, gorputza hain zauritua izateagatik, beren buruaz ezin baliatu diren atalengan Jainkoa bera zerbitzatu dutenek, edota beren bizia eskaintzen ari direnek, eginkizun anonimoetan, familiei, elkarteei, erakundeei... egunerokotasunean eutsiz eta lagunduz: halakoek sentitzen dute beren bihotzean, une argitsu batzuetan, egiten ari direnaren zentzua; halako moduan, non beren burua eskerturik sentitzen baitute Jainkoa zerbitzatzeagatik. Halakoentzat ez du zentzurik beren egintzak Jainkoaren aurrean harro erakusteak, ezta berari ezer galdatzeak ere. Sentitua dute jada funtsezko zoriona.

[**Titori gutunetik 3,1-7:** Noizbait bide galdu izanak gara, baina bere errukiagatik salbatu egin gaitu. **Sal 23 [22]:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,11-19.**

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez. Samariarra zen bera.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatziaik? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?» Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

Jesusen bideak hiriaren ertzetik hurbilekoak izaten ziren; haie-tan egoten ziren etxerik gabeko eta jende maitearen erreferentzia gozorik gabeko lepradunak. Halakoen hitz erdiragarriak entzuteko eran ibili ohi zen Jesus. Lepradunek sinetsi zioten esan zienean hiri-rantz joateko, osasunerantz, familiarantz, bizitzarantz. Fede horren-gatik sendatu ziren bidez zihoazela. Hamarrak sendatu ziren. Batek bakarrik egin zuen, ordea, Jesusekin topo bete-betean: sendaturik sentitzean, beraientzat egin zuenagatik eskerrak ematera itzuli zen samariarrak. Laguntza eskatzearen oihutik, eskerronaren xuxurla-ra ilarotzeak, laguntzen ahal digu geuri ere bizieraz aldatzen.

Urteko 32. astea.

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea,*
domingotarra.

[San Paulok Filemoni 7-20: Hartazazu, ez esklabo, anaia maitea bezala baizik. Sal 146 [145]: Zorionekoa Jakoben Jainkoa lagun duena.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17,20-25.

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik».

Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zeru-alde batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

Beti egin izan dira amets-gogoetak geroaren inguruan. Jesusen garaiko galderetako bat, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen. Jesusek esan die, ez daitezela ibili gertaera bereziren bila, ikuskari handietan, kontzertuetan, jaietan edo kanpainetan moldatu ohi direnak bezalakoen bila. Ez da jo behar erakargarri horietara Jesus bilatzeko; izan ere, Jesus etengabe iritsi ohi da giza bihotzaren erdira, zer garenari eta nola bizi garenari dagokienez biziera berri baten proposamena eginez, baina liluratzailer eta mehatxagarri izan gabe. Beren bihotzaren hondora iristen direnek, han aurkituko dute bera, eta bizia ugari emango die.

[San Joan apostoluaren 2. gutunetik 4-9: Irakaspenean irauten duenak berekin ditu Aita eta Semea. Sal 119 [118]: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,26-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen.

Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen.

Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituen ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz.

Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galzten duenak, berriz, onik aterako du.

Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utzi; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utzi». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?» Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

* Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo santuak, *apaizak eta martiriak, jesuitak*.

Urteko 32. astea.

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra.*Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina.*

Jesusek berriro jo du, era sinbolikoan, Noeren, Loten eta Gizonaren Semearen irudietara. Horietan guztietan ageri da eskenatoki ustel orokortu bat, garbitzeari emana eta errealitate berri baten hasiera; hirurei dagokiena: naturari, hiriei, pertsoniei. Gizonaren Semea Jesusen irudi da, aro berri bat ezartzera etorria. Putreek landaren eta hirien garbikuntza adierazten dute, hila desegin eta ingurugiroa saneatzeko. Jesusek diosku, bera etortzearekin hasia dela Jainkoaren erreinua, usteldura eta zuzengabekeria desegiteko, lurraren narriadura ezabatu eta den-dena berregiteko.

Berandu maitatu zintudan, ene Jainko,
edertasun beti antzinakoa / eta beti berria,
berandu maitatu zintudan.
Nire barnean zeunden zu / eta kanpoan ni
eta, horrela, kanpotik bilatzen zintudan
eta, desitxuratua nintzen hau,
zuk kreatuak diren
gauza eder hauetan murgiltzen nintzen.
Nirekin zeunden zu, / baina ni ez zurekin.
Deitu zenidan eta hots egin zenuen
eta hautsi zenuen nire gorrieria;
dirdira eta argi egin zenuen
eta sendatu nire itsutasuna;
ufatu zenuen zeure usain ona
eta arnastu nuen nik / eta orain irrika dut zure;
dastatu nuen zuretik / eta gose-egarri nauzu zure.
Ukitu ninduzun / eta sutu nintzen zure bakean.

(Hiponako San Agustin)

[Joan apostoluaren 3. gutunetik 5-8. Lagundu egin behar diegu senideei, egiaren zerbitzuan horien lankide bihur gaitezen. Sal 112 [111]: Zorionekoa Jaunari begirune diona.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoitz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”».

Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?»

Emakume alargunena, talderik babesgabeenetakoa zen gizarte patriarkal hartan. Ez zuten ahalmenik beren eskubideak aintzat harrarazteko gizonezkoen nagusikeriaren aurrean. Auzibidea zuten beren ahalbide bakarra. Alargun hau euskortasunaren etsenplu da. Lehiatsu da epaile zuzengabe baten aurrean,

Urteko 32. astea.

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*.

harik eta epaileak erabakiko duen beraren arazoa konpontzea, hura gainerik kentzeko. Epaile ustel batekin horrelakorik gertatzen bada, Jainkoak, ontasun denak, nolatan ez digu adituko zuzentasunaren bila joatean. Konfiantza eta esperantza bizi ditugu Jainkoagan. Baliteke, haren erantzuna, isilik, gure artean garatzen aritzea, gu konturatzeko.

Badakusazu, oi Kristo, nire larria,
badakusazu nire adore-falta,
badakusazu nire indar-falta,
badakusazu nire pobretasuna,
badakusazu nire ahuldadea,
eta nitaz, oi Hitz, izan erruki!
Egizu dirdira nire gain antzina bezala,
argitu nire arima, argitu nire begiak
zu ikusteko, munduko argi zaren hori (Jn 8,12),
zu, gozamina, zoriona,
betiko bizia,
aingeruen zoramena,
zu, zeruko Erreinua
eta Paradisukoa,
zuzenen koroa,
halakoen Epailea eta Erregea.

*(San Simeon, Teologo Berria[949-1022 inguruan],
monje ortodoxoa, Himno 53, hemengo zatitxo bat)*

§ Danielen liburutik 12,1-3.

Garai hartan, aingeruen buruzagia eta zure herriaren zaindaria den Mikael agertuko da. Larrialdi-garaia izango da, herriak izaten hasi zirenetik berdinik gabea. Baina aldi hartan salbatuko da zure herria, biziaren liburuan beren izena idatzia duten guztiak, alegia.

Itzarri egingo da hilobietan lo dagoen asko: batzuk betiko bizirako, besteak betiko lotsarako. Ortziaien distiraz distiratuko dute jakintsuek, eta besteei bide zuzenean ibiltzen irakatsi dietenek izarrek bezala betieran.

[Sal 16 [15]: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.]

§ Hebrearrei gutunetik 10,11-14.18.

Senideok: Apaiza egunero ari ohi da bere kultu-zerbitzuan, bekatua inola ere kendu ezin duten opari berberak behin eta berri eskaintzen. Kristo, ordea, bekatuengatik opari bat bakarra eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkitzat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak.

Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez dago bekatuen barkamenerako opari beharrik.

* M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiartzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*.

Urteko 33. astea.

San Pedroren eta San Pauloren elizak sagaratzea.
San Odon, *abadea, beneditarra*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13,24-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egun haietan, larrialdi handiaren ondoren, eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argirik emango, izarrak zerutik amiltzen hasiko dira eta ortziak dar-dar egingo du. Orduan, Gizonaren Semea ikusiko dute hodei artean ahalmenez eta aintzaz beterik etortzen; aingeruak bidaliko ditu eta bere aukeratuak bilduko lau haizeetatik, lur-muga batetik besteraino.

Ikasi pikondoaren irudi honetatik: kimua berritzen eta hostoa zabaltzen zaioneko, badakizue uda hurbil dela. Era berean, gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela, ateetan, Gizonaren Semea. Benetan diotsuet: Gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza hauek guztiak. Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko. Zein egun eta ordutan gertatuko den, ordea, ez daki inork, ez zeruko aingeruek, ez Semeak, Aitak baizik».

Biblia-garaiko hizkuntza propioarekin, eguzkia ilunduko da eta izarrek distira galduko dute zeruan esanez, beste errealitate bat aurrean digu pasarteak: mundu honek izango du azken bat. Jaiotzen den oro hilko da: pertsonak, animaliak, landareak... Mundu hau ere amaituko da.

Ez da zertan izutu albiste honekin. Aitzitik, pozteko arrazoia agertu digute. Poz hori sinbolizatzen duen irudia da pikondoa, arbola oso preziatua Jesusen garaian. Udaberria iristearrekin, negu hotz eta ilun baten ondoren, hosto berriak ateratzen zaizkio pikondoari eta pikua ematen du. Giza historiaren ondoren,

Jainkoarekin egingo dugu topo. Eginak izango ditugun ahalegin guztiak, kosmosaren gaineko eta gizartean egindako lana gizadi berria eraikitzeak, ez dira alferrik galduko, baizik eta behin betiko bizian bilduko dira denak, piku helduetan sustraien ahalegin guztiak, eta enborrean, adarretan eta hostoetan jariotako izerdia bildu ohi diren bezala. Lanerako gonbita jaso dugu betikotasun-eta behin betiko bizi-izaera duenaren inguruan, jende asko moda galkor bailitzan baztertzen eta ezkutarazten duen munduan.

Mende guztien nagusi ta
erregeen errege,
zu hartzen zaitugu, Jesus,
buru ta bihotzen jabe.

“Ez dugu hau errege nahi”,
juduen taldeak oihu.
Kristo, zu gure Errege
zarella aitortzen dugu.

Agintari, lege-gizon,
bitez zure zerbitzari;
legeak, arteak, zure
ederraren agergarri.

Agintarien Errege,
Jesus, argitasun zuri,
Aita, Gogo Gurenakin
lehen, orain, gero, beti. - Amen.

(Abestu nahi baduzu:
Orduen Liturgiako Doinuak435. or.)

Urteko 33. astea.

San Abdias, *profeta*.

San Agapito, *martiria*.

[Apokalipsi liburutik 1,1-4; 2,1-5: Hartu gogoan nondik erori zaren, eta bihotz-berri zaitez. **Sal 1:** Garaileari biziaren arbolako fruituetatik emango diot jaten.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18,35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarrik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eseria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinara-zi zioten. Orduan, deiadarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Aurrean zihoazenek gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!»

Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?» Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!» Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

Badira Jainkoak bakarrik sendatzen ahal dituen itsumenak. Jesusek Jerusalemerako bidea hartu du; judu agintarien eta gizartea moldatzen duten erakundeen borroka jasan behar-ko du han. Zaurgarria da Jesus horrenbeste indar antolatu eta aitortutakoren aurrean; bera ez baita Galileako gizon pobre bat baizik, Jerusalem handiaz duda-muda sortzera datorrena. Jesusek egiten duenari zentzurik ikusten ez dioten askoren artekoa

Urteko 33. astea.

San Abdias, *profeta*.San Agapito, *martiria*.

da itsua, baina «berriro ikusi ahal izatea» eskatu dio, lehenago Jesus garaile zenean bezala. Jaunak sendatu du eta itsu izanak Jesusi jarraitu dio porrotaren eta itxuraz alferrikakoa den kinka honetan.

Jainkoa kontenplatzeko gogoa

Ea, gizontto / andretxo, utzi alde batera unetxo batez ohiko zereginak; sartu une batez zeure barnean, pentsamenduen zurrunbilotik urrun. Bota zeugandik urrun kezka larriak; aldendu zeugandik ardura nekagarriak. Eskaini unetxo bat Jainkoari eta hartu atsedentxo bat, bederen, une batez haren aurrean. Sar zaitetz zeure arimaren egongelan; baztertu gauza oro, Jainkoa salbu eta hura bilatzen lagungarri izan dezakezuna salbu; eta horrela, ate guztiak itxirik, saia zaitetz haren bila. Esaiozu, beraz, ene arima, esaiozu Jainkoari: «Zure aurpegi bila nabil; Jauna, zure aurpegia nahi dut ikusi». (San Anselmo, in Liturgia de las Horas I, Abendualdiko 1. ostirala, 165-166 or.; hemen zatitxo bat.)

Urteko 33. astea.

San Edmundo, *martiria*.

[Apokalipsi liburutik 3,1-6.14-22: Norbaitek atea irekitzen badi, harenean sartuko naiz eta elkarrekin afalduko dugu.

Sal 15 [14]: Garailea neurekin eseraraziko dut neure tro-nuan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatuz».

Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot».

Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

Jesusek ez du hartzen pertsona bat, guztiak sailkatzeko gizar-tean erabili ohi diren etiketen arabera. Zakeori, herria bor-xatuz aberastu zen eta lurraldean mespretxatua zen gizonari,

begiratzean, bila zebilen bat ikusi zuen Jesusek, berez zena baino harago joan nahian zebilen bat. Hori izan zen Jesusek aurkitu zuen atea, bere burua gonbidatu eta haren etxean sartzeko. Jesus etxean hartzearen poza konbertsio bihurtu zitzaion Za-keori, pertsonala ez ezik, soziala ere bai. Lapurtua halako lau itzuliko zuen, eta ondasunen erdia behartsuei eman zien. Konbertsio pertsonal hark lasaitasun handia eragin zuen lurralde hartan guztian.

ZAILLA DA GIZON IZATEA

Zailla zaigu, / lurrean bizi garenoi,
«gizon» izatea;
zailla bait-da / beti zutika,
goruntz begiraka irautea.
Zailla da / aize-erasoen zigorpera
makurtu gabe,
eguzki-argiari
begi zabalez begiratzea.
zailla, bai, «gizon» izatea;

zailla da, / oraingo illunpea
gerokoaren itxaropenean
tinkatuta bizi-az,
suz piztutako zuzia
maitasun-argiz urtu dedineraino
orduoro bizirik / gordetzea.

(*Martin Iturbe 1973; hemen poemaren zati bat*)

Urteko 33. astea.

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua.

San Gelasio 1.a, *aita santua*.

[Apokalipsi liburutik 4,1-11: Santua Jauna, Jainko ahalguztiduna, bazen, baden eta etortzekoa den hura. Sal 150: Santu, santu, santua Jauna, Jainko ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalem-dik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarrietako hamarrei dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”.

Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”.

Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko.

Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”.

Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”.

Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi

gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”.

Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoa, eta eman hamar dituenari”. Haiiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”».

Hitz hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

Jesusek Jerusalemenerantz jarraitu du. Agintari asko ari dira beraren aurka zer egingo. Jesusek berak eta ikasleek bizi duten unearen isla den parabola zorrotz honen bidez, bi gauza azaldu nahi ditu. Lehenengoa: gutako bakoitzak sortzaile izan behar duela Jainkoak eman dizkigun dohainekin, eta pozik bideratu behar dugula berarekin batean erreinuaren geroa; ezin ezkutatu ditugu zulo batean, beldurrez edo alferkeriaz, hartuak ditugun gaitasunak. Bigarrena: norberaren probetxuagatik Jesusengan etorri datorren Jainkoaren erregetzaren aurka ari direnak, azkenean, berek uko egin dioten betiko bizitzatik kanpo geldituko dira.

Urteko 33. astea.

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*.

[Apokalipsi liburutik 1,5-8: Hila izan da Bildotsa, eta, bere heriotzaz, Jainkoarentzat irabazi ditu nazio guztietako gizon-emakumeak. Sal 149: Errege eta apaiz den herri egin gaituzu geure Jainkoarentzat.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara gauza hori ikusteko. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

On egingo digu Jesusen lantua kontenplatzeak. Ezin du berak den-dena egin. Ilusio handiz iritsi ohi zen hiri batera biziaren mezu batekin, baina hiria blindatua aurkitu ohi zuen eskaintza guztien kontra, beren ongizatean eroso bizi ziren-eta mugimendu ororen aurka kontrola zutenek ezarritako bitartekoen bidez. Nagusiki, Jerusalemek eragin dion zirrara urragarriaz egin du negar, harria harri gainean ez gelditzeraino sunsituko baitute hiria. Agian, lantu horrek badu porrot pertsonal baten osagarrikeria ere, berak bere burua maitasun handienaz eskaini dion zeregina izan arren. Jesusen lantua Jainkoaren lantua da, gure atsekabeekin bat egiten baitu honek.

San Klemente I.a, 4. aita santua eta martiria.
San Kolumbano, *abadea*. Migel Agustin Pro,
dohatsua, apaiza, martiria, jesuita.

[Apokalipsi liburutik 10,8-11: Hartu nuen liburuxka eta irentsi nuen. Sal 119 [118]: Bai gozoa niretzat, Jauna, Zuk hitzema-
mana!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19,45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu duzue».

Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-
-maisua eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

Jesusek keinu ausart eta deigarri bat egin du, Itun Zaharreko profetek egin ohi zituztenen antzeko bat, irakaspén bat argi eta garbi uzteko. Uko egin dio tenplua lapur-zulo bihurtu izanari; ez da izan saltzaile txiki batzuen egintza, baizik eta herriaren bizitzaren eta osasunaren merkatari handien lana izan da, gero tenplura otoitz egitera joaten direnena, zuzenak bailiran. Sortu den etsaigoa begi-bistakoa da eta arriskutsua; izan ere, judu-herriaren erdigunea zen tenplua, Jainkoaren egoitza, beraien artean egoteko. Bera garbitu nahian hasiak diren arren, herriari adorez eta libre irakasten jarraitu du Jesusek.

Urteko 33. astea.

San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak,
martiriak.

[Apokalipsi liburutik 11,4-12: Bi profeta horiek samin larria sortzen zieten lurreko bizilagunei. Sal 144 [143]: Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20,27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigon: “Norbaiti anaia ezkondua seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?»

Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalakoak baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoberen Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat».

Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

Saduzearrek ez zuten sinesten hildakoen piztueran, eta bizitzaldi honetan aberasten saiatzen ziren ahalegin betean. Horregatik aurkeztu diote Jesusi emakumearen arazoa, jabetzat hartu ohi den objektutzat emanaz eta jabez alda daitekeentzat, merkatuko beste edozein salgai bezala. Jesusek erantzun die, oraingo gure bizitza ezin pareka dezakegula hil ondoren izango dugunarekin. Garen bezala piztuko gara, gorputz eta espiritu, baina eraldaturik, Jainkoarekin betiko bizia partekatzeko. Ez dugu han ondasunen beharrik izango. Geldituko zaigun gauza bakarra maitasuna izango dugu. Jainkoa maitasun da eta maitasuna ez da inortaz jabetzen.

POESIA AUSCHWITZ ETA GERNIKAN

- Paul Celan haserretu zen
Theodor W Adornok baieztatu zuenean
Auschwitzen ondoren
ez zegoela lekurik olerkigintzarako.
- Alde batetik, Paul Celan juduak egin zuen poesiak
erakutsi zigun
nazionalsozialismoaren ondoren
olerkigintzarako leku handia izateaz gain
poesia ezinbestekoa zela
hizkuntzaren totalitarismoari aurre egiteko.
- Beste aldetik, Theodor W Adornok
arrazoia zuen
Auschwitzen ondorioz
kultur haustura sortu zelako.
- Garai hartan
gure artean ere
ez zegoen leku handirik olerkigintzarako
Gernikak erakutsi zigun erara.
(Ignazio Aiestaran, 2003) (*Jarraituko du azaroaren 10ean*)

Urteko 34. astea.

Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea.
Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*.

§ Danielen liburutik 7,13-14.

Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen.

Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

[Sal 93 [92]: Errege da Jauna, ospez jantzia.]

§ Apokalipsi liburutik 1,5-8.

Grazia zuei eta bakea Jesu Kristoren partetik, testigu leiala, hilen arteko lehenengo piztua eta munduko erregeen buruzagia denaren partetik. Maite gaituenari eta bere odolaz geure bekatuetatik askatu gaituenari, Jainko bere Aitarentzat errege eta apaiz den herri egin gaituenari, aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Hara, hodei artean dator!

Denek ikusiko dute, baita zulatu zutenek ere, eta lurreko leinu guztiek hileta-negarra egingo dute harengatik.

Bai. Amen.

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni naiz Alfa eta Omega, baden, bazen eta etortzekoa den hura, Ahalguztiduna».

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18,33b-37.

Aldi hartan, Pilatok esan zion Jesusi: «Zu al zara juduen erregea?» Jesusek erantzun: «Zeure kabuz galdetzen didazu

hori ala besteek esan dizute hori nitaz?» Pilatok esan zion: «Juda ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?»

Jesusek erantzun: «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa izango balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo». Orduan, Pilatok esan zion: «Berez, errege zara Zu?»

Jesusek erantzun zion: «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

Daniel profetak giza irudiko errege baten imajina barruntatu du, aldien azkenean herri osoan errege izango den batena, naziorik eta pertsonarik bereizi gabe, eta betiko izango den errege baten imajina. Apokalipsi liburuak berretsi digu, ezen errege hori Nazaretoko Jesus izango dela, Aitaren Seme gizon egina, Jainkoaren aurpegia hain maitasun handiz agertu diguna non ez baitio uko egin gurutzeari, judu-agintariiek gurutzean josi dutenean; guztia, biraotzat jo dutelako Jainkoa hain errukitsu agertu izana.

Jesus Errege agertzen duten imajina asko ikusiak gara, baina egia islatzen ez dutenak dira asko. Jesus ez da Errege boterezko eta urrezko makilaz, baizik eta bizi berri baten eskaintza eginez; ez du ezartzen lege gordinik, baizik eta bihotzera hitz egiteko hurbiltzen zaio jendeari; azaltzen digu, Jainkoa ahalguztidun dela maitasunagatik, maitasun hori izango dela azkenean gudarosteen, herri-mugen eta bazterketen gain aterako dena. Bi-

Urteko 34. astea.

Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea.

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*.

tartean, Jesusek hasi zuen behin betiko biziaren dinamismo hori ari da jada zabaltzen historiaren zainetan barna, aurrera doa, bai bihotz bat marjinatu batez gupidatzen denean, bai norbaitek halakoa onartzen duenean, bai norbait esperantzaz konprometitzen denean, Jainkoak neurririk gabe maite duen munduaren etorkizun zuzen baten alde.

Poesian
gure kultur haustura
sortu zen,
erreketeek eta nazionalkatolikeok
Lauaxeta atxilotu zutenean,
Gernikako bonbardaketa salatzearren.

Olerkaria fusilatuz
Lauaxetaren poesiaren etorkizuna galdu zen,
herriaren geroa txikitu zen eran
Gernikako bonbardaketan.

Poesiaren zati bat,
hizkuntzaren leku bat,
galdu zen betirako
Auschwitzetik,
Gernikatik.

*(Ignazio Aiestaran, 2003;
azaroaren 24tik dator)*

Urteko 34. astea.

San Konrado, *gotzaina*.San Joan Berchmans, *jesuita*.

[Apokalipsi liburutik 14,1-3.4b-5: Kristoren eta honen Aitaren izena bekokian idatzia zeramaten. Sal 24 [23]: Hau da, Jau-na, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Tenpluko eskaintzarako, dirutza handiak ematen zituztenei erreparatzen zieten eskuarki begiek. Arropan eta keinuetan nabari ohi zitzaien beren burua besteak baino gailenagotzat zutela, Jainkoak saritutakotzat. Jesusek, ordea, beste sentiera bat zuen, Jainkoaren erreinuaren aztarna gauza txikietan eta hazidunetan nabaritu ohi zuen, eta haren begiek emakume alargun baten keinuari erreparatu zioten, itzal bat bailitzan oharkabe gertatu zen alargun behartsu baten keinuari. Txikia izan zen haren eskaintza, baina beraren bizitzaren, beraren gosearen, beraren biharraren aurreko segurtasunaren zati edo puska zen. Berak egin du eskaintzarik handiena, tenpluan bere buruaren zati bat utzi baitu.

Urteko 34. astea.

Andre Mariaren medaila mirarizkoa.
San Jakobo Pertiakoa, *martiria*.

[Apokalipsi liburutik 14,14-19: Ekin uzta-biltzeari, heldua baitago lurreko uzta. Sal 96 [95]: Badator Jauna lurra epaitzera.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,5-11.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri ganean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute».

Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?»

Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork en-gaina! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “ganean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena».

Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

Jerusalemgo tenplua artelan miretsia zen edertasunagatik, eta juduen zentro espiritualaren zen. Haientzat, Jainkoak tenplu hartan zuen bere egoitza, bere herria. Tenplua suntsitzea imajinaezineko gauza zen, benetako hondamendi espiritual eta politi-

koa. Horregatik, tenplua suntsitu zutenean, askok pentsatu bide zuen hurbil zela munduaren azkena. Jesusek ohartarazi die, ez dela izango horrelakorik. Bizitzak aurrera segituko du gerla eta tragedia artean, baina Jesusengan sinesten duenak, mundu berri bat eraikitzen jarraitu behar du Jaunarekin batean, baketsu eta esperantzaz.

NOIZ ARTE JAUNA?

- Noiz arte Jauna erbestetuta sakabanaturik ludian?
Noiz pakean danok batuta ikusiko gera gure aberrian?
- Noiz Jauna gizonak utzi zurkaitz ta berekoi izaten?
zergaitik ez onbidez jantzi erriak zoriok izan ditezen?
- Noiz gizonaren begiak noiz ote dira zabalduko?
ta adimen garbiz, alde guziak, argi ote ditu ikusiko?
- Illunpe onetan ero antzera, gizonak zer egiten duan ez daki, beste gudaren bildur gera, Jauna, erruki zaitez, erruki!
- O Jauna! gizonen biotzetan ez dago esker Jainkorik; alkar maiteko bagendu benetan ez litzake izango zoritxarrik.

(Balendiñe Albizu, 1945)

Urteko 34. astea.

Santa Teodora, *abadesa*.

San Honesto Nimeskoa, *apaiza*.

[Apokalipsi liburutik 15,1-4: Moisesen eta Bildotsaren abestia kantatzen zuten. Sal 98 [97]: Bai handiak eta harrigarriak Zuk eginak, oi Jauna, Jainko ahalguztiduna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko di-zuete eta erasoko, sinagogetara eta kartzeletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigatik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatan ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaie-tako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango.

Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiak gorroto izango dizuete nigatik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

Pertsekuzioa berekin du, bai kristau izateko egitasmoak, bai gizarte zuzenago eta gizatarrago bat sortu nahiak. Jainkoaren erreinuak gatazka eragiten du ezarritako probetxuekiko, halakoak defenditzen dituzten erakundeekiko, sistema bakoitzean pribilegiatuak diren pertsonetikiko. Hau da kristauaren erronka: nola bizi gatazka hau era sortzailean ebanjelioaren harira, pertsegituekiko eta pertsegitzaleekiko. Beti izango dugu eskura Espirituaren jakinduria, bidelagun. Halaz guztiz, izango dira kasuak, zeinetan martiritza izango baitu fededunak bere behin betiko hitza. Inolako aurkaritzarik sentitzen ez badugu, ez ote da izango ebanjelioaren legamia «baliogabetu» dugula?

[Apokalipsi liburutik 18, 1-2. 21-23; 19, 1-3. 9a: Erori da, erori, Babilonia handia! Sal 100 [99]: Zorionekoak Bildotsaren eztei-otordura deituak!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,20-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jerusalem guda-rostez inguratua ikustean, jakizue gainean duela bere honda-mendia. Orduan, Judean daudenek ihes egin bezate mendietara; Jerusalem barruan daudenek alde egin bezate, eta soroan direnak ez bitez hirian sartu. Zigor-egunak izango dira, orduan beteko baita Liburu Santuan idatzirik dagoen guztia.

Dohakabeak egun haietan haurdu direnak edota bularreko haurrak dituztenak! Estualdi handia izango baita lur honetan, eta haserre-zigorra herri honentzat. Ezpatapean eroriko dira eta nazio guztietara eramango dituzte gatibu; jentilek zapalduko dute Jerusalem, nazioentzat Jainkoak erabakitako epea erabat bete arte.

Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrian herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorcionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita.

Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz hodeian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena».

Jerusalem hiria suntsitu izana dago Jesusi egotzitako hitz hauen hondoan. Dramatikoa izan ohi zen herri bat gerlaz konkistatzea. Eraikin esanguratsuak suntsitu ohi ziren, jendetza-garbiketara egiteraino erail ohi zen, esklabo erbestertzen zituz-

San Zernin Tolosakoa (Frantzia) (Sazernin), *gotzaina eta martiria, Iruñeko zaindaria.*

Bernardo de Hoyos, *dohatsua, apaiza, jesuita.*

ten indartsuak. Kristauk beti bizia behar du bilatu; doan lekuan etorkizuna eraman behar du bere bihotz sinestedunean. Baina Jerusalem suntsituko duten «jentilei» ere iritsiko zaie beren azkenena. Hondamendi kosmikoaren hizkuntzaz, munduaren azkenaz hitz egin ohi da. Ez da zertan beldur izan. Askatzaile hurbil eta adiskide iritsiko da Jesus, beti ezagutu izan dugun bezala.

BELDURRA GURE HEZURRETAN

- Makina aldiz,
beldurra geure hezurretan sentitu izan dinagu,
orratza bilakatuta, / minberatzailea,
sentitu izan dinagu / atzo, / gaur,
bihar ez.
Bihar / hauts hotza besterik ez gaitun izango,
inoren buruan egongo ez denik
oroitzapen ahaztua.
Garai hortan,
hain hurbil dagokigun biharko biharamunean,
oinazeak ez zinagu minik egingo,
beldurra ez dun gure buruetan jolastuko,
haren behatz bilutsiek ez ditene gure barnekoa arakatuko
Ez ditene bururik, / barnerik, / soinik aurkituko,
haren atzaparrek ez ditene ezer topatuko,
haren ezin beteko egarri gorria
ez dun gure ur gardenez aseko.
Eta / bakardade isolatu hortan
bakar-bakarrik, / ibiliko dun,
bakartasunean amilduta / bakar-bakarrik.

(*Gotzon Aleman, 1976*)


[**Erromatarrei 10.** Eta nik galdetzen dut: «Ez al dute entzun?» Bai, noski: «Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa, munduaren bazterreraino haien mezua». **Sal 19 [18]:** Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,18-22.**

Aldi hartan, Jesusek, Galileako itsasbaterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Kristau-bizitzan Jesusi jarraitzeko era asko dago. Guztiak dira beharrezko eta batak bestea osatzen dute. Jesusek hurbilenak dituen hamabi ikasleetakoa da Andres. Dena utzi zuten, ondasunak, familia eta asmo pertsonalak, askok zorotzat eman zuten egitasmoaren abenturan Jesusi jarraitzeko. Gaur egun jende askok jarraitzen du bide hori. Aldi berean, bada kristau asko ebanjelioa errotikotasun handiz bizi duena, nork bere lanbidean eta familian. Garrantzikoa, gelditzea da, entzutea Jesusek proposatzen diguna, eta jarraitzea beraren hitzak suturik.




ABENDUA / GABONILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Ebanjelizazioa: Fedea eskualdatzearen zerbitzura

Fedea eskualdatzeko zerbitzuari emanik bizi den jendeak hizkera, gaur egunari egokitua, bila dezan, kulturarekin el-karrizketan.



Urteko 34. astea.

San Leontzio, *gotzaina*.Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*.

[Apokalipsi liburutik 22,1-7: Ez da aurrerantzean gaurik izango, Jainko Jaunak egingo baitie argi. Sal 95 [94]: Maranatha! Zatoz, Jesus Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zabiltzate kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bizitza honetako kezka, egun hura ustekabearen gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

Aldien azkenaz ari da Jesus. Hainbat aldiz esan zien Jesusek ikasleei adi egoteko, zain, esna..., noiznahi etorri ohi baita Jauna eta, etortzeaz gain, gauza guztietan bizitza gizatarrago bat egitera etortzen da. Jesusen jarraitzaileentzat, Jainkoaren azken etorrera gozamenekoa izango da, behin betiko biziaren hasiera Jainkoaren maitasun-misterioan. Gure egintzarik txikienetako bakoitza bizitza horretan txertaturik geldituko da betiko. Ez da ezer alferrik galduko. Gertaera gizar edo kosmiko beldurgarriak ez ditzagun har nahasgarritzat. Jainkoa maitasun da eta gu geu ere betikotasunean beti-betiko gara maitasun horretan.

Abendualdiko 1. astea.
Santa Bibiana, *birjina eta martiria*.
San Viktorino, *martiria*.

§ Jeremias profetaren liburutik 33,14-16.

Hau dio Jaunak: «Begira, badatoz nik Israelgo herriari eta Judako herriari emandako hitz onak beteko ditudan egunak.

Egun haietan eta garai hartan,
legezko muskila sorraraziko diot Davidi,
eta zuzenbidea eta justizia ezarriko ditu lurrean.
Egun haietan Juda salbatuko da eta Jerusalem lasai biziko.
Hona hiriarri emango dioten izena:
“Jauna gure zuzentasun”».

[Sal 25 [24]: Jauna, zugana jasotzen dut gogoia.]

§ San Paulok 1 Tesalonikarrei 3,12–4.2.

Senideok: Egin dezala Jaunak gero eta handiago zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna, handia den bezala guk zuentzat dugun maitasuna. Horrela, sendo dezala zuen bihotza, Jesus gure Jauna bere santuekin etortzean, santu eta esankizunik gabe aurkez zaitezten gure Aita Jainkoaren aurrean.

Gainerakoan, senideok, eskari hau egiten dizuet, arren eta arren, Jesus Jaunaren izenean: Jainkoari atsegin emateko nola bizi gugandik ikasi zenutenez, saia zaitezte gero eta gehiago horrela bizitzen. Badakizue nolako irakaspenak eman genizkizuen Jesus Jaunaren izenean.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21,25-28.34-36.

Abendualdiko 1. astea.

Santa Bibiana, *birjina eta martiria*.

San Viktorino, *martiria*.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Seinaleak izango dira eguzkian, ilargian eta izarretan, eta estu ibiliko dira lurrean herrialdeak, itsasoaren orroaz eta olatuen indarrez aztoraturik. Arnasarik gabe geldituko da jendea, munduari gainera datorionaren beldurrez, ortzia ere dardaratuko baita.

Orduan, Gizonaren Semea indartsu eta aintza handiz ho-deian etortzen ikusiko dute. Hori guztia gertatzen hastean, izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.

Zabiltzate, bada, kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hor-dikeriaz, mozkorkeriaz eta bizitza honetako kezka, egun hura ustekabean gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitezten Gizonaren Semearen aurrean».

Abandualdia hasi dugu. Berrikuntzan ez gara bakarrak kristau-elkartekook. Komertzioak ere hasiak dira urte-bukaerako proposamenak egiten, kalei eta ohiko itxurari koloretasuna ezartzen. Zer ospatuko dugu? Semea hurbil-hurbil etorri zela, haur txiki baten hauskortasun eta samurtasunez, eta atea guztientzat zabalik dituen eremu batean, lehenengoak beren artaldeak zaintzen zituzten artzainak zirela.

Gaurko irakurgaiek dioskute, Jesus berriro etorriko dela al-dien bukaeran. Historia guztiak Jesusekin egingo duen topaketa adierazteko era bat da hori guztia. Testuak seinaleak aurkezten ditu zeruan eta lurrean, beldurra ematen dutenak. Azkenaz min-tzo dira. Baina testuak diosku, ez beldur izateko, ez ihes egite-

Abendualdiko 1. astea.

Santa Bibiana, *birjina eta martiria*.San Viktorino, *martiria*.

ko egoerari, drogatzen gaituzten ardoz eta zereginez. Zutik eutsi behar diogu, eta «anai-arrebekiko eta guztiekiko maitasunez».

Etorrera baten eta bestearen artean, Jauna etorri dator beti, egunero, mila modutan. Abendualdia etorrera horretarako pres-taketa dugu. Poza ematen du xehetasun guztiak zaintzen jarduteak, maite dugun hari harrera egiteko. Ahalegin guztiak dira gozatzekoak. Itxarotea apaintzearen eta bihotza doitzearen poza da abendualdia.

Abendualdia

Hona. Hastera goaz abendualdia.
Begira gora, igurtzi begiak, arakatu zeruertza.
Har kontuan une hau. Zorroztu entzumena.
Atzeman oihuak eta xuxurla, haizea, bizona...

Abendualdia hastera goaz,
eta beste behin birjaio da esperantza zeruertzean.
Amaian, argituz, Eguberriak.
Eguberri soseguzkoa, barnekoia, bakezkoa,
senidezkoa, solidarioa, haragitua,
baita azalekoa ere, urratua, indarrezkoa...;
alabaina, beti, esperantzarekin esposatua.

(Florentino Ulibarri; hemen zati bat)

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabier 1508–Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

XABIERKO FRANTZISKO SANTUAREN MEZA

§ Sofonias 3,9-10.14-20.

Honela mintzo da Jauna:

Egun hartan, herrien ezpainak garbi bihurtuko ditut,
guztiek Jaunaren izenari dei egin diezaioten
eta guztiek bat eginik zerbitza nazaten.

Nire gurtzaileek, sakabanatu nituenek,
eskaintzak ekarriko dizkidate Etiopiako ibaiaz bestaldetik.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri!

Egin oihu alai, Israel!

Poztu zaitez bihotz-bihotzez,
alaitu, Jerusalem!

Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia,
atzerarazi ditu zure etsaiak.

Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago:
ez zara gehiago ezeren beldur izango.

Egun hartan, honela esango diote Jerusalemi:

«Ez beldur izan, Sion!

Ez bitez erori zure eskuak!

Jauna, zure Jainkoa, zure erdian dago salbatzaile indartsu!

Pozaren pozez alaitzen da zugatik,
bere maitasunez biziberritzen zaitu.

Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

Nik bilduko ditut, Jerusalem,

zugandik urruti eta jairik gabe triste zeudenak.

Bai astuna zure lotsa!

3

Astelehena ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabier 1508–
Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

Aldi hartan, zapaltzen zaituzten guztiak suntsituko ditut,
ezinduak salbatuko, sakabanatuak bilduko,
eta gorapenez eta ospez beteko
lotsaz bizi izan diren toki guztietan.

Aldi hartan, herrira ekarriko zaituztet eta bilduko;
orduana, ospetsu eta goragarri egingo zaituztet
lurreko herri guztien artean;
zeuden begi aurrean aldatuko baitut zuen zoria»
–hau dio Jaunak–.

[Sal 96 [95]: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28,16-20.

Aldi hartan, Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek
adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuk,
ordea, zalantzan zeuden.

Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzaien: «Aginpide
osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin
herri guztiak nire ikasle, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu
Santuaren izenean bataiatuz, eta Nik agindu dizuedan gutzia
betetzen irakatsiz. Eta Ni zeuekin izango nauzue egunero mun-
duaren azkena arte».

Xabierko Frantziskok aditu zuen Jesusen gonbita eta lu-
rraren azken mugaraino joan zen, itsasontzi hauskor eta se-
gurantzarik gabekoan. Bere baitan esperimentatua zuen, Je-

Abendualdiko 1. astea.

San Frantzisko Xabierkoa (Nafarroako Xabier 1508–Txinako atarian 1552), *apaiza, jesuita*.

susekin topo egiteak bizitzari jomuga berriak irekin dizkiola, eta grinatsu ekin zion geroari. Bere misioaren erdian bazuen ziurtasun bat, laguntzera bidali zizkioten jesuitei berak azaldua. Beharrezkoa zen aurkituko zuten jendea maitatzea, baina ez zen aski. Beharrezkoa zuten jendeak ere norbera maitatzea. Topo egite horretan eskualda zitekeen Jesusengan kontenplatua zuen mezuaren muina. «Gauza guztietan maitatu eta zerbitzatu» da ebanjelizatzeke modu bakarra, herri guztiek ulertzen duten hizkuntza.



Xabierko San Frantzisko,
apaiza, jesuita
(Misiolarien Zaindaria)

4

Asteartea /
Martitzena

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea.

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*.
Santa Barbara, *birjina eta martiria**.

[Isaias 11,1-10: Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da.
Sal 72 [71]: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta
bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10,21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Eta ikasleengana itzulirik, esan zien haiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara zer diotsuedan: profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

«**Z**orionekoak zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak». Ikasleak oso pozik itzuli ziren bere misiotik, deabruak ere obeditzen zietelako. Ikasleak herriko jende ziren, formazio teologiko berezirik gabeko, baina alde guztietan haziz zihoan erreinuaren bizitzaren lekuko izan ziren. Jesusen begiak ere zorioneko dira, Aitak bere misterioa jende xumeari nola agertzen dion ikusten dutelako. Jauna etorri dator beti, baina beren ikusmena astro mediatikoek bahiturik dituztenek galdua dute sentiberatasuna, etorri datorrela ikusi ahal izateko, nabarmenkeriarik eta propagandarik gabe, eguneroko bizitzan.

* Pio Heredia (1875 Larrea [Araba]–1936 Santander) eta lagunak, *Cobrezeko zistertarrak, dohatsu eta martiri*.

Abendualdiko 1. astea.

Santa Krispina, *martiria*.

San Sabas, *abadea*. San Mauro, *martiria*.

[**Isaias 25,6-10**: Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak. **Sal 23 [22]**: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15,29-37.**

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkieten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harritia gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa goresten hasi ziren.

Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezten».

Jesusek bere bihotza dar-dar sentitu du bere herriaren sufrimenduaz, eta arintzen saiatu da. Azkenean, berarekin hiru egun daramatzen talde bat goseak ikusteak hunkitu egin du Jesus. Aterabidea, esku artean dutena banatzea izan da, gutxi baten zen. Partekatzekeo keinu bakoitzak dinamismo bat eragiten du: norberaren ondasunak besteen zerbitzura ipintzekoa. Ogi eta arrain asko bildu balute, baina partekatu ez, inoiz ez zen izango guztientzat adina, zeren eta batzuek gorde egingo lukete berena, metatu egingo lukete, edota ordainezineko prezioan jarriko. Negozio on bat egiteko aukera zen. Alabaina, partekatzeak bihotza prestatu du Egeberrietarako.

6

Osteguna /
Eguena

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 1. astea.
San Nikolas, *gotzaina*.

[Isaias profetaren liburutik 26,1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala. Sal 118 [117]: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea.

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari, eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Sarritan ikusten dugu etxeak hondoratzen direla, uholdeak eta zikloi-haizeen boladak direla eta. Eraikinik dotoreenek ere lur jotzen dute, paper hutsa bailiran, tsunamien indarrez. Azaleko bizitzak, bere izena eta itxura makillajez dotoretzen duenak, gainbehera egiten du edozein erasoren pean. Aitzitik, beren bizitza egunez egun ebanjelioaren baloreen gainean eraikitzen dutenak, eta Jesusekin harreman bizi eta beroak mantentzen dituztenak, arroka irmoan sostengatzen dira, eta ezin azpia jan izaten diete lurrazpiko urek, eta ez die huts egiten zoruak hankazpian.

Abendualdiko 1. astea.

San Ambrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*.

[Isaias profetaren liburutik 29,17-24: Egun hartan ikusiko dute itsuen begiek. Sal 27 [26]: Jauna dut argi eta salbamen.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,27-31.

Aldi hartan, Jesus handik ateratzean, bi itsuk jarraitu zioten, oihuka: «Erruki zakizkigu, Daviden Seme!» Etxera heltzean, itsuak hurbildu zitzaizkion eta Jesusek esan zien: «Sinesten al duzue hori egin dezakedala?» Haiek erantzun: «Bai, Jauna».

Orduan, begiak ukitu zizkien, esanez: «Gerta bekizue sinesten duzuen bezala». Eta ireki egin zitzaizkien begiak. Jesusek zorrotz agindu zien: «Begira, gero, ez dezala inork ere jakin». Baina haiek, atera orduko, eskualde guztian eman zuten Jesusen berri.

Badira esperantza hautsezineko profetak, Isaias adibidez. Halakoak gai izaten dira herriarentzat zuzentasun-gero bat iragartzeko, hazten ikusten baitute Jainkoaren egintza bezala: oinaze pertsonal eta sozialaren ildo irekietatik sortzen den Jainkoaren egintza izan ohi da. Ez die ezerk ahoa ixten, bihotza zurruntzen eta begiak lainotzen dituen desilusioa eta guzti. Jesusek sendatu zituen bi itsuak ere ezin isildu izan ziren. Guztiz koloretsu ikusi zuten bizitza, aurpegiak adiskidetsu, bideak eta paisaiak familiarteko, eta eroak bailiran irten ziren, onartzen zuten guztientzat Jesusek zekarren berri ona hots egitera.

§ Hasiera liburutik 3,9-15.20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari:

«Hori egin dualako,
 madarikatua izango haiz
 abere guztien eta basapiztia guztien artean;
 sabel gainean ibiliko haiz arrastaka
 eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan.
 Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea,
 hire eta haren ondorengoa;
 honek burua zapalduko dik,
 eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

[Sal 98 [97]: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.]

Abendualdiko 1. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.**§ San Paulok Efesoarrei 1,3-6.11-12.**

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren
Aita,
zeruan, Kristoren bitartez,
Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena!
Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen,
santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez.
Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia,
Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea,
bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zora-
garria
gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehen-
dik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi
bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere as-
moaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret
zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Ma-
ria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin
ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zai-
tez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz
haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen
halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrear, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Palestinako geografiako leku bazter batean jaio zen Maria. Judu-herriko neskatila zen, beste bat gehiago, ageriko miresgarriarik gabeko. Bere barnean zuen bere handitasuna. Jainkoak aukeratu zuen bere Seme gizon eginaren ama izateko, eta hasieratik beretik zaindu zuen, gaitz orotatik libratuz. Beragan gertatu zen Paulok efesoarrei esandako hau: mundua kreatu aurretik hautatu gintuen Jainkoak, santu eta errugabe izan gintezen, maitasunez. Maria hasieratik izan zen halakoa. Gu bidean goaz helmugarantz.

«Poztu zaitez, graziaz bete hori!», esan zion aingeruak. Hain garbia den maitasun horren adierazpen da poza. Maria ez zen hazi jendeagandik aparte, paretez kalostraturik, jende perfektuz inguraturik, baizik eta kaleko lokatzetan korrika, gosea, gehie-

Abendualdiko 1. astea.

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA.

gizko zergak, erromatarren eta sinagogako legeen, hau da, herria aginduen labirintu batean hesitzen zuten legeen zapalkuntza jasaten zutenen artean. Horregatik, gure herriek beren beretzat dute Maria, marrazten dute eta beren irudira janzten, beren kolorez eta beren arrazaren ezaugarriez, paseatzera ateratzen dute, abesten diote eta dantzan egin beren erritmoaz. Santu ikusten dute eta beren eguneroko bizitzaren hurbil-hurbileko.

Andrea zara, Bizia zara,
Misterioa zara, Dohaina,
Ama zara, gure Bakea,
Jainkoaren amatasunaren Aurpegia.
Habia zara, zabaldua, zerua,
non arima hegaldatu egiten
baita eta goi-behe artean Maitasuna abesten baitu ikasten.
Udaberria zara eta arbola,
fruitua zara eta lorea
Jaunaren lureko lehen uztakoa.
Iturria zara, atsedena eta itzalpea, etxea zara eta sukaldea.
Babesleku patxadakoa zara,
presentzia zara eta kantua,
hurbiltasuna eta gailurra,
Hitza zara, ahotsa.
Betlehem zara eta Pazkoa,
Isiltasuna eta Nekaldia.
Zugatik da, Ama, gizaki oro
Jainkoaren Gizakunde.
Zarena zarelako dira, Ama,
gizakiak zure seme-alaba.

(María Isabel Pereda)

9

**Igandea /
Domeka. C**

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 2. astea.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*

San Joan Diego Cuauhtloatzin

(*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

§ Baruk profetaren liburutik 5,1-9.

Jerusalem, erantzi dolu- eta atsekabe-soinekoa; jantzi Jainkoak betiko ematen dizun aintzaren soineko ederra.

Bildu zeure gorputza Jainkoak ematen dizun zuzentasunaren soingainekoaz eta ezarri buruan Betikoaren aintzaren koroa.

Agertuko die Jainkoak zure distira zerupean bizi diren guztiei, eta izen hau emango dizu behin betiko:

«Bakea zuzentasunean,
Ospea jainkozaletasunean».

Jaiki zaitez, Jerusalem, igo gainetara eta begira sortaldera; ikusi zeure seme-alabak, sortaldetik sartalderaino Santuaren hitzak bilduak eta pozik, Jainkoa haietaz oroitu delako.

Oinez atera ziren, etsaiek bultzaturik; baina Jainkoak aintzatan ekarriko dizkizu, errege-aulkian bezala.

Jainkoak agindu du mendi garai guztiak eta betidaniko mui-noak makurtzea eta sakanak betetzea, lurra berdintzeko; Israel seguru etor dadin, Jainkoaren aintzak gidaturik.

Jainkoaren aginduz, basoek eta usain oneko zuhaitzek itzal egingo diote Israeli.

Pozetan eramango baitu Jainkoak Israel,
bere aintzaren argitan,
bere errukiaz eta zuzentasunez.

[Sal 126 [125]: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak; hau da poza daukaguna!]

§ San Paulok Filipinoarrei 1,4-6.8-11.

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 2. astea.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*

San Joan Diego Cuauhtloatzin

(*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

Igandea /
Domeka. C

9

Senideok: Pozik egiten diot beti otoitz Jainkoari zuen guztion alde, lankide izan baitzaituztet Ebanjelioa zabaltzeko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Ziur nago eginbide on hau zuengan hasi duenak burutu ere burutuko duela Kristo Jesus etorriko den eguna arte.

Testigu dut Jainkoa, zein maite zaituztedan guztiok Kristo Jesusen maitasun bihotzekoaz. Eta hau da nire otoitza: zuen maitasuna zabalduz joan dadila jakintzan eta sentiberatasunean gero eta biziago, egokien dena bereizten jakin dezazuen. Horrela, garbi eta esankizunik gabe iritsiko zarete Kristo etorriko den egunera, Kristo Jesusen bitartez dugun zuzentasunaren emaitzez beterik, Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,1-6.

Tiberio enperadorearen aginte-aldiko hamabosgarren urtean, Pontzio Pilato Judeako agintari zela, Herodes Galileako erregeorde, honen anaia Filipo Iturea eta Trakonitidako erregeorde, Lisania Abileneko erregeorde, eta Anas eta Kaifas apaiz nagusi zirelarik, Jainkoaren hitza etorri zitzaion basamortuan Zakariasen seme Joani.

Eta, Jordan inguru guztian, bihotz-berritzeko bataioa hots egiten hasi zen, bekatuen barkamenerako, Isaias profetaren liburuan idatzirik dagoen bezala:

«Mintzo bat oihuka ari da basamortuan:

Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari.

Bete daitezela haranak, beheratu mendi eta muinoak, berdindu daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak.

Eta ikusiko dute gizaki guztiek Jainkoaren salbamen».

9

Igandea /
Domeka. C

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 2. astea.

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*

San Joan Diego Cuauhtloatzin

(*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*).

Gaurko ebanjelioaren hasieran datozen izenak izugarri gertatzen ziren judu-herriaren belarrietan. Bihotza estutu egiten zuten, guztizko kontrolaz jokatzeko boterea baitzuten. Ezin zen ezer ere aldatu. Erromatar inperioak, Herodesen semeek eta buruzagi erlijiosoek hiru uztaietz loturik zeukaten herriaren zintzurra, halako moduan non ezin baitzen aurreikusi inolako aldaketarik etorkizunerako. Halaz guztiz, Joan Bataiatzailea, Jainkoak inspiraturik, hitz egiten hasi da Jordan ibai-ertzean, esperantza iratzarriz. Erantzukizunik eza ote da etorkizun desberdin baterako deia egitea, den-dena kontrolaturik dagoen unean?

Alabaina, Baruk profetaren ausardia, etorkizun argitsu batez hitz eginez, soil-soilik erbeste gogorra bizi zuten unean, edota, Filipoko kristau-elkartearekin, inperioaren kolonia batean esklabo-taldetxo bat besterik ez zenean, Paulo bezala poztea, edota Jordan ibai-ertzean hurbiltzen ari zen aldaketa hots egitea, posible izan ziren; hain zuzen, profetak ez dira gelditzen gauzen azalean, baizik eta Jainkoaren eskua ikusten dute, zuzentasuna eta askatasuna eraikitzen, begi soilez ikusi ezin denean. Esperantza honen pozari harrera egiteko da abendualdia, eta gorputza zurruntzen ez uzteko eta aurpegia gaitzak lainotzen ez uzteko, nahiz ahalguztidun dela eta desegin ezineko dela ematen duen.

Abendualdiko 2. astea.

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 35,1-10: Jainkoa bera dator zuek salbatzera. Sal 85 [84]: Horra gure Jainkoa; bera dator gu salbatzera!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5,17-26.

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galileako eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemdik etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion.

Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinesmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!»

Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu bi-raoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?»

Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: “Barkatuak dituzu bekatuak” ala “Jaiki eta zabilta?” Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera”. Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoen ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz.

Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa gorensten zuten. Eta, beldurrez beterik, honela zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

Abendualdiko 2. astea.

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*.

Bekatuak tenpluan barkatu ohi ziren, ordain-opariak eskainiz. Jesusen barkazioa, ordea, teilatuan egindako zulo batetik paralitiko bat jaistean eta inolako erritual erlijiosorik gabe etxe batean eskaintakoa, probokazio gertatu zen. Baina, hain juxtu, horrela barkatzen du Jainkoak. Fariseuen eta lege-maisuen haserre ikusirik, Jesusek galdetu die: Zer da errazago, barkatzea ala elbarriari osasuna ematea? Guri batzuetan zaila edota ezinezkoa gertatzen zaigu barkatzea. Elbarria sendaturik irten da. Jende asko egon ohi da ainguraturik mugitu ezinik, hainbat arrazoirengatik: irainak, desilusioak, nekea... Jesusek barkatu digu eta ibiltzera gonbidatu gaitu, bizitza eskerroneko bihotzez estreinatuz.

- Gaur egungo gizakia,
non dituzu ezarri begiak,
non duzu ezarri zeure esperantza?
- Gaur egungo gizakia,
non duzu zeure ibiliaren helmuga?
Guztiaren zara gose eta ezin ezerk ase.
Baduzu, baduzu, baduzu...
eta zeure ukaiteak ezin eman zorionik.
Hitzematen dizute eta zu etsirik beti.
- Gaur egungo gizakia,
ireki begiak espero ez duzunari!
[...]
- Gaur egungo gizakia,
entzun zeure egarri-goseak, beti ezin aseak,
eta ireki bihotza berri denari.
Berri den oro bere baitan du Hark.
Ez ibili berri den hori ukaitean nola bilatuko,
ez ibili hitzetan nola bilatuko,
ondo dakizu-eta ez direla sekula betetzen.

(Florentino Ulibarri, puskak)

Abendualdiko 2. astea.

San Damaso, 37. *aita santua*.

[Isaias profetaren liburutik 40,1-11: Jainkoak bere herria kontsolatu. Sal 96 [95]: Hara, indarrez jantzia etorriko da gure Jainkoa.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino.

Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Artzaina mendira doa arratsean, leku bakartian galdu den ardiaren bila; izaturik dago, noski, ardia, gaua hurbil delako, eta otsoen atzaparretan erortzeko arriskuan. Jainkoa gure bila dabil beti, eta aurki gaitzan uzten diogunean, haren poza! Hau da kristauen eginkizuna: munduari Jainkoaren bihotza nolako den agertzea. Jesus ez zen gelditu Jordan ibai-ertzean, bataiatzera joan nahi zutenen zain; baizik eta erdi galduak ziren herrixketa irten zen, hautsiak eta zokoratuak bizi zirenen bila, lepoan hartu eta etxera eramateko.

[Isaias profetaren liburutik 40,25-31: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adorea. Sal 103 [102]: Bedeinka beza nire arimak Jauna!]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Bere ingurura begiratu eta zama latz batek jotako herri bat ikusi zuen Jesusek: zorrak eta hipotekak, errepresio politikoa, gehiegizko eta apetazko zergak eta urruneko Jainko baten irudi faltsua zirela-eta; Jainko harengana, kontaezin ahalako agindu erlijiosoren labirintu batean barna bakarrik iritsi zitekeen. Eta beragana hurbiltzeko esan zien Jesusek; beragana eta bere lepoan gure zama daraman ontasunaren Jainko Aitagana. Bere ditu Jainkoak gure zauriak. Jesusek bezala, bakarrik ez ibiltzen ikasiko dugu eta desegiten gaituen zamarik ez eramaten: besteek ezarri nahi diguten zamarik alegia, guri ezarritako zama zuzengabeaz berek probetxu ateratzeko.

Abendualdiko 2. astea.

Santa Luzia, *birjina eta martiria*.

San Eugenio, *martiria*.

[Isaias profetaren liburutik 41,13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. Sal 145 [144]: Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11,11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da.

Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu.

Belarririk duenak entzun beza».

Joan Bataiatzailea aparteko profeta izan zen. Entzun zuen Jainkoaren proposamena basamortuan eta konbentzimenduz oihukatu zuen Jordan ibai-ertzean. Erabateko berritasuna zetorren eta guztiek hartu behar zuten bataioa, zahar zen guztitik garbitu, zetorren berritasunari harrera egiteko. Iritsi zen Jesus, Jainkoaren errukiaren eta samurtasunaren aurpegi ikusgarria, heriotzaraino gure alde konprometitu zena. Jainkoaren proposamen berri honetan sartzen den oro, Joanez egiaztatu ahal izan zuena baino harago doa. Berritasun den Jesusek ez dio uzten sekula etortzeari, agortezina da. Zein aurpegi eta egoeratan dator nigana eta harriaraziko nau Eguberri hauetan?

[Isaias profetaren liburutik 48,17-19: Nire aginduak aintzako-tzat hartuko bazenitu! Sal 1: Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soi-nua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aie-nerik ez”.

Izan ere, etorri zen Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez zuela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizona-ren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripa-zaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoia».

Jesusek esan die juduei, beti izaten dutela aitzakia bat Jainkoaren proposamena ez onartzeko. Ez zuten onartu Joan Bataiatzailea, zorrotza zelako eta Jordanen bizi zelako; ez dute onartu Jesus, hurbilekoa delako eta otordua guztiekin partekatzen delako. Jainkoa, gaur egun, era desberdin askotan mintzo zaigu: behartsuen premiatik eta ikasgura direnen jakinduriatik, haur baten ahuldadetik eta zuzenaren aldeko borrokalari batengandik, kreazioaren edertasunetik eta lur kutsatuaren zaurietatik. Gai al gara geure zentzumenak fintzen joateko, Jainkoaren proposamenaren dohaina sumatu eta onartzeko?

Abendualdiko 2. astea.

Santa Silvia, *aitorlea*.

San Valeriano, *gotzaina*.

[Ben Siraken liburutik 48,1-4.9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 80 [79]: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17,10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nolatan diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?»

Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzailela.

Ikasleek bere egin dute lege-maisuen igurikipena Eliasen itzulera, Mesias hark aurkeztuko duelakoan. Jesusek erantzun du, Joan Bataiatzailea dela benetako Elias: Joaneke sistema erlijioso eta politiko ustel bat salatu zuen, Jesusi bidea urratu zion, eraso, kartzela eta heriotza jasan zituen. Bere ibilbidearekin Jesusena berarena iragarri zuen, Aitagandik zetorkion proposamena egiteagatik gurutzeraino pertsegitu baitzutenhan. Iragaral genezake guk Jesus, jarraitzen ahal diogu, geure biziera eroso honetatik, munduaren zoko-mokoetan txikiturik bizi diren milioika lagunekin inolako solidaritaterik izan gabe?

§ Sofonias profetaren liburutik 3,14-18a.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri!
Egin oihu alai, Israel!
Poztu zaitetz bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem!
Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak.

Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango.

Egun hartan, honela esango diote Jerusalemi:

«Ez beldur izan, Sion!

Ez bitez erori zure eskuak!

Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu!

Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu.

Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala».

[Salmo: Isaias profetaren liburutik 12: Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.]

§ San Paulok Filipinoarrei 4,4-7.

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunagan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi gizaki guztientzat zuen bihotz ona. Hurbil da Jauna. Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanaz. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogobihotzak Kristo Jesusen bidez.

Abendualdiko 3. astea.

San Agrikola, *martiria*.

Santa Adelaida, *enperadorea*.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 3,10-18.

Aldi hartan, galdetzen zion jendeak Joan Bataiatzaileari: «Zer egin behar dugu?» Eta hark erantzuten zien: «Bi soineko dituenak eman biezaio bat ez duenari, eta jatekorik duenak egin beza gauza bera».

Etorri zitzaizkion zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten: «Maisu, zer egin behar dugu?» Eta hark esan zien: «Ez eskatu erabakia dagoena baino gehiago».

Gudariak ere galdetu zioten: «Eta guk zer egin behar dugu?» Hark erantzun: «Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ezta gezurrezko salaketaz ere; baizik eta konforma zaitezte duzuen soldatarekin».

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen ez ote zen Joan Bataiatzailea Mesias izango. Joanek guztiei adierazi zien: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago dena eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Hark Espiritu Santuaz eta suaz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea, larraina garbitu eta garia mandiora biltzeko; lastoa, berriz, itzal ez daitekeen suan erreko du».

Hauen eta beste aholku askoren bidez, Berri Ona iragartzen zion herriari.

Gaurko irakurgaiek pozik bizitzera gonbidatzen gaituzte. Sofonias profetarentzat, poz honetarako arrazoia «Jauna [Jerusalemen] dagoela da», hiri horren alde borroka egiten duela eta berorrek bat egiten duela alaitasunean. Paulok, berriz, beti alai egoteko idatzi dio Filipoko elkarte txikiari, zeren eta bizi berriaren Jauna «hurbil baita» eta zainduko baitu beraien bihotza bakearen dohaina beti gorde dezaten.

Abendualdiko 3. astea.

San Agrikola, *martiria*.Santa Adelaida, *emperadorea*.

Joanen iragarpena ere pozik bizitzeko arrazoia da, modu bezian premiariak handiena dutenentzat. Garai hartan gosete eta zapalketa orokortuak bizi zituzten; giro horretan, Joaneke esaten zien militarrei, botereaz ez abusatzeko dirua ateratze aldera, eta zerga-biltzaileei esaten zien, ez zezatela estutu jendea zergekin. Eta zer edo zer –janari edo jantzi– zuenari esaten zion, partekatzeke ezer ez zuenarekin. Jainkoarekiko erlazioa ez da, beraz, ardatzen jada agindu txikienak betetzean, baizik eta anai-arrebekin harreman berri bat izatean. Gorputz sozialaren zain txikietan barna hasi da jariatzen bizia, metatzearen metatzeaz eta norberaren probetxuari bakarrik begiratzeaz blokeatu orde. Horrela biziberritzen dira zainak Jesusek dakarren bizi berria isurian bizitzen joateko.

Jesu Kristo Zeruko Ihintza

- Egunsentiko eguzkia bezala etorriko da munduaren salbatzailea eta Andre Mariaren sabelera jaitsiko, belardira ihintza bezala. Aleluia.
 - Goizeko ihintza
Bibliako esapiderik ederrenetakoa eta poetikoenetakoa da, Jainkoak munduan dagiena adierazteko.
 - Ihintzaren irudi hori ulertu nahi badugu, imajina dezagun Palestina udako galda batean. Jasanezina izan ohi da han beroa egunez.
 - Baina gaua iristean, / eta inor konturatu gabe, ihintza eratzen da landareen hostoetan, loreen petaloetan, baita mendiko harri gainean ere.
 - Ihintz-tanta dira, / perla-sorta bihurturik, han eta hemen banaturik.
- (Abendualdiko «Rorate, coeli» antifonan inspiratua; hemen zatitxo)

Abendualdiko 3. astea.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak),
*martiriak**.

[**Hasiera 49,1-2.8-10:** Errege-makila ez da Judagandik urrunduko. **Sal 72 [71]:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,1-17.**

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua.

Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonek Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea.

Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiassek Manases, Manasesek Amon, Amonek Josias; Josiassek Babiloniako erbestealdian Jekonias eta haren senideak sortu zituen.

Eta Babiloniako erbestealdi ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob;

* San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak).*

San Jose Manyanet, *apaiza eta fundatzailea.*

Abendualdiko 3. astea.

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak),
martiriak.

Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana.

Beraz, hamalau gizaldi izan ziren guztira Abrahamengandik Davidenganaino, hamalau gizaldi Davidengandik Babiloniako erbestealdiraino, eta hamalau gizaldi Babiloniako erbestealditik Kristoganaino.

Guztiok dugu nork bere barnean izenen historia bat, giza-diaren hasieraraino iristen dena. Gutako bakoitzaren bitzta historiaren barnean hasi zen eratzen amaren sabelean erne baino lehen. Halakoa da Jesus ere. Beraren aurreko genealogian badira izen miresgarriak, baita kaskarrak ere. Berak denak egin ditu bere, eta bere gorputz eta espiritu bihurtu ditu. Benetako gizaki da Jesus, ez dator ortziko aire aseptikotik. Gure errealitate osoan, gu garena bere egiten jarraitzen du Jainkoak beti. Berarentzat ezer eta inor ez da, ez mespretxagarri, ez baztergarri.

Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

[Jeremias profetaren liburutik 23,5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. Sal 72 [71]: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1,18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen.

Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik».

Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen:

«Begira, birjinak sabelean sortu
eta semea izango du,
eta Emmanuel ipiniko diote izena
(izen honek «Jainkoa gurekin» esan nahi du)».

Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Abendualdiko 3. astea.

Itxaropenaren Andre Maria.

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea.*

Eguberri jaietarako bidean, Joserekin egingo dugu topo. Gazte zuzen bat zen, Mariaz maitemindua. Biek zituzten beren asmoak gerorako. Alabaina, Jainkoa tartekatu da beraien bizitzan, ematen duenez, beraien asmo guztia hankaz jartzen duen proposamen batekin. Maria haurdun gertatzearekin, dena desegin da. Josek salatu beharra zuen Maria, hiltzeraino harrikatu zezaten, baina hura onik ateratzea erabaki du, bera urruntzea eta bera gaiztotzat agertzea. Larritasun izugarriaz lo ezin eginik, Jainkoak misterioa agertu dio gauean eta Josek etxean hartu du Maria. Jesusek aita esango dio –abba– Joseri, Jainko Aitari horrela deitu aurretik.

Mariaren Seme hori

Aitak sortua zuen betikotasunean:

“Neuk sortu zintudan santu dirdaitu,
egunsenti aurreko ihintza bezala” (Sal 110 [109],3)

Zeruak, isuri ihintza;

hodeiak, isuri Zuzena;

ireki bedi lurra eta erne bedi salbazioa,

eta sor bedi harekin zuzentasuna. (Is 45,8)

Munduak Kristo Salbatzailearen antsia zuen,

eta Isaias profetak oihu biziz eskatzen zion Jainkoari.

(Abendualdiko «Rorate,
coeli» antifonan inspiratua; hemen zatitxoa)

San Dario, *martiria*. Santa Protasia, *birjina*.

San Urbano V.a, *200. aita santua*.

San Anastasio I.a, *aita santua*.

[**Epaileak liburutik 13,2-7.24-25a:** Aingeruak Samsonen jaiotza iragarri. **Sal 71 [70]:** Zure gorespenaz betea nuen ahoa zure ospea kantatzeko.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,5-25.**

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren apaiz-sailekoa; haren emaztea Aaronen ondorengoa zen eta Elisabet zuen izena. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean, eta Jaunaren agindu eta lege guztiak huts egin gabe betez bizi ziren. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet eta biak urteetan aurreratuak.

Behin batean, Zakarias bere sailekoekin Jainkoaren aurrean apaiz-zerbitzua egiten ari zelarik, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaizen ohituren arabera, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzen ari zen bitartean, herri osoa otoitzean ari zen atarian. Hartan, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Zakarias, intsentsu-aldarearen eskuinaldean zutik. Hura ikustean, izutu zen Zakarias eta beldurrak hartu zuen.

Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez beldur izan, Zakarias, entzun baitu Jainkoak zure eskaria. Zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ipiniko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean. Ez du edango ardorik, ez edari bixigarririk. Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan. Israeldar asko bihurtuko du Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik etorriko da, Eliasen espirituaz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzeko, bihurriei zintzoen sena emateko eta Jaunarentzat herri egokia prestatzeko».

Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratua».

Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; hark bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitz egin ezinik, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian beteko diren hitzak».

Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen, harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zion hitz egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaien, mutu jarraitzen baitzuen.

Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

Zakarias eta Elisabetek, adin handikoeak, ez zuten seme-alabarik. Zuzen bizi ziren Jaunaren aurrean. Jainkoak lankide hartu ditu Seme gizon eginari bidea prestatzeko eginkizunean. Berauen Joan semea Jesusen aurrelari izango da. Emakume agor baten-gandik jaio da Joan, biologiaren aldiak jada joanak zirenean. Eta Jainkoaz mintzatu zaigu, jada ezer espero ez genuenean. Zakariasen mututasunak ahozabalik eta hitzik gabe uzten gaituzten gauza miresgarri askoren antz handia du. Isiltasun gurtzailea da, gertatuaz hausnarrean; jabetuko da Zakarias, semea hezi, Jainkoaren egitasmo askatzaileko leial izateko hezi beharko duela.

Abendualdiko 3. astea.

Domingo santua Silos-koa, *abadea*.

[Isaias profetaren liburutik 7,10-14: Begira, birjina haurdun dago. Sal 24 [23]: Badator Jauna: bera da errege ospetsua.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,26-38.

Handik sei hilabetera, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen.

Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitetz, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura.

Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango».

Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik».

Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Abendualdiko 3. astea.

Domingo santua Silos-koa, *abadea*.

Aingeruaren irudipean, Jainkoa hurbildu zaio Mariari, so-
las egiteko berarekin, Mesiasen ama izatea eskainiz. Mariak be-
regan sekula ikusi ez zuen handitasuna agertu dio: graziaz betea
da. Seme gizon egitekoak, gutako bat izateko, baldintzarik gabe
maiteko duen emakume batek onartu beharra du, emakumeak
jakingo ez badu ere nola gertatuko den eta bere bizitzarako zein
ibilbide aukeratzera doan. Mariaren sabelean jarri da ostatuz
eta bere bizitza ehotzen hasi da, pixkana, babesleku eta janari-e-
maile duen ezkutuki horretan. Jainkoak ez du behartu Maria,
baimena eskatu dio beraren sabelean eta bizitzan haragitzeko.

Aupa, jaiki,
hurbil da zuen askapena!
Horra seinaleak zeuen inguruan.

Igurtzi begiak.
Begira zeruertzero esperantzaz.
Entzun albiste onak.
Utzi, esna zaitzatela haizekirriak.
Jainkoa hurbil da!

Aupa, jaiki,
gora burua!
Guztiagatik da jendea estu eta larri,
hatsik gabe eta zabuka dabil,
harat-honat, bizi gabe biziz,
bere bizia hondatuz.
Lasaitu, hartu hatsa.
Jainkoa hurbil da!

(Florentino Ulibarri; hemen zatia)

Abendualdiko 3. astea.

San Pedro Canisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita.*

[Kantarik Ederrena liburutik 2,8-14: Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. Sal 33 [32]: Egin poz-oihu, zintzook, Jaunari, kanta iezaiozue kantu berria.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Jainkoarekin egindako topaketaren ondoren, Maria mendialderantz irten da, Elisabet bere lehengusinarekin etxerantz. Bere bizitza guztia inarrosi duen albiste partekatua nahi du harekin. Baina Elisabetek ere badu albiste bat. Jainkoaren berrietasuna, gure historian, inspirazio batek berak eta asmo batek berak kateatzen dituzten barnekoitasunak partekatzearekin eratzten da; berrietasunaren misterioa, harik eta jendaurrean jaioko den arte, bakardadean eta isiltasunean lantzen dakiten barnekoitasunak dira. Topaketak Jainkoarekin egindako apustu bat beraren konplize bihurtu ditu bi emakumeak. Biek onartu dute elkartasunean.

22

Larunbata /
Zapatua

ABENDUA / GABONILA

Abendualdiko 3. astea.

San Honorato Tolosakoa (Frantzia), *gotzaina*.

Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea*
(*Jesusen Bihotzaren misiolariak*).

[1 **Samuelen liburutik 1,24-28**: Anak eskerrak eman, bere se-mearen jaiotzagatik. **Salmoa: 1 Samuelen liburutik 2**: Jau-nagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.]

† **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,46-56.**

Aldi hartan, Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat
neure barrua,

Jainkoa baita nire salbamena,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guz-
tiek,

handiak egin baitizkit Ahalguztidunak;

santua da haren izena,

eta haren errukia gizaldiz gizaldi

begirune diotenengana.

Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu;

bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu
ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta es-
ku-hutsik bidali aberatsak.

Lagun etorri zaio bere morroi Israeli,

bere errukiaz oroiturik;

hala zien gure gurasoei hitzemaña,

Abrahami eta ondorengoei betiko esana».

Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero,
etxera itzuli zen».

San Honorato Tolosakoa (Frantzia), *gotzaina*.Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea**(Jesusen Bihotzaren misiolariak)*.

Maria lehertu egin da eta kantuz ekin dio, eta Elisabete-gan aurkitu ditu entzungo dioten belarriak. Txikitatik ikasi zuen bere burua auzokoen begietan ikusten, eta gazte, pobre eta birjina nabari zuen bere burua, txiki gizarte patriarkal batean. Baina bere burua Jainkoaren begietan ikusi zuenean, den-dena aldatu zen. Poz-pozik jarri zen, eta zorioneko sentitu zen. Zen guztia eskaini zion Jainkoari: hona Jaunaren zerbitzaria. Aldi berean onartu zuen bera gainditzen zuen misterioa ere: «Gerta bedi nigan zure hitza». Posible denaren zerbitzari apal, posible ez denaren misterioa lantzen dugu.

Gizakia Jainkoaren lankide

Bai, badakit Jainkoak bakarrik ematen ahal duela bizia;
baina zuk laguntzen ahal diozu bizia ematen.
Jainkoak bakarrik ematen ahal du fedea;
baina zuk egiten ahal duzu zeure testigantza.
Jainkoa bakarrik da esperantza ororen egilea;
baina zuk laguntzen ahal diozu zeure adiskideari hura aurkitzen.
Jainkoa bakarrik da bidea;
baina hatza zara zu harengana nola joan erakusteko.
Jainkoak bakarrik ematen ahal du maitasuna;
baina zuk erakusten ahal diezu besteei nola maitatu.
Jainkoak bakarrik erakusten ahal du nola gorde edo luzatu bizia;
baina zuk zeure esku duzu hura beterik ala hutsik gotea.

(José Luis Martín Descalzo; hemen zatitxo bat)

§ Mikeas profetaren liburutik 5,1-4a.

Honela mintzo da Jauna:

«Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zугandik aterako da Israelen buruzagia.

Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa.

Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte.

Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira.

Sendo eutsiko dio

eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez,
Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz.

Lasai biziko dira herritarrak;

handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino,
eta bakea ekarriko du».

[Sal 80 [79]: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.]

§ Hebrearrei gutunetik 10,5-10.

Senideok: Kristok, munduan sartzean, dio:

«Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan.

Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan.

Abendualdiko 4. astea.
San Joan Kety-koa, *apaiza*

Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan nitaz idatzia».

Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko».

Lehenengo kultura kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidetz, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.

Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!».

Dena alai. txiki, berri eta salbatzaile da gaurko irakurgaitan. Nazaret txikitik irten da Maria Judako mendialdean galduta den herrixka baterantz, han bizi zen Elisabet beraren lehengusina Zakarias bere senarrarekin. Bere lehengusinari lagundu nahi

Abendualdiko 4. astea.
San Joan Kety-koa, *apaiza*

dio haurdunaldiaren azken hilabeteetan, berearen lehen hilabe-
teak egiteaz batera. Zerbitzu beroaren ildo honi berari atxikiko
zaio Jesus beraren semea, gure zerbitzaria.

Pixkana prestatzen ari gara Eguberrietarako, geure zentzu-
menak findu eta gauza txiki eta ezkutukoetara fokatzera ohitzen,
geure urduritasun bizia sosegatzen, gai izateko gelditu eta haur-
dunaldi baten mantsotasuna kontenplatzeko, ikusteko Jainkoa-
ren sortzea gure lur honetan eta berari antzemateko haur jaiobe-
rri batengan Betleem herri txikitik kanpo, berari harrera egiteko
bere artaldeak ingurunean zaintzen dituzten artzainekin batean.

Gizon egindako Semearen aurpegia pixkana joango da
zehazten. Oraingoz, hurbil gaitezen izenik nagusienetara. Eli-
sabet eta Mariak beren topaketan historia bakar bat eho dute.
Jainkoak harriarazi gintuen Betleemen eta guztiok harriaraziz
jarraitzen du gaur egun, baldin eta bihotza eta zentzumenak
prestaturik baditugu bera aurkitu eta Eguberri hauetan berari
harrera egiteko.



Zorionekoa zu sinetsi duzulako!

Abendualdiko 4. astea.

Eguberri-bezpera.

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob, David...

[2 Samuelen liburutik 7,1-5.8b-12.141.16: Daviden erreinuak betiko iraungo du Jaunaren aurrean. Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1,67-79.

Aldi hartan, Zakarias, Joan haurraren aita, Espiritu Santuaz beterik, profeta bezala mintzatu zen, esanez:

«Bedeinkatua Jauna, Israelen Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena!

Salbamen-indarra digu eman bere morroi Daviden etxean.
Hala hitzeman zuen antzinatik bere profeta santuen ahoz:
salbatuko gintuela geure etsaien menpetik, gorroto gaituzten guztien eskutik.

Horrela agertu du gure gurasoenganako errukia
eta oroitu da bere itun santuaz,
gure guraso Abrahami egindako zinaz:

berak emango zigula,
etsaien eskutik askaturik,
beldur gabe bera zerbitzatzea,
santu eta zuzen izanez haren aurrean
geure bizitza guztian.

Zuri, berriz, haurtxo horri,
Goi-goikoaren profeta deituko dizute,
Jaunaren aurretik joango baitzara hari bidea prestatuz, era-
kustearren haren herriari salbamena, beren bekatuen
barkamena.

Abendualdiko 4. astea.

Eguberri-bezpera.

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob, David...

Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertuko zaigu goiz-eguzkia zero goitik, ilunpean eta Herio-itzalean daudenei argi egitera, gure oinok bake-bidean zuzentzera».

Judu-herriaren esperantzarik ederrenak, milaka urtetako bere historiarekin, Zakariasen abestian aurkitu du bere hitza. Berreskuratu du Zakariasek hitza eta berria da. Bederatzi hila-beteko bere isiltasunean joan da hazten etorkizun bedeinkatuko hitz hori; bitartean, Elisabet emaztearen sabelean forma hartzen ari da Jesusen aurrelaria. Ez dio axola inguruabarrak ilun eta mugiezin izana. Bere poza ere ez du mugatu seinaleen txikitasunera. Espirituaren esperientziatik mintzo da Zakarias, eta abestiaz adierazi du. Salbamen unibertsala iritsi da, eta Joan bere semea hezten saiatuko da, Jesusen aurrelari izan dadin.

Mateok eta Lukasek ez dute zehazten jaiotza-egunik eta urterik. Palestinako judua izan zen Jesus, Joserekin ezkondua zegoen Mariaren semea zen; Jose, berriz, zurgina, igeltseroa edo hargina zen. Betleemen edo Nazareten jaio zen Jesus, gure aroa baino lehenago, 7 eta 4 urte artean, Augusto enperadorearen garaian. Nazareten hazi zen eta “nazaretar” deitu zioten.

Jesusen jaiotza abenduaren 25ean ezarri izanak badu zerikusirik neguko solstizioan eguzki-jainkoaren izenean paganoek ospatu ohi zituzten jaiekin. Jesusen jaiotze-eguntzat 25a aukera zuritzeko, Kristo “zuzentasun-eguzkia” (Malakias 4,2), “goitik datorren astroa” (Lukas 1,78) eta “munduaren argia” (Jn 8,12; 9,5) dela esan zen. Beraz, data sinbolikoa da abenduaren 25a.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Gauerdiko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

§ **Isaias Profetaren liburutik 9,1-3.5-6.**

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itza-
lean bizi zirenei distira egin zien argiak.
Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozetan dabilta
zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakin-
nak banatzean izaten den atseginez.
Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzai-
learen aginte-makila,
Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe.
Suak erreko ditu eta erraustuko
lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak
eta odolez zikinduriko jantziak.
Haurra jaio zaigu,
semea eman zaigu;
hari eman zaio aginpidea,
eta haren izena Kontseilari harrigarri,
Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaile.
Handia izango da haren aginpidea, amairik gabea bakea Davi-
den tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zu-
zenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino.
Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

[Sal 96 [95]: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.]

§ **San Paulok Titori gutunetik 2,11-14.**

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-ema-
kume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik ga-

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Gauerdiko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

beko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurritz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zoriontsua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira.

Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen- semea izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haientzako lekurik.

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauzez beren artaldea txandaka zaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzaientzen, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuete, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana».

Jaunaren Jaiotza (Eguberri).
Gauerdiko Meza.
Betleemeko Andre Maria.

Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goresten zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

Belaun ez bizi izan da gizadia Jainkoaren aurpegia noiz ikusiko. Leku urrunekotara joan izan da erromes, eta espiritu-prozesu latz eta mingarriak bizi izan ditu, sarbidetu edo inizatuentzat bakarrik irisgarri ziren prozesuak, alegia. Azkenean agertu da, haurtxo egina, amaren altzoan, eszena samurrenik samurrenean, guztiak beragana hurbiltzeko moduan, ez hesirik, ez aterik, ez distantziarik, ez erritu korapilatsurik ez dagoelako.

Ez da zertan ahuspez erori beraren aintzak txunditurik, ezta ere begiak zertan itxi izuak itsuturik, baizik eta guztiz bestela: zentzumen guztiak adi hurbildu behar duzu beragana eta zur eta lur kontenplatu bera bihotz harrituaz, eta besoetan hartu bera, eta poz-alaitasunak barnetik lilura zaitzan utzi, zeren eta Jainkoaren Semeak esan baitezake jada «gu», gizakiok, mugagabeki maitatuok.

Harriarazi egin gaitu. Zenbat aldiz eskatu diogun lepoan har dezan berak gure zama, eta hona: bera geure etxean har dezagun eskatuz salbatu gaitu, geure egitasmoetan eta geure esperantzetan onar dezagun eskatuz. Gau ilunean jaio da, artzainengandik hurbil, auzoko ditu-eta. Horrela jarraituko du: etorri eta iritsiz, historiaren azkeneraino, herrien gau ilunetan, haur migratzailengan, aldirietako jendeagandik hurbil, eta harrera egiten badiogu, salbatuak gara.

26

Asteazkena / ABENDUA / GABONILA
Eguaztena San Esteban, lehen-martiria.

Santa Bizenta Lopez Bikuña (Kaskante [Nafarroa]
1847–Madril 1890), *fundatzailea* (Maria Sortzez
Garbiaren Erlijosak).

§ Apostoluen Eginak liburutik 6,8-10; 7,54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herrian.

Hartan, zirenear eta alexandriarrez osatua zegoen eta «Askatuena» zeritzan sinagogako batzuk, ziliziar eta asiar batzuekin batera, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari.

Estebanen hitzak entzutean, barrua lehertzen jarri zitzairen amorruez eta hortzak karraska haren kontra. Baina hark, Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinaldean. Eta esan zuen: «Horra, zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean».

Orduan, haiek, garrasika, belarriak itxi zituzten eta denak batean gainera oldartu zitzaizkion; hiritik atera zuten eta harrika hasi zitzaizkion. Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten testiguen beren jantziak. Harrika ari zitzaizkion bitartean, Estebanek honela egiten zuen otoitz: «Jesus Jauna, hartazu nire bizia».

Gero, belauniko jarrita, ahots handiz esan zuen: «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau». Eta, hau esanik, hil egin zen.

[Sal 31 [30]: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,17-22.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan

zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez.

Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua».

Betleemgo misterioaren argian, San Estebanen jaia ospatzen dugu gaur; Esteban, lehen kristau-martiria, harrikatua haurtxo hau Mesias dela aitortzeagatik, gaur egun Aitaren eskuinean eserita dagoen Semea dela aitortzeagatik. Semeak, haitzuloan jaiotak, historiaren erdigunea bide-bazterrean kokatu du, lehengo erdigunea galarazi du, bere pobretasunaz jendearen ohiko gustu onetik atera da, tonuz kanpo ari da giza zorianari buruzko kantuan: batzuek, lehenago, alfer xahuketan jarria zuten zoriona, beste batzuk desegiten ari ziren bitartean, galtzen ziren bitartean ezkutuko bideetan eta esklaboen lanetan. Betleemen beste zorion bat hasi da.

§ 1 Joanen gutunetik 1,1-4.

Seme-alaba maiteok:

Hasieratik zen biziaren Hitza,
entzun eta geure begiz ikusia,
begiratu eta geure eskuz ukitua,
iragartzen dizuegu.

Izan ere, bizia agertu zen,
ikusi dugu eta beraren lekuko gara;

Aitarekin zegoen
eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu.

Ikusi eta entzun duguna iragartzen dizuegu,
zuek ere gurekin elkartasunean bizi zaitzeten.

Eta gure elkartasuna

Aitarekin eta honen Seme Jesu Kristorekin da.

Eta gauzok idatzi,

gure poza bete-betea izan dadin idazten dizkizuegu.

[Sal 97 [96]: Poztu zaitzete Jaunarekin, zintzook.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20,2-8.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten».

Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikas-

San Joan *apostolua eta ebanjelaria*.

lea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu.

Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

Joanek kontenplatzera gonbidatu gaitu egiazko giza gorputz batean gizon egin den Semea, berek, gizon eta emakume, besarkatu zutena, entzun eta ikusi zutena. Beraren bizitzaren bukaeran, piztu zen gorputza. Joanen garaian, goragoko jakituria bat proposatzen zuten batzuek Jainkoagana iristeko: Jesusen gizatasuna kontuan hartzen ez zuen jakituriak ari ziren. Beti bizi izan da tentazio hori mendetan barna. Gizon egindako egiazko Mesiasengandik ihes egiteko era bat da, eta zentzumenei agertzen zaien giza gorputzetik ihes egiteko era bat: gure alfer gastua gaitzesten duen premia eta guzti, gorputzarena ukatzeko era bat da: erabateko begirunea zor zaion duintasuna eta guzti, gorputzarena ukatzeko era bat. Alabaina, giza gorputz oro izan daiteke eguberri, hots, Jainkoaren agerpen.

Haurtxo Errugabe Santuak, martiriak.

§ San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 1,5–2,2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argia da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu bata besterekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu.

Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurri egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan.

Ene seme-alabok, bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzaileria Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

[Sal 124 [123]: Txoria ehiztarien saretik bezala gara libratu.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2,13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita».

Haurtxo Errugabe Santuak, martiriak.

Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gaez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari».

Orduan, Herodes erregea, Magoek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoek adierazitako denbora kontuan harturik. Honela bete zen Jeremias profetak esana:

«Oihua entzun da Raman, negar eta aiene ugari:
Rakel ari da, bere haurrengatik negarrez;
ez du kontsolatu nahi, ez baitira bizi».

Migrazioen gure garai honetan, jendea amairik gabeko gerlatik, tribu arteko sarraskitik ihesi, eta haurrak goseak eta epidemiez hilik ikusten ditugun honetan, ozena da gaurko ebanjelioaren oihartzuna. Herodes jaun eta jabe sentitu da erruga-been biziaren eta heriotzaren gain. Gaueko larritasunean ulertu du Josek Jesusekiko eta Mariarekiko bere konpromisoa: ihes egin beharra, pobreen ildoari jarraituz, eta gaez ekin dio bidaia arriskutsu bati, baliabiderik gabe, erbeste dudagarri eta mehatxagarri baterantz. Gure kostaldera iristen den migratzaile asko aita eta ama dira, beren seme-alaben erantzule, beren garaian Maria eta Jose bezala.

[1 Joanen gutunetik 2,3-11: Bere senidea maite duena argian dago. Sal 96 [95]: Poztu bedi ortzia, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,22-35.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko uea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eramán zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-*seme* guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume».

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen.

Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eramán zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez:

«Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen,

Zeuk hitzeman bezala.

Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea».

Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama

Eguberri ondoko 5. eguna.

Tomas Becket santua, *gotzaina eta martiria*.

San David, *erregea*.

Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezau-garri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian gelditu daitezten. Eta zuri ezpata batek alde alde zulatuko dizu arima».

Maria eta Jose tenplura doaz, legea betetzen duten judu jainkozale bezala. Mariak erditze ondoko garbikuntza egin beharra du. Aldi berean, beren lehen jaioa Jainkoari aurkeztu nahi diote. Behartsuen eskaintza ordainduz: bi usakume. Simeon eta Ana, Jainkoari leial zaion herriaren ordezkari dira, Jainkoaren hurbil bizi dira. Simeonek bere besoetan hartu du haurra, beso horiek orain bere betera iritsi den Itun Zaharrekoak bailiran. Beraren abestia ere geure egin beharko genuke, Jesusengan Semea ikusiz, onartuz eta gaur egun argitzat hots eginez herri guztientzat, ilun eta argi itsugarrietan guztia beharrean direnentzat.

Ben Siraken liburutik 3, 3-7. 14-16. 17b (gr. 2-6. 12-14).

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita, eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain.

Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama goersten duenak ondasunak pilatzen.

Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak.

Aita ohoratzen duena luzaro biziko da,

eta Jaunari obeditzen dionak atsegin ematen dio amari.

Ene seme, zaindu aita zahartzaroan eta ez eman nahigaberik bizi den artean; burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera eta ez gutxietsi bizi den bitartean; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekatuen ordain izango duzu.

Atsekabe-aldian gogoan izango zaitu Jaunak.

[Sal 128 [127]: Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan dabilena!]

San Paulok Kolosarrei 3,12-21.

Senideok: Jantzi zaitzte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratu, santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko.

Familia Santua.

San Felix I.a, 26. *aita santua.*

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezten.

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2,41 52.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituzenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatuak gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemengelditu zen, haiek jakin gabe. Erromeskideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zion: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik

neure Aitarene etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien.

Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Jesus, berriz, aurrera zihoan jakindurian, gorpuzkeran eta grazian, Jainkoaren eta gizakien begietan.

Jesus eratuz doa bere nortasuna familia baten sutondo be-roan; ez du ikusiko bertan baliabide ekonomiko handirik, baina bai maitasuna, kalitate handiko harremanak sortzen dituen eta, bere lanaz, landa-jende pobreen herri batean beharrezkoa bilatzen duena. Jesus haziz doa eta garatuz guztien pozerako, familiarterako eta auzokoen gozamenerako.

Harreman guztietan izaten da gardentasun bat, batzen eta alaitzen gaituena. Izaten da, ordea, beste baten misterioa ere, inoiz ere ulertuko ez duguna guztiz, inoizka mina eragiten diguna. Bazen horrelakorik Nazaretoko familian ere. Jesus tenpluan gelditu denean, Mariari esan dio, berak Aitarene gauzetan jardun beharra duela. Jakina, Jesusek sufriarazi zien gurasoei, Mariak haurdun gertatzearekin Joseri sufriarazi zion bezala. Ebanjelioak dio, Mariak ez zuela ulertu, baina hitz hauek bihotzean eramaten zituela, bere maitasunean. Eta guk, non daramagu besteen misterioa?, kontrako eztarrian?, urdailean harri bat bailitzan, onartu gabe? Gainerakoez ulertzen ez duguna bihotzean daramagunean, lagun egiten ahal diegu beren misterioan, eta, onarpen hori dela medio, ongi kokatu ahal izango dute berek beraien bizitzan garatzen ari dena, dela narriadura-egoeratan, dela hazkunde gozagarrian.

Eguberri ondoko 7. eguna.
 San Silvestre I.a, *aita santua*.
 Santa Columba, *birjina eta martiria*.

[1 Joan 2,18-21: Zuek Jainkoagandik datorren Espiritu Santua duzue eta guztiok ezagutzen duzue egia. Sal 96 [95]: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.]

† Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1,1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza.

Hitza hasieran Jainkoarekin zen.

Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin.

Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiak sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hitza zen egiazko argia,

mundura etorriz gizaki guztiak argitzen dituena.

Munduan zegoen

eta, mundua haren bidez egin den arren, munduak ez zuen ezagutu.

Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu.

Onartu zuten guztiei, berriz,

haren izenean sinesten dutenei, alegia,

Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.

Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere,

Eguberri ondoko 7. eguna.

San Silvestre I.a, *aita santua*.

Santa Columba, *birjina eta martiria*.

Jainkoagandik baizik.

Eta Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua,
eta ikusi dugu haren aintza,

Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari
dagokion aintza.

Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen
nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurre-
tik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”».

Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia gra-
ziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia
eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du
inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme
bakarrak ezagutarazi digu.

Amaitu da urtea. Galdera bat degigute gaurko irakurgaiek,
bizi izan dugunaren balioa aztertzeko eta hastera goazenari no-
rabide bat emateko. Onartu al dugu argia ala nahiago izan dugu
iluna? Gu geu zer garen eta geure ingurunean dagoena garbi
ikusteko aukera ematen digu argiak. Askotan iluna aukeratu
ohi dugu, errealitateko eta geure baitako zerbaite ikusi nahi ez
dugunean ezkutatzeko. Egunero ari dira ateratzen egun-argira
itxuraz ohoragarri den jendearen ustelkeriak. Hain sarri ez bada
ere, agertzen dira besteekiko konpromiso miresgarriak ere, egu-
neroko bizitzan ezkutuan gertatu ohi direnak. Argitsua da mai-
tasuna. Argi da Jesus.

**OTOITZAK
ETA DEBOZIOAK**



VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)

(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren
eta bidal zerutik
zure argi izpia.

Zatoz, gaixoen Aita,
zatoz, dohain emaile,
zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina,
etxelagun atsegin,
sargorian haize fin.

Lan artean atsedean,
nekean aringarri,
malkoetan pozgarri.

Zure laguntza gabe
ez du pertsonak ezer,
ez du ezer on denik.

Garbi, zikin dagona,
busti, lehor dagona,
zauriak oro senda.

Zurrun dena bigundu,
makur dena zuzendu,
hotz dagona berotu.

Zugan usteon duten
zintzoei isuri
zazpi dohain zerutik.

Zintzo saria eman,
osasun hil artean,
poza betierean.

Amen.

VENI CREATOR SPIRITUS

ZATOZ ZINTZOEN BARNERA (Orixe ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziz bihotz hauek,
zu baitzaituzte egile.
Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain,
ur bizi, su, maitasun,
eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,
Aitaren eskuin hatza,
apostoluei hitzemaña,
haien ahoetan hitza.
Argi zaiguzu zentzua,
suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu
argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia
eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula,
urrun zaiguzu kaltea.
Erakuts eiguzu Aita,
harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna
sinets zagun beti ere.
Aitari, ta hilengandik
berpiztu zen Semeari
eta Gogo Gurenari
edertasun orain, beti. Amen

ESPIRITU SANTUARI

(Mercier kardinala)

Espiritu Santua, nire arimaren arima,
Espiritu Santua,
nire arimaren arima, adoratu nahi zaitut,
argitu nazazu, gida nazazu,
adoretu nazazu, kontsola nazazu,
esadazu zer behar dudan egin,
agertu niri zeure aginduak.

Hitzematen dizut, egingo dudala
nigandik espero duzun guztia;
onartuko dudala
gerta dakidan utziko duzun guztia,
egizu, soilik, ezagut dezadala zure nahia.

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.
Bedeinkatua haren izen santua.
Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gi-
zona.
Bedeinkatua Jesusen izena.
Bedeinkatua haren bihotz txit santua.
Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.
Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.
Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.
Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.
Bedeinkatua haren sortze santu eta garbia.

Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.
Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.
Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.
Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna,
sakramentu miresgarri honetan zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;
arren erregutzen dizugu: beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,
zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.
Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

KOMUNIO ESPIRITUALA

Sinesten dut, Jesus,
presente zaudela aldareko sakramentu santuan.
Maite zaitut gauza guztien gainetik,
eta neure bihotzean hartu nahi zaitut.
Baina, une honetan ezin dudalarik hori egin,
zatoz espirituz nire bihotzera.
Ez utzi niri, ene Jesus, zugandik sekula apartatzen.

GURUTZE BIDEA

HASIERA

V/. – Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.
R/. – Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.
V/. – Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna!
Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,
eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;

Otoitzak

emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,
izan gaitzela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazaretoko Andre Maria, Doloretako Ama izan zinen;
inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean
izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/. – Amen.

GELDIALDIAK

Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.

(geldialdi bakoitzaren ondoren
segidako hau errepikatzen da)

V/. – Adoritzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. – Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

Bigarren geldialdia: Jesus gurutzera daramala.

Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.

Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.

Bosgarren geldialdia: Zirenarrak Jesusi lagundu.

Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.

Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.

Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.

Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.

Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.

Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.

Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.

Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.

Hamalagarren geldialdia: Jesus hilobian.

Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/. – Egin dezagun otoitz:

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba haueti;

Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,

gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;

egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,

parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,

Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.

R/. – Amen.

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra,

gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!

Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok;

zuri aiezka, antsiaz eta negarrez

negar-herri honetan.

Otoitzak

Ea, bada, itzul itzazu gugana
zeure begi errukitsu horiek,
eta erbeste honen ondoren
erakutsiezaguzu Jesus,
zure sabeleko Seme bedeinkatu hori.
O bihozbera! O errukiorra!
O Maria Birjina gozoa!

–Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.

–Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitzen.

ZURE BABESERA GATOK

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatok ihesi,
Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik
behar ordu estuan;
arrisku guztietatik
onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK (astelehena eta larunbata)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK (asteartea eta ostirala)

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

AINZAZKO MISTERIOAK (asteazkena eta igandea)

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK (osteguna)

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

OTOITZA MISTERIO BAKOITZAREN ONDOREN

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera,
zaindu gu geure etsaietatik,
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.
Jainkoari eskaintzearen eredia. Otoitz gure alde.
Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.
Maria, Jainkoaren herriko lagun alai. Otoitz gure alde.
Maria, gizadi berriaren eredia. Otoitz gure alde.
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

JAINKOAREN BILDOTSA

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
 - Barkatu, Jauna.
 - Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
 - Entzun, Jauna.
 - Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua.
 - Erruki, Jauna.
 - Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
 - Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.
- Egin dezagun otoitz.
- Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,
libra gaitzazu mundu honetako tristuratik
eta emaguzu zeruko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

INAZIO

Inazio, gure patroï handia, / Jesusen konpainia / fundatu
eta dezu armatu, / ez da ez etsairik / jarriko zaizunik
inolaz aurrean / gaurko egunean,
nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.
Zure soldaduak / dirade aingeruak,
zure gidaria / da Jesus handia.
Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.
Ez dauka fedeak, / ez kristau nireak,
ez dauka beldurrik / inongo aldetik.
Inazio hor dago, / beti ernai dago,
armetan jarria / dauka konpainia,
txispaz armaturik / bandera zabalik,
gau ta egun / guk guztiok / bakea dezagun,
beti gau eta egun.

KRISTOREN ARIMA

(anonimoa, XVI. mendea)

Kristoren arima, santu egin nazazu.
Kristoren gorputza, senda nazazu.
Kristoren odola, birbiztu nazazu.
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.
Oi Jesus ona, entzun nazazu.
Zeure zaurietan gorde nazazu.
Zugandik alde egiten ez utzi niri.
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.
Heriotzako orduan deitu nazazu,
eta joanarazi nazazu zugana,
zure santuekin batean
mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

HAUSNARTZEKOAK

ZERUKO AITARI

(San Antselmo)

Gure Aita, Maitasun bete zara,
eskerrak zeure irudiko nahi gaituzulako
eta horretara iristeko bidea eman diguzulako,
gero eta erantzukizun handiagoaz.
Erregutzen dizugu emateko guri
beti indar gehiago, ur geldituz ez gaitezen,
baizik eta zure izate errukitsura hurbildu.
Makurtu zaitetz eskatzera Andre Mariari
jar dezan bere konfiantzaren laguntza osoa
gu zugana gidatzeko.

ZERUKO AITARI

(Charles de Foucauld)

Ene Aita,
zure eskuetan dut uzten neure burua;
zugan dut uzten naizen guztia, zugan neure ustea.
Egizu nitaz nahi duzuna;
zernahi egiten duzula ere,
eskerrik beroenak nik zuri.

Prest nauzu edozertarako, den-dena onartzeko.
Nigan zure nahia egiteko bada,
sorkari guztietan zure nahia egiteko bada,
ez dut besterik nahi, ene Jainko.

Zure eskuetan dut uzten ene arima;
osorik demaizut, ene Jainko,
ene bihotzeko maitasun guztiaz,
maite-maite zaitudalako,
eta maitasun-beharra dudalako neure burua zuri ematea.
Zeure eskuetan uzten dut neure burua azkenik gabeko kon-
fiantzaz,
neure Aita zaitudalako.

KRISTO BERPIZTUAK MAGNETIZATURIK

(Eloy Bueno de la Fuente,

El Mensaje de Fátima, 2013, 178. or.)

«Berpiztuak (eta haren presentzia pneumatikoak) magneti-
zatu egin ditu apostoluen gogo-ahalmenak, beragana era-
kartzeko; «eskatogizatu» egin ditu piztueraren errealitatean
hein batean parte izan dezaten; alegia, kreazio berrian, betea
izango den kreazioaren geroan. Iturburu honetatik datorkie
konbentzimendua, testigu bihurtu dituen: lurreko beren

erromes-izaeratik beretik dira piztueran izango dugun bizi
betearen elkartasunaren lekuko»

JESUSEK DIO

(Anonimoa)

ARGIA deitu didate, bai, baina ez didate sinesten.
BIDEA deitu didate, bai, baina ez naute aitortzen.
BIZIA deitu didate, bai, baina ez naute desiratzen.
MAISUA deitu didate, bai, baina ez didate jarraitzen.
JAUNA deitu didate, bai, baina ez naute zerbitzatzen.

JESUS, ZURE GURUTZEAK NEURE GURUTZEA DIT ARINTZEN

(Manuel J. Fernández, S.J.)

Jesus, zure gurutzeak
neure gurutzea dit arintzen ...

Jauna, astuna dut neure gurutzea,
mingarri dut, askotan diot uko egiten, ez dut nahi izaten...,
batzuetan ezin gehiago gertatzen naiz.

Jesus, gogaikarri zait bakardadea, tristura...,
ezin onartu dut neure miseria, umilazioa...,
ez dut nahi izaten porrota, ezta oinaze fisikoa ere...
Jauna, neure gurutzeak zapaldu egiten nau...

Jesus, zure gurutzeak
neure gurutzea dit arintzen.

Jesus, zuk ez zenuen aukeratu gurutzea, ez zenuen nahi
izan...,

zuk ere nekez onartu eta sufritu zenuen zeure gurutzea...,
horregatik egiten zenion Aitari otoitz...:

«Ahal bada, urrundu nigandik kaliza hau...»;
baina onartu zenuen zeure gurutzea.

Horregatik, Jesus, zure gurutzeak
neure gurutzea dit arintzen.

Jesus, irakats iezadazu neure gurutzea bizitzen...,
sufrimendu txikiak aurkitzen...,
arantzak..., iltzeak...,
zartailuak..., isekak...,
kritikak eta umilazioak...
Erakuts iezadazu neure gurutzea eta neure gurutzeak ikusten...,
neure gurutzearen misterioa... zure gurutzearen ondoan.

Jesus, zure gurutzeak
neure gurutzea dit arintzen.

JESU KRISTOK IRAKASTEN DIO GIZAKIARI

(Leon Tolstoi)

Jesus Kristok irakasten dio gizakiari
ezen baduela zerbait bere baitan
burrunba-, algara- eta ikara-bizitza
honen gainetik jartzen duena.
Iristen denak
Kristoren irakaspena ulertzero,
hegazti baten pareko sentituko du bere burua,
hegoak zituela ez zekien baten pareko
eta orain, bat-batean,
konturatu dena hegan egin dezakeela,
aske izan daitekeela,
jada ez duela zertan ezertaz beldur izan.

NOIZ ARTE JAUNA?

(Balendiñe Albizu, 1945)

Noiz arte Jauna erbestetuta
sakabanaturik ludian?
Noiz pakean danok batuta
ikusiko gera gure aberrian?

Noiz Jauna gizonak utzi
zurkaitz ta berekoi izaten?
zergaitik ez onbidez jantzi
erriak zoriok izan ditezen?

Noiz gizonaren begiak
noiz ote dira zabalduko?
ta adimen garbiz, alde guziak,
argi ote ditu ikusiko?
Illunpe onetan ero antzera,
gizonak zer egiten duan ez daki,
beste gudaren bildur gera,
Jauna, erruki zaitez, erruki!

O Jauna! gizonen biotzetan
ez dago esker Jainkorik;
alkar maiteko bagendu benetan
ez litzake izango zoritxarrik.

